





BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

**Izenburua:**

Bortziriak solasean. Ahozko tradizioaren bilduma

**Bekaren egileak:**

Nora Iriarte Oses  
Maite Lakar Iraizoz

**Argitalpen honen egileak:**

Maite Lakar Iraizoz  
Nerea Amigot Leatxe  
Aritz Ibañez Lusarreta  
Mikel Haranburu Bergua  
Asier Esparza Santesteban

**Diseinua eta maketazioa:**

M. Josune Iturzaeta Barno (Kulturmari)

**Argazkiak:**

Jon Abril, Altxata kultur elkartea, Iñaki Alustiza, Amaia Apalauza, Pello Apezetxea, Patri Arburua, Rafael Eneterreaga, Rosa Mari Errandonea, Gabi Goia, Lucía Iparragirre, Nora Iriarte, Joxema Irigoien, Maite Lakar, Patxi Larretxea, Mirari Maiz, Maitane Maritorenai, Ordoki jatexea, Gotzone Rekondo, Amaia Telletxea, Ana Telletxea, Ttipi-Ttapa aldizkaria eta Oskar Txoperena

**Argitaratzailea:**

EUSKOKULTUR FUNDAZIOA

**Sustatzailaik:**

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea



**Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra**

Lan honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat izan du,  
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egiten duen  
Argitalpenetarako Lagunten deialdiaren bidez emana

Lan honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat izan du,  
Euskarabideak egiten duen Euskara Sustatzeko  
Jardueretarako Lagunten deialdiaren bidez emana

**Lehen argitaraldia:**

Bortzirietan, 2019ko maiatzean

**ISBN:** 978-84-09-10704-9

**Lege Gordailua:** NA 1107-2019

**Inprenta:** Graficas Lizarra



Lehenik bildu, gero berriz itzultzeko. Horixe izan zen hasiera-hasieratik mankomunitate honen helburua duela ia bi hamarkada Bortzirietako ahozko ondarea biltzen hasi zelarik. Helburu bikotza, beraz.

Mankomunitatea jakitun zen euren baitan urrezko altxorra zeukaten belaunaldiak joaten ari zirela, eta haien jakituria eta bizipenak biltzearen garrantzia jabetuta, lanari ekin zion. Bilketa lan hori bi fasetan egin zuen: lehena, 2000. urtean, Bortzirietako ahozko tradizioa biltzeko beka deialdia antolatu zuelarik; eta, bigarrena, 2006. urtean, Euskokultur Fundazioarekin hitzarmena sinatura, erakunde horrekin batera, Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxiboa osatzeko egiten ari zen bilketaren barne, Bortzirietako ondarea biltzeko ardura hartu zuelarik.

Ondare hori guztia biltzearen garrantzia baztertu gabe, bildutakoa berriz gizarteratzea izan da egitasmo horien bigarren hanka; gure arbasoek ahoz aho transmititutakoa herritarrei gaur egungo bizimodu eta ohiturekin bat datozen formatuetan ematea. Horri dagokionez, bildutako materiala hainbat bidetatik argitaratzen ahalegindu da mankomunitatea.

Lehena, *Bortzirietan aditutakoak* liburua eta CDa, 2004an argitaratu zuen, 2000. urteko beka deialdiaren ondotik bildutako materialean oinarrituta. Hamarkada bat beranduago, 2014an, *Xaldun Kortin. Jolastu gurekin!* haurrentzako eta familientzako argitalpen multimedian parte hartu zuen bertze zenbaitekin batera, kasu honetan Nafarroa osoan herriz herri eta etxez etxe aitatxi-amatxien txikitako kantuak, kontuak, jolasak, ipuinak... argitara emanez. Haren ondotik eterri zen *Bortziriak, uraren magaletik* dokumentala. Eta, azkenik, esku artean duzuen hau, *Bortziriak solasean*.

Mankomunitateak bere esku izan dituen baliabide ekonomikoak nahiz giza baliabideak jarri ditu egitasmo horiek aitzinera ateratzeko. Halere, bada horiek guztiak lotzen dituen hari bat, aipamen berezia merezi duena: Maite Lakar Iraizoz. Ikasketak bukatu berri zituen gaztetxo bat bertzerik ez zen 2000. urtean, Nora Iriarterekin batera, mankomunitateak eskainitako beka eskuratu zuenean. Gerora, modu batean edo bertzean, beti presente egon da mankomunitateak ahozko ondarearekin lotuta izan dituen egitasmo guztiekin, izan ondarea biltzen jarraitzeko, edo izan horiek gizarteratzeko. Hortaz, mankomunitatetik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Maiteri gai honekiko izan duen fideltasunagatik eta bere lanerako jarrera eta gogoagatik.

Esku artean duzuen materiala ere, zalantzarak gabe, haren erabakimenari, lanerako gogoari eta borondateari zor zaio. Goza dezazuela.

**Ander Almundoz Indakoetxea**  
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea



# AURKIBIDEA

AITZINSOLASA .....	9
EGILEAK ETA LEKUKOAK .....	13
JORRATUTAKO GAIAK .....	17
AHOZKO TESTUAK TRANSKRIBATZEKO IRIZPIDEAK .....	21
1. ETXEA-FAMILIA .....	30
1.1. Etxea .....	32
1.2. Garbiketa .....	36
1.3. Janzkeria eta orrazkeria .....	39
1.4. Elikadura .....	42
2. HERRIKO BIZITZA .....	62
2.1. Herrien arteko harremanak .....	65
2.2. Klase sozialak .....	69
2.3. Auzolana / bizilagunen arteko jarduerak / lur komunalak .....	70
2.4. Pertsonaia bereziak .....	71
2.5. Toki zenbait .....	74
3. BIZITZAREN FASEAK .....	76
3.1. Sortzea eta bataioa .....	79
3.2. Haurtzaroa/gaztaroa .....	82
3.3. Ezkongaiak, ezkontza, senar-emazteak eta ezkongabeak .....	89
3.4. Heriotza .....	94

<b>4. EKONOMIA.....</b>	<b>98</b>
<b>4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak.....</b>	<b>101</b>
<b>4.2. Industria.....</b>	<b>121</b>
<b>4.3. Garraio-bideak.....</b>	<b>123</b>
<b>4.4. Kontrabandoa.....</b>	<b>126</b>
<b>4.5. Feriak, azokak, merkatuak eta saltzaile ibiltariak.....</b>	<b>138</b>
<b>5. HISTORIA/POLITIKA.....</b>	<b>140</b>
<b>5.1. Karlistak.....</b>	<b>143</b>
<b>5.2. 1936ko gerra.....</b>	<b>145</b>
<b>5.3. 1936ko gerraren ondokoak.....</b>	<b>148</b>
<b>5.5. Bertze gerra batzuk.....</b>	<b>149</b>
<b>5.6. Soldadu denbora.....</b>	<b>151</b>
<b>6. KULTURA.....</b>	<b>156</b>
<b>6.1. Erlizioa.....</b>	<b>159</b>
<b>6.2. Eskola.....</b>	<b>176</b>
<b>6.3. Besta egunak.....</b>	<b>178</b>
<b>6.4. Aisialdia.....</b>	<b>189</b>
<b>6.5. Sinesmenak eta beldurra.....</b>	<b>196</b>
<b>6.6. Musika.....</b>	<b>232</b>
<b>6.7. Erran zaharrak.....</b>	<b>246</b>
<b>6.8. Istorio barregarriak.....</b>	<b>248</b>
<b>6.9. Eritasunak eta erremedioak.....</b>	<b>257</b>
<b>7. EUSKARA/GAZTELANIA HARREMANA.....</b>	<b>270</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>277</b>

# AINTZINSOLASA

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko beka sortu zuen eta hori izan zen, hain zuzen, ondotik bide luzea izanen zuen proiektu baten hasiera, hainbat eskualdeko horrelako ekimenak martxan paratu baitzituzten. Urte batzuk beranduago, berriz, NUPek eta Euskokultur Fundazioak ondare materiagabea biltzeko proiektua martxan paratu zuten. Egun, Labrit Multimedia ere aritzen da bilketa horretan.

Beka hura Nora Iriarte Osesek eta Maite Lakar Iraizozek eskuratu genuen, eta bi urtez lanean aritu ginen grabazioak egiten, informazio guztia antolatzen eta transkripzioak egiten.

Lana entregatu ondotik ikusi genuen egindakoa osatzeko beharra; izan ere, Malerrekan eta Baztanen egin genituen lanetan transkribatzeko irizpideak aldatu eta osatu genituen, informazio guzia datu base banatan antolatu genuen eta Bortzirietan hondarrean grabatutako zenbait lekukoren grabazioak (hiztun onak gainera) transkribatu genituen, hasierako hartan letretara ekarri gabe gelditu baitziren. Hortaz, estreinako hutsune horiek betetzeko asmoz, 100 orrialde gehiago transkribatu genituen, transkripzio guztiak zuzendu eta batu genituen Baztan-Bidasoko bertze eskualdetakoekin bat egiteko, eta abar.

Izan ere, orduan 60 orrialdeko liburu bat argitaratu zen, *Bortzirietan aditutakoak* (2004), baina hainbertzeko lana eginda zegoenez, Malerrekan eta Baztanen argitaratu ziren *Malerreka solasean* (2005) eta *Baztan solasean* (2007) gisako lan baten beharra ikusi genuen Euskokultur Fundazioan. Hori da, hain zuzen ere, lana hasi eta hemeretzi urte beranduago, Euskokultur Fundazioak argitaratu duena Euskarabidearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz. Bigarren lan honetan, Bortzirietako transkribapen gehiago agertzeaz gain, bertan egin genituen eta bertako jendeak utzitako hainbat argazki ere gehitu ditugu. Horiez gain, argitalpen honek ere, Baztangoak eta Malerrekaokoak bezala, DVD<sup>1</sup> bat dakar eta bertan hautatutako pasartea aditzen ahal dira lekuoen ahotik. Pasarte horiek  ikurra daramate izenburuaren ondoan, irakurleak jakin dezan DVDan aditzen ahal duela. Era berean, DVDan azpitituluetan ageri diren testuak ere gehitu ditugu PDF formatuan, euskalkian nahiz euskara batuan, batez ere ikastetxe nahiz euskaltegietan, bertako euskara landu nahi izanez gero, modu errazean eskura dezaten bertako materiala.

Erran beharra dago ahozko tradizioa biltzea lan biziki zabala dela, aztergaiak berak eremu handia besarkatzen baitu. Lana ezin da literatura (bertsoak, ipuinak, erran zaharrak...) jasotzera mugatu; ahozko tradizioaren eremua anitez ere zabalagoa baita. Horrelakoez gain, bertze edozein kontakizun ere interesgarria izan daiteke etnografia

<sup>1</sup> DVD hau irakurgailu zaharretan agian ezin da ongi ikusi, berrieta eta ordenagailuetan, aldiz, arazorik gabe ikusten ahal da

nahiz antropologiaren ikuspuntutik: zerri-hiltzea, artazuriketa, herrien eta soroen mugak, arreoa, koplak kantatzea, gaztaina biltzea, eritasunak sendatzeko erremedioak, sinesmen eta ohitura bereziak, otoitzak eta erritu bereziak (trumoietatik babesteko otoitzak, hainbat sainduri otoitzak...), erromeriak, etab. Azken batean, bertako pertsona baten bizitza osatzen duten atalak dira ahozko tradizioaren mintzagaiak; herriaren esperientzia edo esperientzia soziala eta pertsona bakoitzaren bizipenak, hain zuzen.

Arestian erran bezala, ahozko tradizioa literatura baino gehiago da. Nabaria da ahozko tradizioaren garrantzia eta, era berean, hau jasotzearena. Beharrezkoa da belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho transmititu den herri jakintza idatziz jasotzea, herri edo komunitate baten iragana, eta ondorioz, oraina eta izaera hobeki interpretatzeko, bere literatura eta mundu-ikuskera sakonago ezagutzeko, etab. Azken batean, belaunaldiak desagertuz doaz eta horiekin batera baita memoria kolektiboa ere. Hortaz, ahozko tradizioa idatziz jasotzeko beharra azpimarratu nahiko genuke. Honekin lotutako bertze alderdi aipagarri bat ere badu bilketa honek: ahozko tradizioarekin batera, honen garraiolari edo hedatzairen euskara eta euskarazko testuak biltzea.

Begi-bistakoa da tradizio hori denboran zehar transmititu eta gureganaino iristeko bitarteko nagusia hizkuntza dela. Beraz, nabarmendu beharrekoa da ahozko tradizioak eta bertako euskarak osatzen duten bikote erakargarria gizarteari ezagutarazi behar zaiola, beti ere tradizioaren -eta bide batez hizkuntzaren- biziberritzeko pauso gisa.

Prozesua hagitz luzea izan da. Lehenbizi bi urtez jendea grabatzen aritu ginen eta, horretarako, jendea ezagutzea beharrezkoa izan zen, bai lagunzaileak eta baita lekuoak ere. Bortz herriean urrats berberak eman genituen gure helburua gauzatzeko. Lehenik, herri bakoitzeko lagunzailearekin hitzordua egin genuen, lagunzailea bera ezagutzeko eta gure asmo nahiz helburuak azaltzeko: zertan ari ginen, nolako hiztunak behar genituen, gaiak nondik norakoak izan zitezkeen, herri bakoitzean zer zen garrantzitsua...

Horren ondotik, lagunzaileak bere ustez egokiak ziren lekuoekin hitzordua prestatu eta goiz edo arratsalde batean aurkezten zizkigun. Horren bidez, konfiantza giroa sortzeaz gain, hiztun horrek jorratzen ahal zituen gaiak zein izan zitezkeen ezagutzeko aukera paregabea genuen. Bildutako informazioarekin, eta zenbaitetan bibliografiak lagunduta, grabazioaren egunean lekuoari egin beharreko galderak prestatzen genituen. Horrela, hiztunek garbi zuten zer eskatzen zitzaien, nahiz grabatzeko mementoan bertze kontu batzuk ere sartu, une horretan burura heldu zitzaielako edota lehendabiziko hartu-emanean gure asmoak argi geldituta, gauza gehiago pentsatu zituztelako. Grabatzen hasi aitzinetik, prestatutako galdetegia azaltzen genien (horrek ziurtasun handia ematen baitzien hiztunei, alde batetik, grabazioa nondik nora joanen zen bazekitelako, eta bertzetik, gai horiei buruz bazekitela ohartzen zirelako; azken batean, gehienak lehendabiziko harremanean ateratakao gaiak izaten baitziren).

Hauxe izan zen, beraz, materiala biltzeko jarraitu genuen bidea. Hurrengo pausoa bildutakoa antolatzea izan zen. Erran beharra dago Bortzirietako ahozko tradizioa jasotzeko lana izan dela gainerako lanen aitzindaria eta oinarria, baina Malerrekaokoan nahiz Baztangoan zenbait aldaketa egin genituen. Hortaz, bigarren itzuli honetan irizpideak berdindu ditugu, Baztan-Bidasoan egin diren hiru lanetan batasuna izan dadin.

Lan horretan, alde batetik, lekuo guztien zerrenda aurkituko dugu herri sailkatuta, eta, bertzetik, haien errandakoa. Pasarte horietan guztieta ez da ageri bakoitzak zer erran duen, hori izan baitzen haien adostu genuena grabatzera joan ginelarik; hortaz, irakurleak jakinen du pasarte bakoitza nongoa den, baina ez nork kontatu duen. Honekin lotuta, erran beharra dago zenbait pasartetan ez dela ageri zer herritakoa den kontakizun hori, izan ere, pertsona bera gai berari buruz luze mintzo denean, kontakizunaren bukaeran adierazi dugu herria.

Arestian erran dugun moduan, argitalpen honek DVD bat dakar; bertan, lekuoen ahotsa aditu ahal izanen da zuzenean. Audio horietan ere ez da lekuoaren izenik ageri, nahiz posible den herri bakoitzean bertakoek jakitea nor den pasarte hori kontatzen ari dena.

Hasieratik alderdi etikoa zorrotz zaintzearen beharra argi izan dugu. Cook ikerlariak (1980) dioen bezala, bi dira ikertzailearen eginkizunak: ezagutza aitzinazaraztea, baina betiere ikerketako informatzaileen duintasunari eta intimitateari kalte egin gabe. Lagun urkoarenganako begirunea edota pertsonen arteko konfiantza espektatibak -gizartean oinarrizko direnak- ezin dira hondatu. Informatzaileari xeheki eta garbi azaldu behar zaio zer nahi dugun berarengandik eta zertarako erabiliko den gero bere jakintza. Azken batean, ikerketaren esperientziak ez du oroitzapen edo sentimendu txarrik utzi behar informatzailearengan; erran genezake informatzaile hori bertze ikerketa batean parte hartzeko prest egoteko moduan atera beharko litzatekeela lehen esperientziatik. Ikerketaren baldintzez erran liteke ikertzaileak bere senideren bat parte hartzen ikusteko eragozpenik ez izateko modukoak behar dutela izan. Ikertzaileak patxadaz eta ongi prestatu behar ditu galderak eta bitartekoak, ikerketaren zeinahia ondorio iraunkorri etorkizunean aurre egin ahal izateko eran, eta gerora arazoak sor diezazkiokoen jokabideak saihestuz.

Hondar ohar bat egin nahi genuke lekuoak zein herritan sailkatu erabakitzeko orduan jarraitutako irizpideaz. Hitzunak sortu ziren herrian sartu ditugu, ez bizi diren herrian, eskatutako kasu batean izan ezik (Zalain Zoko eta Alkaiaga auzoetan, erraterako, hiru lagun grabatu genituen. Jose Esteban Telletxea eta Pakita Etxarte senar-emazteek Lesakakoak zirela erran zuten, baina Jose Fagoagak beratartzat zuen bere burua, beraz, Beran sartu genuen).

Ez genuke erran gabe utzi nahi grabazio guztiak garbitzea hagitz garrantzitsua dela. Izan ere, anitzetan gaiarekin zerikusirik ez duten eta arazoak sortzen ahal dituzten komentarioak ager daitezke; konparazio batera, norberaren intimitatea kolokan paratzen ahal dituztenak edota elkarrizketatzaleei buruzko galderak. Grabatzen hasi baino lehen, gogoratzen genien izenik ez errateko, grabazioa zein mementotan hasi eta bukatu zen, eta abar, baina, hala ere, nolabaiteko konfiantza giroan egotean, izenak, biziak txarrak, gaiarekin zerikusirik ez zuten kontuak (nobiorik dugun; gazteak nolakoak diren; beren familien gaineko kontu eta arazoak...) erraten zituzten, eta hauek guztiak kendum behar izan genituen, etorkizunean arazorik gerta ez zedin.

Era berean, ahozko testuak transkribatzeko zenbait irizpide finkatu behar izan genituen, eta, horretarako, Bortzirietan, Mallerrekan eta Baztanen gure irakasle izan zen Iñaki Caminoren laguntza ezinbertzekoa izan zen.

Irizpideak finkatzeko orduan bi helburu nagusi izan ditugu: batetik, Bortzirietako euskararekiko ahalik eta fidelen izatea eta, bertzetik, testuak ahalik eta modurik ulergarrienean ematea, helburua jakintza hori guztia berriz gizarteari itzultzea baita. Koherente izaten saiatu gara, baina zaila izan da, eredu garbirik ez baitugu izan esku artean. Kontuan izan behar da ahozkotasunaz ari garela eta ez dela lan samurra ahoz errandakoa paperera ekartztea, transkribatu beharrekoa hizkuntza mintzatua baita eta anitz urrunten baita idatzizkotik. Hizkuntza mintzatuak berezko ezaugarriak ditu eta gehientsuenak lastertasun azkarrari loturik daude. Azkartze horrek nolabaiteko kaosa dakar, errate baterako, inkestariak eta lekuoak batera solas egitea, ahoskera okerrak sartzea, hitzen arteko loturak egitea, zenbait hots galtzea, inguruko asotsa, hiztunaren ahoskatzeko zailtasunak, aldi berean etorri berri den batek edota grabazioan dagoen batek solas egitea.... Horiek guztiak zenbaitetan oztopoak sortzen dituzte erraten dena ulertzeko, eta horrenbertzez, transkribatzeko ere zailtasunak dakartzate.

Grabatutako lekuoak 50 izan ziren, erran bezala, nahiz batzuk behin baino gehiagotan grabatu genituen; dena den, kasuren batean senar-emazteak, anai-arrebak... elkarrekin grabatu genituenez, osotara 53 grabazio egin genituen.

Giza bitartekoentzako artean, alde batetik, herri bakoitzean laguntzaileak izan genituen; hauek laguntzaile izateko ezaugarri jakin batzuk bete behar zituzten: herrikoak izan behar zuten, lehen harremana lortzeko bidea emateaz gain, hiztunari ziurtasuna ematen baitzion ondoan ezaguna zen norbait edukitzeak. Gainera, laguntzaileak berak hiztun ona nor den badaki, bakoitzak zer dakien... Erran behar dugu laguntzaileen parte hartzerik gabe ezin izanen genukeela lana behar bezala egin; hortaz, bihotzez eskertzen diegu emandako laguntza. Horrez gain, hiztunekin beraiekin eta herriko jendearekin lekuoentzako zerrenda osatu genuen; hortaz, laguntzaileez gain, gure lekuoek eta zenbaitetan bertako biztanleek ere lagundu ziguten lekuorik egokienak hautatzen.

Bertze alde batetik, gure lanean lekuoek dute giza bitartekoetan pisurik handiena. Ahalik eta jenderik helduena lortzen saiatu ginen, 65 urtetik goitikoak gutxienez, bertakoak (eta ahal zen neurrian gurasoak ere bertakoak zituztenak) eta erreferentzia kulturalak Bortzirietan jaso zituztenak. Hala ere, profil hori betetzen ez zuten lekuoekin ere izan ginen eta zekitena hagitz interesgarria eta bildu beharrekoa izanik, grabatu egin genituen (gazteagoak, hizkera guztiz Bortzirietakoak ez zutenak...).

Ustekabeak onak eta txarrak izan ziren. Anitzetan, hiztunek espero baino hobeki erantzun zieten gure galderai, xehetasun ugari emanez, elkar ezagutu genuen egunean baino sakonkiago kontatuz. Bertze batzuetan, berriz, aurkezpenean gauza ugari kontatu zizkiguten, eta ongi kontatu gainera, baina grabazioaren egunean ez ziren aritu uste bezain ongi. Edozein modutan, guretzat saio oro aberasgarria eta lagungarria izan zen; izan ere, edozein grabaziok, baita hagitz ona ez denak ere, bertze baterako datu edo xehetasun jakin batzuk lortzeko aukera ematen baitu. Dena den, erran beharra dago, oro har, hiztunek gurekin izan zuten jarrera eta erantzuna hagitz ona izan zela (badira gehiago inplikatu eta erran behar zutena paperean idatzi zutenak; laguntzaileari berriz joateko erran ziotenak, etab.).

# EGILEAK ETA LEKUKOAK

Eskuartean duzun lana gauzatzeko, alde batetik, Bortzirietako ahozko tradizioa biltzen duela hemeretzi urte parte hartu genuen lagun guztiak daude, eta bertzetik, hondar bi urteotan, lan hau egituratzen, pasarteak hautatzen eta mozten, argazkiak lortzen eta sailkatzen, azpitituluak egiten... egon garen guztiok.

Jarraian, lehenbizi 2000-2001 urteetan gurekin batera aritu ziren pertsonak zerrendatuko ditugu, eta ondotik, lan hau gauzatu dutenena. Azpimarratzeko da bai orduan, eta baita orain ere jendearen prestutasuna, laguntza... Zuek gabe lan hau ez litzateke posible izanen, hortaz, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu denei.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi genieke dagoeneko gure artean ez dauden guztiei, hain jarrera onarekin haien jakintzaren parte bat ondokoei utzi izanagatik. Mila-mila esker!!!

## Egileak:



### MAITE LAKAR IRAIZOZ

Elizondon sortu zen 1978an eta euskal filologian lizenziaduna da. Egun, Berako Toki Ona institutuko Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakaslea da.

2016ko apirilaren 29an Euskaltzain urgazle izendatu zuten eta Euskokultur Fundazioko patronatukidea da.

Argitaratutako lanak, bertzeak bertze: *Bortzirietan aditutakoak* [elkarlanean] (2004), *Malerreka solasean: ahozko tradizioaren bilduma* [elkarlanean] (2005), *Baztan solasean: ahozko tradizioaren bilduma* [elkarlanean] (2007), *Baztango mintzoa erabiltzeko gida* (2013), *Xaldun kordin, jolastu gurekin!* [elkarlanean] (2014)...



### NORA IRIARTE OSSES

Iruñean jaio zen 1977an eta euskal filologian lizenziaduna da. Egun EIBZko zuzendaria da.

Argitaratutako lanak, bertzeak bertze: *Bortzirietan aditutakoak* [elkarlanean] (2004), *Zangozaldea: ibilbide historiko bat* [elkarlanean] (1998)

# Laguntzaileak eta lekuoak:

## ARANTZA

### Laguntzaileak:

Maixe Fagoaga eta Amaia Telletxea

### Lekukoak:

Mari Juli Almandoz Etxeberria  
Ramon Elizondo Elizondo  
José Ignacio Fagoaga Altamira  
Clementina Irigoien Almandoz  
Juan Bautista Irigoien Jorajuria  
Inaxi Iparragirre Almandoz  
Roman Iparragirre Altamira  
Patxiku Larretxea Bereau  
Fermin Larretxea Biurrarena  
Juanita Leiza Zugarramurdi  
Carmen Madariaga Matxikote  
Luis Madariaga Matxikote  
Joxe Mari Ordoki Almandoz  
Nicolas Telletxea Fagoaga

## ETXALAR

### Laguntzailea: Pello Apezetxea

### Lekukoak:

Kontxes Arangoa Arburua  
Juanita Ariztegi Sanzberro  
Gerardo Danboriena Danboriena  
Joxe Mari Danboriena Etxeberria  
Puri Danboriena Etxeberria  
Javier Indaburu Irisarri  
Isabel Iturria Martikorena  
Juan Maia Sanzberro  
Santiago Mitxeltorena Mitxeltorena  
Javier Sansiñena Sanzberro  
Jesus Sanzberro Elizalde

## BERA

### Laguntzailea: Jon Abril

### Lekukoak:

Agustin Agirre Irazoki  
Dolores Errandonea Altzuguren  
Joxe Fagoaga Goia  
Anttonio Irazoki Matxikote  
Rosario Irazoki Matxikote  
Cayo Lazkanotegi Rubio  
Bittoriano Mariezkurrena Irazoki  
Patxiku Martikorena Arribillaga

## IGANTZI

### Laguntzaileak:

Patri Arburua eta Oskar Txoperena

### Lekukoak:

Anizeto Etxeberria Telletxea  
Martzelino Etxeberria Telletxea  
Elvira Iturria Madariaga  
Antonio Lizardi Yanci  
Dionisia Matxikote Ordoki  
Jexux Mari Sein Larretxea  
Manuela Sein Sansinena  
Mari Paz Tranche Etxeberria  
Patxi Txoperena Urrutia

## LESAKA

### Laguntzailea: Eduardo Conde

### Lekukoak:

Dolores Apeztegia Etxeberria  
Agustin Etxabide Irigoien  
Pakita Etxarte Tapia  
Santiago Irigoien Igoa  
Pedro Lanz Antxordoki  
Carmelo Orube Iparragirre  
Jose Esteban Telletxea Mindegia  
Mañula Yanci Telletxea

Argitaratzeko, berriz, lehenik, lantalde bat osatu genuen Euskokultur Fundazioko patronatukide garen Jon Abrilek eta Maite Lakarrek batetik, eta, bertzetik, Euskokultur Fundazioan lan egiten duten Nerea Amigotek, Asier Esparzak, Aritz Ibañezek, Mikel Haranburuk eta Xabier Lozanok. Euskokulturreko langileen lan itzela azpimarratzekoada, pasarte guztiak bilatu eta moztu baitituzte, argazkiak sailkatu, material eta eduki guztiak txukun antolatu... Haiek izan dira argitalpen honen gidari nagusiak.

Halaber, Kulturkarik, bereziki Josune Iturzaetak, egindako lan bikaina eta prestutasuna ere eskertu nahi ditugu.

Horiez gain, garai bateko edota toki edo gauza jakinei buruzko argazkiak lortzeko nahiz bertzelako zalantzak argitzeko hainbertze lagun izan ditugu denetarako prest. Bertzeak bertze: Jon Abril, Altxata kultur elkartea<sup>1</sup>, Iñaki Alustiza, Pello Apezetxea, Patri Arburua, Rafael Eneterreaga, Rosa Mari Errandonea, Lucía Iparragirre, Joxema Irigoien, Patxi Larretxea, Maitane Maritorena, Oskar Txoperena eta Ttipi-Ttapa aldizkaria.

Era berean, liburu honetako argazki bilduma osatzeko, arestian aipatutakoez gain, alde batetik ditugu, Nora Iriartek eta Maite Lakarrek ateratako argazkiak (baita Malerrekan Amaia Apalauzarekin eta Baztanen Ana Telletxearekin ateratakoak ere); eta bertzetik, falta zitzaitzigun lekukoien argazkiak lortzen lagundu diguten guztiak: Gabi Goia, Mirari Maiz, Ordoki jatetxea, Gotzone Rekondo, Amaia Telletxea eta Ana Telletxea.

Akabatzeko, bertzelako zalantzak-eta argitzen aritu diren hainbertze lagun aipatu nahiko genituzke, eta horien artean, bereziki Martin Subizar, Patri Arburua, Paxkual Rekalde eta Toki Ona ikastetxeko lankideak nabarmendu nahi genituzke, edozertarako prest agertu baitira beti.

Mila-mila esker denei!

---

1 *Etxalarko xoko eta jendeak erretratoetan liburutik Etxalarko hainbat argazki jaso ditugu.*



# JORRATUTAKO GAIAK

Arestian adierazi dugun moduan, anitz dira osatu dugun bilduman aurki daitezkeen gaiak. Jarraian, labur-labur azalduko ditugu:



## 1. Etxea-familia

Etxeari loturiko gaiak (egitura, sukaldea, ura, argia, ohiturak...); etxearen sortzen diren harremanak; gorputza, arropa (bokata) nahiz etxea garbitzea; janzkera eta orrazkera (lihoa eta artilea barne); elikadura (eguneroko zein besta egunetako otorduak, ogia, zerriz hiltzea eta mondongoak, esnekiak, errezeptak...) eta denborari buruzko jakingai guztiak (ordu zaharra...) biltzen dira atal honetan.



## 2. Herriko bizitza

Hemen, Bortzirietako biztanleek inguruko herriekin duten harremana (haserrealdiak, hizkeren arteko ezberdintasunak edota siseroak barne); klase sozialak (maizterra, agotak...); bizilagunen arteko jarduerak (auzolana, gisua...); herriko etxea eta bertze erakunde batzuk; pertsonaia bereziak; toki berezi zenbait... jasotzen dituzten gaiak aurkituko ditugu.



## 3. Bizitzaren faseak

Edozein pertsonaren bizitzan dauden fazeak biltzen dira atal honetan: sortzea eta bataioa (ama ezkongabeak, teila buruan eraman beharra, elizan sartzea, atso bisita...); haurtzaroa (jostetak, zotz egiteko moduak, hizkuntza formulak, asmakizunak, burlak...) eta gaztaroa; ezkongaiak, ezkontza, senar-emazteak eta ezkongabeak (pregoia, tobera jotzea, arreoa eta dotea, ezkontza tratuak, ezkontza eguna...) eta heriotza (ohiturak, lutoa...).

## 4. Ekonomia

Laugarren atal honetan, alde batetik, lana, lanbideak eta zaletasunak ditugu (nekazaritzari loturik daudenak, onddoak, ehiza, arrantza, artisauak, ikazkinak, bertzelako lanbideak...). Bertzetik, industria (fabrikak, zentralak eta trena); kontrabandoa, feriak eta azokak ere hizpide dira.



## 5. Historia eta politika

Atal honetan gerrak (1936koa, haren ondokoak, karlistak, bertzelakoak...), soldadu garaia eta herriko istorio politiko zaharrak bildu ditugu.



## 6. Kultura

Erlilioaren barnean sailka daitezkeen gaiak (apezak eta mojak, serorak, meza laguntzaileak, sakristauak, ezkilak, ohiturak...); eskola; urte guztiko besta egunak (Eguberriak, inauteak eta bertze batzuk); aisialdia (ostatuak, musika, kirolak eta apustuak, dantzak...); musika (mota guztiako bertsoak eta kantak...); sinesmenak (sorgin eta lamien istorioak, animenak, animalienak, eguraldia igartzeko moduak, ilargiaren eragina, bertzelako sinesmenak...); ipuinak eta legendak; irri egiteko kontakizunak; eritasunak eta erremedioak... eta baita erran zaharrak ere aurki daitezke kulturaren atalaren barnean.



## 7. Euskara/gaztelania harremana

Elkarrekin bizi diren hizkuntzen arteko harremanaren ingurukoak dira mintzagai atal honetan: hanka-sartzeak, gaizki ulertzeak, euskaraz egitea debekatua izan zeneko pasarteak, herriz herri mintzoen arteko aldea...



Ikus daitekeen moduan, Bortzirietako jendearen bizitza osatzen duten arlo guztiak biltzen ahalegindu ginen eta, erran beharra dago, neurri handi batean lortu baguen ere, zenbaitetan lan zaila izan zela. Errate baterako, oikonomia eta toponimiari dagokienez, galderak egin genituen, baina ez genuen anitz sakondu. Literaturaren arloan ere, bilduma polita osatu genuela uste dugu; izan ere, kanta sail koxkorra dago bildurik, baina gehiago ere izan zitezkeen. Ipuinekin, sorginen istorioekin, laminekin, erran zaharrekin, sinesmenekin... gauza bera gertatu zitzagun. Lotsagatik batzuetan, mementoko memoria faltagatik bertzeetan, zaila izaten da horiek jasotzea. Gainera, sinesmenen kasuan, adibidez, bilketa zaila izaten da, sinesmenak errateko eskatuta ere, adibideak guk eman behar genituelako, haien zirikatu eta memoria nolabait freskatzeko. Gainerako atalak ongi osaturik gelditu zirelakoan gaude.

Bilketa lan honek ez luke zentzu handirik izanen armairu batean betiko gordeta geldituko balitz. Hagitz garrantzitsua da jakintza hori guzia Bortzirietako bizilagunek ezagutzea eta horretarako, gizarteratze prozesu egokia martxan paratzea beharrezkoa da. Bistan denez, material ugari dago eta dena ez da argitaratzeko modukoa. Gure ustez, kulturari dagozkion pasarteak izan litezke gizarteratzeko gairik interesgarri eta aproposenak, han agertzen baitira galdu diren edo galtzear dauden kontuak (jostetak, erran zaharrak, ipuinak, legendak, ohiturak, erremedioak, sinesmenak, bestak, erlijioa...). Atal guztietatik pasarte interesgarrienak transkribatu genituen, baina eskuartean duzun hau bildutako guztiaren lagin bat baino ez da.

Jende anitz inplikatu da gurekin lan honetan eta alde horretatik, eskertzeko da leukoko, laguntzaileen eta herriko jendearen laguntza. Edozein modutan ere, gurea hasiera bertzerik ez da izan, lan handia baitago oraindik egiteko eta espero dugu lan honekin ilusio eta gogo handiz jarraitzea.



# AHOZKO TESTUAK TRANSKRIBATZEKO IRIZPIDEAK

Lehenik eta behin, azpimarratu nahi genuke ez dagoela ahozko testuak transkribatzeko arau ezarririk. Gisa honetako hainbat lanetan ikusi ahal izan dugunez, badira transkribatzeko zenbait arau orokor, baina ez dira xehetasunetan sartzen. Xehetasun horietarako norberak bere irizpideak erabiltzen ditu, eta horrek hainbat buruhauste sortu digu lana bideratzekoan. Gainera, kontuan izan behar dugu euskalki eta hizkera bakoitzak bere ezaugarriak dituela; beraz, zaila izanen litzateke horientzat guztientzat irizpide bateratuak finkatzea (nahiz gauza orokorretarako irizpide berak erabili). Bortzirietako transkribapenak egiteko, Malerrekan eta Baztanen ahozko testuak transkribatzeko erabilitako irizpideetan oinarritu gara, baina Bortzirietako mintzoari egokituta. Hortaz, Bortzirietako euskararen ezaugarriak zein diren aintzat hartuta, gure lanerako egokien iruditu zaizkigun irizpideak aukeratu ditugu, hiztunak erraten duenarekiko eta bere hizkerarekiko ahalik eta modu fidelenean emateko.

Gurea transkribatze “ortografiko moldatua” izan da, eta ez fonetikoa edo filologikoa, transkribatze ortografikotik hurbil egon bagara ere, ortografia arauak ez baititugu beti jarraitu. Hau da, hiztunek ahoskatutakoa euskal alfabetoko letren bidez adierazten saiatu gara, erran bezala, Bortzirietako mintzoarekiko ahalik eta modu fidelenean, baina betiere ulergarritasunaren alde, transkribapenak ulerterrazak izan daitezten. Oroit gaitezen gure helburu nagusia testuak edozein motatako hartzalek irakurtzeko eta ulertzeko eran ematea dela.

Ahoskeraz ari garela, zenbaitetan, lekuoek erdarazko hitzak edota esaldiak tartekatzen dituzte eta gehienetan (ez beti) euskal ahoskerara egokitzen dituzte ekoizpenok. Konparazio batera, erdarazko frikari ahoskabea (/θ/ fonema, “zapato” edota “hacer” hitzetan ageri dena, erraterako) euskal erara ahoskatu ohi dute (hau da, /s/ bizkarhobietako txistukari frikariaren bitarte); edo dardarkari bakuna (/r/), berriz, dardarkari anizkun gisara (/rr/). Gaztelaniaz <z> idazten diren eta euskaraz /s/ ahoskatzen diren adibideetan *[euskar ahoskera]* jarri dugu, euskarazko ahoskera erabiltzen dela adierazteko, ez gaztelaniazkoa.

Transkribatu beharrekoa hizkuntza mintzatua da eta agerikoa da idatzitik urruntzen dela. Hizkuntza mintzatuak berezko ezaugarriak ditu eta gehientsuenak mintzo lasterrarekin loturik daude. Lastertasun horrek nolabaiteko nahastea dakar, adibidez, inkestagileak eta lekuoak batera solas egitea, ahoskera okerrak sartzea, gauza bat pentsatu eta gogora bertze bat etortzean bi ideiak nahastea, hitzen arteko loturak egitea, zenbait hots galtzea, kontakizun bat irriz kontatzea, eta abar. Horiek guztiek zenbaitetan oztopoak sortzen dituzte erraten dena ulertzeko, eta horrenbertzez, transkribatzeko ere zaitasunak dakartzate. Berebiziko garantzia du horretaz guztiaz jabetzeak, aurkeztu ditugun transkribapenak hobeki ulertzeko.

Bortzirietan elkarriketatu ditugu pertsonen ahozko ekoizpena paperera ekartzeko erabili ditugun irizpideak jarraian azalduko ditugu:

## Letra moldea

Letra arrunta lekuoaren testua emateko erabili dugu: kontaketak, kantak eta erran zaharrak. Abesti eta bertsoei dagokienez, lekuoak abesten ari direnean, gelditu egiten dira batzuetan (pentsatzeko, eztula egiteko, ura edateko...); guk ez ditugu hutsune horiek aintzat hartu, kantak osatu eta osorik eman baititugu. Hortaz, bi alditan abesten badu, eta batean hasiera osorik ematen badu eta bigarrenean bukaera, dena batera eman dugu, baita guk hasiera eman eta haiiek jarraitu dutenean ere.

*Letra etzana*, berriz, alde batetik, inkestagilearen galdera adierazteko erabili dugu; eta bertzetik, hiztunak erdaraz tartekatzen dituen hitzak eta esaldiak adierazteko. Dena dela, hiztunak erabat barneraturik eta bere hizkeran nolabait lexikalizaturik dauden hitzak letra arruntaz eman ditugu, bertzeak bertze:

*puesaparte  
eskesegun  
igual (iual...)esto  
bastantebueno (bono, beno...)  
osea(ke)porke  
klaro (kla... ) porejenplo (pojenplo...)  
yastaya  
asikeseguro*

Bertzalde, erdal hitzak direnean, baina euskararen sisteman hagitz sartuak daudenean (deklinaturik ageri direnean, erraterako) letra arrunta erabili dugu, baita euskal alfabeto sistema ere; adibidez: *dizienbren, nobienbren, setienbren, treintaiseisin...* Hala ere, batzuetan gaztelaniazko hitzetara jotzen dute euskaraz deklinatz, eta erdal hitz horiek euskarazko baliokiderik dutenean erdarazko zatia letra etzanez eman dugu eta ondotik, gidoi batekin bereiziz, letra arruntean euskarazko deklinazio marka: *Hijas de María-ko, Orfeón Pamplones-eko...*

**Letra beltza**, berriz, lekuoa ez den bertze bat elkarriketan sartzen delarik, dagokion laburdura edo izendapena emateko erabili dugu: **Ink.** (inkestagilea), **Alaba**, **Emaztea**, **Senarra**, **Erraina...**

Inkestagilearena izan ezik, bertze guztiak errandakoak letra arruntaz idatzi ditugu.

## Ikurrak

### ( ) edo parentesia

Hots bat aditzen denean, baina erabat gauzatu gabe gelditzen denean erabili dugu. Horrez gain, gure belarriak aditzen duenaz erabat ziur ez gaudenean, nahiz hiztunak apal ahoskatu duenean ere, parentesia tartekatu dugu.

### [ ] edo claudator-a

Hitz baten barnean, hotsa aditu ez, baina hitzaren erranahia ulertzeko beharrezkoa baldin bada, falta den hori claudator [ ] artean eman dugu. Adibidez: *ematten men dio sal[da], gau[za] xuri...* Ergatiboak, aditzaren morfemak, eta abar falta direnean edo aldaketa fonologikoen ondorioz aldatzen direnean ere, ikur hori erabili dugu: *neri[k] pazun, bertsolari ba[t] pazen, oañi[k] pizi, gaixtuk [g]iñen, zarra[k] pai, oie[k] pai, are[k] perriz, Irundi[k] parna...*

Testuaren lagungarri izateko egoerari buruzko zenbait azalpen eman dugularik ere claudator artean eman dugu: *[irriz], [apal-apal], [behatz lodia ondoko bi behatzen artean], eu'mun [egunen buruan]...* baita lekuoaak zerbait indar handiz erraten duenean ere: *[indarrez].*

### ... edo hiru puntutxoak

Hiztuna nahasiz gero edo pentsatzen geldituz gero erabili ditugu, isiluneak adierazteko. Errate baterako: *zarti...in.*

### (...) edo parentesi arteko hiru puntutxoak

Transkribatu gabeko testu zatia edo hitza islatzen dute; dela interesarria ez delako; dela algarak, hitz alferrak (*pues, este, karo, e...*) edo bertzelako soinuak daudelako; argi entzuten edo ulertzen ez delako; gure komentario baliogabeak tartean direlako; etab. Hala ere, komentario txiki hauek (elkarritzetan inolako eraginik ez dutenak), edo ondoko norbaitek hitz egiten badu baina ulertzen ez bada, ez ditugu beti transkribatu, kontakizuna moztuko lukeelako, hortaz, ez ditugu kasu guztietan parentesi arteko hiru puntutxoak erabili; beraz, batzuetan ez da deus ere agertuko transkribapenean, nahiz grabazioan zer edo zer aditu.

### (?) edo galdera marka

Marka honen bidez lekuokoaren nahasteen berri eman dugu, izan ere, zenbaitetan lekuokoek berek bi ideia nahasi edo gaizki erran eta, azkenean, forma nahasiak erabiltzen dituzte. Adibidez: *barrabiu (?) bat, aek iatun (?) ez, errin eradio (?) torri...*

Bertzalde, bi hotsen artean zalantza izan dugunean, baten aldeko apustua egin dugu, hortaz, batzuetan *zulo, dena...* agertuko da, bertzeetan *zolo, dana...* Batzuetan, hitzen bat argi aditu arren, ez dakigu hitz hori zuzena den eta zalantza horren aurrean ere (?) erabili dugu. Nahaste izatetik haratago baldin badoa, hau da, akats gramatikal izatera ailegatuz gero, (sic) izendapena gehitu dugu: *kañoi bat erauten du (sic) zortzi manduk; guk (sic) ola oittuketu gara, eztakit nola da (sic)...*

### "" edo bi komatxoak

Hitzunak bere jardunean tartekaturiko elkarrizketak islatzeko erabili ditugu. Erraterako: *Neska-mutil ta bono: "Guaze artaxuritze duten lekutara, iji ta aja"; erratten tziutent gurasuk: "Garbereko parin pasatzin au paratu, gurutzia!"*

### ' edo komatxoa

' komatxoari dagokionez, batetik, bi hitzen mugan bokal edo silabaren bat erortzen denean ageri da. Adibidez: *ateik' zun* 'aterako zuen', *segittk' izut zuri* 'segituko dizut zuri', *Ama'rjiñak* 'Ama Birjinak', *barax' zopa* 'baraxuri zopa', *bras' ura* 'brasa hura', *patat' ttiki bat* 'patat ttiki bat'... Bertze aldetik, hitz baten barnean bokal edo silabaren bat galdu eta errandakoa ulertzeko silaben egitura mantentzea beharrezkoa delarik ere ' agertuko da: *best'tan* 'bestetan', *bat'tikan* 'batetikan'... Horrez gain, 'Lesakako' errateko *Lesa(k)ko* moduko zer edo zer ahoskatzen dute zenbait hitzunek, baina guk denak k bakar batez eman ditugu. Azkenik, bitxia bada ere, eta Azkuek berak dakinrenari eutsiz, bertsoetan hitz baten bukaeran eta bertze hitzaren hasieran bi bokal jarraian agertzen badira, bigarren bokalaren aitzinetik [y] bat ahoskatu ohi dute gure lekuokoek. Hori adierazteko y' erabili dugu: *Argiya y'asten danian; deklaratzeria joanda y'atian; biotza y'alimatze...*

### ----- edo marra

Gutxitan erabili dugun arren, gure belarriak lekuokoak erran duena ulertzen ez duenean, \_\_\_\_\_ erabili dugu.

## Ortografia

Hasteko, /h/ fonema hasperenduna ez transkribatzea erabaki dugu, Bortzirietako hizkeran ez baita ahoskatzen. Ez dugu ahaztu behar bertze hizkera batzuetan fonema hori ahoskatu egiten dutela, beraz, zentzugabekeria litzateke gure lanean halakorik erabiltzea. Hiztunen batek /h/ antzeko hotsa egitean /h/ bera erabili dugu hots hori adierazteko. Adibideak: *hendia, baduhun...*

[j]-ri dagokionez, badakigu Bortzirietan /y/ ahoskatzen dela, hortaz, hori da hain zuzen guk erabili duguna: *yan, yakin...* Dena dela, zenbaitetan, /x/ erdarazko ahoskera ere aurkitu izan dugu, izen berezietan eta erdarazko maileguetan batik bat. Kasu horretan, [j] letra erabiltza erabaki dugu: *ajarika, juradun, traji, fijorik, kolejiua, jenealin, bajutikan, jituk, kontsejuok, kontzejal, fijaixte, imajinaziu, Juan, Joxepa...*

Era berean, [dd] erabiltza ere zilegi da zenbait kasutan: *onddua, manddirikin...* Adierazi nahiko genuke, era berean, batzuetan [dd] eta [y]-ren (eta zenbaitetan [ll]-ren) arteko muga ez dela hagitz garbia: onddo-onddun, inddartsua, urbilddu, ddenak, amilddu, zikinddu, bilddu / billu, monddongo...

Hiatoetako /i/ eta /y/ hotsen arteko muga bereiztea ere anitzetan zaila da. Lekukoak *anaia* edo *anaya* erran duen asmatzea ez da erraza, hortaz, ulergarritasunaren aldeko apustua eginez, horrelako adibideetarako [i] erabiltzeari iritzi diogu egokien: *garraio, beia, ojek...* Gure salbuespen nagusiak, bertzeak bertze, lexikalizaturik dauden ya eta yasta dira. Horiez gain, hitzari –a mugatzalea erantsitakoan [y] epentetikoa gehitzen zaiolarik, egokia iruditu zaigu [y] bera erabiltza: *zerriya, guriya, gorriya, baserriyan, oriya, xuriya, ogiya...* Are gehiago, epentesia hitzari erakuslea gehitzerakoan mantendu denean, horrela transkribatu dugu: *oriy'ura, mendiy'ori, aundiyo'itikan, paziy'ura...*

[np] eta [nb] kontsonante multzoei erreparatuz gero, gu euskara batuaren grafiari lotu gatzaizkio. Beraz: *denborin, kanbiatzen, kostunbriak...*

Bokal luze edo geminatuek ere zalantzak sortu dizkigute, batzuetan argi bereizten badira ere, bertze batzuetan bereizketa ez baita aski garbia. Horregatik, zalantza genuen kasuetan bigarren bokala parentesi artean adierazi dugu: *le(e)n, dife(e)ntzia, bate(e)...*

Akabatzeko, zenbakiak euskara batuaren arauei begiratuta idatzi ditugu: *irutn oei, oeita bi, amalau...*

## Hitzen arteko loturak

---

Ia kasu guzietan aditz nagusia eta aditz laguntzailea bereiz eman ditugu. Dena den, batzuetan biek osagai bakarra eratzen dute, hitz muga kontuan hartu gabe aldaketak jasan dituztelako. Horrelakoetan, zaila da bitan banatzea eta guk bakar batean bildu ditugu: *kuidatzeunte, gordetzeunten, kartzeunte, fusiltzeunte, arrautzeunte...*

Bertzalde, aipatu beharko genuke aginterazko adizkiek sintaktikoki ezberdin jokatzen dutela, beraz, hauek ere elkarrekin eman ditugu: *alde intzak* ‘alde egin ezak’, *bialtzak* ‘bidal ezak’, *artzazu* ‘har ezazu’...

Sandhiei begiratzen badiegu, guk ahoskerarekiko fidagarritasunaren alde egin dugu: *saltzen tzuten, izanen tzen...*

Baina badira bertzelako sandhiak ere. Alde batetik, “ez” partikulak eragiten dituenak ditugu. Horrelakoetan ere ahoskeraren alde egin dugu, partikula hori eta hari segitzen dion elementua elkarrekin idatziz. Era honetan, honelako emaitzak lortu ditugu:

- ez + z-: *etzen, etzekin, etzenun...*
- ez + n-: *enun, enaizela...*
- ez + d-: *eztakit, eztugu, eztute...*
- ez + g-: *ezkenittun, ezkenun...*
- ez + bait-: *ezpaitu, ezpaigintugun, ezpaitakit...*
- ez + ba-: *ezpadu, ezpada, ezpazen, ezpalitz...*
- ez + baldin: *ezpalin baziñen, ezpalin bazen...*

Edozein kasutan, hiztunak bien arteko banaketa garbi egin duenean, guk ere banaturik idatzi dugu: *ez dute, ez nakigun, ez zenun...*

Horrekin lotuta, [z]-z bukatzen diren hitz batzuen ondotik [y] agertzen denean ere, [y] hori [x] bezala ahoskatzen da; horrelako adibideak, betiere ulergarritasunaren alde, bereiz idatzi ditugu eta claudator artean aldaketa eragiten duen kontsonantea paratu dugu: *enai[z] xoaten al* ‘ez naiz joaten ahal’, *xuri[z] xauntzitzen* ‘zuriz janzten’, *e[z] xoan* ‘ez joan’, *e[z] xakinki* ‘ez jakinki’, *e[z] xakiñez* ‘ez jakinez’, *e[z] xittula* ‘ez zituela’, *e[z] xaiz* ‘ez haiz’...

Halaber, “baldin ba-”, “behar” eta “bait-” partikula edo egiturek aldaketa ugari eragin ohi dute fonologian. Guk horrela eman ditugu:

- Baldin ba-: *bali'madu* ‘baldin badu’, *bali'mazuen* ‘baldin bazuen’, *bali'mazen* ‘baldin bazen’, *bali'mada* ‘baldin bada’... Era horretan, garbi eta arazorik gabe bereiz daitezke aditz nagusia alde batetik eta aditz laguntzailea bertzetik.
- Behar: *i'mar* ‘egin behar’, *yua'mar* ‘joan behar’, *ma'mar* ‘eman behar’, *ego'mar* ‘egon behar’... Hitz mugan aldaketa eragin du “behar” partikulak, partikula hori bera eta aitzinetik duen aditz forma ere aldatuz; hortaz, komatxoa erabiltzeari egoki iritzi diogu.
- Bait: *zulatze'maitu* ‘zulatzen baitu’, *(i)zatte'maita* ‘izaten baita’, *eramatte'maitu* ‘eramaten baitu’, *ibiltze'maitu* ‘ibiltzen baitu’, *oztutze'maita* ‘hoztutzen baita... Modu horretan “bait + aditz laguntzailea” egitura garbi gelditzen da.

“Omen” eta bere aldaeren kasuan (*men, emen*), bereiz idatzi dugu: *ez men tzien atrebitzen, ez men dire agertu, ez men tzen goartu...* Salbuespena da, ordea: *ezpen (ezpen tzien, ezpen tzion, ezpen da...)*.

Bertzalde, erran beharrik ez dago “bait-” partikula aditzari itsatsirik doala: *baita, baitzen, baigiñen, bainun...*

“Bat” zenbatzaileak ere aldaketa fonologikoak eragiten ditu maiz. Guk horrela transkribatu ditugu horiek: *ebaki'mat* ‘ebakiren bat’, *gizo'mat* ‘gizonen bat’, *puntu'mat* ‘punturen bat’, *desgrazi'mat* ‘desgraziaren bat’... Izan ere, ulertu egiten dela uste dugu eta sobera konplexua izanen litzateke claudator artean galdu diren hotsak adieraztea.

Hitz baten azken hotsa eta hurrengo hitzaren lehendabiziko hotsa berdinak direnean, aldiz, biak adierazi ditugu (biak entzuten direnean, bakarra entzuten denean nahiz bokal luze bat aditzen denean): *ta ama, gatza atzapar, do ola, ze enugun, itten nugun...* Horri dagokionez, kontuan izan dugu hizkera horretan zenbait aditzen lehendabiziko bokala erori egin ohi dela (*kusi, torri, man...*), baina erran beharra dago aferesi hau ez dela sistematikoa. Hortaz, eta arestian errandakoarekin jarraituz, horrelakoetan aitzineko solasaren azken hotsa eta aditz hauetakoren baten lehendabizikoa berdinak direnean, parentesi artean adierazi dugu: *eske (e)tortzen, parte (e)manen, beti (i)zatte'maita...* Hitzunak hagitz garbi bereiziz gero, ordea, biak eman ditugu: *ere etzen, bere eztiyakin, arei itten, ogi iriña...*

# AHOZKO TESTUAK TRANSKRIBATZEKO IRIZPIDEAK

Ikus ditzagun orain bokal erorketak. Hizkera honen ezaugarriarik bat berezko artikuluaren galera da, baina berezko artikulua erori beharrean, izenaren beraren azken bokala erortzean ere, ‘jartza erabaki dugu: *paet' zulon, lanpar' ura, kurb' ura, tel' fuertikin, txaket' ura, zapat' txarolak, arrop' zarrak, peñ' ortan, kuadr' ura, ill' kuxkurra, kudri' guzi, katxar' oi, guar' zibillek...*

Zenbaitetan, komatxoa erabilita erran nahi dena ongi ulertzten ez denean, falta den hotsa claudator artean eman dugu, irakurleak hobeki uler dezan zer den lekuoak erran duena: *ezki[]] yotzeko, minu[tu] [ba]tzun barrenin...*

Kontsonanteak galtzen direnean, berriz, lehengo adibideetan bezala, gure irizpide nagusia ulergarritasunarena izan da. Horrela, beharrezkoa dela ikusi dugularik, eta arestian erran dugunari eutsiz, batzuetan galduztako kontsonantea claudator artean eman dugu, batez ere ergatiboak, aditz markak... galtzean, garrantzizko aldaketak gertatzean edota zer erran den ulertzeko beharrezkoa denean: *plaza[n], are[k] perriz, batengati[k] pai, betik [g]otti...* Baino, erraten dena garbi ulertzten denean, ordea, ‘erabili dugu.

Azkenik, “ere (ez)” partikularen gainean hausnarketa egin ondoren, bereiz idaztea jo dugu egokientzat. Era honetan:

- *zerbatt ere, nonbatt ere, zerbatt e...*
- *yaus ere, yaus e, yous ere, yeus e, daus ere, daus e, deus ere, deus e...*
- *batere, bate(re)...*

“Pixka bat” egituraren kasua ere antzekoa da: *pixko bat, pixko at...* baina: *pixkot, pixkat...*



# 1

## Etxea-familia



BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

Etxea-familia

1



## 1.1. Etxea

### 1.1. Etxea

#### EGITURA

##### Labeak

**Ink.:** Bueno, eta... etxearen inguruan ta orrela, e... etxe guzietan izaten zen labea, ez?

Labia itxe guzitan, denian...

**Ink.:** Eta nolakoa zen, ta ze iten tzenuten ta...?

Labia zatn tzen buztinikin eiña, zatn tzen tella puskakin ta buztinikin eiña, aolko redondo bat, zatn tzun aek, zenbatsu zanen zun? Ochenta? Ochenta, altura ochenta ola? Geixo? Ba! Ola-ola. Ta zatn tzen red... redondua, ura buztinikin iña zatn tzen. Buztin xuriyikin. Buztina badi bi klase: bata oriya ta bertzi xuriya. Ta xuriy'ura da gogorrogua, or se... eaksten da geigo. Ta itten zuten teill puskakiñ ta ladrillu puskakin ta itte ozten. Zola ladrillugin, ta gero arekin gaintikan. Ta gero, aba, ate ttiki bat zatn tzuen, ta gero sua iñ an, sua, e(z)taki[t] zematz, ori xuritu arte erratten zten, eztakit, barrena xuittu arte. Eztakit nola zatn tzen ura. Ta ge... gero, sua akautzen tzenin, bueno, akautzen, bi azpertar bota gero, ya erretzen tzenin egurra, erretzen tzenian, alde guzitara bota. Ta orduan garbi-garbi iñ, eskoba gisko bat pasatu. Eskoba zatten tzen belarrakin iña, berdikin. Karo, idorrakin eitten tzenin, itten tzen sua artu...

**Ink.:** Erre.

Ta, eitten tzen berdi(i)kin, ta berdikin alde guzitara bota, ta, artua do ogiya artu jene... ogiya, al-ala sartzen zten. Artua zaten tzen ogiyan forman eitten zutena, arto iriñakin.

**Ink.:** Eta, izaten zenuten maindire artean, guatzean berotzeko ta ola?

Bai, bai, ura zate uzten, bai. Guatzin berotzeko patze uzten manddirikin, ta gero iña uzten ogiya egin ta redonduk itte uxten. Ta artu ure postura, forma bera-berakuak, bera-bera, bakarrik ogiyak zaten zun lebadura, ta artuak ez. Artu gabi(a) zen. Ta, artu sartzen tzen, azpi(y)an gaztaña ostua pa(a)tu, ta gaztaña ostu aren gañian parat tzutzen artua. Ogiya ez, ogi(y)a al-ala sartzen zten, ta bertzia, gaztaiñ ostuakiñ sartzen zten, gaztaiñ ostuan gañin patze zten, ra! Al-ala. Ta bo... nik eztakit, denak batian, orixe enaiz oroitzet ez nola... zematz denboraz erreten tzen edo ze, beittu itten zanen zuten, segur aski ere, begituz. Ta gero gañera an dana, aren ondotikan sagar puskak sartu, saskiatsa sartu. Ta ura aste guzik, astin beiñ eitten baitzen...

**Ink.:** Ogia.

Ogiya (astian bein), zatn tzen larumtatan, jeneralin, igandeko ogi frekua zatteko...

Ta artua itten tzen, berriz, gero, aundiya zaitten baitzen, ola... Iodiya. Ta itten tzen ogiya bezala xerraka e... iñ, ta su onduan **iraltxi**, ose... iraltxi erratten genion. Ttentte pa(a)tu, zatn tzen su onduan, lurko sua, bueltan zatn tzen olko aroko burne bat, xangukin ta egoten tzena, ta aren kontra patu ttentte, zerreka-zerreka. Ta suk itn zun gorri-gorri-gorri in, ta arto xigorra erratten genion. Ura esniri bota...

(Bera)



Ogia egiteko labea



Etxalarko dantzariak

#### GURE HITZAK

**Iraltxi:** Txigortu.

## SUKALDEA

### Lehengo sukaldea

**Ink.:** Laratzarekin lotua, kantak eta gauzak izaten dira.

Bai:

“Anda Miranda  
Laratza gotti yuan da  
Ameketako urran da  
Amabitako igan da”  
Erratn tzuten mño...

**Ink.:** Ta ori zertako zen? zertako kantatzen zen?

Ezpaitakit. Aurra... aurraldi ibiltzen asi, asi kantatzen ta... Miranda or da, itxe bat.

(Bera)



Iturrira ur eske

## URA

### Ura ekartzeko tresnak

Ori, subilla ta... nola da bertzia? Pedarra. Pe... **pedarra** eztut iku... pedarrakin oriozten naiz ikuskaturikan, iturriya, ola, bestatako-do, yendi[k] geo edaten ta, gero gañera matten tzen bestan, yoatian, **boladu** bar... boladuk zatten tzien olko zuri batzuek, azukreko gauz batzuek, kao, ori baso aundi batin ek sartu ta ura despeida zatten tzen ta, artako ura freskua ekarri ta, aretan, or... orretaz oroitzen naiz. Eta or izatten tzen, ni[k] eztakit, izena raru, arka, len(o)go... ola, aundiya zen, armario gisara, ta arat artuak ta ogiyak ta altxatzeko. Ta, aren gañian, alturan, an baizen tutu aretikan muitu ta aisa edaten baitzen, ta an kontzen tzen ori.

**Ink.:** Eta ze differentzia zegoen pedarra eta subillaren artean?

Bueno, **subilla** zurezku zen, ola, redonda, beitik zabalago ta gotti miarra, kono do... nola erranen diogu... Eta bertzi zen bettitikan ola, miar-miar-miarrian gero eiña, ta ura gañera ori zen, lurrez do... artzilla do... oitikan, bai.

**Ink.:** Eta buruttia erabiltzen zen subillaren azpian?

Azpiyan bai, buruan, ura paratn tzen, olko eztaki[t] barrena ze izatten zue(n), trapo zar betia baldin bazuen e, baña erdian utsakiñ, e! Ola, redondua bakarra otan, eta gañera denak kolore difentik zanen xtun ola arek, bai.

(Bera)



Pedarra buru gainean garraiatzeko burutea

## GURE HITZAK

**Pedarra:** Ura garraiatzeko erabiltzen zen lurrezko ontzia.

**Boladoa:** Urari gehitzen zitzaison azukre gisako bola, freskagarri gisa edaten zen.

**Subilla:** Suil. Isurkariak, ura batez ere, garraiatzeko zurezko ontzia, oinarria ahoa baino zabalagoa duena eta burdinazko uztaik dituena.

## 1.1. Etxea

### GURE HITZAK

**Lastargiya:** Lastargi.  
Linterna gisara, lastoz  
egindako argia.

### ARGIA

#### Argia nola egin gaezez ibiltzeko ◎

Eta gero ura nik ikusi dut, an gottiko gizon bat fabrikara yuaten tzen, eta lastu ura lotu, o... ola, fuerte, estu-estu, eta argitako, **lastargi(y)a** izatten tzen. Argi iteko ibiltzen tzuen unaño bideño tortzeko.

(Bera)



Etxea babesteko erramua

### SAN JOAN EGUNA ◎

Bezperan, San Juan bezperan, arrats-illunabarrin iten dugu. Emen tella bat ekarri sukalderra, erramu bedeiktua, yuan den urtekua, ez aurtengua. Yuan den urteko erramu karri aat, brasa bat bot... paatu an, ta ura asitzen da ekia daila. Garrakin eztu baliyo, nere, bueno, guretzat. Kostunbria(k) dira, tonteria(k) dira, bueno, igual da. Eta euttia dala (?) erretzkin, ordun denak pasa, iru aldiz, e! “Sarna fuera, ona barrena, gaxtu kanp(o)ra” ori kantatu, batek kantatu eta denak pasatzen die, denak.

Ta gero, tell’ ura bere aekin, erramu arekin eamin ta ortxen, baratz ixkiñin ortxe utzi ta erre... erretzen da ura. Ta bueno, ura akautzen da San Juan ga... gero atin iten te ok su aundi bat, ta or ibiltzen di saltoka, biño eztute yaus errezen, ez.

**Iloba:** Baño erramu ondarra denak bota...

Bai erramua, as... atziñeko urtekua, emen errez gañekua, sobratzen dena su areri bota, ta an erre.

(Etxalar)

#### Belar zahar on ◎

Bai, belar xar on, San Juan. San Juan eguneko... bedeikazioa. Oraiñ ere izatten da. Ta, Zalain Zokon izatten ta... itxez itxe ibiltzen omen dire: “Belar xar on! Belar xar on!” galdeka, lenoko xarrak erretzeko.

(Bera)

### Alorrak bedeinkatzea

**Ink.: Eta gero, primaberan e... bedeinkatu bear dire... zelaiak.**

Kanpuak. Bai, miño oraiñ eztire tortzen, miño leno etortzen tziren. Ta etortzen tziren ori...

bueno, bakotxa(k) bere... bere itxia zunara, eta maixturrengana etziren yuaten.

**Ink.: A ez, e!**

Maixterrari ori, nagusin itxeti(k) bota. Eta ematten tzen gasna, eta ematten gunun ba kafe bat eta nai baldin bazuten, ba... gure itxin ola itten gunun, aizu! oain, bertze itxetan ezattut erratten al!

(Bera)

## ETXEETAKO OHITURA ERLIJIOSOAK

## Etxea tximisten kontra babesteko... ☺

Erramu re kuidau! Oi re gauz bat aiz delikadu zen, e! Oi genek ibilzen zen trumoia, ba(ki)zu zer den trumoia? Trumoia(k) ta ola zielikan, tximista[k] ta ola, pues, yendi ikazen da, ta segidin [indarrez] erramua... erramua paratzera an. Bixtu kandela bat ta erramua, bai. Ta erramua aunizia erre, usai ura, usai ura, ta trumoia ta... itzaltzeko, tximistak ta zea itteko, e... gua artzen tzen. Goaiñ e, goan e baa kostunbria ekartzeko trumoi o... erramuk itxetara, Erramo eunin bedeinktu ta itxera ekartzeko orik, goan e bada kostunbri uri.

**Ink.: A, trumoiak uxatzeko!**

Ba, bai, bai, tru... trumoiengatikan.

Or bada errana (b)at ere, Santa Barbara, ba ori:

*"Santa Bárbara bendita  
uste[d] está escrita  
con papel y agua bendita"  
Oi... oi erratten genun:  
"Santa Bárbara bendita  
en el tzielo estás escrito  
con papel y agua bend..."*


**Ink.: ¿Y agua bendita?**

"Y agua bendita", bai.



Emakumeak josten

(Igantzi)



Etxea eraikitzen

## Bizkar besta ☺

Bai, zerbatt obra itten tzen denborian **bizkar-bestak** itten tze(n); afari bat do matten tzen itxian auniztan, ezpazien obrero ola... mor... mordo bat, ez? Ta bertze... bertzen itxian miño ordu... orduko afaiya(k), oain, etzen kapritxo aundiik [g]abe, etzen entremesik eta orkori(k) zanen. Zaten tzen zopa, garbantzua, gauza... ori; eta gero ba! zer? ollo zarre'mat... orrekin, arrozakin do egijñak, gisaz... gero postre zerbait ta pa! usatu[k], denak kontent. Afari eerra.

(Bera)

## GURE HITZAK

**Bizkar-bestak:**

Teilitua akitzean lanean aritu ziren artean egiten zen ospakizuna.



Lesakako latsagia



Bokata egiteko konporta

## 1.2. Garbiketa

### 1.2. Garbiketa

#### GARBIKETA ◉

Ha! yendia garbitzen tzen uda partian a(g)itz ongi, zertaz an garbittu labaderuan arropa eta garbiya gelditzen tzen, e! Eta soin zar bat yauntzi, edo galtza zar batzue(k) yauntzi ta... ala! Bai, itten giñen freskatu ta gañera garbittu, m? Eta... bueno, o... orrela moldatzen tzen yendea. Ta oaiñ, itxe batzu(e)k izanen ziren difeente iñen tzutenak ta obeki iñen tzutenak ta (bueno), negu partian bada ura epeldu eta barreño batin artu ta garbittu, biño ez egunero, e! gorputza, garbitzen giñen... e!

**Ink.: Onbre, etzen posible!**

Etzen pos... etzen. Gañera, igual bedetzi... ama... amekataño bizittuketu gera itxian, da zuk ateizu kontu, denantzat nondikan garbittu bar gunun!

(Bera)

#### BOKATA ◉

Bueno, zuek **bokata** yakin nai zue nola itten tzen? Bokata. Ta, ze izatten tzen... arraska, bettiko arraska etzate guartu nolkua den?

**Ink.: Bai.**

Ori da lenaoko arraska, lenaoko *fregadera*. Ta, orretan paratzen tzen... orretan eitten tziren ori... ontziya(k) garbittu ta zerri bazka izatten zen tiña(a)kua, zerri bazkantzat. Tiñakua izatten tzen barrika koxkor bat bazala, bakarra... xabala, iru... ankan gañian. Eta, areтарa botatzen ziren zerri bazka(k) gero artatik ittko, ta ura re arraskan izatten tzen.

Ta izaten tzen pedarra, ta izatten tzen subilla. Oiek urentzat, ura garbiya... artzeko.

Eta gero... egitten tzen bokata, orretan. Ta bok... bokata egitten tzen ori... lixiba egosten tzen paze audi batzue... letoi orizko... **paze** audi betzuk izatten ziren ta e... badire oañikan gottien ere bakarra zulatuk ta... Eta etan egitten tzen autsa. Autsa xuriya gordetzen zen, orrena... sagar egurrana, xuri-xuria izatten tzelakotz. Eta gero areri xagoi koxkorak ta gauzak ematen zizazki(y)on, eta bitartian bokata... bueno, mainddirik ta garbittuk izatten tziren, dena(k) garbi-garbi (e)giñak ta zagoituak, ta ek paratuak... orretan (...), kubelan paratuk izatten ziren denak, bat banaka. Ta gero izatten tzen trapu xuri bat ekin gañian, trapo xuri fin bat. Ta gero izatten tzen autsakua, zakozko... autsakua, aretan irazteko. Ta botatzen zen arat... egosten tzenien, ori dena egosten tzenien, eta, antxen garbi-garbi itten tziren, xuri-xuriak [indarrez] gelditzen ziren. Ta itxe guzi(y)an barna laño on [indarrez] bat ek... korritzen tzen. Ta gero garbittu ta edatu, izatten tzen... edatzko tokiya buru-buruiñeko alanbria... baratz eskiñian, ta, izatten zeren amar... amabi manddire! Eta ek denak idortzen tzirenian, denak plegatzen tziren bi lagunen artian, ta boka-saskii (i)zatten tzen, boka-saski zabal bat. Uañikan... berriki samar emen izatten zen, bi **eskutxekekin**, eta onako... ok bezala egiñak, **ot-naski**(e)k ta **miraski**(e)k ta ok bazala egiñak, bakarra zabalak, aztal zabalakin egiñak izatten tziren, egurrezko, igual-igual gaztañezkua(k). Eta aretan plegatu ta paratzen ziren, dena plega-plega egiñak, eta ek urrengo bokata in

### GURE HITZAK

**Bokata:** Bortzirietan eta Iparraldeko zenbait tokitan garai batean arropa garbitzeko moduari deitzen zitzaion. Bertze toki batzuetan lixiba izenez deitzen zaio.

**Paze:** Pazia. Pertza.

**Ondaski:**  
Saski edo zare handia.

**Miaski:**  
Saski edo zare txikia.

**Esku txeke:**  
Esku txiki deitzen zaie, giderrak beharrean, saskietan eskuak sartzeko izaten diren zuloei.

bittartiño, antxen geo... egotten tziren, xuri-xuriak, usaia darioa, erramu ri ematten tzitzainaon tartian.

**Ink.: Eta errekan izaten zen arri bereziren bat, ez? Garbitzeko...**

Bokata-arriya. Bokata-arri ederrak izatten genittuen an, emen ta or ere bai, bertze ur orton, ura azkarki zatten zen ta bokata-arri ederrak izatten ziren. Udan, presara sartu ta antxen urian garbitzen tziren, ta negu(a)n berriz eskintikan. Bokata-arriyik zatten tziren.

**Ink.: Eta ematen zen zerbatt ere usai ona izattek? Arropari?**

Bai, erramu matten genion, erramu... bai.

**Ink.: Biyo ze, ola, oston... bat edo...?**

Bai, erramu adaska matten tzaion... paziri egostian.

(...) Auts pusko at eman paziiri, ta xaboiak ere bai denak xerratuk ematten tzitzazkion, xaboi koxkor guziyek gorde, ta ek xerratu ta eman. Eta, gero pazi artan desegitten tzen ta ura bota, ur ura. Aski bokata ederrak itten tziren.

(Bera)

A, bokata? Pues arropak bildu, zikiñak, eta... xagoitu, ta urin pasatu pixkot, xaboi pixko at eman ta bota arat, kuela do arat.

**Ink.: Kuela.**

Bai, **kuela** erraiten genion guk, eztakit. Eta an paratu ongi, or, pliegun, pliegun ori, ta gero paratu importaik [g]abeko zerak, trapuk ta ola gañian, aen gañin ta ero aeken gañian zera bez... bertze autsa bat zaiten tzien **utsakuk**... zakuk, estuak. Ta ort-zako, ort-zakuk erraiten gintion, ta bota an autsa eta au... auts ura ongi paratu, ta beno... poliki maiten tzaion autsa aunitz, e! maiten tzen. Eta gero, an bertan zera, ura berotu, ta guttika-guttika-guttika beroten zen ura, ura gero ta geixio, gero ta geixio... andik azpitik ateitzen tzen ura, ta ura bildu ta berriz ere bota eltz' zerarat, ta xagoi ura ta egosten tzen. Ura dena, arropa dena ongi berot arte, pues egosi arropa. Ungi yorat arte ura, ta gero... utzi ala, ta biamun goizian edo arras goizin inta, arrasaldian, ez biaun... jenealin biaunin zait... gu ala aitzen giñen... biaun goizian. Artu arropak ta ara, astua do kargatu arropez, ta yuan ta... garbitu arropak an. Ta garbitzen zen, e! Ongi garbitzen zen arropak, aiz ongi iten zen.

**Ink.: Bai, seguro, ez? Xuri- xuria.**

Bai. Bai, bai xuriya gel zen, gero azulete pixko at emaiten tzaion areri ta...

**Ink.: A... azulete.**

Ta... bai, ongi, ongi geltzen zen arropa, aitz ongi.

**Ink.: Eta koloreko arropa aparte garbitzen zen?**

Bai, bai, bai, koloreku(a) bai. Ori xuriyata... ba, printzipaleskunak iten tzien ola. Gero... kolozkua ez. Ura... ez ek etzien egosita iten.

**Ink.: Ez?**

Ez, ek ez. Ek eskuz inta, eskuz.



Bokata egiteko harria

## GURE HITZAK

**Kuela:** Bokata egiteko erabiltzen zen ontzia.

**Utsakua:** Hauts-zaku. Errautsa erabiltzen zen bokata egiteko eta arriopa zuri-zuri uzteko.



Etxegara baserria. Bera

## 1.2. Garbiketa

### GURE HITZAK

**Uriña:** Urin. Gantza, koipea.

**Zaulitu:** Zalutu. Malgutu, arindu.

**Astamenta:** Astamenda (*Mentha sp.*). Menda belarrari deitzen zaio.

Usain goxoa emateko, lurraldi pasatzeko eta kukusoak uxatzeko erabiltzen zen.



Etxean egindako xaboia



Berako bestetan

**Ink.:** Eta egostera... egosteko, ura ze egosten zen, pazin batean?

Paze batian.

**Ink.:** Ola, pazin aundi batean?

Bai, paze koskor batian. Ta... suan, olko tximenia, ori zu, ez ori bezalkuk, bertze tximene batzuk, zera bat zaiten tzen, zilintzaka zera batekin, burne bat paratu an espres gañin, ta andik artu ta... zera bat pues, paratua olko olxka batekin, ta an paatzen zen pazia, ta berotzen tzen ura, aitz ongi. Ta esniak ta denak ola egosten gintun, gaztañak ta denak, gaztañak erre re bai. Ola paratu an ta su aundiyan dena... Jo! Ola, tzaiten tzen orduan...

(Etxalar)

### Xaboia etxearen egin

Xagoia? **Uriña**, urin tzarrak zaiten die sobrantiak, eta... ek zetu, egosi, bueno ez... ura epel... ez ber... ezen o ez da berotu bar fuerte, ura epeldu, gogortu zaiten baitzen, ta ura **zaulitu** pixko (b)at ta zazpi litro uri[ñ] eta bertze zazpi litro ura. Ura palanga batin paratu, biño eternu da egitia, e! Bi ordu igual, o iru, igual. Ta sosa kaustika kilo bat. Biño boten tzen ura, sosa kaustika ura guttika-guttika-guttika. Pixko at eman, ta ordu kuarto baten burun bertze pixko bat... ta ola. Ondar aldera ez, ya maixizio biño minbere izaiten tzen aitz. Ta iten ginun xaboia, xaboia ona, e! arropa garbitzen du, garbitzen tzun arropa. Bai, bai, xaboi ona. Ta, ola, iten tzen gauza denak probexten tzen, oain biño obekio.

(Etxalar)

### ETXEA

#### Etxea garbitzea

**Ink.:** Eta len **astamenta**-edo ez... etzen...?

A bai! ori... arekiñ itten gunuen garbittu, lenogo, e! Beñon gero ya ba utzi gunun, zertaz gure ama zenak eitten tzuen aitz eskoba politak itten tzituen, bueno eskobak, redondo-redonduak eta irauten tzuten; gero areri sartu makill bat, punta zuna, zertaz biar zen, eta arekin garbitzen tzen agitz ongi. Ai ona! oi! bai, ta ze... ze erratten da? [Anttoniori erraten dio]

**Anaia:** Ezpela! [apal-apal, grabazioan aditu ez dadin]

Ezpela, ez eskoba! Ai, eskoba da erdaraz eta eus... ezpela, bueno, ezpela itten gunun.

**Ink.:** Eta gero xagona-ta erabiltzen zen garbitzeko edo... etxea garbitzeko?

Ze, (ze)?

**Ink.:** Xagonen bat edo?

Saboa? Ez, saboa ori, ok, ok eztute zaboi bearrikan, bueno, tablak eztu zaboia bearrikan, e! Bear da... bear da argia... argizegiya man, erosten gunuen plazan, edo bertzenaz ori, erliak tzittunak ere itten tzuen argizegiya, ta ura e... zera virgin erratten tzitzai... erratten gionion, e! Eta, orrela eitten genun.

(Bera)

## Kukuso belarra solairuari ◉

Gero, **kukuso belarra**. Aitzea baduzue? Kukuso belarra ibiltzen genun, gu(k) benpin ibil(i) izandukatu dugu solairuri emaiteko. (...)

Kukuso belarra(k) badu olko urin gisako pixka bat. Ta ori emaiten genugun solairuan ta brillo... brillo ateitzen tzun, e! Bai, bai, bai.

**Ink.: Eta usaia? Kukuxu belar...**

Usaia zaite zun ona, bai.

(Etxalar)

### GURE HITZAK

#### Kukuso belarra:

Kukuso belarra (*Mentha sp.*). Menda belarrari deitzen zaio. Bertzeak bertze, kuko-soak uxatzeko erabil-tzen zen.



Agustin Agirre - Bera

## 1.3. Janzkera eta orrazkera

### JANZKERA ◉

Ez, soñak erosik ez, itxin egin, zertaz nere... gu, orduan tzen emen oittura, ori... yuateko e... mo(n)jak, kolejiua, bazen... eskola bat, eskola zen, biñon bazen... berze bat erausten zizutena *Corte (y) confección*. Eta... eta egitten tzenuen, an ikasten tzenun pixko (b)at eta an ori, biño gure... nere bi aizpa zaarnak-ta ba! poliki eitten tzuten yosi, (bai), galtzak eta atorrak gizonanak eta... guretzat, zertaz ordun gañera asi sostentikan asi ta braga dena, dena itxinin bear tzen, e!

**Ink.: A ba! eta bragak nola?**

Oi! telazkuk! A seguro! (ai ei!) Gure denbo... gure denboran ba gu ola bizittu gera! Eta...

**Ink.: Eta sujetadoreak ere ola?**

Ta sujetadoriek ere...

**Ink.: Telakin?**

Telakiñ eitten geni... itten genittun, bai, bai.

**Ink.: Joe, ze artistak!**

Biarko, etzen... etzen saltzekorikan. Eta aur bat yaio bear baldin bazen, yaiotzeko zelikan, bada ein bear zenittun ator ttiki-ttikiyak, eta kamiseta... –eztaki[t] kamiseta, enaiz oroitze, akaso bazen saltzeko, eztakita dena, dena erosi itten tzen. Dena erosi ez, dena itxian egin, ez, tela erosi.

**Ink.: Tela erosi, ez?**

Tela erosi. Ta tela zatten gunun eta... eta pañuluak bolsakuk, bai, itxian egin bainika eta... eta egitten genittuen.



Asto gainean

## 1.3. Janzkera eta orrazkera



Emakumeak lutoz jantzita

### GURE HITZAK

#### Eskimel:

Kateorratz. Orratz modukoa, tolestua, mutur puntaduna, bertze muturreko itxituraren kakoan sartuz, lotua gelditzen dena.

#### Erristan eman:

Errieta eman.



Haria egiteko tresna



Zapatak eta espartinak

#### Adin batetik goiti beltzez

A! gu... gu ez e... gu ezkara ala ibilli, biñó gure antzinkuak, gure izeba at, izeba bagunun itxian soltera, eta... ama zena ta beti beltz-beltz-beltza[z] xauntziyak ibilli ziren, beti. Et... eta, eta gu, bada... lutua, nik ogeita iru urte nittulik atta il tzen eta... bi urte, beltz-beltz-beltzaz. Eta gañera urte batez manto bat, bueno mantua, ori... paratu or eta or **eskimel** batekin, eta... unela artu [burua ukituz] ta elizera yuaten giñen, egunero elizera ori... urte... bi urtez yuaten giñen, beñon urte bat mantukiñ, e! Ya gero manteliña.

**Ink.: Ori etxeko emakume guztiak? edo...**

Ez, ez, ez, bat, bat yuaten tzen elizera; bat yuaten tzen mantukiñ, e! bat.

(Bera)

### OINETAKOAK

#### Mezarako zapatak

Beno, yuate giñuken e... bi... bi do iru elkarrekin ba... batzutan, ta bertze batzutan aldiyin bat yuate giñen, ta gero ointakuk, bat pa... beti erosten tzittuzten bi numero aundiguk, nere... neretzat, nik ba nere anka beñó bi numero aundigua, bertze anaia bainun zargua, ta bertzia banun ttikigua, eta, neretzat beti erosten tzittuzten bi numeroz aundiguk ta nik in b(e)ar nittion anaia... eliztik... elizera yuateko ni yuanen nitzen zazpit(a)ko mezara, yuanen giñen, eta, nere anaia torko zen bedeztako ura igual, eta nere zapat' ek areri man bar nittion ura berriż etortzko elizera; gañera ezkenittun etxin yauntzitzen, beko karreteran yartzen genittun zapatak. Ba!

**Semea:** Eta arek bertze anaiari.

Gero arek bertze anaiari, txandaka yuate giñen, ba.

**Semea:** Oñetako berakin, bai, espartziñak; zapatak eztakit, espartziñak benpin.

Bai, bai, bai. Espartziñak, bai, zapatek! zapatek ze! Zapatak nik ez nittun emezortzi urte arte ikusi re! Oñutsik, ni beti oñutsik ibiltze nitzen.

**Semea:** Frain kaskora ira... Frain kaskora iratze ittera nola yuaten tziñeten?

Bai, ta Frain kaskoa jexten, oiko mendiy'ori da, e! Eta... bueno, yuate giñen arat, oñutsikan yuan, yuan ta torri larrez larre gañera, e!

**Semea:** Iratze ittera oñutsik, iratze pikatzena.

Beñó, gero ni tor nitzenin onat, aizu, onat etorri nitzela ogei urtetan, bizitzera, eta ez nittun jakitten ointukuk non ttuzten, paratzen nittun emen, **erristan ematzen** tziaten, ori... emen isuski zela, e! oñutsik ez ibiltzko, itsuski zela ta, paratzen nittun biñó neonek eztakitelik utzi ta: "Oi, non ttut?! -denak billa- non utzi ttut nik zapatillak?!" Ezin nittun ibilli, gero yartu nitzen, ba(i). (...)

Ba, goaiñ ere oñutsik aitzen naiz beti, uda guziyin, bai. Eta... biñó, izatte (g) enittun kalluk, kristonak zatten genittun, denak, e! Baziren lagunak, neska lagunak, bagenittun lau aizpa baziren bertze baserrin, ta... beko errotan bertzia... bertze bi

baziren, denak ola gutti gottibetti... adin iualtsukuk, denak oñutsik. Beño gero zatte... aritz giñen igande arrasaldetan, t'orrela neska kozkorak giñenin, e! Ori, bastarratzak artu ta anka-zoltikan elkarreri ateitzen sastorkak.

**Semea:** Arantzik.

Elorrin **sastorkak** eta denak, aizu! Miño zatten genun unemertzeko kallua aizu, ta, beti oñutsik ibillik; beño eri egundaño ezkiñen egotten, beñ ere, ta ebaki'mat edo eitten baldin bagenun ra! ebaki'mat o orrela, itxin zatn zuten belar bat, ebaki belarra. Ori... eitten tzen ta zatten tzen gizen-gizena belar ura; ta, ura itten tzuten xanpa-xanpa-xanpa in eta ura, axal bat, brintx' ura, gainko ura, kendu ta ola oliyukin ttip! pixkot ola untatu ta ura tak! eridetan patu. Miño medikurik nik ez nun kusi au yaio zen bitartin, ez, lemiziko mutikua in nun bitartin ez nun kusi medikurik egundaño, ta fijaixte ze sa... nola ibiltzen giñen, e!

(Lesaka)



Kubiertaz egindako abarkak eta eskalapoiak

**Ink.: Eta zapatak? Bueno, espartziñak edo...**

Bai, espartziñak o abarkak. Ta... geienbat konpontzen giñen gu ortik, Frantzia aldetik, or beti emen biño aitzintuguk zandu die ta... ortik kartzen tzien ointako gomak, egunoroko ointakuak; ortik kartzen tzie(n) ek, ekin konpontzen giñen. Or, baserri batkua[k] bagintun ezagunak eta, ekeri karrazi, numerua man, ta ekeri karrazi ta ortikan. Ala konpontzen giñen ointakoz franko dezente, ta bueno, ola yoatn tzen biziya.

(Etxalar)

## GURE HITZAK

**Sastorka:** Arantza.

Landare batzuetan sortzen diren ziri zorrotzetako bakoitza.

**Zapiña:**

Txapin. Artilez egindako galtzerdi lodia.

## ARROPA EGITEN

### Gerra denboran zakuekin jantzi ☺

Orduan denbor etan tiendatan etzen oain bezala paketatua tortzen gauza, dena tortzen tzen zakotan: garbantuak, illarrak, lentejak, azukriak, denak oiek. Ta klaro, zaku ek ustuta an gelditzen tzien, ta etik erosia, eta kla(r)o, koloria zakuana jeneral itsusi samarra da, ta aldatzeko pues... xuriya nai bazen lejiakin eiten da, ta bertzela, pues, gar... ungi garbitu ta tintatu, koloretan. Makarrik tintatzen baduzu, gero arek garbaldi guztia tinta botatzen do, ta bakarrik garbitu biar tzu beti porke beti tinta botatzen du ta gañera koloria galtzen du. Ta bueno, arekin konpontzen tziñen, ta gero gañeako galtzerdiyak-ta, oiek itxin ein, **zapiña** erraitin tzaion ardi illetik. Illi ura garbitu ta... gero, pues, geurek eiten nun, alko ma... erreminta tx... makina txar ba[t] pazen, ta ariya eiñ arekin, ta zapiñak egin ta (g)altzerdiyak, ta txaketak ere bai, bakarrik faldak zandukatu nituen ni biño txarra da aitz, pikatzen do, pikatzen do aiz fuerte. Ta bueno, ala bez... yauntziyena, pues, ala konpontzen tzen jeneralian baserriyan.

(Etxalar)



Etxalarko familia

## 1.4. Elikadura

### Kulerok

**Ink.: Eta kulerok-eta, bragak, nola egiten zenituzten? Maindire zarrekin edo...?**

Telatik... telatik egiñ, braga... maindire zartikan, maindiria bakizu beti nola autsitzenten erditik edo zangotik edo... gelditzen die pedazo batzuek obexiguak, ta etik egin bragak eta gonazpikuk ta... oiti... oie[k] denak. Ta blusak ere bai, gañe(a)kua re... falda egin ta, klaro, goiti zerbai(t) biar da, eta, gañekuak ariya arekin pikatzen do andi[k] goiti, ta, ori, pues, etik, maindire punta etik eta... ola. Denbora ek aix txarrak izanduzien yaunzkeran gañian, (es)ke etzen yeus e arrautzen al bee plantan, guziz pixko at yauntzi nai bazenuen, egunokua... bueno, oañik, biño pixko at yauntzi nai bazenuen... errira yuateko-ta aitz zalla zen ura, bai.

(Etxalar)



Baserriko lanetan



Mari Juli Almadox - Arantza

Bai, artillikin, ardiyikin, ura garbitu ongi ardiya ura, gero arrotzen tzen ola ongi ariyan-ariyan, aitz zera, aitz ongi arrotzen tzen, ta gero iten tzun attak ariya. Diabolo bat paatuko zuen ta ola ariyi in ta diabol' ura bueltaka ibiltzen tzuen. Ura gelditzen bota berriz, eta bota ariya ta... zapiñ iten, zanpiñ ariya, bai iten tzuen. Lan aundiya, astiy'aundiya biar zen, bai.

Eta galtzerdi iten pues orduan denak bazekiten. Oain ezu [ez du] yakiñen iñork ere, oaingo yendik... gaztik.

(Etxalar)

## 1.4. Elikadura

### EGUNEROKO MENUA

**Ink.: Eta... e... yateko? Nola ye... ze yaten zenuten leen?**

O...! Zardin zarra ta bakallu bazeñ azkarki!

**Ink.: Bai, e!**

Bai, bai. Bakallua, oain bakallua pixko bat(er)i artzen diogu gustua, ez? Biño orduan bakalluz ornitu zaiten giñen, ura egiye.

**Ink.: Bai, e!**

Bai, bakallua merke zen, ura zen merkina. Zardin zarra re bai, ta oi gerra ondotikan etzen yana, zardin zarrak bazien, antzintu zanen tzien, nunbait e almazen oitan ta... zardin zarrak, eztut ni(k) benpen, erraten dut, eztut zardin zarra yateko go(g)orik pizarrik ere! Ez opilla eta ez zardinzarrik! Ederki ornituak, opillaz ere!

**Ink.: Eta, e... ola eltzaria, legunbrea izaten... aunitz ere bai, ez?**

A, bai, illarrak. A, bai, **eltzariya** bai, bai, bai, oie[k] pai. Eltzari zaiten tzen, eltzari ona, ta gero zerriya iltzen tzen itxian, ta... zerriyikin ta bakallua, ta tomate pixko atekin, ta pata[ta]k prexitu(k) ta, bai, ez, yateko moldatzentzen nolbait e! Ez oain bezalkuk, klaro, oain bezala ez, miño bai, bai, yateko iten tzen.

(Etxalar)

### GURE HITZAK

**Eltzariya:** Eltzari. Eltzekaria; Eltzean, barazkiekin eta kidekoekin prestatzen den janaria.

## Opilak jan •

Ta gero zate (?) tzena errota, ta dena errota, gari yotzkua, errota berin bi, bi erro tzaten tzien, garia yotzkua ta artua yotzkua. Ta, a, garia yotzku artan yotzen genun garia, ta itten tzen pues... esnia zaten zen beti itxin naikua, pues, **aia**. Papilla, uain papilla erraten den ori itten tzen, iiñakin aski ona itten zen gañera.

**Erraina:** Aurrantzat bakarrik, do...?

E, geonentzat! Joe, bos, sei litroko eluze bat esne egosi, ta bota areri iriñ ura ta nas-nasi inta lodizen zelikan, pues, ura yan ta lo ittera.

**Ink.:** *A, afaltzeko bale, bale.*

Afaltzeko, afaltzeko, afaltzeko zaten zen. Pues opillak itten tzien, ta opilla pixko at nasi areri ta etzen txarra zatten, e! Aitz gusto ona zaten zun arto, o... iriñ arek. Ura zaten tzen guretzat lautik irutan afaria. Pues leen nola etzen zatten ogirik, pues, gu... guk zanen gintun amabi, amairu urte ogi yaten asi orduko, plantan. Gu eskolan ibiltzen giñelikan ee, beti oroitzen naiz ni zako ttiki batin, arto iriña kartzen nun goiztan. Lau baldin giñen, lau senide, xako batin. Errentan yaten genun, or eltzari maten tziutzen, ta or opillak ittko iña. Za... zenbat opillna zanen zen aren neurria? Lau opillana, opill bana. Ta gu yuaten giñen bazkalzera ta Mayi, Mari, jesus ze meritua! Igual gu ta Argaxartikuk ta igual bos-sei lagun, o zazpi-zortzi aur.

Yoan ta opillak, opillak itten arizen zen, gu yuaten giñelik opillak itten igual tla-ta-ta-ta... artzen tzun opilla eskutara oltzen, eskutan yoka, kozinara pla! kozina gañera ta kozina, sukaldia dana ketan [indarrez]. Opillak an **nabal** audi batkin flak! buelta man, flak! bertzaldera, ta arrika zuri. "A, to, iretzat!" ta, "To, bertz ia iretzat!" ta plater bat eltzaria an zatten genun, plater ya... eltzari ura yana zatten genun, ta itxetik karri zatten genun txokolte pastil' bat, do gazta puxkan bat, o zerbett ere. Pues, opill arekin gazta puxka ura yan ta plazara, pillotan aitzera. Ura zaten zen gure biziya.



Errota

(Igantzi)

## Lanean ari zirenei bazkaria eramateko modua •

Bai ta bazkariyak ta leno nola erauten tzien la... iaulkorat... pentsazu, ura re iratz pikatzen ta... emendik bazkariya iraulka aaño yuaten tzen, klaro. Andik torri ta biel... lana aunitz galzen zen. Eta bazkariya, paatu ola zea bat, buruttia erraiten genion, ola tin. (...).

**Ink.:** *Buruttia, ze emen trapo bat?*

Bai, trapo bat paatu ola... ola in ta... in ta an. Ta bazkariya erauten zten. Nik eztut eraunkatu, ez. Kontu gabe, e! Kontu gabe. Pentsazu nola domatuk zaiten tzien, nola ikasiyak, e! Nik ura ez nun iñen, ez nun iten. Kontu gabe, enitzen saiatzen e duikabe, ez biño igual nun ez saiatzia. Biño saskiyak, el!

(Etxalar)

## GURE HITZAK

**Aia:** Ahi. Edozein irin egosirik, bereziki esnetan, egiten den jateko ore arina.

**Nabal:**  
Nabala. Labana.

## 1.4. Elikadura

### Lehenbiziko gisatua



Eltzaria

Ni amairu urtetko geldittu nitzen bakarra txin, ta, ba! Aizu, Jesus Maria! beti oroitzen naiz lemiziko gixadu in nunin; le(n)biziko gisadu. Nun anai bat ibilzen tzena barkutan, e... an Tarbesera ill tzen gero. Eta, ori, barkutan ibiltz zen bakallo... arrantzan; ta, ura torzen tzen, pues, tortzen tzen igual, yuaten tziren bi illautko do iru illautko, ta beño (g)ero torzen tzen, gero illaute bat ta geigo pasazen zittun (i)txin. Ta bueno, tor tzen ura, ta nik ez nittun amairu urte do orrela ta, ori: "Ba! nik in bar dit bazkaria zerbatt ere ona". Eltzaria itten banekin, e... ori banekin zazpi urtetako, bazka... eltzaria itten: eltzi paratu, ta an illarrak-ta paratu ta gero bota tipul pixko (b)at, eta oliyo ttantta... oliyu re kupika, e! Aro, agiz gutti zatten baizen; eta zerriya zen bitartin manteka zatten genun arekin, zerriya iltzen tzenin, ta, ura akautzen baizen urte azkeneko gañera, ta nik pentsatu nun, b'ori: "Gaur anaia torria in bar dit gisadua". Ta, pues, goot tziten, bueno, yuan nun (sic) eta kar nun aragia, eman tziten dirua attak aragia itteko, garnea gisadua in bar nula ta:

- Ta bai, eiñen dun?

Ta:

- Bai! Eiñen dut nik gisadua!

Eta, kar nun aragia, eta, xetu nun aragia, ta paratu nun eltze batin, eta xuritu nittun patatak, sartu nittun bertze patata batzuk an, bota nion baratzetik ar(tu)ta perresilla, ta ura artika(n) pixko[t] pota nion, bueno, arrautu nittun guziti[k] pota nition! Oliuya ere bai bota nion gaintikan por-por-por, ta gero paratu nun sun ta egosi ta egosi ta egosi ta egosi, eta gero, aizu, ateitzen dut fuente, orrela, fuente aundira ta, eltzia dena ta, kriston gisadua, ta anaia: "Biño ze ona egin dunen!" ta "Ze ona egin dunen!". Fijaixtre nola egiña zen, e! Ta akaso ona zen!

(Lesaka)



Merienda mendian

### Eguneroko bazkaria

Guk ostattun, ps guk ongi, guk itxian ez. E, guk itxian lenogo, ni ezkondu antziñin nizelikan itxian, astian ez nugun beñ ere yaten... guk erraten dugu yakia, *razión*. Beti yaten nugun edo eltzaria: illarra do aza do oritikan, ta gero konpota do ola, sagarrak e[k] danak egosi, ta ura. Eta gero iganditako altxatzen nugun, zerriya iltzen nugun, lukainka, beti tomatin, lukainka ttik... puxka ttiki bat tomatikin ta arraultze laurden bat egosia... t'ura zatten tzen, oi! ordun besta iganditan.

(Igantzi)

**BESTA EGUNETAKO MENUA**

Ta gero Sanfermintan ta orrela zatten genun kriston besta. Ordun oi ei... eitten tzuten, Sanfermintan eitn tzuten, eiten tziren ollaskuk baserrin, Sanfermintako, ta aski onak, **galdurro** gorri-gorri-gorri eginda, ez oaingo orko oritikan ez! aski onak, ola artu ortzokin ta ezur guziya tiraka aragia ezin kenduz; ollasko onak itn tziren agi(z), differentik, e! oaingutikan. Eta ollasko itn gisadun ta gero bildotsa ere, guk ardiyik ezkenun zatten, biño bildots bat azizen tzen beti San Fermintako, eta b(u) eno, Sanfermintan ek iltzen tziren ta kanpotarrak ba! tortzen tziren kriston tokitikan pariente guziyek yategatikan, ordun; yategatik etortzen tziren! Ta ba(i) senidik eta osabak eta... orik denak. Ta, gero, ura... bildots ura iltzen zen eta ura besta guzietako, eta ordun, nik eztakit nondik, nomaitikan karzen zten olako trogo... troko batuk, Irundikan do; nik aizpa za(a)rna Irunen neskato ogei urtez eondu baitut ta oai onek erran du urtik, zenbat urte? Noventa y...

**Semea:** Larogeta amairu, laroeta amairu.

Bai, kunplittu ittu Notxebuenin ta, ta ori... ori yuana zen neskato Irunan toki... an tziren abetsan etxin aritu zen neskato ori; oei urte eondu zen kozinera. Ta gero orrek, klaro, orrek baziaken gu[k] piño auniz geigo ta an zatten zin ormak, orma trozo batzuk orrela, orrek ekarzen zittun andikan Sanfermintako. Ta ek paratzen tziren orrela barreñutan, zatten tzien barreñuk, eta etan ola xeetu ta paratu ta bildots ura trapo xuri batin billua, puskak, denak an konserbazen zuten usandu gabe, bertzela Sanfermintan bero itten baizun; ta gañera oan biño auniz berogu itten zun ordun Sanfermintan. Ta an konserbatu arekin, ormarekin, ori... ori zelakoz, ori... arek bazekin gu[k] piño auniz geigo an Irunan neskato zegona, au, guain *noventa y tres año[s]* ittuen orrek. Ta, gero, pues, ura itten tzen ordun, itten tzen lenbiziko el... eluze audi bat eitn tzuten aza; aza zuriyak eitten tzien Sanfermint(a)ko, **altxatuk** (i)gual azak-ta baatzin, aalik eta onenak. Ta, gero garbantzua nai zen diña, ta aza, aza ta garbantzua; ta gero ondotikan zatn tzen **xuri-beltxak** edo... –xuri-beltxak zatn die bildotsan tripak kendu itten direnak-, eta... ollaskua, ta gero berriz bildots erria, ta arrozkonletxe, zatn tzen postria, arrozkonletxe, biño arrozkonletxekin zatten genun, egunin batek eitten genun arroz ari begitu. Ordun zatn tzen su... ezen kozinika, ta ezkenun ola... bazien ornillo ttiki batzu k, brasa bete, kao, bras' ura, sutikan, bajutikan, ta gero, an aren gañin patu, itn xiuzten gauza(k), beño, ura etzen yeus ere. Eta... parazen zen laratza, zatn tzen ola zintzillikan tximenetikan kate bat, ta gero andikan laratza zintzillik paatzeko gantxo bat orrela, orrela, e! orrela; eta, andik parazen zen **paziya**, esne paziya zatn tzen esnia egostekua-ta, ta paziya parazen zen andik zintzillik orrela. Ta gero an esnia, barrenin, ta gero arrozakin ola parazen zuten, eta ura guk, pues, iru do lau senide ttikinak, an (i)biltzen giñen arrantzan, zeñeri tokatuko zen ibiltzko ura; ura ibili bar tzen, arrozkonletxe ura, eztakit zemat denborin bueltan, bueltan, bueltan, pixkan, pixkan, pixkan, bueltaka, bueltaka, bueltaka, bueltaka. Ta ya arrozkonletxe akauen zenin, eiña, ordun, pues e... nee aizpak eta amak, gero ni aizpakin geldittu nitzen ama iltz, miñio ura dena ateizen zuten fuentitara, arroz ura, eta paziy'ura geldizen zen ura ibiltzen tzunontzat. Bueltaka esnia ibiltzen zunontzat paziya.

(Lesaka)

**GURE HITZAK****Galdurro:**

Gandor. Hainbat hegaztik buru gainean duten konkorr haragitsua.

**Altxatu:**

Gorde.

**Xuri-beltxak:**

Bertzeekin batera besta bezperan jaten den jaki tipikoa.

**Paziya:** Paziya. Eltze edo lapiko handia.

Agustín Etxabide - Lesaka



Familia baskaltzen

## 1.4. Elikadura

### GURE HITZAK

**Maira:** Orea egiteko erabiltzen den aska modukoa.

**Arbazta:** Zuhaitzetik eroritako adar xeheak.

**Otatxa:** Otatza. Otadia, ote multzoa.

**Urtxilla:** Urkila. Goialdea "V" formakoa duen euskarria edo tresna. Ogia labetik ateratzeko burdinazko tresna.

### OGIA, OPILAK, TALOAK, SUTOPILAK

#### Ogia gerra denboran

Ogiya, beno, ogiya nik amairu urte nittunko dena kendua zen; ta gerra, gerra zen, ta gerra denborian, pues e... iten tzen opilla, ta gañera opilla ere etziutenean nai zen diña egittea, zetaz itxi zittuzten errotak. Errotak itxi ta ezin genun... ezin genun egiñ og... iriñikan, eta b(u)eno, ba, errotak itxi ta, pues, ein bar zatten zen gañea, itten zuten ordun, *registro* erratten zuten; kar bar tzen errira urtin eitten genun art... illarratikan eta artotikan ta denikan ematten tziutenean ekori... zemat ekarri, eta unenbertze kilo errira. Eta artori... artorik [g]abe eitten tzuten, ogiya ematten tzen erriyin, biño erratten tzuten iña zela ezkurrakin -ezkurre da aritzak botatzen duen potoko bat-, ta ura iriña eiñ arekin ta arekin... Kanpotik ekartzen zute, erami ta ekarri atzera itten tzuten an nomatt ere iriña einta. Ta arekin eiña, etzen posible zatten ura yatia, bu! Itten genittun opillak, b(u)eno, iriña genula.

(Lesaka)

#### Ogia

**Maira** izatten zen, maira. Ta alko... makil leun bat, aretan irristeko... galbaia irristeko. Eta, ori itten tzenian, egiñ orantza an. Ekartzen genuen legamia, orantza erratten diote zenbait tokitan, legamia ekartzen genuen ta arekin masa egiñ, ta lo itten paratu, arrotu bittartian. Ta gero paratu ogiyak, olako tabla espres bat izatten tzen bere manddire arizkukin, aretan paratu, ogiy'ek paratu bat banaka, eta, ematten tziotenean arraultzi gaintikan... bai, bai, presumittuk zatten tziren, bai, ori zatteko... kolore ona zatteko, aurraultze pixko atkin pasatzen zuten. Ta ek labian sartu, labia bittartin berotu iduki, **arbaztak** berotzen tzen. **Otatxa** obena. Otatxa ta gero, ura garbi-garbi (e)gin ta aretan sartu bat banaka. Izatten tzen **urtxilla**, oiek sartzeko.

**Ink.: Urtxilla zer da?**

Urtxilla... olko... ori bat. Lemizko pala aundi batkin sartzen zuten, ta gero ateitzko urtxilla. Urtxilla da...

**Ink.: Ze bi mutur... ola, bi...**

**Ink.: Bi puntta dittuena?**

**Ink.: Bi punta?**

Ez, ez, leuna izatten da, pala bat bazala biñon bikua. Ura... burnezkua izatten da. Arekiñ artu ta ogiak ateizen ziren.

Ta jaro, arren ondotikan auniztan sagarrak sartzen genittuen. Onak izatten dire sagarrak erretzeko.

(Bera)

Baserriko lanetan

## Errotak gerra denboran

Gero orretako nik anai ba[t] panun, zarna, o... mekaniko agitz ongi yakitten tzun, eta arek egin tzigun...

**Semea:** Antonio.

Berak ein men tzun, gure anai Anttonio bai -ta Ameriketan il tzen, geo Ameikara yuan tzen-, eta arek egin tzigun, orrela... bettin, kuadran, beian gibelk'aldin, toki bat sekretun, e! zertaz arrautzen bazioten ordun ura fusiltzeunte segittun nere anaia. Egin tzun ola arriyak paratu, bat azpiyin ta bertzia gañin, eta gero areri in tzion zerbatt ere... nik eztakit nola, bi lagunek ola... ola ibillita, itten genun orrela ibillita, bi aldetikan. Ta bazun batek artzeko(a) ta bertzik artzekoa, *rueda* bat egin tzun ta an paratu zittun bi arri, bai, ta bi... aizu, bi arri, bat azpin ta bertzia (gañin) ta aren ta(r)tera botatzen genun artua exkin batetikan. Ta ara[t] pota ta arek arriyak panpa! planpa! planpa! ibiltzen tziren guk ibiltzen genunin bueltaka *rueda* ura, e! Ola katxa... e... eiña zun burniyakin orrela... e... pedala bizkletan e nola zatn da? pues, alkoa bi aldetik ibiltzeko. Ta arekin an itten tzun, an itten tzun, a[n] itten tzun ta, bueno, pues, an xeetzen zun bastante. Ta gero izatten genun **iralkia**, iriña iralkitzkua eta arekin xiuro dena kendu ta arekin aaia ein ta ura yaten genun. Ta bolada... bolada artan ezkenun zatten... iriñik ezkenun zandu. Gero emen Aranztan -Arantza da bertze erri bat emendikan bos kilometrora do e(z)ta kit zer-, eta arat gabaz ixilka yuate giñen, an norbattek yozen zula ta yuaten tziren nee anaia-ka, eta... ura sumatu zuten ta anguk erami zittuzten kartzelera ta errota etxi, ura itten tzulakoz. Ta, pues, ordun...

**Semea:** "Artua yo" da "xetu".

Bai, artua yo, ba; artua yozen zen, ba(i). Artua an xezen zen, patu ta... errota, errotak yo itn zun artua, ta yoka, yoka, yoka, yoka itn tzuna, xetu artua. Ta, pues, ori, iriñ ittko gure anaiak itten tzun ura, biño egin tzigun bettin, zoko batin, ta iñ... ez erratteko iñori gero, e! ez gero erratteko! Etzen libre. Eta, bueno, ura ordun arrautzeunte ta kentzen diote lepua segittun, ori... ura... errota ura arrautzen badiote an iña, ta... pues, orrela. Ta gero beian azpiyak ateri, beiak itzi, ta denak eitten genittun, baserrin.

**Semea:** Gero, aixtion erran tzu yuaten ziñetela baserritikan itturria, biño ez (d)uzu erran ze izena zun baserrik eta ze izena zun itturrik.

A, ba, Iturri beltx(e)tik ekartzen genun, tturria... Tturri beltxa da maldan gotti yuan ta iturri agitz ona doaie, biño... beño, bai, bastante urrutti; ta andikan baldikin garraitzen genun.

**Semea:** Ta baserri[k] nola izena do?

Buxkon borda, Buxkon bordatikan, Buxkon bordatikan Iturri beltxera yuaten giñen. (...)

Gero berriz errotak ideki zittuzten ta ordun fu! ordun kriston bazka! Ta, opilla nai zen diña! Ta opillak nik itten nittun beti, nei erratte(n) ziaten nik itten nittula obenak, beño, enganttu itten niñuten, ni bialtzen nin(du)ten opillak ittera, karo, beti ateri kontent, onak nik itten nittulakoz, itten nittulako onak, e! nik ori... pentsa! ta ori erraten zen, biño... zenbat opill, aizu! Ainbertze lagunentzat itten gintun opillak bantzuketa eta opillak afaltzko, ek erre... su baju zatte genun, ta su bajun su eerra in ta gero an lemiziko unela zatten tzen, forma ontakua **opil burnia** erratten ginion areri, opil burniya.



Artoa biltzen



Galbaheak

## GURE HITZAK

**Iralkia:** Eralki.

Eralkitzeko tresna, galbahea.

**Opil burnia:** Talo burdina. Taloak erretzeko erabiltzen den burdinazko xafla giderduna.



Talo burdina

## 1.4. Elikadura

**Semea:** Tala burni(y)a.

Opil burnia erratten ginion guk. Ta gero... are... aretan lemiziko buelta eman ta ura **xiali** sun. Ta gero zatn tzen bertzea **talomantenua**, unela bertze bat bielin, brastik bielera. Ta an denak pillin-pillin-pillin paratu ta (g)ero bueltaka-bueltaka-bueltaka-buelta denak erre. Bu! Olkok iten tziren. Ta gero ura eltzarikin ta gazta barrenin paratu, ta, gazta ta opill ura agitz ona zatten tzen ura re. (...) Ta ura... orretako bear zatten tzen opillak e... erretzeko bear zatten genun ordu bat eta geigo, ordu t'erdi igual, zetaz an bueltaka-bueltaka in bar tzuten, biño onak agitz onak, e! eitten tziren opillak. Gero... zatten tzen e... eltzaria zatten genun, ta opilla ta esnia, opilla ta esnia, ta gazta ta... opilla zatten genun.

(Lesaka)



Ogia egiteko maira

### GURE HITZAK

**Xiali:** Txirali. Opilak erretzeari deitzen zaio.

**Talomantenua:**

Opilak suaren  
aitzinean zutik  
paratzeko burdinazko  
tresna.

**Ink.: A, eta opilla nola egiten zenuten? Erran duzu leen...**

Opilla? Iten genun pues zaiten tzen...

**Ink.: Galbaia batetik...**

Galbaitiken iriña obena berexiya, dena.

**Ink.: Nola egite... asieratik nola egiten zen opilla...?**

Eta gero zen... tzaiten tzen olko maai bat... o-maira erraiten dro, opilla iteko. Olko zera bat zaiten tzen maia eta zulo batekin. Eta ait ortzen tzen pues opilla... o... iriña, ta olko xulo batin iñire, iriñ areri ta arei bota ura, ta guttika-guttika oriya in, ta ura ongi. Gero, ou... naasten tzaion ogi iriña igual, tiendan tzaiten tzen ogi iriña ta saldu ta ura goxugo zaiten tzen, etzen ain bortitza zaiten. Biño gerra denboran etzen olkorik... Eta egiñ opilla, ongi goratu, ura ongi... aal bezain leun paratu... ura ongi, da gero... ba zetu, artu bolo bat ta gero zetu [eskuekin taloa zanpatzen ari delako keinua eginez] ta ek tipi-tapa bi aldetan xabal-txabal egiten da... tzen ura, eta... bertzela trapo bat paratu ta aren gañian igual, eta gero iten tzen suan erre, opil burnia erraiten tzen olko zera bat... aro bat... kurdia... kirte... kirten batekin eta aren gañian paratu eta suri begira kixkartu. Ba... leno bero... kixkartu ta arei buelta eman ta berriz bertze aldi ura igual. Ta gero, zaiten tzen oñik... oañik ez dakit ote den, olko redondo batekin zaiten tzen sua onduan, ta an txutik paratu suri begira ta...

**Ink.: A, nola zen? Mantenu... talo mantenua, edo nola zen?**

Ba, eztaki[t] nola zun izena.

**Ink.: Bai, bai.**

Eta an...

**Ink.: Ola kontzeko, ez?**

Bai, ola kontzeko, opilla txutik kontzeko. Lenik kixkalta ura, beroto eta gogortzen tzanen tzen duike pixko bat. Ta ura txutikan egoiteko, ta bai, ona zaiten tzen opilla egin berriya ta... bai, bai, ona zaiten tzen. Biño yanen podez aspertuk.

(Etxalar)

## Jaun Battit errotazaina

Yaun Battit errotzaia frantzesia izatten tzen, Yan Battit. Eta errotzaia ibiltzen tzen itxez itxe kanti bidi (?) biltzen. Kantia da zako... zakozko bat beti iriñanzat ibiltzen dena, kantiya. Eta, etxez itxe mandukin ibilzen tzen billa. Ta, astirtetan da astizkentan da ola izatten tzen bere... ni yuxtu-yuxtun oroitzen naiz biño...

Eta, gero, artuaga... artua **miaurtzen** tzen ta kanti(y)a egin. Artua, batzuek eskuz, manddire audi bat paratzen zen, lurrian, eta batzuk eskuz, ta bertziak o... ori, gerrenakin badugu alkitxua, gerrena... lenagoko gerrena bat paratuketua ta arekin ta kantiya egitten tzen. Lemiziko orrekin, baian... galbaian ez baian, galbaian badratu, ezkama dena kendu. Ori da ba... badratzia, ezkama dena kendu. Eta gero kanti(y) a egin, ta eramtten tzuen. Eta kantiya egittian, berriz entregatzen tzuen. Itxez itxe ibiltzen tzen... Yan Battitta izatten tzen, ura, manduakin ibiltzen tzena, manduan bi aldetan kantiyak izatten zittuez, itxez itxe bildduta.

(Bera)

### GURE HITZAK

**Miaurtu:** Mihurtu. Arto aleak bereizi, artoa zuritu.

**Xistorka:** Txistorka. Baratzurien kasuan,

pikor edo ale bakoitza.

### Ink.: *Eta labean ogia nola egiten zenuten? edo zenbatero?*

Zemat? Aste guzikua it(t)en tzen; ze yanen tzen gar... kalkultzen zan oiztena (?) eta, iten zen. Eztaki[t] ni(k), ekartzen tzen legamia eta itten tzen masa emen ta, gero guatzian kontzen zen berotzen, ori oroitzen naiz, gauz oitaz; bueno, ikus ttut, biño! enaiz aittu. Eta, gero ura iten tzen labian berotu, arbaztak o otatxa, ura zen otatxa erraten tzaio, ote erria, igartua, bueno, iñen... eta antxe iten tzen. Ta sagar urtia baldin bazen, ogiya ta oik ateri ta, botatn zen sagar pilla bat barrenera(t) ta errezen tziren, ta andikan makill bat itzia puntian ala gaink! kax! artu ba sagarra ta...

(Bera)



Ereiteko lurra prestatzen

### ZERRI-HILTZA ◉

Ni(k) bezperan prestatzen dut tipula xe-xe-xe inta, ta zenbaitzuk iten te kazulian ura, e... pateko z... erraxu da, e! Nik eztut ala iten, porke etzait gustatzen. Ura kazulin paatu oliyu pixko atekin ta or egiten, egiten txapan gañin kontu ta ura geltzen da arroza bazala masa bat iña, ez idorra, guri-guri-guri-guriya. Nik ura eztut nai. Nik zartagin prexitzen tut, tipula, xeetu, bezperan xeetu eta zartagian prexitu, oliyu pitti-petti bat man ta or guttika-guttika, ura, ola onen koloria erri arte, gorix-gorritxo yarri arte. Usai on bat botatzen du arek, pues ala iñ artio. Pues nik zer dakit, e... eun ta berroei bat kiloko zerriyantzat, pues, e... sei-zazpi kilo tipul maiten tut nik, dena xe-xe-xe, dena ongi xetua, e! Ura, tipul ura ala prestatzen dut, xe-xe in ta geo prexito. Ua utzi, bazter batea oztuta. Ta gero baratzuriya, baratzuri xuitzen dut, xistorka xuritu eta xe(e)to, oitan, katxarru oitan. Oitan xe-xe-xe in, patu kazulu batin ura.



Zerri-hiltzea. Zerria husten

## 1.4. Elikadura



Zerri-hiltze eguna

### GURE HITZAK

**Arrika:** Harrika. Harriak jaurtitzen diren bezala bota.

**Zumia:** Zume (*Salix sp.*). Sahatsa. Salix generoko zenbait zuhaitz edo zuhaizkaren izen arrunta.



Zerri-hiltza

(...)

Bai, eta ura xe-xe-xe-xe in, kazula aundisko batian paatu bizpairu litro ura eta zerriya aundi orrentzat, nik erran ten berroei, berroeita amar, eun ta berroeita amar kiloko zerri orrentzat, bedetzi-amar buru, or ibiltzen... eztut e... kaso aundirik iten. Beetzi-amar buru, ura xuritu, xetu, ongi xeetu eta paatu, ura bezperan paatzen dut, e! tipula eta ura, kazula artan bizpairu bat litro ura paatu eta ura, ek utziya, ura pres da, yasta. Ondoko eunin zerriy ill, odola artu ta odol ura pues, kuaja... kuajatzen da ezpazu ibiltzen. Ura ibilliz, ibilliz, ibilliz ongi oztu artian, ta arek zaiten du aako espuma bat, grumo a... zar batzuk odola kai... ura dena botatze ut nik **arrika**, e! Odol au garbi, garbi, garbi artu. Ura utzi oztutzera.

Bueno, gero zerriya garbitzen te iatzikin, erre. Gero garbitu, tripak ateri, ta gero tripek, klaro, ek garbitu bar die, bueno garbitu barra, nik ala iten tut, gue itxin eztute nai erosiko ertzikin odolkia iña. Txistorra(k) bai. Yuaten naiz orra, beko ur ortara, sartu erdi-erdin ta or garbitun dut ertzia, biar diena(k) odolki itko. Ta bueno, gero odolkiak in, Miren ta biyek iten tugu. Unek lotu, ta odolki aikeri emaiten diot a... tipul ura, odol areri, tipul ura, e... zerri burua gero ero... egosten dut, lengaldian erran nizun, magrúa utsa, dena, gizen ua dena fuera. Magrúa utsa, egoiten da auniz magra emen bi aldetan, ta zaiten du zerriyak auniz buruan, badu zerbait. Ura xe-xe iñ, ura. Ura, tipula, e... arroz pixko at, espezieak, kanela eta... ori.

**Ink.: Baratxuria.**

E... baratxuri(a) ez. Kanela ta... piper beltxa, piper beltxa. Ta zemaitzuk maitn diote porrua ta eztakit ze. Nik eztiot yaus maitten olkorik, yaus e.

**Ink.: Eta baduzu truko bat, ez? Bezperako tipulen azala...**

Bueno, ura ge... gero egosteko, gero ura egosteko. Gero odolkiak ura nasi eta geo proatu bar da [behatz odoletan sartzeko eta gero probatzeko keinua egin]. (...)

Bai, ezta utzitzen al porke eztakit espeziearen gustua, biño gatza? Gatzia nola azertu bar tzu? Gero eztaike gatzik man areri, ura iten, odol ura masa iña delik biar tzu garat... gatza man.

Eta, bueno, ua proatu, geo odolkitan sartu, ta gero lenogo bezala iten ut nik. Eztakit zuek konprenduko nauzun, zumia . Eztakizu zer den? Zumia da odolki xintxilka pa... artu ta paatzeko aako arbuxta luze bat ola, ta aekin a... a... aro bat egin, nik itn ut aro bat arei lemizko ta gero aru artan au sartu ola, mutu... odolki sartu gabe eta geo ola sartu ta geltzen da odolki xintxilka.

**Ink.: Egosteko...**

Egosteko.

**Zumia** (...) bueno artan egosi, ta egosteko ur areri, burua egosten duten ur arekin eztut egosten odolkirik, porke arek badu grasa aundiya utzitzen du an, ta eztut, ez... gue itxin ezta gustatzen grasa klasi ori. Ordun gu(k) ura botatzen dugu. Guk garbi-garbi paatu eta botazen diot areri tipul azalek eta baratxui azalek. An zaiten tut, boltsan bilduak. Ta ek ateitzen, eztakit gustua emait o nere mania den, etzaitut erranen, igual nere mania da, biño nik ori iten dut. (...)

Ta gero odolkia ateitzen da ertz... garbi-garbi, xuri-xuriya ta usai on batekin. Ta miño egosi, odolki ongi egosi, e! Gogor-gogor iñ arte. Ez sartu ateri in ta segidun. Ez, ez, odolkik gue... nee... gue etxin lokainka(k) bazala, xerra pikatu ta xerra ateiko da, ateitzen zartagin, prexituta. Da sekua, eztu grisik ta eztu deus e, eztu mugitzan ura. Bueno, ta gero ura adik egosi ta paatzen dut txintxilka, lemizko egosi ta karri goiti ta pazn dut txaparen burun. Ongi idor dattezila, ta idortzekin xintxilka patzen tut despentsan. Bueno, yasta, odolkin negoziua iña da.

**Ink.: Eta gero xistorrak ta xolomuak ta...**

Bueno, ta gero xistorra, gero oi... lenoo iten gintun makina batin itxin xeetu, biño uaiñ erauten tugu karnizerira ta an eletrikukin, be... bien... bos, utziten tu ta total eztu... eztu kobratzen... ba! Eztu berroi duro kobratzen, total eztu baliyo, eztu merezi emen aitzia. Gero arratsian, andiken ori, freskatu zaitn da aragi ura, eta arei, aragi areri maiten diot e... barreño baten deliken, bezperan prestatuko ura, baratxurin ur ura. Biño koladore batian pasato ura utsa, ez baratxuriya. Zemaitzuk mait diote baratxui ura, ala dena! Biño nik eztiot ala maiten, nik ura bakarrik mait diot. Gatza emann diot, nola idui zaiten ainbertzentzat, pues ainbertze gatz. Eta ur ura, eta gero ongi masa egin, ungi gozatu ura barreñuaren barrenin. Eta yasta, utzi or ondoko egun artio. Goian freskatzen utzitzen dut, an badut goian baut bertze (d)espentsa aundi bat, ta an utzitzen du(t) ura freskatzen. Ondoko goizian, pues, lop... txistorrak iten asitzeko, beti probato. Artik artu pixko bat eta zartagi batin pixko(t) prexitu, ez oliyu ta ez yaus e, ura bera, al-ala, oliyu yaus gabe. Ura prexitzen da, bera earki xe... xeetu izaiten baita aragi ura ongi, ta prexitzen da ederki ura. Ura, deus ere, oliyu ta deus e man gabe, ura. Uf! Ori. Eta karo, ordun probatu ura eta ya ordun ya gatz aski dun do eztun, exkaxko baldi'ma pues man pixko at, ta geo xixtorrak eiñ. Egin, lotu ta ementxe xintxilka paatu, ortxe paatzen dut agaia aundi bat ta zintzilka ortxe paatu.

Sukaldin ementxen, ortxe patzen tut. Sukaldin, nee negoziuk beti sukaldian. Bai, bai, klaro. Etzikkit niri idortzen bertzela! Nik a... non, non paratu bar dut? Or goian badut despentsa aundi bat gasnak an ta kaun... konjeladore ta gauzak an tut, biño an eztu surik, ez, ez, ez. Nik... etzikkit ongi oiek... eztie idortzen sekulatan! Eta sukaldin denborara guziyan, negua izangatik, yateko sua ix... etxitzen dugu sukaldeko atia, biño bertzenaz egun guziya sukaldeko atia idekia, e! ta gaba osua. Ta sua. Ta lokainkak seguro bortz egun miño geigo eztute maiten, idortzen dire. Ta ordun ya sartu. Ta ni[r] i lukainkak bai, bai, aski ungi egoit'izkit, aski ongi egoit'izkit.

(Etxalar)

Ui! Zerriya iltzeke lenego... lenogo artzen genuen lana! Lenaoko a... emakumiak, gaizuak!

Lebizko lana, arroza egosten zuten. Izatten genuen eltze aundi tente bat, ta ura alanbrikin moldatu za... lurrazku zatten zen, ta alanbrikin konpondua izatten tzen, agitz ongi, e! Norbattek eitten tzuen lana alanbrikiñ ura konpontzeo. Alanbre sari ori bazala izatten zen biñon berari agitz ongi paratua. Ura izatten genuen arroza egosteko. Ta arroza egosten ere, bere... orrekin, kutxare zurezkukin kuidado aundiya izatten zuten. Zertaz pasatzen bali'mada, gero odolkik beratzak gelditzen dire. Ta biar du punto bat allelu gero odolkik egostian ori egittek... bera egosteko, ta gogor-gogorra gelditzeko.



Aniceto Etxeberria - Igantzi



Lesakako San Anton ermita

## 1.4. Elikadura



Haragia xehatzen

### GURE HITZAK

#### Sanpiollo:

Hertze itsuari  
deitzen zaio.

#### Muskil:

Adaxka gaztea.

#### Begixta:

Biribil gisako batekin  
edo birekin egiten  
den korapiloa, mutu-  
rretako bati tiratzean  
desegiten dena.

Ura, antzinko egunian. Tipulak xetu antzinko egunian. Tipulak xetu dena... dena  
ori, nabalaz eitten zen. Azala paratu buruz gotti begiyak ez erretzeko.

#### Ink.: Buruz gotti nola?

Azal bat, tipulen azal bat artu, ta ura paratu buruan.

#### Ink.: Buruan buruz gotti?

Ura, imajinaziu izanen tzen, biñon begiyak ez erretzeko.

#### Ink.: Ala! Eta ala zen?

#### Ink.: Eta zenbat tipul ta zenbat...

Oi, tipul aunitz izatten tzen. Ta arroz...

#### Ink.: Zenbat?

Bai, segun zenbat eitten tzen. Zerriyek itten tziren astu aiñekuak, aizu. Ze, berreun kilotik gottiko... iru beatzen loditasuneko zingarra ta izatten tzuten. Agitz aundiak eitten tzeren. Bai, itxetan zerri ederrak iltzen ziren, agitz ederrak.

#### Ink.: Ta ze, kilo bat arroz edo geixago?

Ui! Ui! U! Ek ez, ez, geigo, geigo. Geigo. Odolki aunitz egitten zeren. Ze, betetzen genittuen ertze itsu ta guziek, **sanpiollo** ertze itsua da, ta sanpiollo erratten genion areri. Ura da ertze... zulo bateko ertzia da. Ori zanen da akaso apendize? Ori (i)zanen da, e! Igual ori (i)zanen da. Eta areri, orrekiñ egitten genion... Bueno, lemiziko erranen dizut nola... lemizko karzen genittuen antzinko eguntikan zumiak. Badakizu zumia zer den?

#### Ink.: Makil gisako bat, bai. Adar bat o...

**Mimbre, mimbre** izanen da ori, ñon, ori urtero mozten zuten **muskil** freskuk izattek. Ta ori biguintze'maita fuerte, ta egitten genittuen **begixtak** lemiziko. Begixtak zumiekeri. Dozena bat edo orrela ekarri ta begixtak egin. Eta gero ura odolkiri ezkenion lokarrikan ibiltzen, ura odolkik itteko ura izatten tzen. Paratu, ura pasatu, eta zintzillika pazetik paratzeko... laratzetik paratzeko bertze aro batekin, ta aretik zintzillik izatten tzen.

#### Ink.: Odolkik ordun zera gabe?

Lokarri puntta lotzen g(e)non, ez lokarritik zintzillika, zumetik zintzillika. Zumiatik zintzillika. Zumiarri begixta egin, puntt...

#### Ink.: Zer... nol... zerekin egiten zen begixta?

Punttien egin **redondo** bat, ta ura pasatuz-pasatuz-pasatuz begista egiña, gero aretikan ori pasatzeko... zume osu(a) pasatzeko.

Ta gur(e) amak eitten tzuen, antzinko eguntikan olko zume... koxkor bat artu, ta aren punttian orratza paratu, eta ariyakin ongi-ongi-ongi, ongi ura itxeki, xulatzeko... ori, aizi(a) zen tokian xulatzeko. Ta lukainak ere ala itten tzituen. Zumiatik denak eitten tziren.

#### Ink.: Ta ori bezperin dena...

Ori bezperan pres-pres paratu, ta gero zerriya iltzen zenian, bueno! Etzen alkirikan izatten, karro gañera ta gurdi gañerat, katazka gizonak: "Ui! Eskautu zaigu! Ui!". Eztakit, sekulako katazka aldii ber zatten zuten, arat bota antziña. Zerri aundiak ta... bueno, zauli(y)ak.

Gero, gantxorikan ez... gure osabak ibilzen zuen, gantxorikan etzuten zatten, muturtzar audi batzuek ezin segutuz. Leer egiñak an aritzen ziren. Eta gero, xiraltxi zerrria, eta ireki, eta puskatu. Eta gantzak, erranen izuet, gantza(k), nik eztut ikusi iñon adittu bai, gantzak nola itten tzittuzten. Gantza audi batzuk izatten zittuzten. Ta, gantza bat urtutzen tzuten, **gantxigorrak** gero... itten tziren, gantz ura... eta bertzia gordetzen tzuten. Ta gantz arek izatten du... alde bat'tikan... **brintxa** bat. Ura... zingartiken kentzen da, dena, oso-osorikan, ta arek brintxa bat izattu du, tela bat izatten du. (...) Eta arek, ura, bat gordetzen tzuten, bat urinddu, gantxigorrakin, ura lukainak ta sartzeko. Ta bertzia berriz, ola doblatu, nik eztut ikusi biñon adittu bai, ura artu, eta ola doblatu.

#### Ink.: Erditik?

Doblatu.

#### Ink.: Buelta emanez.

Buelta eman. Eta gero, exkiñak, izatte'maitire ori, ura yosi ta exkiñ ek gelditzen dire... libre, airian, eta ura supalak, supalak zatt(e)n zittuzten burnezkuak. Ura... ori... goritu, eta ura zirra dena ongi pasatu. Ura ongi, ongi ori... egin, ongi kortxitu, ura. Eta ura urte osua pasako, antxen gordetzen omen zuten. Eta ura, azari xerrenda bat artu, ura prexitu... baratzuriikin ta azari matten omen zioten. Ta nik auzu untako andre bateri aittu diot, arek beti izatten tzutela, ta erratten tzuen: "Aza olivukin eiña yan edo kaka yan igual izatten da". Ño, orrekiñ egiñ ta gustatzen zitzaiola, kusten tzu? Ala itten zuten. Bat. Eztut nik ikusi, e! Adittu bakarra.

## Odolkiak

Odola artu, eta gero ura oztu bitartiño buelt(a)ka-buelt(a)ka ibillibar zatten tzen. Ariyak, zenbait ari itten zazkiyo, ek kendu. Ta gero trapo xuri batekin tapatu, ta utzi oztutzen. Ta gero itten tziren ertziak... ertzi ek berexi, miak ta lodiak. Ta lodiak tartian olko zerritarrek izatten zuten sekulako uriña. Ta ek odolkintzat gorde. Eta, bertze miyena izatten tzen ertze artekua, izena (i)zatten tzuen arek. Eta, ura ya bereix izatten tzeren ori, **andrerraiak** erratten zittozten areri, ertz(e) artko ori, andrerraiak. Eta gero odolki(i)ntzat masa egiñ, eta... ek guri ek, uriñ ek guri-guriek onak (i)zatten dire... orren tartian, odolkin tartian. Egostian, dena deseitte'maita, eta agitz onak izatten dire ek.

Ta masa egitten tziren, ori... Jesus! Ze etzitzaina ematten! Tipula, arroza, expexiak ematten zitzazkion: piper beltza, piper xuriya, kanela, ta perrexilla re bai. Perrexilla, orduan ze ormak itten tziren! Eziñ arrautuz aritzen giñen perrexilla! Ta yuan den... yuan den udan ta pe... o, yuan den negun perrexilla[k] ederki iraun du. Ta, orduan orma aundiak itten tzituen agitz, e! Agitz aundiak itten zituen! Eta ori egiñ, ungi-ongi-ongi-ongi na(a)si, ta ertzi ek bete, ta egosi.

#### Ink.: Ta oreganoa botatzen zenioten?

E, oregano? Expesi oiek ekartzen yuzte... denak, oregano ta... unako... oregano, ta gero **zarpota** ta oiek denak karrik izatten ttuzte eben... saltsa oitan, eben pottu oitan. Zarpota itxin zatten dugu, oregano nonai izatten da, oregano... *no todo el campo es orégano.*



Hertzeak betetzen

## GURE HITZAK

### Gantxigorra:

Txerriaren gantza frijitu ondoren gelditzen diren hondakin txigortuak.

### Brinxa:

Gaineko azala. Esne gainari ere deitzen zaio.

### Andrerraiak:

Andaerrai, pleura.

### Zarpota:

Xarbot. Ezkaia.



Sukaldeko tresnak

## 1.4. Elikadura



Odolkiak zintzilikatzen



Odolkiak idortzen

Eta ori egin, bete, umilla batekin bete, eta egosi. Ta paratu, laratzan zintzillika paratzen zittuzten, ta gero lukainka aiek xeetu ta ura re piper gorriyakin eta baratxuriyan... baratxuri azkarki xetu, ta ura ur pixko atin iduki ta ura... ura botatn tzitzion. Ta gatza eman, eta ongi nasi, agiz gauz bearra ongi nasia. Ta, egitten genittuen, kas... bolada batian ze ezkenittuen eitten! Ardi zarran... ardi zarrak iltzen genittuen udazkenian, bueno, eta ekin ertziek gorde, eta, zerrien ertziekin ezta egitten, miñon, piper gorriya man barrian piper beltz(a) eman, eta ura bete, ta orrela bueltaka-bueltaka-bueltaka egin, ori, eta agitz gauza ona itten a. Ta gero, sobratzen tziren ertze zar guziyekin, ori bai, ori... orko... frantzes batek erakutsi zigun egitten, un... una zikinkeriya izatten da. Ertze guziyek gatza azkarki man, ertze guziek ongi xetu, sobratzen derenak, gatza azkarki man, eta... piper beltzaz ongi tapatu. Ta ura ertze etan sartu, eta paratu ortikan, larazetikan zinzillika, dagola an. Zuri-zuri(y)ak antxen egotteren tziren aantzityak. Bion, ek egosi gero ta onak! Agitz onak! Sarako batek erakutsi zigun. Agitz onak geldizen dire, egosita.

(...) Xixtorrak eztute biarrikan ori, xixtorrak baratxuriyan... ur ura bai, biar te biñon... eztute... orretan iduki biarrikan. Solomuak, ta solomilloak, eta... oriyek, xaiexkiyak itten tziren. Ek gero... iduki, garbi-garbi egin, ta zintzillika paratu. Ta solomuak, nik izautukatu ttut solomuak ala sartuak, bai. Gure ama zenak kartze... karrazten zittun Arraneri, Donostitikan ertze itsuak, ñon aundiak, beienak ola, aundiak, erde... eta etan solomuk idortuk sartu, solomuak idortu ta sartu oso-osorikan, eta uriña bota. Eta uriñakin ugandittuk gelditzen tziren, eta ek gero mai baten gañian urte osuan. Asitzen tzirenian xerra bere orrekin kenduta, agitz onak (i)zatten tziren! Agitz onak! (...)

**Ink.: Odolkit egostekin urari botatzen zaioten porrua do... tipulan azalak do gustoa mateko?**

Tipulan azalak. Tipulan azalak botatzen genition.

**Ink.: Ur orrei? Bai.**

Bai, urari bai, egostian.

**Ink.: Eta ertzi(k) garbitzeko? Ola... ozpiñakin ta...**

Errekarakat, hija mía. Errekara yuan ta ongi garbittu!

**Ink.: Bai, biño gero? Etxean?**

Bai, pasatu orrekin, ozpiñakin pasatu, bai. Biñon errekan ongi garbittu, agitz ongi gañera, agitz ongi. (...)

Xingarra gazitu, zingarra gazitu ta gazitzen tzirenian zintzillika paratu. Orduan etzen oaingo kontserbanterikan izatten, ta ematten genion piper gorri... piper gorri miña, ozpiñakin. Ora-ora egiñ ta paratu, zintzillika paratu ta idortu. Orduan sukaldian kiakin egitten baitziren... milagruk itten tziren kiekin. Kia agitz ona da gauztako, e! Lukainak ta idortzeko ta, solomuk ta, xaiexkiyak ta, u!

**Ink.: Sukaldin bezala ez omen da iñon idortzen, ez?**

Segur aski ez, segur aski.

## Gantxigorak

Uriñ ek prexitzen dire ta gantxigorak gelditzen dire. Uriña ongi irazi trapo garbi-garbi batian ongi irazi, ek gero lukainak sartzeko, lukainak kontserban sartzeko. Eta... gantxigorrakin pastela itten genuen, bai.

### Ink.: Azukri bota...

Azukria ta kanela ta... iriña ta az... ta... arraultzikin. Denak yaten genittun, orainkuk eztiten daus ere yaten!

## Patea

Ta, patea oraiñ eztugu egitten ere, badakizu? Eztugu egitten. Umiak baittugu sekulakuk ta... xerratu gibela ta partittu denakeri ta... denak yaten ttuzte ta yasta.

### Ink.: Biño len patea nola egiten ziñuten?

Pate? Ori... papada (e)matten tzaio gibelari, zerriyen papada ura. Eta... gero ura **manitu**, baizu, gatza ta... arraultzik ere matten tzazkiyo, ta esne pixkot ere matten tzaio. Bai, bai. Eta ura egosi baño marian, masa eiñ ondotikan.

## Zerri puskak banatzea

Eramatten tzen bi odolki... me eta **mondongo** bat. Ta gero ezur koxkor bat eta gibela barasarien bilddua. Barasaria zabaltzen zen, zabaldu, ta gelditzen da tela bat. Eta aretan bilddu, gibel puxko at ta bialtzen tzen.

### Ink.: Eta nori? Barrideri edo familikuri do nori?

Familiakukeri, ta urbilen itxekuri re bai, bañon... ez, ez, familekuk zatten tzeren.

### Ink.: Eta aurruk yuaten tziren beti banatzera?

Aurrak, bai noski. Gu ri yuaten giñen gogotikan. Ematten ziyuten saria ta...

(Bera)

## Haragia nola mantentzen zen ☺

### Ink.: Eta, e... aragia nola mantentzen zenuten?

(...) Lukainka itten gunun ordun idorzen tzelikan patu zartagi batin oliuya, zarti... in erdiya do ola oliuya, ta baratxuri at bota arat, ta ura gorrizen zelik, zerriyan manteka. Ura yuzn da lenootikan urtua, bertze eltze batin, ta e[k] biek nasi, ta eltze batin paratu... dena puxkatu ola lukainak, ta danak an, ta fila bat paatu ta a(r)etik pixko[t] pota, oliyu ta uriñ artiken. Ta gero bertze fila patu ta berriz bertze pixkot uriña artiken. Ta itten tzen ura gero gogortu, uriña ola go(g)orzen zelikan, ta gero aldiyin puxko at do bi, eltzi aetikan do, zertaz yauntzita paazen zenun, ura ateri. Ta bertzia geldizn zen an.

Ta azpiya[k] perriz ittn tziren, pues, sartu gatzin, kajon batin, ta, gatzakin ongi tapatu, ta arri aundi bat pa(r)atu odola ateitzko. Gero buelta man bi egunez, bi eunez ala iduki ta buelta man. Ta berriz gatzakin ongi tapatu. Da bi eguntikan, ya... be, ogei bat egunez do ola ibilli ta gero ateri, urin garbittu, ta zintzilka patu. Ta gero uliyak ez

## GURE HITZAK

### Manitu:

Maneatu. Normalean entsalada konpontzeari deitzen zaio. Kasu honetan pate orea egitean osagaiak gehitu eta nahasteari deitzen zaio.

### Mondongoa:

Mondongo. Odolki mota.



Zerria puskatan banatzen



Bittoriano Mariezkurrena - Bera

## 1.4. Elikadura

ittko zako batzuk zaten tziren, uliyak bertzenaz itteunte ondatu. Ta ordun zakotan sartu, ta lotu zaku ura ta, (gero) biar tzelik andikan puska kendu ta, yan.

**Ink.: A, eta... puskak nola ba... banatzen zenituzten? Ola...**

Puskak berriz, zerriya ilzn zelikan bi odolke, ta kostil pixko at, ezur ttiki bat, ta ek papera batin bilddu, ta boltsa batin arekin itxera bat(e)ra. Bertze itxera igual, bertze bi odolke edo zer tziren, ek artu ta bertzia bertze itxera. Ta itxe orta yuatin, pues, (ek e...) art... artu zinzten puxkak ta matten tzuten dirua zerbatt ere. Ematte uzten diru ura, puxkakin yuaten tzena, arentzat tzaten tzen, itxe batzutan gexio, bertzetan gutxio...

**Ink.: Eta aurruk yuaten ziren, ez?**

Beti aurruk yuaten tzien, ta aurruk zein itxetan matten tzuten geixkuna, pss, denak yuan nai ta ya artaño zatten genun arat. Antxe aitzen giñen.

(Igantzi)

Kaikuak



### GURE HITZAK

#### Goporra:

Gosaltzeko erabiltzen zen egurrezko ontzia.

#### Abatzak:

Gaztanbera edo mamia egiteko erabiltzen zen egurrezko ontzia.

### ESNEKIAK: GAZTA, GAZTANBERA...

Gatzagia leen, leen gordetzen genuen bildotsan gazagiya. Ta, arek izatten du... xualo bat... esne kallatu bezalkua, eta ura trapu batian bilddu, ta garbi-garbi arekiñ matten tzen.

(Bera)

### Kaikuak, goporra eta abatzak

Gaztanbera itteko ta ola, ardi guti... bi d'iru do iru do lau, zea itteko... eizteko... iru do lau ola zanez kero, geio ez.

(...)

**Ink.: Gero oporrak zertako ziren?**

Ja! Oporrak guretako, yateko.

**Ink.: Kafesnia do esnia talukin ta i...**

Talo... talukin esni yateko.

**Ink.: Abatzak? Zertako erabiltzen ziren?**

Abatza, berriz, zera itteko, (...) orrekin, gaztanb(e)ra.

**Ink.: Gaztanbera? Orduan kaiku(k) bezala?**

Aunitzek oañik e Bortz erritan, or, kaiku batendako igual bi olakuk galdetuko zte.

(Arantza)

Berako bestetan

## BERTZELAKOAK

## Sagardoa

Bueno pues sagar ura bildu, seetu maza batzukin, ta bota makina orren barren(e)ra. Ta arek berak estutuz, estutuz, estutuz, zeba betik, azpitik xurruxta batian botatzen tzun. Geo **egazki** batzutan pasatu, inbudo audi bat paatu, eza egazki... ta barrikara bota, egurrezko barrika audiyoiek, pues etara bota, t'utzi al-ala. Ura utzitzen tzen ala. Kao, igual betetzen gintun iru-lau barrika do ola, pues bai. Biño gero arek, e... utzi bar da ura astiyakin, arek iten do gero, botatzen do aako apar zuri bat, ta denborak ta denborak maiten du igual illaute bat botatzen. Ordun apar ura botatzian, bajatzen da barrikara, biño ura pixko at man areri. Ta gero bera asitz... geltzen da botatzetiken, bera kuratzen da ura, ya ona yarritzen da orduan. Orduan, tapatu. Ordun tapa batzuk in eta buztiña, badakizu zer den?

**Ink.: Bai.**

Buztiña ta bei kakakin, bei kakakin in masa bat. Masa bat arekin iñ, eskukin ura masa iñ, ta barrika areri taparen gañin ongi tapatu ura, ola buleta bat in. Ungi tapat(u) ura, ungi tapatu, e! Porke a... artutzen baldi'ma aizia, txarra ateitzen da, mingortzen da. Ta ura ongi tapatu, ta ura ez geigo ideki.

Gero, etakit nik, gero botiltzen genun abril, ori s... ori badakit seguro, abrilar botiltu. Botiltu, batzuk andik ateri, probatu pixko at, botil... botillin sartu, bertze batzuk kortxu man, ta gero botill' ura ez txutik, ez txutik utzi, ola, etzanta, bai. Ta ura utzitzen (g)enun, **eiean** iratzia baigenun, zoko batin iatzia, bueno badakizue zer den, bueno erran tzue aixtion, oaintxe, eta iratzi aen azpiyan, freskoz ooiteko. Ta terrible izaiten genun sagardo ona. Txanpaña bazala ateitzen tzen ura, kon... kortxu kendu ta pum! iten tzun arek.

(Etxalar)

**Erraina:** Ta zertako ibiltzen tzen sagar ori?

Sagardua ittko. Sagardua ittko sagarra, bertzela ezin da in, sagardua ittko sagarra iten tzen arkin (...).

**Ink.: Zuek bazenuten tolarea?**

Guk ez biño nola zen bi itx... bi bizitzeko itxia, bertze ald(in) zaten zten tolaria, ta sagarra re zatten uzten bertze aldekuk aunitz, baserri audiya zen. Ta gero, bertze baserritikan zatn zen sagarra pilleka. Ta ordun, zuk edozer baldin bazeun, neurri ura zaten tzen. Ura bete, onemertze karga. Biar zinttun zuk amar karga sagar barrika betetzko, pues amar alkuk zakun artu ta itxera karri, ta sagardu iñ. Ta onemertze zaten tzen pagat barra dudik gabe ordun, karga sagarra, bai.

**Ink.: Karga sagarra, a, ori da. Ta ola neurten zen gero tolarean ongi sartzeko, ez?**

O, ola sartzen tzen, zuk baakzenun ainbertze karga sagarkin zenbatsu sagardu atezen tzen. Makur aitz aundirik ez. Zuk berreun litro sagardo nai zinttun, pues onemertze sagar. Ta ya arkin bazenekizun seguro zemat sagardo ate bar zen. Ta karo, an nola zien tolarik an, pues, iten xtun iru-lau itxek sagarduk an. Ordun itten zen pilloa, urte guzikua. Gure bertze aldin [etxearren bertze aldin] iten tzien igual... ba, milla litro, milla ta berriun litro, milla ta irueun litro igual, sagardua.

## GURE HITZAK

**Egazkia:**

Iragazki.

**Eiean:** Heian. Heia, ukuilua, abeltegia.



Sagarrak xehatzen



Sagardoa

## 1.4. Elikadura



Sagardoa egiteko sagarrak xehatzten

### GURE HITZAK

**Pisoia:**  
Sagardoa egiterakoan, sagarrak xehatzeko tresna.

**Unilla:**  
Onil. Inbutua.

kupel zarra zen, guretzat, bua! Ura betetzen asitzen (g)iñelikan, mekasuen diez! Dena, eskuz xiatu bar zatten genun sagarra! Makina bat ibiltzen genun eskukin. An xeetu sagarra ta sartzen zen tolaritan; gero buelt(a)ka mozti ateri, palanka audi batzukin bueltka-bueltka tornu batin sartzen zen ta an muztua ateri ta bete. Urik tantik gabe, ondar-ondarrin pixkot maten zion ta gañekun sagardo terriblik atezen tzien, jœ.... Oain torzn dien oken aldin, kolore... ori-oriyak, arront difentik, ek edan ta ok edan! Oain denak igualak die, biño ordun, ordun barri(k) guzik difentik atezen zien. Geo sagarra re ordun zaten zen klasik, ba, espresak sagardua ittko. Oaindik pena bat (d)a emen akautu dela dena, akautu da dena. Oain zuk nai duzu lengo sagarratik bat? Ezta.

(Igantzi)

### Sagardoa nola egin

**Pisoiekin** itten genuen, pisoiekin. Yartzen tzen gizon lerro bat, eta bota sagarra, eta denak pra! pra! bat-batian pra! itten tzuten, pra! dena(k) batin. Baten batek konpasa galtzen... zuen, oiu itten tzuten, dene(k), konpasa.

#### Ink.: Eta gero?

Eta, gero, ura paratu pixkot gozatzen. Eta ura gero pillatzen tzuten, biño kuadratu itten tzuten, e! Nik e... gero azken aldera gu(k) prentsa izatten genuen biñon ura... kuadratu paratzen zuten, ta izatten tziren zurazko kaño ttiki batzuek tartin sartzen zazkiotenak, ek, gero ardatzakin estutzen zittuzten, denak ardatzakin. Eta... ko... ura... ura botatzen tzuenin tiñera yuaten tzen. Tiña izatten tzen, ta andikan bete.

Dena, dena zurazkua. Ori... **unilla**, unilla badakizu zer den? Enbu... enbudua da unilla (...). Enbudo audi bat, olko... kuadratu (i)zatten tzen, zurazkua, dena zurazkua. Palak ere zurazkuk izatten tziren, palekiek ere bai. Palekiek bulkatzeko ta, dena zurazkua, dena zurazkua ibilzen zuten.



Besta giroa Larrategainan

**Ink.:** *Ta ya egin ori (ta) kupelin sartu.*

Ura kupelin sartu, ta, ura... tamaña noiz alletzn tzitzion botiltzeko... denak kortexitu ta gorde, urte pasako.

Demontrin kupelak (i)zatten genittuen. Ta kupelak, bettiko itxe batin izatten tziren gure kupelak bonba batean. Duijabe lenogo... sagardua saltzen zanen zuten. Bettiko plazko itxetan izatten tziren... baserritako kupelak.

Gero, botiltzeko izatten genuen... sagardo ona. Ura, ba, sagardo purua, botiltzeko. Gure attak kuidado aundiya izatten tzen beri arek; egitten tzion xulo ttiki bat orrekin, **kinpalta**kin, eta andikan botatzen tzuen ttirri! xiri bat prest izatten tzuen ta andikan probatu.

(Bera)

### GURE HITZAK

#### Kinpalta:

Zura zulatzeko tresna.

Kasu honetan kupelari zulo txiki bat egiteko erabiltzen zen tresna.

## Postrea: mustillua

Ta... ori... sagardua egosia. Sagardua ontzi audi batin paratu, sagardo... utsa, e! Ori, nasi biarra, urikan gabia. Eta arako lemiziko ateitzen den ura an naasi, o... artu, eta barriño audi bat izatten genuen bi... adarko barreño audi bat, demontrin ontziya (i)zatten tzen. Eta ura igual zortzi egun egosten! Baizu. Ta ura gelditzen da pixar-pixar bat, ta areri iltxaurrak nasi, ta mustillua ura izatten genun, basotan paratuta.

(Bera)

## Katu jateak ☺

**Ink.:** *Eta katuak ere arrapatzentzen zenituzten, ez?*

Bai, katu yatik in ttugu ordun! Katu aunitz, bai, ori... panaderiya emen izatn tzen, ta panadero aizn tzen mutilla, lesakar bat, laguna zatte gunun, ta, katu baldi... gazti baldin bazein an erretze gunun, labin, panaderiyn. Ta, zartxio baldin bazein, saltsan, gisadua, patatakin ta...

**Ink.:** *Ze, gogorragoa zelako, ez? Igual...*

Egotten e... iduktzen genun, larrutu ta gixena dena kendu, gustu ura ez zatko, gixena dena nabalakin kendu ta, e... bizpairu eunez do zintzilka, ta or(dun) etzen frigorifiku(k) zatten, miño, negu aldin ta, bue, pixket xamurtz(e)ko. Ta ge(r)o emen mediko bat, mediko gazte bat Donostikua, ta... ura re gurekin ibilze ze aunitz, ta, gabin eon tzen gañea gure itxin, ta, baserrik... te, baserritan ta yaten ttula, ta arei matte zkioten, katuk, medikuri, bixitaa ta yuaten tzelik eriya ikustera ta... [irriz], ta, aek (sic) ere anxe yaten gurekin... Loidi.

(Arantza)



Bazkalondoia

Ori [irriz] itn tzun zerak, an, gure izeba Benita, ta amatxi, an Marinin bizi zerelik, oaiñ erraunten lekun, or itxia erre in tzen gero, arara, ta an yat(e) tzen tartin katua illa. Ori, ka... katua prestazen zen gisadua... gisatua. Ori iduk bar tzunun il ta... biño il

## 1.4. Elikadura

bar da ola, gaztia, ederra do... katua ederra dena. Ta ill, ta ongi era... zertu ta zintzilka iduk bar tzu iru-lau bat egunez, yuatko, bertzela usaia badu katu(k). Ta, gero koneju bezaltzen prestazen zun! Amatxik aitz ongi prestazen zun, gure amatxi Joxepak. Ta [irriz], nozpatt ere ola aipatu, “que... sí”, katua yan barra ta orrela ta: “Ui!”, bazen ori, esni eske (e)torzen tzen, orrara, maña bat, mañika bat, majagoa! ta, esto...:

- Sí, vamos a preparar co... esto... gato.

Ta (...):

- *iAi, ojala nor comería!... iUi, me pareze que me está arañando!* -ta orrela ori-

Ta:

- *iA, no, no, nosotras bien a gusto comemos!* –ta orrela-.

Ta, gero enpin noispatt ere ok prestatu barra, ta prestatu ute, ta, ura alletu ta:

- *iUi, qué olor má[s] rico!*

Ta eztakit zer. (...) Ta... gero ori, esto... etor da ta:

- *Sí, hemos matau un conejo* –konejuk ere bai (i)zatten baitzittuzten– *y la madre ha preparau y ahora vamos a cenar [euskal ahoskera] con conejo y... ¿quieres probar?*

Tia Benita, gure izeba, oaiñ Iruñin bizi da, bere alabakin-ta Iruñin bizi da. Ta, arek, elementa baita ura, (...) ta artu (zun):

- *iToma!*

Pat zion, ta:

- *iUi, qué rico!* –ta-: *iQué rico!* -ta be geixio, ta geixio, ta arek ere:

- Yan tzan!

Ta, berriz ere:

- *iQué rico!* -ta bizkorki yan.

Ta gero, esto...:

- *iBueno, gracias!* [euskal ahoskera]

Ta orrela, ta yoan da etxera, ta, biaunin:

- *¿Qué, te sentó bien el conejo?*

Y:

- *iSí, qué rico!* –ta eztakit zer-.

Ta:

- *iAi si supieras! jera gato!*

- *iNo me digas!*

Gero:

- *iAi me va a arañar!*

- *iSí arañar, ahora te va a arañar! ¡Ya ha pasau, eso ya no te araña!*

Tia Benita lertu(a) irriz:

- *iVes qué rico!*

- *iPues sí, era rico!*

Katuk epaitu deus e, katua... ungi prestatuz kero, katua yatn tzen, jesus! katua yatn tzuten... katoa yatik itn tzeren emen! Ordun gauza aunitzik ere etzen, ta katoa yatik bueno!

Lagun giroan bazkaltzen

(Arantza)



# 2



## Herriko bizitza





BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

2

**Herriko bizitza**





## 2.1. Herrien arteko harremanak

### Zalain Zoko eta Alkaiaga<sup>1</sup>

**Ink.:** *Zalain Zoko eta Alkaiaga zer dira, Bera edo Lesaka? Ze gatazka dago or?*

Lesaka.

**Ink.:** *Lesaka?*

Lesaka.

**Ink.:** *Baño batzuek esaten dute Bera dela...*

Bueno, ala nai duenak ala esango du, miño(n) nik ez.

**Ink.:** *Zu lesakarra.*

Ni lesakarra; Lesakan jaiua naiz ta nik bent... beti esango det lesakarra. Oain, beste aunitz gauztako Berara geigo o... biartzen naizela? Bueno.

**Ink.:** *Kao, Bera urbillago dago eta bizitza aunitz itten duzue Beran!*

Urbillo... urbillago... urbillago daolakoz ta komodidade geio badelakotz, ori. Beño, guk Aiuntamentua ta... juzgadua dauzkazgu Lesakan; oain, gañeakua, elizaz... elizaz ta... dena, Bera, Bera dua.

**Ink.:** *Medikua.*

Medikua ta...

**Ink.:** *Eta eskola ta...*

Medikua ta betenariua... ta eskola ta dena. Gañeakua dena, biñon!

**Ink.:** *Eta noi... noiz asi zen... oi, bueno, batzuk Bera... batzuk beratarrak izan nai zutela, bertze batzuk lesakarrak emen... Noiz asi zen oi? Bueno... ge... bueno, gerra ez baño...*

Ummm... mill... ba, bertsuak badire:


“Milla bederatzieun berrogeita bostian  
okasio bat jarri digute atian  
berentzat mesede ta  
guretzat kaltian  
bañan etzan artzaia  
lo egon bitartian”.

(...) Oiek... paratu zittuzten, ordun ein tzuten... emen  
bazen bersolari bat Lesakan, ola, ez e... bertsotan aitzen  
tzena ola, miño bertsuk jartzen tzittuena, ta arek paratu  
zittuen bertsu oiek, bai.

(Lesaka)



Zalain Zoko auzoa



Alkaiaga auzoa



Arantza XX. mende hasieran

<sup>1</sup> Pasarte honetan bere euskaran normalak ez diren formak erabiltzen ditu, gure eraginez.

## 2.1. Herrien arteko harremanak

### Alkaiaga: Bera edo Lesaka?

**Ink.: Joxe, eta zu Alkaiagan bizi zarenez, zer tzara lesakarra edo beratarra?**

Pues ni naiz alkaigara... ta na bauzu zuk erranen tzu lesakarra naizela, biño ni(k) nere burua beratarra, lesakarra biño geigo ya, arrautzen dut. Yaioz kero Berara yuan naiz, ta pues laixter igual yua'marko dut betiko e(r)e Berara. Zertikan ya... ya zartzen ai naiz ta an zann da nere otela, an zann da ez, an da.

**Ink.: Beran duzue otela? A...**

Bai, bai, bai. Ta onengatikan pues... nik ze erra... ze erranen tzut? Paper... paperetan alletuk(o) naiz lesakarra naizela, biño ni(k) nere burua lesaka baño, beratarra geigo.

**Ink.: Bizitza erabat Beran eiten duzue, ez?**

Karo, karo.

(Bera)



Aranibar. Arantza

### Aranibar eta Ibarla ☀

Bai, ori, biyek e... bi baserri urbillegi in tzirela, asertuko zirela... lemiziko Aranibar in tzuten, baserri zarna ori da, ura etxerik zarrena Arantzko erriyan, ta gero Ibarla. Ori, erreka gora yuan ta... krixton biajitan dago. Da ño! urbillegi in zittuztela, aserretuko ote ziren bi familik!

(Arantza)



Zubigaineko dantza. Lesaka

### Zubigaineko dantzaren jatorria

Bi auzo ziren, Lesakan zanen tzen leno bi auzo; uratik gotti bat, ta uratik betti bertzia, m? Ta kiao, beti elkarrekin "Bai, i bayaiz ta ni banauk", e... konpontzen eziñ e konponduz ta beti elkarrekin foyonak eta bua, ta, azkeneko, norbattek in bar tzun, ta iñ uzte: "Bueno, i, au" —tor zann tzen burua nozpatt ere ta—"Bueno, au... au ze?". Ta in tzuten, asi zien *Tratados* [euskar ahoskera] políticos elkarrekin iñez, e! Ta konpondu ziren. Ta: "Bueno, oaiñ in bar diu besta bat, Sa Martiñ eguna". Oaiñ San Fermiñ itn (d)a emen besta, ba Lesako da Sa Martin.

**Ink.: Ori patroia o...?**

Patroia Lesakua Sa Martin da. Ta, gero in tzuten ganbitu, San Martin da normalki negua zatte'maita, ta in zten Sa Martiñari kanbiat tzion Fermin. Santo bat do bertzi izan berdin nola baiten, e! Sa Fermin.

Ta orduan in tzuten ori, ta "In bar diu besta". Ta in tzuten besta bat organizat tzuten, arbola... arbol o... arbol ban... bandera badu Lesakak, beria, dena(k) uten bezala, ta in tzuten best(a) ori. Lemiziko cultural...mente pentsatu, dantza in, zortziko dantza ori, zorziko dantza zubi gañeku ori, ta gero gañera, prestazen da erriya, bada(ki)zu, erriko... orko... zera, zubi ttikiya ortan, emendik ateitako bigarren zubiya orretan, bandera itn da arboldu. Ta in tzuten bandera ura, bandera bat, buelta osun denantzat bandera bat, eta bi auzotakuk dantza bat, ta ya in tzen erriya unittu, un... yuntatu zien erriya. Oi da erriy'onek dun istoriua.

(Lesaka)

### Bastida baserria

Bastida baserriyan e... ematten tzioten **eskazaliri**, eskazali erratten gionion, eta ematten tzioten ori... lo itteko tokiya, bein eian, eta... eta arrastan, arrastan ematten tzioten ori, eltzariya, eta goiztan desaiunoa, bueno, kafesnia do esne utsa do nik eztakit zer emanen tzioten, miñon ematten tzioten. Ta... eta yuntatzen tziren miñon aunitz, e! Etzen beñ ere okasiorikan izandu, zertaz fiyatu bear tzu ez? e ori... bakotxa bere lekuko yendia etortzen tzen, eta, batzuk agitz izaunak [g]enittun, beño bertze batzuk ez, eta... Ez, ez, egitten tzuten lan izugarriya itten zuten. Eta an jito batzuek ere egondu ziren, egunak or pasatu zittuzten; da azpik'aldin bazuten olko etxe ttiki bat eta aretan egondu ziren, eta, ez, ez, izugarrizko ori ziren, ospedaji(a) ematten tzutenak, bueno!

### Zelaia baserria

**Ink.: Eta Zelaia baserriak ere bazuen zerbait berezia, ez?**

Ori, ori erratten te, baita barrentikan, etxe barrenian a... pasa... pasadizu(a) badela, pasatzen aal dela ori, toki... emen, bigelk'aldetikan antzink'aldera, ta antzink'aldetikan bigelk'aldera bertze... bertze auzu ba[t] da, ya Itzea da bertze... e! ta orrat pasatzen... pasatzeko deretxu badela.

**Ink.: Eta orduan or yendea pasten zen normal, ez? pastu bear bazen...**

Pasatu bai, pasatzen tze(n)... pasatzen omen tzen, e ni... ni ez, ez naiz pasatu biñio pasatzen omen tzen.

(Bera)



Carmelo Orube - Lesaka

### Ubiria baserriak erregeek emandako pribilejioak zituen

Ta bertze gerra batin, berriz, gerra bertze okasio batin, mengo... mengo zeren bezala bertzek gerran ai zielikan, urrengun bertzikin yuan zien, bertzen onen kontra *Sancho el Fuerte do Sancho el Sabio*, eztakit zein oitakun kontra. Ta, berriz irauz zun berak, emengu lemizi irauz zuna. Ta ordun, kastig... ein zittun Iruñitik onatxio bada Miazubi, zubi bat men da, izena duna ori. Eskudua orretaz da eskudo... Mia... Miazubin. Ta an in z(i)ttun itto zintzillik pat zittun emengo soldau denak, errege orrek. Ta kendu zion, amabostik... zortzitik barrin merkatua, amabostik patu zion gero.

Bai, ta gero bazen, tarti orretan, ipurdi erretzalle geigo zanen tz(i)en ordun ere! Ta ordun bazen gizon abetsa, bono, bakarran bat... bakarran bat erregikin ongi etorzen zena, e! Ta areri erran tzion erregik ze nai zuen. Ta eskatu zion arek, difuntua, baserri artako difuntua ekarri barrin errira, ta gero emendik elizera nola añen tzen... billa yuatekua, m? Ta ordun, Ubiri baserrin, nik neone(k) kusi ut bi aldzizeme, eta iltzen bazen angu(a) Ubilgua, oi zen Ubiri, ta iltze'mazen yuaten tzen eliza...ko apeza ta dena bertara difuntua eske ta kartze uzten elizara, ta elizan meza... man, difuntun meza ta geo kanposantura lagunzen zioten berriz. Oi zen pribilejio bat erregik emana Ubiriko baserriri. Ta eztakit ezen emen pasatu zelakoz erregia ta eman tziotelko gosaltzen, ni(k) eztakit zertaz biñio bazun pribilejiu ori.

(Lesaka)



Berako ikuspegia

## 2.1. Herrien arteko harremanak

### GURE HITZAK

**Elutsa:** Elurtegi. Urte guztian zehar horma izateko, elurra zamatu eta gordetzen zuten tokia.

**Ink.:** *Eta gero, badago Elutsa emen, ez? Beran.*

**Elutsa** bai.

**Ink.:** *Bo, Labigan edo nun da?*

Labigan, biñon eztakitt... eztakit non den, e! Eztakitt.

**Ink.:** *Eta zer da ori? Zertaz du izena?*

Ori... ala erratten tzuten, aizu, an pillatzen tzutela elurra, ta ongi zanpatu, gero... ormatako eramteko.

(Bera)



Besta egunerako jantzita

### Herrian nork agindu

Oi ama! Ordun! Oaiñ... oaiñ apezkin bertze bat geigo uzu, eztuzu... konfiantza guzi... biño ordun ez, ez, orik, [a]peza ta... sekretayua eta mediku zatn tziren erriyan orik, iru jauntxuk. Ekin etzen iñor sartzen.

(Igantzi)



Joareak

### HERRIEN FAMA-EPISTOLAK ◉

Beratarrak orgullosuk

Lesakarrak mozkorrak

Etxelartarrak enbidiosuk

Yanziarrak yakintsuk

Ta aranztarrak arrikalarik.

(Etxalar)

Lesakarrak tripazaiaik (...)

Igantziarrak enbisiosuk

Biño bueno, ori... eurek reformatu ute, zertik etorri zen obispo bat ta atei zien esaminatan aitz ongi, ta erra... orduk obispua arek paat tzion jakintsuk, jakintsuk paratu zion.

**Ink.:** *A! Eta len etzen jakintsu?*

Ez, lemiziko... ordun tzen:

Igantziarrek (sic) enbidiosuk.

Ta:

Aranztarrak arrikalariyak (...)

Etxalarku(k) fantasiosuk

Ta Berakuk orgullosuk

Total altso.

(Lesaka)

**SISEROAK**

...aren amak artu bi mutil koxkor, famil' audiya, eta gaztañak billu ta zako ttikitán paratu. Eta iruek, zako koxkor banakin segi Donionerat. Ta Muxtingorri zatten tzen... ori, Muxtingorri or da oraiñ ere, ori (i)zatten tzen Aduana, Frantziko Aduana. Ta an pagatu bear zatten omen tzuten Aduana. Eta, egitten omen tzuen Aduanat alletu antziñian, iru... iru sakukin bat bete, ta Aduanan bat pagatu. Ta gero arat(e)nko aldera pasatzen tzirenian berriz bete, ta aurr'eki(ri) eramanazi.

**GURE HITZAK****Siseroa:**

Zerga biltzailea.

## 2.2. Klase sozialak

**Jende ikasiak ez ikasiak mespretxatu** ☺

Beti ola... eske yende karreradunak uste zuten gu tontuk do ola giñela beti, karo, miño ezkiñen tontuk, ez nekigun biño tontuk ez. Karo ez nugulakoz ikasi, biño... Ta beti ola... despreziatu bezala zattn tzen yende pobria. Mño leku aunitzan, e! Ez or bakarrin, denin, bai. Eske... beti ola zandu da, denbor etan, gauz guzitan.

(Igantzi)

Aldaira, aldaira, aldaira, bai; San Martin bai, San Martiñ egunakin zatten zen, bai. Oai, gure denborako ori ere guttitua, ya aitz gutti kusi (d)uu guk aldairak, e! Miño oañikan oeita lauin-ta, bakizu? Sail bat in tzela, au da, aldatu zela, bai.

(Bera)



Matxarda

**AGOTAK**

Agotak errat tzen nii amatzik: "Agotak ttuk yende nano batzuk –nanu errat tzio ttikiyari, nanua. Nanua, euskaraz-. Nano txar batzuk, ttiki batzuk ttuk". (...) "Eta gañera baute usaia, ikaragarrizko [indarrez] usaia bozen tek. Agotak. Esttuk, e[z] xiztek il ta emengo lurrin sartzen, lurren aparte sartzen iztek!". Ta ala itten men zuten gañea.

Ala kontatua neri, bai. "Ta oiek e[z] xistek yendik kus(i) nai ere! Eta orik lapurre ein in ta ola ibilzen ttuk bidin ateita", ta ola, agotak omen ziela, elizan etzizten ameitzen, segun amatzik, oi kontazen ziun, ta oitxe kontatuziun amatzik.

**Ink.: Eta belarria bazuten ola itxekia... edo...?**

A belarrik bai, ola... belarrik motx batzuk iratxik ola elkarreri itxekik.

(Lesaka)



Etxalar

## 2.3. Auzolana / bizilagunen arteko jarduerak / lur komunalak

### 2.3. Auzolana / bizilagunen arteko jarduerak / lur komunalak



Auzolanean

#### Auzolana ☺

Sei eun zatn tzen ordun, plantaziutan ta... ta gu ma... mandua, mandua zatn tzunak mandukin itn tzun, ta sartzen xun e... eun bat yuaten bazin mandukin, iru eun. Biño... ibilli re bai, e! Ordun planta garraio ola tokatu nai[z] ni frankotan. An e, Itxelarko kruzetik onat'txio plantadilla zatn tzen. Oaiñ ola... baita Brunon txia ta zatn dana an aparkadero bat, aren gaink'aldia... oaiñ e ola plantak ola die, zera. Ta, aat yuan mandukin, ta an kargatu, ta betxkora... bi biaje, goizin bat ta arrasin bertzia. Ta, iru e(g)un.

#### Ink.: Eta noiz izaten tzen auzolana?

Ori, plantaziu zatn da negu azkena o... primabera aldera, plantak, ori, berritzko.

#### Ink.: Eta ez... norbaitek ez bazuen egiten ordaindu bear zuen...

Etakit ordun ze... zenbat zatn tzun baloria eztakit, biño geo berzik biditan, bidik, ordun galtzada zatn tzen aunitz, ta galtzada zaten tzien trozu(k) urrazen tzienak, ausizn tzienak, ta, ek berritzen, bat eitten aik' zien ta bertzik arri garraio, ta...

(Arantza)



Lanerako tresnak

Ta, auzolanak izaiten tziren, ni Aiutamentun nitzen denborin bi egun zaiten tziren, biño uste dut iru eguntaraño ere izandu zirela. Ta egun bat in bar zaiten tzuten Aiutamentuntzat, ura mendiyan **mindegitan**. Ta ezpazuten egiten kobratzen tzen; nere denbo... ni Aiutamentuan nitzen denboran berrogei duro, berreun pezeta kobratzen tzen. Ura

zaiten tzen kastigua, auniz etzen yuaten, biño auni[z] xoan ere bai. Ta iten genugun plantazionak, egun artan, plantazionik... urte batin alde batian, bertzin bertzian.

(...)

Ta bidetan ere bai; gero zaiten tzen bertze eguna bide txarrak konpontzen. Ta bide txarrak konpontzian ere batzuk abillak zaiten tziren, ta Aiutamentuak erne xamar ego'mar tzuen, beti ba(k)izu, irri iteat etzen utzi biar! Papera emaite'maldi'mazenion egurdi antzifin, igual, baziren arraslin etortzen etzirenak, eta ori, arat arraslin yuaten tzenak erraiten tziuten guri:

- Aizak! Ik orreri eman diok papera, arraslin eztuk torri!

#### GURE HITZAK

##### Mindegitan:

Mintegietan. Mintegia, lursaila, bertze toki batean birlandatuko diren landareen haziak ereiteko prestatzen dena.

Eta:

- Bueno, ez aputu! Eldu e [den] urtian baakit noiz torri! Torko naiz illunabarri[n]!

Kao, denak ezpainen... ezpaigintugun kontrolatzen al! Ta denen gañi(a)n egon!

Batzuk bide batin, bertzik bertzin ta, batek zona (b)at artzen genugun ta yuan ta ordu erdi bat edo ordu bat iten nun grupo batekin, ta bertze bidera yuan ta bertzian ai zienak, ta, ola iten genugun.

**Ink.: Eta grupoak nola egiten zenituzten?**

Ez, baziren kostunbriak. Auzo bateku(k) billutzen tzien dena(k) puntu baterat, eta orduan erraten du, bueno, e... auzoku(k) berak, erraten te:

- Bueno, olko lekutan agiz gaizki du bidia.

- Bueno, ala goazen! Zoazte, arizte an zuek! Gero torko nai(z) bertze buelta bat emaitera(t)!

(Etxalar)



Egur garraioan

## 2.4. Pertsonaia bereziak

### Olako Carmenen istorioa

Eta ola oikin istori ttiki bat badut, ta ori at... gure gurasuk auniz [indarrez] kontatzen tzuten, eta aïñen sartua dut, au benpin kontatu bar zaiztet. Baserri bat bazeen Errotxarkorda izena zuena, ta ango yend... familiak lan egiten tzun ola oitikan urbillian. Ta pasatzen (da) erreka audi bat onduan, erreka audiya da, erreka kozkor bat. Eta... familia bat bizi zen Errotxarko borda ortan, badie baserriak geio ere urbill artan, oain zemait ustu dire, biñon oañikan ere aste ondarko ta... itxe rural oitikan ta paratu tuzte, naiz eztien kontinun an bizi, oañik badie, badie baserrik, ta, oitukuk ta... iten tzuten lana ola oitan, iten omen tzuten. Ta baserri ortoku(k) benpin, Errotxarkordako baserriku oiek, seguro naiz, gure gu(r)asuk erraiten tzuten an iten tzutela. Ta bazuten familia, ta, omen tzuten nixka bat benpin zanen tzuten, ek etzuten erraiten ze famili zuten, biñon nixka bat izena Carmen zuena. Eta, *riada*, uri... ekaizti bat izandu zen, uelde bat, eta nixka faltatu, ueldi artan nixka faltatu; faltatu ta faltatu ta akabo! ta akabo! Biño! jituk ere pasatu ziela, ta nixka ze in tzuten? Gure gurasuk erraiten zten ori beti lanekuk zarrak kontatzen tziotenak, nixka ura jituk eramin! Eta gero, atei zen nixka ura, duik[e] izanen tzen koxkorra, amar(ren) bat urte edo zazpi-zortzi-do... Etxelar beti oroitzen, Etxelarrez oroitzen, eta Etxelar ta Etxelar, eta, jituk eraun tzuten Sebillera, ta Sebillan jitauk, pues, egin tzuten, pues, artista bat atei zen artikan. Miño ori... ori egiya da, e! Oañikan ere ixtorietan ekartzen du ori! Miño agiz artista famosa gañerat omen tzen, Carmen... eztikit nola, eta flamenka dantzatzeko ta bueno... biñon artista-artista, Parisan barna ta... agiz artista ona.

(Etxalar)



Esne ontziak

## 2.4. Pertsonaia bereziak

### Agustin zelebrea

Bai, bazen zelebre bat bai, emen, Agustin izena zuna, bai, zelebrekeri audiak itten xuna(k). (...) Gizon ori zen, agiz mattia, matti(a) zen gizona, bai, trastada batzuek ola tartin itte zanen xttun, miño... bai.

Batian Amerikatik etorritako bateri re, sumatu nuen, gure ama urbillin txekua ta:

- Agustiñ igual-igual arrautu dut, Maria –erran tzion gure amari.

Ta:

- Ze bada? –ta- ze bada? Zer diok Agustin?

Ta :

- Osasunaz ongi, mño diruz ez –erran omen tzion.

Ta:

- Zer du[k] ba?

(Ta):

- Bai, problema audiya diat; duro dutenian Zalañaño yoa'mar diat ura kanbiatzera.

- Ba! duro bategatik, eztite kanbiatzuko ori ta!

- Ez, bertze guzitan zorra baitiat, ta bueltik etziatek ematten.

Bai ta... bertzia emen, ostattu batin ere:

- Franxixka, atei zian ardo... baso (a)t ardo!

(Ta):

- Pagatzik lenguak!

- Fras... Frantxixka, gaxua! Agitz egarri nio(k)!

(Ta):

- Pagatzik lenguak!

Bueno, kanpora ateri ta, yoan ori, Agustin, ta pixko baten buruan:

- Frantxixka, atei zian baso at ardo!

Ta:

- Pagatzik lenguak!

Ta arraultze bat irautsi, eta, arraultzia... ardu(k) man:

- Oain kitto!

Ta:

- Bai, kitto, zorra pagatua!

Eta, andikan beila alaba:

- Ama, arraultze bat biar dut!

Ta:

- Ortxe badun otaskan.

Ta:

- Ama, emen ezta arraultzerikan!

Eta:

- Bai Faxio, or dun arraultzi bat!

Ta:



Etxalartarrak besta giroan



Carmen Madariaga eta  
Ramon Elizondo - Arantza

- Eztela emen arraultzerik!
- A zerriyal! Agustiñek engainttu ni, nere arraultziking ardua edan, zorra pagatu ta yoan du[n].

Olkogauzak. Mño iñor ez... iñor etzaion asertzen, ori da, ta ostatu ortan bertan, goiz batez, etorte (o)men tzen olko sakam... sakamuelas edo olko bat ta, ori: "Eztukela...", alegia, ta:

- Ni kopa bat anisen alde nik paatuko zioat aba!

Ta bertzia yoan ta:

- A ver ¿cuál? –erran tzion erdaraz, ta erdaraz yeus ez yakin (ta)-, ¿cuál?
- ¡Las cualquieras!

Ta bertzik... bertzik artu traa! ortz bat kendu. (Bueno), koñaka o... anis edan ta konfo... konforme ai zala. Bai, bueno, ez, ez, ezin sinets bezalkuk egiña... egiña dela ori, bai. Ta etzaion iñor asertzen gañera, kao, ez, ez, ez, ez, ez, ez. Geo lagun biar tzen ola Agustin beti prest, auzun ta ere bai, bai, laguntzalle ikagariya, bueno, yende ona omen tzen ta ala ya... segittu te, raza arek ala segitzen du gañera, bai.

(...) Saran yuan ta, orko arrantzaliak, arrai... arrai saltzalliak, Doniona ta Ziburu ta oitakuak, neskatxak, arrai saltzen aiz...ta buruan ibiltze(n) xuzte(n), geo pedar yokua ite uzten buruan, itten omen tzuten, eta, len buru zen alkate mediko famatu bat, eta, arek gizonik ez... ez libre biño, ori, eman tzion Agustiñeri: "I..." bueno, permisu ori. Ta atei men tzen bi neskatx ederren tartian pedarra buruan, yende guziyak antxe irriz ta aja... **ajarika** ta esperuan zerbaitt eiñen zula, ta, juradun aintziñea alleatu zenian ya! iñor ez men tzen goartu re zein zen ta, iru pedarrak lurrian pa! xeetu ta, Agustin lasterka ta, itxelartar neskatxa bateri bota omen tzion buruttia erratten tzena: "**No zan**, ureketako baliyoko din!" ta, eskapo, larrutuko omen tzuten bai ordun ura arrautu zan bazuten.

**Ink.:** *Ta emakume orrei... oiei nola deitzen zitzaien?*

A! **kazkabotak** erratten zioten, bai, bai, orretara, etortn tzienak ola, arrai saltzalli ekik kazkabota(k), joe! Eztait ze erran nai dun biño...

**Ink.:** *Arraia buruan esan duzu eramate(n) zutela?*

Bai, bai, arraia buruan ibilzen zutenak, bai. Bai, men ere oroitzen naiz karrettillan-ta Be(r)an-ta partitzen ala ibilten tzien, Emexortxi ta Demetri... trenan... trenan tortzen tziren eta batek karretilla zatten zuen, karrettillun katu us... kato pilla bat ondotikan ta miauka. Ez, e(z), ori ola ikusi dut arraia, e! Ta emen barna re a... arraiakin tortzn tzen egunero emakume bat.

**Ink.:** *Onaño?*

Bai, bai, korrittu xtuen bua! emakume alegina (?), alargundu zen ta gero areri

## GURE HITZAK

### Ajarika:

Irrika, barrezka.

### No zan:

Emakumeei hiketan "tori" errateko modua. Gizonezkoei "to zak" erraten zaie.

### Kazkabotak:

Trenean arraina saltzera joaten ziren emakumeei deitzen zieten.



Arto ereiten



Etxalar XX. mende hasieran

## 2.5. Toki zenbait



Zartagin ondokoa

familia ordun gostatzen tzen bai ederki, ta ekartzen tzuen ori, pasa... paratua kiloka bezala gauzak an, ta kilu unemertzetan man ta kartzen xun orrek ta oai emen barna ta aatako Zubietan barna, ba! paliza ederra aguantzen tzuen emakumik, bai. Ta gero oañik baserritan lanin geldittuko zen igual arrasaldian zematt itxetan eo ola, eta... Bai, bai, arraia bai, arraia beti.

(Bera)

### Eskaleak

Santo Domingo bai! Santo Domingo izautu nun!

#### *Ink.: Nor tzen ori?*

Ori zen, eskezal... eskin tortzen tzen, atez ate (i)biltzen zen! Ta dena [indarrez], arropa guziya dena medallaz betia. Ta, otan (e)re, eskutan ere alanbrikin ola, sartuak alanbrik beatz(e)tan barrenera ta, den... txakur txiki-txiki batkin ta, tortzen tzen ta, atia yo ta bueno, baziren emengu bertakuk ere (e)tortzen tzirenak limosna eskeka baserritara ta erriyin bertan-ta limosnatikan bizi zirena(k) baziren. Ta ura torzen zen uste dut zela Urrozkua, ta, unara torzen tzen... eskin, ta, torri ta igual baskaltzera do ematten ginion, ta, gañekun limosna pixko bat man ta kontu-kontari aitn tzen: "Ni naiz Domingo santua!", berak erran... nai zatten tzun errattia santu zela. Mño dena [indarrez], bai! igual berreun medalla bedere bai! denak alanbrikin yosiyak arropari, ta ola klin-klin-klin-klin-glin-glin! beitzen tzutelikan. Domingo santua ta... bertze bat e zatten tzen a... ura biñoz za(a)rgua guañikan, Madalen zako. Ura re zikiña [indarrez] ta dena... baserriz baserri ibilzen tzen.

#### *Lag.: Madalen zako?*

Madalen zako. Zako audi [indarrez] bat bizkarrin, ta antxen nolpaitt e biziya atetzen zuten, limosna ematten genion, zer edo zer ta... antxen, an bizien tziren ek. Ta Domingo santu ori bai, ori... ibiltzen tzen aunitz, maiz tortzen tzen onara.

(Arantza)

## 2.5. Toki zenbait

### Pariseko putzua

Bueno, Parisko putzuna... nik eztakit, niaunek eztut ikusi, eztut ikusi nik, biñon fuerte aditua da. Ta nik aditu dutena da, dela putzu audi bat, erreka kozkor bat [d]a, eta paraje txarrian da, eta nik aditu dut eztela zolikan arrautzen an, biñoz, iduitzen tzait inposiblia dela ori, mño aiñin da toki txarra, pues, ezta iñor an... an... an... an... itxelartarrak sartu dienak izanen dire... kontatuk izanen dire, nik (sic) ez naiz sartu, aiz paraje txarra da.

(Etxalar)



# 3

## Bizitzaren faseak



BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

**Bizitzaren faseak**

**3**






## 3.1. Sortzea eta bataioa

### AMATASUNA (AMA EZKONGABEAK, TEILA BURUAN, ELIZAN SARTZEA, ATSO BISITA...)

#### Ama ezkongabeen haurrak gaez bataiatu ☺

*Matrimoniotik jaiotzen tzirenak bataiatzen tziren eguerdiko amaketan, amaketako eerra egiñez, apaizak eta attautxi-amatzik eta... *e(n) fin*; ta beste batzuk atsaldin merendu eer iñez. Ta, ni gaueko amaketan o amabitan bataiatu ninduten, ya... *religion katoliko* ori lotsatu zen ni inozenti ura religio orren barrenin artzia eunez, e!*

(Arantza)



Cayo Lazkanotegi - Bera

#### Ama ezkongabeen haurrak noiz bataiatu

Batzutan arrastan bataitzen zittuzen... solteatan zatten zittuztenak gabaz bataua.

(Igantzi)

#### Inklusa ☺

Denbora batin umiak, izatten xuna soltera batek, delito ba[t] paitzen ba, e! Apezak nagusi zienin delito bat tzen ori. Ta ordun itte uzten: "Bueno, au gorde bar dik nondik do andikan". Oaiñ Inklusa nola battiu umia in ta karri, ori gurasu(k) matte baldi'madu, eitn du umia an utzi, leno ori, e! Ta umia atzera karri, bueno... alaba itxera karri. Ta gero denboraz, denboraz aurra adoptatu, alegi ta bertze batena izaki, ta da etxekua. Oi zen eitten ztena Inklusatan.

Aunitzek, bertze aunitzek utzi. Miño **Eulata** zen ekin amantzako, ta ekin ama(k) sarzen zien komento batin bezala, ta antxe egotten tzien arropa garbittu ta ango lanak eiñez itxetik at... andik atei gae, mojak biño uañik ukerrago. Ori zen *Eulatas*. (...)

Biño ezpazuten gurasu oiek denbora orren barrenin reklamatzen aur ori, ordun mojak **partitzen** zten, alegik ta ogi... ogiya zaki. Partitze uzten mojak, orik ere ezpaizten beurek eiña.

(Lesaka)



Arantzako inauteriak



Argizaiola

### 3.1. Sortzea eta bataioa

#### Elizan sartza

Gero bertze... oitura a[t] pazen, bataiun ta ondotik, aurran ama, karo, esok oañik indarrik gabe, ta bixita... erraten bazen regaluk kartzen zuzten, oyua [oiloa]. Ta ordun bizkortzeko, man ba ollo salda, artu bar zun, maiz, egunin ez dakit zenbak aldiz. Ta... "Ara, yan zan ollo salda, orrekin bizkortuko yaz!". Bueno, bakizu, *aproximadamente* bi aste do ola, bi aste. Ta ordun, bertze oitura zen ordun, este... ama... aurran ama orrek oaintxe ongi yarri zenin, elizan sarzia. Ori ez... eztuzue aittu ori? Elizan sartu. Yua'mar zen, aur ori artu... este... berriz attautxi ta amatxi, ta aurraldi ber... ber... ber... bertze batek, bertze... familiako batek ola, ta ama gori zeraikin, bi **kantel**ekin. Ori elizan sartziat, ta an otoitz bat, o... otoi... orazio bazuk ta izen zion men, roketi ta estola paatu apaizak, ta ite... ezanen zen *se[g]uramente*

**Emaztea:** *De purificación*, purifikatzeko.

Este... pekatu iñak igual, au... aurra in zulkoz ta o...

(...) Ta elizan sartu, ta buelta eiña ta dena egiña. Ore elizan sartu bar tzen.

Ta aldi batin miño geigo oroitzen naiz, no... baizu yendia murmurazio ola. Ze... ze kanbiua in dun oaiñ, e! Igual, batek eztakit, erriktarra zen ya illauti pasatu ta: "Aizan, olko emaki [emakumea] oañik eliza sartzekua dun", asike kargua artzen, ola... Ta oañik ezen... sendatzen tzen gauza zanen eliza yuateko.

(Lesaka)



Teila

#### Elizan sartu arte teila buruan

... zortzigarren egunin do orrela... elizan sartzia itten gunun. Yuaten giñen arra... ori, apezakin egon ta... aurrankin ura egittera. Uain... uaiñ ezta itten ori, antza utzi zen, bai... (...) Alizan sartzen ziñen bittartiñoko, ezin ziñen tellatupetik ateri, ta, atei bar baldin bazunun, tellatu o... teil... teill oieti[k] pat burun patuta. (...) Ta elizan sartzi ura... ta ordun ya aurrankin ta elizan sartzen tzilikan, orduan ya... libre ateitzko...

(Igantzi)

#### GURE HITZAK

**Kantel:** Kandela.

**Atso bisita:** Ama erditu berriari emakumeek egiten zioten bisitari deitzen zaio. Oiloa eramatzen zioten, uste baitzen oilo saldak ama bizkortzen zuela.

#### Atso bisita

Aurra... yaiozn tzelik e... se... besta bisita erautn tzotzen ordun, ordun asiya ta uañik segi, uaiñ ya galduxe da pixko at, piño, ordun nola etzen zatten yat(e)ku ta gauzak, mixeria, itn tzotzen eramen ollua ta ollo salda ta arek e... amak arzeko, bizkortzko ura, kina ta ollua, ollo salda... salda ordun famosua, bere... ollua gantza guziyikin, guain kendu itn tzio, lemizko fuertina, miño ordun ura zen obena...

**Lag.:** Indarra mattko...

Bai, ta gero ollua... egosi ura saltsan, ta, bizkortz(e)ko... alimentua...

(...)

**Alaba:** Bisitaorreri nola deitzen?

**Atso bisita.**

**Ink.:** *Emakumeek bakarrak eiten zuten, ez?*

Bueno, e... gero itte uzten ola... bazkaria man, bixita euna. Oain berri[z] xuatn ie,

edozein eguntan yuatin dire uaiñ... uaiñ ezta... bixita besta ura itxin itte uzten, lenuo, miño uaiñ yuatin dire paska artu ta eozein euntan, igual bi d'iru yuntazn die, oaiñ e abixten te igual:

- Zu torko zara kotxikin? E... yuan bar duu olko etxetara.

Ta, bixitakin iru-lau yuntatu ta gero an matn diote berentzera ta, ori guain. Leno bixita, atso bisita, oi besta, denak egun batin yuan.

(Arantza)



## Atso bisita

Ori zatten tzen, pues, ar... aur bat yaiozen zen denboran, auzuk ta Lesakatik ta ere gure itxera azkarki tortzen tzen yendia, bueno, gure itxera diña noski iñon ere ez, el!, iñot (e)re. Berrogei... igandekin zatn tzien, ta berrogei... makume torsen ziren.

**Biloba:** Beti emakumi[k] zatten tzien.

Emakumi, emakumik! Atso bisitara emakumi zaten tzen, beti.

### Ink.: *Ta ze iten tzenuten?*

Ta gero, pues, ori, iltzen genun zikiro bat, eta arekin dena gisadu patu, kozinera Lesaku zatten genun, ta gisadu arekin patu, gero ollaskuk iltzen ginttun, ura zeatu, zopa berriz, ollo salda zopa arekin eiñ, eta antxen, *vivir la vida*, ardua, eta [irriz]...

### Ink.: *Juerga ederra!*

Bai. Bai! Juerga... bueno, kristo(n) juerga pasazen zen! Onako Argiñordako andri urak, arek ere zatten zittun, aiz laguna[k] tziren arront, Argiñordaku[k] ta... orik, ok Antsonen... Iketarrok ta... Elbiran ama ta ok denak lagunak zatten tziren, ta ok denak altxe ibiltzen tziren, bai. Oi, ta guri amari ez kendu ori, e! Jesus! Bai! Juerga... auzotikan kartzen ginttio platerak ta... zea, epaitzen aski zatten (i)txin! [irriz]

## Atso bisitarako abisatzea

Abixtu bai, bai! Ura ibiltzen tzen a... ama, ni ez nitzen ibiltzen, miño ama ibiltzen tzen dentan, Arantzan ta... bueno, Arantzan ez, Lesakan, Lesakan, bera lesakarra zen, ta ango parienti pilla bazittun. Ta arat eki denei abixen tzion, ta gero emen ere bera ibiltzen den toki... bixita ibilzen zena, berriz erratten tzion, ta, denak an biltzen tzi(e)n gero.

### Ink.: *Eta nork abixten tzuen?*

Are[k], nere ama.... o nere **amagerru**k, arek abixten tzion deneri, orik, atso bisita ze eguntan **ingo genun**, ta, ordun denak (e)tortzen tziren.

### Ink.: *Eta norbait ez... ez bazen abixatzen, ze pasten zen?*

Asertzen tziren, oi ama!

(Igantzi)

Emakumeak solasean

## GURE HITZAK

**Amagerru:**  
Amaginarreba.

**Ingo genun:**  
Egin gogo genuen,  
egin nahi genuen.  
Baztan-Bidasoa N  
letraz akabatzen diren  
aditzek -EN hartzen  
dute geroaldia egiteko,  
ez -GO; eginen, \*egin-  
go, emanen, \*emango,  
janen, \*jango, etab.



Dionisi Matxikote - Igantzi

## 3.2. Haurtzaroa/gaztaroa

### 3.2. Haurtzaroa/gaztaroa

#### HAURTZAROA

##### Haurtzaroko bizimodua baserrian ☺



Haurrak uztaiekin jostetan

Bueno, pues, ni... konpaziora nitzen amekagarren umia, eta, bueno, leemizikuk denak yuaten tziren, ta ya kasik ezkenittun izautzen ere lemizikuk gero kozkortu giñenin, zetaz azi aala yuate'maiziren, ta egiya da, e! ori, yuaten tziren denak ta ttikinak beti geldizen tziren gurasukin ta bertzik e... azi ala bialtzen zenittuzten (sic), ordun erratten tzen "mantenu truk" yuaten tziren. Bialtzen tzittutenean baserritara, ta bialtzen tzittuzten al den tokira, manteitu ta beaunzten bazittuzten kontent, e! Ta ni, bueno, ni emen erriyin yaiua naiz, biñó gero yuan nitzen zappi urtetan baserrira, ta an baserrin, pues, bizittu giñen, pues, zatten genittun beiak, zerri(y)ak, eta... baserri(a)n, pues, etzen zatten etxin urik, ta etzen komunik, oaiñ erratte ute ango Indikuk o nola dire orik! Orikintzat errate tek pobri[k] tiela, beñó gu... pobrik zanen giñen... gu biñó pobrigo ere omen tziren oaiñikan, e! eztakit zemat tzanen tziren, beñón guk ezkenun zatten baserritan iñon ere, e! Ori auzo bat aundiya da emengo au dena, eta auzu ortan iñon ere etxea batin bakarra in tzen komuna, ta ori an amerikano bat etor tzen, nik e... nittuenean amabi urte do orrela ta arek ein tzun ola kanpora zelo bat in ta gero txabola ba[t] pezala in barrentikan, ta an in zun komuna, ta andikan itten zuten landara in bar zutena, ta olluk ibiltzen tzien libre, ek manteitzen ziren gañera, arekin, egiya da ori, e! (E)txe batin zen, Kuttunan txia. Eta, jolin! ek ori... amerikanua torri baizen ta amerikanuk ein tzun komuna. Bertzetan baserritan iñor ezen komunikan, ta, pues e... urik ere ez, eta ura ekartzen genugun... an baziren baserrik orrela, urbil tzutena urak, miñó gure baserriti[k] zen bastante urrutti zen, ta, bai, naiko urrutti zen, bide koxkorra bazean ta an garraiatzen genun ura, ori... balditan. Ta gañera emen makill bat paratu bizkarrin -oain txinuk ibiltze... kusten ttut nik, errate ut: "Orra, gu bezala bizi ttuk orik ere!", eta punta batin balde bat eta bertzin bertze balde bat, ta gero al bazean bertzia eskutan kartzen genun, eta ur arekin, ta gero zerriyak zatten genittun, zerrik bazkatzko, beiak, ta... beiakin, pues, e... bakizu, gu neska kozkorra bei zaitzera yuate giñen, landatara, an kontu beiari. Gero arrastan e gazterik asi nitzen ni itzitzen, beiak itzitzen.

(Lesaka)



Haur eta helduak Berako Dornaku auzoan

## JOSTETAK

Ola, ttottoika yarri, **ttottoriko** yarri, ta: "Ollanda ollaskotan kikiriki! Ollanda ollaskotan kikiriki!".

(Arantza)

### Hamar gir-gir-gir

Au jolasa zen, bueno, egiten dugun "Zubiri-zubiri" bezala meño nik ori ez nuen lenogo ikasia, ta nik au erakusten nien. Oraiñ egiten dituzte aunitz, nik au... asiz kerotikan au:

"Amar gir-gir-gir  
Noren yendiak? Zatozte atozte  
Zubi txar onetan pasa zaiztez  
Aurrak, aurak: norenak zerate?  
Erregearen portalekoak gerade.  
Ongi, ongi pasa zaizte  
Ongi!"



A or bazegon partizipazioa, asitzen tzen, bueno, ola daudenik orrela [zubi bat egiten], ta kantari asi eta "Norena[k] zerate?" ta gero "Erregearen..." bertzik denak erreldoa daudenek e... orrela erantzunta. Eztakit, nik uste dut goain ya da bat arrontin galdua dela, eztela erabiltzen au ya, ezta.

(Etxalar)

Zaku lasterketa

## ZOTZ EGITEKO

Bat, bida, iru, lau  
Ezkontzen da mundu au  
Arratoia fraile  
Kuku meza emaile  
Zu[k] pika  
Ni[k] pika  
Kuku!  
(Igantzi)

"Don don ite saketi fuera  
Tú quisieras ir afuera  
Por la puerta de madera  
Kris! kras! ¡Afuera estás!"  
T(a) ura kanpora.

"Gallinita kikiri salda  
erun klerun klik!"

(Bera)

"Minttini manttana  
sobera barbara betia"  
  
"Gaztaña gora bera  
txiptu[n] txaptun fuera!"  
(Arantza)

"An butz iretako  
aren butz"  
(Lesaka)



Haragia erretzekoa

## GURE HITZAK

### Ttottoriko:

Gorputza beheiti bildu, belaunak tolestuta, pisua hanka puntetan kontuz.



Errekan bainatzen



Kubiertekin egindako abarkak

## 3.2. Haurtzaroa/gaztaroa

### Atxa mitxa zilarra

Bea, nik uste dut emen lotua dagola ba Etxalarren dagon Olalde orrekin, olak zirela or eta ori, ba pensazen dut orrekin:

“Atxa mitxa zillarran  
Yuan, yuan olara  
Ardi beltzan<sup>2</sup> billara  
O Piltxon biribiltxon  
Txin, txan, txon!”

### Xirristi mirixti

Zotz egiteko eta au ere bai  
Etxalarkoa dena:  
“Xirristi mirixti  
Gerrena pla  
Olio zopa  
Kikiri salda  
Urrup, edan edo klik  
Ikimilikiliklik!

### Xango mango

Xango mango  
Aurra nongo  
Ona bada etxerako  
Gaiztoa bada kan-po-ra-ko!  
(Etxalar)

### Dona dona

“Dona dona  
ka ke ku xe  
duli, duli frantx  
petri, petri, xantx  
petri xaramelo  
attona Martzelo  
purpuru purua  
zardin zarren burua”.

(...) Ori re banaketa egiteko: “Tti... minttini manttana!... ori... gauza bera, gaztañen... gauza bera:

“Minttini, manttana, sobera, barbara, betia”.

Ta betia baldin bazeun... ordun irabazi.

(Arantza)

2

Bitan kantatzen du eta lehenbizikoan *beltzan* erraten du, baina bigarrenean *beltzen*-etik hurbilago dago.

## FORMULAK

### Min hartzean haurrak lasaitzeko ☺

"Senda miña  
butz urdiña  
yuan da zure miña".

**Ink.:** *Eta orrekin lasaitzen da?*

Lasaitzen da aurra, bai. Ta gero... gero trapo batkin tapatu, ta... yasta.

(Arantza)



Tortolosak

### Hortza erortzean... ☺

Xagu xarra  
To ortza xarra  
Ekarra(k) berriya!

(Bera)



Ama eta amatxi haurrekin

## ASMAKIZUNAK

Itxe ttiki batian lau maxter, ta dentara dire lau xixter. (Intxaurra).  
Buru xabala ta barren goxua, ta yateko kentzen tzaio buztan oxua. (Pikua).

(Bera)

## HAURRAK ZAINTEA ☺

...oain bai, aspaldiko urtetan bañua, beño orduan etzen, barreño batian garbitu, ta... klaro, barreño aundi batin patu ur epela ta an garbitu.

**Senarra:** Pañalik etzen usatzen...

Bai, pañalak... difentiak, *usar y tirar* ez, ori ya aiz berriya da! Oain klaro, oaiñ aunitz gurasoi aitzen diogu: "Oi ama, bai aurruk lana!". Bai, leno bezala denak [g]arbitu bear balie! Ta kiao, labadora re noiz?! Arron berandu, an eskuz garbitu biar zen arropa dena! Ta... difente, aitz difentzia zen, biziya auniz nekosogua zen oai miño.

(...)

Bai, pañuak ziren. Paño ttiki bat paratu bere partetan, eta gero zaiten tzien pues... goainko aldian arron difentiak, paño aundi batzuek aurra inguru-inguru iñ, ta gero **paxa** bat, paz... uaiñ *en cambio* eztuela estuto biar, ta ordun... ordun estuto zaitn tzen berriz. Bai, zabala, ola, paxa bat tzabal-tzabala, trapozkua, ta ekiñ inguru-inguru in ta bere partetaño ta petxoáño. Ta gero aek kuerda batzu(k) bazituen, ta ekin lotu, biño, klaro, paño ura gero beti garbitu biar tzen. Aurra eunian, ttikiya delaik benpin, aldatu bear tzu aldi multisuan, eta... gero, pues, beti garbitu bear tzu ek, garbitu ta idortu ta... berriz parato, martxan. Oainku oiek ez, oaiñ aber! Oain bildu-bildu in ta basurara, yasta! Biño!

(Etxalar)

## GURE HITZAK

**Paxa:** Gerriaren bueltan paratzten den arropa.

## 3.2. Haurtzaroa/gaztaroa



Amatxi ilobekin

### Troxa eta pixoihala

**Ink.: Eta gero ze erran... e... troxa eta pañala eta nola yartzen zitzaison?**

Gero, gero bueno, atorra eta kamiseta paratzen zitzaison, an gero paratzen tzizaion troxa e... oiek artzen tziren emendikan, bueno, besazpittikan asi ta troxa paratzen tzen, luzia zatten tzen, e! Eta zen, ura erosi itten tzen, ori... eztakitt nola esplikatu, ori, puntozko xe-xe-xia baliz bezala, puntuaz egiña bezala, eta... eta gero ba o(r)rekin aurra gelditzeko yerto-yertua, eta gero paratzen tzen trapua, (ta) gero paratzen tzen, a! gero xilkuan paratzen tzitzaison... baita ere ori, paño bat, ori... gasa bat, eta... ez a... ez **asertzeko xilkua.** Eta gero, pues, paratzen tzitzaison trapua eta gero pañala gainti[k], pañala, tro... pañala gaintikan.

(Bera)

### GURE HITZAK

#### Asertzeko:

Haserretzeko.  
Infektatzeko.

#### Xilkua:

Xilko. Zilborra.

### GAZTAROA

#### Politenari maiatza paratu ◎

Bueno, maiatzin zatn tzien, bakizu neskak ta mutillak beti zandu diela, ta zatn tzien neska bat denantzat ederra ta polita, edo geienantzat, e! Ta ordun areri paaz zioten maiatza. Ta zen txopua, txopo arbola, txopo arbola... landare gazte bat, moztu ta paazn zioten gora leiura patua, izn zuten txopu arbol ura. Ta: “Bai, olko neskari paatu men tziotek maiatza”, ta bual! Bertzik inbidiz, karo. Joe! Ori berexi, mutilla guziyak oi berextea!

Ta bertze(k) berriz burlaz, gaitxo samarra, idor xamarra do, ta ari berriz idorra... arbol id... idarra'mat. Ta are[k] perriz, goizin argittu biño len, meka! Paa... paatu bali'maute gorde, klaro.

Biño, txopua ederra baldin bazen, kus dezaten denak.

(Lesaka)

#### Zirtoak ◎

Jose Mari miri-mari  
Nun duk andria?  
Kutxin gordia.  
An ezpada, sun erria.  
Ai, urdia!

Jose, Jose kitarra  
Auntzaren bizarra  
Zopa gutti yanta  
Gizon kaxkarra.

Jose,  
Yan ta ase,  
Edan ta lo,  
Jose ipurtzulo.

Martin tin-tin  
Errektan sorgin  
Tipula ta gatza  
Fermiñ ipurdi latza.

(Arantza)



Zartagina

Antton Borda begi gorri  
Zer egin dirak neri  
Aduanan paketak sartu zizkiyo  
Atso begi gorriyari.

Andres,  
Trikillun tres,  
Bolsa audiya  
Ta dirurik ez.

(...)

Joxe, Joxe gitarra  
Auntzak añako bizarra  
Zopa gutti yanta  
Beti gizon kaxkarra.

Ai! ai! mutilla  
Txapela gorriya  
Nola duk izena?  
Ipurdi gizena  
Nola du(k) nonbria?  
Ziztorran kalia.

(Bera)

Joxe, yan ta eziñ ase  
Jose, yan ta lo  
Jose, ipurtzulo!



Akordeoiarekin parrandan

**Ink.:** *Eta gero, burla egiteko: Joxe, Joxe...?*

"[Joxe Joxe] kitarra

Auntzaren bizarra

Zopa gutti yanta

Gizon kaxkarra."

**Ink.:** (...) *Margaritarekin bazenuen bat!*

Margaritarekin bai?

**Lag.:** Bergara...

A bai!:

"Margarita Bergara

Aitzurra artuta landara

Kak' ittera bordara" [irriz]

**Lag.:** "Jose Inazio palazio

Pin pon pazio

Errekan despazio

Purra purra purra

Jose (I)gnazio lapurra"

[Irriz] Ori ez, ez, ez, ori ez dut adittu, beño Margaitari bai, kantat tzan diu eskolan  
beñ'e... geigotan [behin baino gehiagotan].



Gazteak besta egiten

**Lag.:** Ta Martin?

"Martin tin tiñ

Erreka ta sorgin

Tipula ta gatza

Martiñ ipurdi latza."

(Arantza)

## 3.2. Haurtzaroa/gaztaroa



Berako gizonak

### Frantzesentzat burla

Frantzes, mala kabeza  
Urak erami  
Larre(k) geldittu  
Otsuk iretsi.

(Bera)

### Señorita eta señoritoei harrika

Ta gañera gero zatn tziren ordun etzen iñotara yuaten bertko yendia, señoritak ta orrela zatn tziren ibiltzen tzi(r)enak ordun karreteran, emen erritik atei ta an e... zubiya Beriyuku baita, je... karretera jenerala Iruña alderdia yoatn dela, arañeko yuan ta etortze(a)n pasiatzen ibiltzen tziren ta, gu enteintzen giñen, kuadrillak, ta neska ta mutillak, denak naasik, kozkorrik, orrela, amabi urtekuk ta ameka urtekuk ta amairu urtekuk ta an auzokuk denak, ta prest egotten giñen lenaotikan sagardo egunin igual sagar ustelak eta gaink'aldetikan ta (...) ta andik arrika ikartzen genittun señorito fin guziyak lasterka errira. Gaixtuk [g]iñen bai, gaixtuk.

(Lesaka)

### Nola ligatzen zuten ◎

Iñautiak e... iñautiak ere kenduk eon tzien puska batin, biño gero asi zien berriz, iñautiak. Biño... etzen libre. Ta alkatik yous eztakin bezala... ta itn tzun despistatu, areri ez ziotela galdeku permisurik, ori... ori errattko, mozorrak yuatin tzin galdezera, biño ori errattko arek eztakin bezala yaus e(r)e...

**Ink.:** *Eta noiz ziren iñautеak leen? Noiz asten tziren iñautеak? Igandean?*

(...) Len-lenoo, emen len-lenoo, gerra aitzintik asizn zien e... igandikin, ta, gero astelna ta astirtia... gauti(k) igandia, astelna ta astirtia, ta gero austerrri, astizkena, austerrri... autsa mattko euna, ta ya sarzen zen Garizma, iru illaute... e(z) berroei eun. Berroei eun, ez kordionik ta yaus (e)re, ta iñun e ordun musikik yotzen.

Ta neskatxa or(d)un pilla zatn tzen emen, ta, pasitzen, karreten otzak iltzen or iiltzen tzien, ostatun etzien sartzen...

**Lag.:** Neskak etziren iundaño ostaatura sartzen...?

Ez, ez, ez. (...)

**Lag.:** Ordun, zitak ta non itten tzin?

Zitak gero konpantzera, baserri(t)ara...

**Lag.:** Laundu?

Laundu, bai. Ori... Aientsa ta Azkilarria, *salida* zatte o Xuantenia ordun, ta an ointuk aldatu ta itn tziuzten neskak. Gero batzuk Arruzpi aldera ta bertzik Azkilarrera, ta oint(u)ku aldatzen da mutilla(k)... a(r)at yuatin tzien, tragua matte uzten Xantonin, bueno... ostateu bazala, ta, gero neskak abizen zielik ondotik yuan ta, "Faborez".



Haria egiteko gorua

**Lag.:** Faborez eskatu?

Faborez eskatu. Ta, ez torri aunitz: "Ez, ez, e(z)tut biarrik eztut... eztut nai".

Ta, buelta mutillak [irriz], ta, ez bazio ezetz erratten konpantzera baserrira... Ori, aunitzek ezkua.

(Arantza)

### 3.3. Ezkongaiak, ezkontza, senaremazteak eta ezkongabeak

#### Ama izatearekin batera, akabo nire gazte denbora ☺

Bai, amazpi urtetako banun nobiua, ta ogei urte gabe espostu nitzen, bai, ta... orrela; ta beño, izandu nitzen, karo, gelditt ziten denbora ttikiya niri kanpoko bestetara yuateko. Berako bestak, Itxelarko bestak ta Arantzako bestak zatn tzien ta ek onat igual, Lesakara, torzen tziren, emengo bestatan iru erriy'oritakuk tortzen tzien Lesakara, ta emenguk berriztikan yuate giñen ango bestetan txandaka, dentara. Ta ni Berara zandu nitzen urte batez, eta Itxelarrera bertze urte batez ta Arantzara bertze urte batez, iru urtez zandu nitzen bakarra bestetara; ta, oñaz, Arantzara oñaz.

Ya gero autobusa, bai, autobusa... Arantzara zatn tzen autobus zar-zar bat trun-trun-trun-trun Arrondo, (i)biltzen zena, ta ura betezen zen ta gero gañekuk yuate giñen gañin. Ta gu auniztan ere batere dirurika ta xi-xil abitzen tzenin yuaten giñen gañera, ta gañera emendik Arantzara yuate giñen onela betia. Eta arbolak zatten baizien, fijaitse, abuztun, Ama Birjiñ egunin zatn dire bestak Arantzan, ta aintzenguk artzen tzun adar bat orrela, ta gero tirante-ti(rante) zapa! uzten tzun ta gu gibelkuri kriston zapetakuk ematte izkiuten adarrek, ta egundaño etzen iñor erori ta yeus ere, aizu, eta... orrela ibiltze giñen.

Bertze... bertze urte batin Berara, ta Beran, bueno baziren men mutillak *chulos* (...) txuluk erratten genion ordun, bizikleta zutenak, eta etikan arrautzen bagenun, jolin! eta arrautzen genittun... (...) eta bizikletan yuate giñen biño barra, bizikletak nola zatn du barra, ta an yarria onela [trabeska], ta gero mutilla onela emendikan giatzen ti-ti-ti-ti Berara, ta gero buelta ere bizikletan (itte genun). Ori zatn tzen gurea. Ta Itxelarrera bertze beiñ, oñaz, Itxelarrera yuan ta torri oñaz, bai; ta Arantzara autobus zar artan, ta Berara bizikleta ortan, ni iru urtez... iru urtetako bestak in nittunak. Gero espostu nitzen, au zandu nun, ta gero andik urte bat gabea zan nun bertzia, ta gero bertzia eztakit zemat denbora burun...

**Semea:** Iru urte... bi urte t'erdi'murun iruek.

Bi urte t'erdi onek zittunin irugarrena banun, ta gero, izorradi! Akabo! Akabo nere gazte denbora!



Neska gazteak bizikletekin



Dolores Apeztegia - Lesaka

(Lesaka)

### 3.3. Ezkongaiak, ezkontza, senar-emazteak eta ezkongabeak

#### GURE HITZAK

**Tobera:** Ezkondu behar zuen andregaiaren etxera pregoi egunean joaten ziren burdinazko palaka batzuekin, toberak jo eta kantatzera.

**Palanka:** Burdinazko barra.

#### PREGOI EGUNA

##### Tobera jotzea •

Berzii gero... ordun kostunbri... uaiñ, uain ez da noski itten, toberak...  
(...) Tobera yotzia arek e... are nobian i... itxera yuatin tzen tobe(a) yotzera...

**Ink.:** *Eta ez, e... nobiak ez baldin bazuen nai tobera yotzea, in bear tzen zerbait berezia? Elizara eraman bear tzuen zerbait?*

Epazun nai itxera yuatio, eitn zten ardua partittu plazan. Igande arraslin, e... bailia delik, yuann tzin bi mutill, garrafoi bat ardo artu, eta pastelak, ta... ola, edo gazta ta ogi(y)a do zerbait ta an, partittu, ura señalia gero itxera es yuat(e)ko. Ta, ura epazun matten, itxeera yuatin tzen.

**Ink.:** *Eta, nola abixten tzen ezkondu bar tzela... pareja bat? Elizan esaten zuen apezak ta gero tirua bota, edo...?*

Apezak, bai... tiazen tzen ordun apeza kulpittutik erratten ai zelik aiken izena, kanpun Pelle Txiki, kanp(o)ko ori... kubiertu ori, Pelle Txiki erraten diou (g)uk, an egoten tzen eskopetakin, ta tiatzen xun bi tiro pau! pau! Apeza, e... izena erratten bat, ori... atia ola pixkot iyeki ta aditzen, ta aek señu in, ta ordun, biin izena errattin bira tiro. Pregoa eguna.

**Ink.:** *Eta zer egiten zenuten pregoi egunean ta ola, emen? Zerbait berezia do...?*

Bueno, ori... itte uzten e... guain den bezala ordun ee, ezin bodara gonbitu etzienak o familikuk do zarrak do, itxin bazkare bat man. Berzi(k) boda... biño boda re... txin itn tzen geina! Emen zenbapatt e itn tzien biño e... diru re gutxi zen ta, bakotxak bere itxin itte uzten e... prestatu. Basijkak ta emendik eauten tziuzten gure itxetik aunitz... itxin ittko, maiak ta...

(Arantza)

Tobera jotzen

##### Toberak •

Pues tobera(k) ziren bat (sic) e... espostu bar tzulikan, neskan atin, pues, auzokuk edo lagunak edo sartzen tzituzten bi **palanka**, bi burne, ola, luzik, *palancas*.

**Lag.:** Bai.

Bai orik, palankak. T'ura ek denak adornatzen tzittuzten... ura... papera klase guziyakin, kolore guziyakin. Ek ongi [indarrez] zetzen tzittuzten, ta agiz politak paratzen tzittuzten bezpa arraslin ola, despeida zenun egunin, bueno... proklamak.

**Ink.:** *Pregoian egunin?*

Pregoian egunin [baiezstatuz]. Eta, ek paratzen tzituen dena zetua, ta gero etorko ziren kuadrilla dena... arratsin. Zuk o... eitten tzenun, bueno, apezak erratten tzulikan esposten tziñela, arratsin etortzen tzien kordionakin ta, eta, eitten tzuten burniak ateri eta kantatu ta... geo ek, burni ek kan! kan! kan! kan! ta kordiona yo. Ta kordiona yo ta bersu batzu[k] potatzen tziz...ttuzten. Eta... kantatzen tzuten:



Berako armaría

"Sa Martin de la monja  
 Monja de San Martin  
 Tobera jo dezagun  
 Birjiña Amarekin  
 Birjiña Amarekin ta  
 Berso berriyekin  
 Oia jantzirik dago  
 Lau almudarekin  
 Lau almudarekin ta  
 Gure Jaunarekin  
 Nobiya etziteko  
 Nobiyo jaunakin"  
 Ta kordiona yotzen tzuten, t'ura yotzen tzuten.



Berako neska taldea

**Ink.:** *A, ta bersu orik zer dire emenguk baita ere?*  
 Eme... emenguk, bersuk, o Mattinarku ta Zamunbordakuk ta ziren erin... Ta gero gaua guziyin pues e... kordiona ta dantzan.

**Lag.:** *Ta ze itten tzenuten, itxin berendu man do...?*  
 Andregaien etxin.

**Ink.:** *Berendua do ola, o ze...?*  
 Bai, gero, pus, ardua, ta kafik, eta kopak, eta denak nobian etxin artzen tzittuzten denak, eta besta ein, ya argittu arte.

(Igantzi)

Bat esposten tzenin tobera arratsin yuate iñen kantatzera (...):

"San Martin de la monja  
 Monja de San Martin  
 Tobera jo dezagun  
 Birjina Amarekin  
 Oia jauntzirik dago  
 Bi almudarekin  
 Nobiya y'etziteko  
 Nobiyo jaunakin".

(Arantza)



Emakume taldea haurrekin

## EZKONTZA TRATUAK

Gizasemi bat(e)ri egin zioten, Ameiketan ibillia ta torria ta aretik diru pusko bat baitzun, ta, ola, benpeñ bakarren batek nai zun, gizona ola... zera, eta, antol(a)tu zioten benpen zein... zeiñ itxetan, nol... nola zen, nola(k)o itxetan, nola... baziela iru... iru neskatxa ta... ezda iz bat. Ta, ta arena... nol(a) zen? Maria? Bai, noski ba, (baño zera). Ta yuan tzen, gizon ori itxi art(a)ra, ta yuan ta ek sukaldin an zaezin denak, eta: "Zein da neetako bear dena?".

(Arantza)

### 3.3. Ezkongaiak, ezkontza, senar-emazteak eta ezkongabeak

#### Iñaxio saltzaileak ezkontza tratuak egin ◉

Mando batekin ibilzen zen. Yuat tzen goizin, taka-taka-taka-taka, zaldiya zaten tzun, bi rueda...ko karro bee toldukin ta, yuat tzen astelena goizin, tor zen laruntin. Onat(a)kun kartzen xun sekolako arroltzik, sekolako arrop... o... zera, ollasko, ta... ostatura baizuen berak, restauranti zun, ta astin burun karzen zun. Ordun zer tzun, itxera kartzen xun zerak...

**Ink.: Ze, ordaintzen zioten trukean, ez?**

Bai, trukin klaro. Koño, batxuk ta bi ollasko ta... bot' pare bat nik, ta arek au, ta ola. Iñaxio Bastreru zen ori.

**Ink.: Ta zer saltzen zun, arropa bakarra do...?**

Bai, bai.

**Ink.: Zapatak ta...?**

Ez, arropa normalki, e! arropa. Mainddire ta... bueno, oitakuk, bai.

**Ink.: Eta, atso traton ibiltzen zela...**

Bai. Ta gero, bakizu, ainbertze lekutan ta artakua gizona, e! Artakua izanez keo pues: "Bai, ortxe bai. Berrogei urte allet zkio, orra" –bakizu, ango solasa- "Berrogei urte da soltera, orra. Ta ementxe, ikusten tzu alaba". Ta bertzik, berriz:

- Koño, nik banuke orrentzat toki ona. Bai, itxe ona gañera, itxe ona. Sei bei, ta eztakit zer, ta...

- Bai, igual, e!

Ta, ixtantin elkarri:

- Nik eramin yaut i izautzera.

Ta, bittartin, kao, biartin... bittartekuk ek aparte, ta gero ezkontzak. Nik bi d'iru badazkit arek iñak. Bai, Iñaxio zen ori, Iñaxio.

(Lesaka)

#### GURE HITZAK

**Maixter:** Maizter. Baserri, lur, etxe edo bizileku bat errentan hartzen duen pertsona.

#### Etxaldekoa:

Nekazaritzako edo abeltzaintzako lurruk dituen etxea, familia bat bizi dena.

#### EZKONTZA EGUNA

#### Ezkontzetan ere ezberdintasunak ◉

**Ink.: Eta bodetan len egonen tzen diferentzia aundia etxe batetik bertzera, ez? Batzuk **maixter**, beste batzuk...?**

Bai, bazen bai ordun desfazn zen, geigo, **itxeldeku** erraten tzion yabe zena, txaldeku. Ta ek beti zatte utzen e... o, fama gexio, obekxio yan o... ta boda (b)at ittko re, txaldeku beti igual ollaskua, bodan, ta berzi(k) berriz a... zikirua. Zikirua da... ori... beldotsa biño... iru lau urtekua, txikitua, ta earrak itn die. Ta, eiktik, atautxi-amatzik itn tzioten erreglo, nobiuri, ta kartzeunten zintak, aixtin erran dun iñautit(a)ko zinta orik patuk zikiruri zintzilka bi aldetara...

**Ink.: Adornatuak.**

Bai...

**Ink.:** *Ori ze egunetan eramatzen tzen?*

Ori, e... karzen zen e... bi egun lenoo ola, boda biño...

**Ink.:** *Eta bodan ze geiago bazkaltzen zen? Zein tzen menua normalean?*

Ordun, bua!, entremesa pillaka... ordun zatn tzen lemizko zopa, zopa fideo o...

**Lag.:** Ollo zopa?

E... ollo zopa, salda, ollo saldakin iña. Ta gero garbantzua, garbantzua e(e)ra aza, bi fuentetan ori atezen tzen... salla. Ta gero, zikirua, aren parte bat gisadua, saltsan, patatakin, ta gero berze partia, obena, izterrak eo... ura berriz erria, labin erria. Zikiro... printzipio ta... [irriz] printzipio ta ze... fi... fin ere bai.

**Lag.:** Ta postria?

Postria seun. Bali'mazen e... ardiyarik itzitzko denbora, ordun gaztanbra. Ta, bertzela berriz, tarta itn tzen emen, tarta arro bat, yaus e kremik ta yaus gabe, idor bat, ola bizkotxua ola. Eitte uzten Apeznin aizen zien itten, Apezenkuk. Ta Alfontso Pottunkuk eitn tzun. Ta ola arro bat, etziten niri, ezin nin ietsi, idorra, kremik ta yaus e(z)paitzun.

Ta gero... ondotik kafik, ta agurdiente gorriya ta agurdient' txuriya. Ordun etzen e... botilla markakurik, ta gero asi zien orik, Terri, Terri artzen asi zen, Osborne, ta Terri bi tipo, *malla blanca* ta *malla amarilla*... zatn tzen, *malla amarilla*-k kategori gexio...

(Arantza)



Dolores Errandonea - Bera

Sanfermintan pentsatu genun, biño gero nobienbre eztakit zengatikan es... bera... biel ori, iru illaute orik gibeltu giñen, ta erro... espostu giñen gerogo, biño bestatan, Sanfermiñ ondun seittun espostia. Ta bueno, (nik) erran nion:

- Espostu bar dugu ta... zerbatt ere prestatu bar dut.

Ta man zkiten milla pezeta, ta milla pezetakin yuan nitzen Irunara, nere koñata bat, oain ya illa da, Porttun arreba, gizonan arreba, ta eros nun, nik nai nun soña nai nun urdiña do orrela, biño etziaten utzi, gure aizpak, etziten utzik aizpa arek (sic):

- Ezta pensatu re!

**Semea:** Enbraz zaki ta.

Bai, haa! enteatu baizen, nere lagun Margaritak erran tzion ze pasatu zen, ta, nik ez nion errana, biño gero klaro, aittortu nion, berak erran baizten nere laguna(k) erran baizion:

- Badu bi illabeteko-do faltakin dago.

Ta:

- Aibala!

Ta, bueno, pues, segittun, ordun segittun espostu bar zela, espostu. Ta, man zkiten milla pezeta. Yuan giñen Irunera, ta an gizonan arreba batekin, eros nun soña, nik nai nun urdiña, urdin klaro bat edo orrela:

- Ezta pensatu re! Beltza!

Ordun beltzaz itn zen gañera geiena, e! Beñó nik ale nai nun... nai nun... edo ez nun nai beltza, eta:

- Ez! Bueno, abrigua re beltza! -eros nun abrigua, eta...- abrigu re beltza!

Ta nik:



Txistulariak ezkonberrien aitzinean

## 3.4. Heriotza

- Abrigua beltza ez! -ni **kaxkarrun yarria**- abrigu beltza ez! Nik ez dut abrigu beltzik erosko!

Ta beno, gero, ordun, ogi azalan koloria erratten genion, bexa ori, ogi azalan koloria, ta an eros nun, abrigu ura utzi ziten erostera. Ta eros nittun zapatak, *topolinos* zuten izena; orduan zatn tziren ola bi... bi takoaldi edo burun-buruko zatn ze, *topolinos*, eta galtzerdik gasazkuk eros nittun. Milla pezeta ta al ere ogei duro-do sobre zazkiten.

(Lesaka)



Hileta elizkizuna

## 3.4. Heriotza

### Hildakoak nola jantzi

A! E... este... janzi guaiñ itteunte re bai, biño ai, uai... ez, ez, ordun, ordun... este... emakumia zena igual e... ezkondu zen arropakin. Eta... gero... (...) nere aita... amaz enaiz ongi oroitzen nola yauntzi zen biñon... aitez bai. Ezkondu z... zen ordun traje beltzakin, ta ura entierro eguneko altxatzen zuten.

Ibilko zuten urtin bein, Ortziral Santuaren prozesua. Ba! Geigo ez, e!

(Lesaka)

### Hildakoen bideak

Bueno, preiski ez baserri bakoixtikan ez bide bat direkto arentzat [elizara], e! Biño auzoko, auzoko eta baita baserri partikular do bakarrak daezinak, ek e bazuten eben bidia. Biño zen bidaxkak. Bidaxka bakizu zer den, ez? Onako... tamaiñ ontako... bai, meta erdi bat do olko bide bat, t'ura in bar tzen errespetatu. Kuidau ura, bidi ura zerratu, zetikan bazenun ordun... Aiuntamentui parte (e)manen tzinior ta... bazien baserritara bidaxkak. Nunaiko [indarrez] landatikan yuate(n) ze, goanik Igantzin, goan ai die galtzen, zetikan guain ezpaita biaxka bearrikan. Oan tratorikin ein dire pistak eta guaiñ ezta oieken bearrikan. Miño bidaxkak, an. Ta bidaxkatan, landako lanak itteko, zuk biaxka pasatu ta aratio uzu landa ura, pues, pasatu (b)ar zenun bei bat aldiyin. Bi bei izatn dire goldikin buelta ematteko ta lurraldi, pues, bei bat ean bar zenun, an nomatt e... terreno komun batin, an bei at lixatu, buztarritik kendu, batek buztarria dau... duen bei aeri kontu, ta bertze beiak sokatik erami bidaxka ori akautu yuateko bee landa sartzin. Geo beia, **buztarrikin** dun ori, ta erauten tzun, ta an lotu berriz, an lan egin. Ta geo bueltan igual. Asike bi beiak etzien pasatu... pasatzen al bidaxka arretan, zetikan ya bertzin terrenu artzen baitzun. Bidaxkan yuan bar tzen... bat (sic) yoan bar tzun. Te gizonak ee bat, bat antzin ta bertzia bielin, ola, fila indian yuan bar tzen. Beazu, ta goañ ai di... goañi galdu die, goantzen da... pf! e... iru-lau urtiotan do bortz urtiotan galdu die, lentik asi zien galtze(n) aspaldixkon, biño ya ondarra galdu da oain, ya arrontin, ezta goain...

(Igantzi)

## GURE HITZAK

**Kaxkarrun yarria:**  
Kaskagogortuta.

**Buztarri:** Uztarri.  
Zurezko atal sendoa  
eta landua, idi, behi  
edo kidekoei,  
lanerako lotzeko,  
lepo gainean  
ezartzen zaiena.

## Hildakoak janzten

Ni gañera ibiltzen nitzen difuntuk yauntzitzen ere! Itxe auniztan, e! Izandu naiz orrela... Ba, ordun etzen uain bezala, oain Lesakatik torzen dire...

**Ink.: Funeraria.**

Bai, funeraria. Ordun bakotxa(k) beria yauntzi bar zatten tzun, bere... gañera bere arropakin, ez mainddirikin ta oain bezala. Ta, ba, leku aunitzeta ni yuaten nitzen difuntuk yauntzitzena.

**Ink.: Eta ze iten zenuen? yauntzi ta...**

Yauntzi. Pues illa zelikan...

**Ink.: Ta orraxtu ta...**

Bai, yauntzi, paratu trajia do ek ematten tzutena, ieurek, itxekuk, etziren atrebitzen eta... yauntzi, bai, gogortu biño lenogo. Bai, *un poco serio...*

**Ink.: Gogorra, ez?**

Gogorra, bai, biño enizen batere izitzen. Ori bada! Eske gustatzen tzaiten enfermera izattia, t'ez nitzen izitzen yeusekin ere, yeus ere. (...)

Pues, itxe auniztan izandu nitzen. U! Ola, laguntzen, yauntzitzen ta... Ta atta, atta re, atta re giounek yauntzi nugun ta... Ee[z], ezta... ezta izitzen orrela. Yartzen tzara dentara, ezta biarra bezalkorik [irriz]. (...)

**Ink.: Eta e... len iltzen zena, ze go... gordetzen zen etxean?**

Bai, itxin idukitizen tzen, guatzin gañin gero paratzen tzen. Ola, tabla ba(t) do patu azpiyin ta... aren gañin, etzen kajik, ez, kajak... eztakit noiz ekartzen tzen kaja. Kaja kartzen tzanen tzen...

**Senarra:** Ondoko egunin.

Bai, (i)txian bai. Bai, gero denak Arrosaiuk erreztu, ta, gaba guzin igual yendia, Arrosaio erreztzen, eta gero ein bar zenitton kafiak, eta, bueno, besta bezala kasik. Ni[k] uste erreztu barrin...

**Senarra:** Kafia ta anis.(...)

Eske ara(t) yuaten tzena yuaten tzen laguntzera, biño, beti iltzen den itxeku... bai, familia, pues, beti dago erigo, onbre! Ta bertzik eztire orren... olko miñik eztute, eta... bai. Bai, bai, ola zatten tzen gabaz dena, jesus!

**Ink.: Ta gero ze,urrengoa egunean enterratu ta dena?**

Gero ondo... urrengoa egunian enterratu, bai. Enterratu ta, pues, balin bazen primerokua primeran, segundoku balin bazen segundan, ta, pobri balin bazen igual... batere ez igual, ez nai eta... orrela.

(Igantzi)



Defuntua hilerrira eramatzen

## 3.4. Heriotza

### Arantzan gizon bat hiltzen ari zela gertatutakoa

Pues Arantzan bein pasatu omen tzen (...) gizon bat gaizki. Eta gañera ordun itn tzen, gaizki zen denborin, aitz gaizki zen denborin pues e... eitten tzen, tzien e... yuatin tzien auzokuk laguntzera ta eitn tzen ola... besta, eitten tzen besta. Eta, iltzen tzenin afaria amabitán, matten tzen afaria. Biyo an, yendia auzu... Arrosariura errezeria yuatin tzien, Errosaiua errezen gau guzin. Pa... ji, ji ta ja, ja batzuk ajari, ta bertzik Arrosariua errezen eta... eta benpen gaba an pasazn ten. Biño an yuatin tzien matn tzen afaria. Eta... ordun al... al den bezala, ardiya(k) baldin bazien iltzen zen ardi zar bat, eta ardiy'arekin prestazen zuten afaria ta itn zuten, ta... eta Arantzan ya elizkuk ema... ten zen, goizin emana, gizon ori. Ta ya "Bai, gaurko eztu aguantuko". Ta bueno, portzikaso re itxi ortan il tzuten ardiya, eta egin tzuten salda, ta in tzuten gisadua krixtona, ta, eziñ illez gizona guatzin, eziñ illez gizona guatz(a)n. Ta, ori... ba, ori...

- Aa! Ai, usaia, adittu ze usaia, ze usai ona!

Ta... ta:

- Ze... ze... ze bada? Ze bada?

Ta:

- Artuko zenuke? –auzoku'matek- Artuko zenuke? Salda itten ai dire, salda itten.

Ta ori:

- Arratseko salda itten ai dire, ta, artuko zenuke?

- Bai, pixkot guaxik.

Ta, eramatzen men dio, kutxarikin ta kattillukin pixu ta eria, iltzen ai zenari ematten men dio sal[da] ta arek artzen omen du kattillu salda ta:

- Ai! –ixtantin- Bertze pixko at, bertze pixko at, bertze pixko at.

Ta:

- Ai, ama! Etzanala man! –etxeko bertze atsuk- Etzanela man! Eztun ilko!

(Lesaka)



Berako Zelaia baserrian, apezaren esperoan



# 4

## Ekonomia




BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

Ekonoma

4





## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak

### Trukea

Lenogo, lana itten tzenun, eztakit nik, dirua, etzen dirurik, iñork etzun. Ta, lana itten tzenun, ta igual karko zizun pues... bueno, gure oroimenen, oañik sos batzuk baziren, biño gure atta o attonatikan ya kasik etzen sosik eta odun batek karz zun bar zela illar pixkat, bertzik takit tzer, o artua o, ba(t) bertzin **trukadan**, ba(t) bertzin laguntzakin, auzolana ordun tzen, o e... ba(t) bertzin laguntza lana. Oain ya akautu da ori. Anaitasun oiek ta denak akautu die, oain dena sosa da bakarra, ta lanik ez in gañera, al bada.

(Lesaka)

### NEKAZARITZA/ABELTZAINTZA

#### Muxintxo eguna

Otsangoan izatten tzen eztakit zer illauten, ot... urrirun zan bar zun noski, eztakit zein illautetan e... erriyak utzitzen tzu iratzi ittera. Eta ordun, baserriko oiek Muxintxu e(g)una da, Muxintxu deizen zioten. Muxintxo egun orretan, igandia zan bar zun, igandia, Muxintxo igandia, ordun artu zuzten baserriku urik pionak, ta itteunzten krixton iratze lerruk ebaki.

(Lesaka)

### Emakume baserritarren bizitza

Pues, goizian yeki, ta zazpi bei bali'mazien eiean, eta zapitik bortz itzi bar bazien, **bida** do iru emakumianak zanen tzien, oi fijo. Ta gero andik itorri ta pues... nada, gosai txikiya in, ta gero zerriya[k] paldi'mazien e(k) baziato, ollua(k) baziato, ta gero gosai prestatzen asi. Ta gero... pues, egurdiko martxa paratu, eltzariya do eltzia erraitn tzaio men, kostunbria ala da, ta ura paratu ta, uda bali'mazen, pues, belar pikatzera, do arto yorrera, do... oitara gizonak yuanak zaiten tzien ta ekin batin yuan; ta orduan nola zen ordua ordu zarra do erraiten tzena, oai miño bi ordu bielogo, amekak aldea artio ola ari, ta, orduan baziato ondarra prestatzera torri. Ta bueno, berriz e beia(k) baziato, baziato ondarra prestatu ta gizonak torri orduko pues... maira.

**Ink.:** *Orduan emakumeek gizonen lana gei...*

O! Orrengatik erran tzaitut nik; ni(k) berris yaio bear banu, emakumia *jni pensar!* Zuek biarbada tokat zaitzuen denbora otan bizitzia, nik alaba ba[t] padut ta aek ala erraiten u: "Oi, ni emakumia zanian satisfetxo nago!"; bai, tutzuen... tutzuen galakin! Aber! Bueno, lanin ta bizi bai, oaiñ ere ni (e)naiz bate(re) kontra lana, oain lana yendiak lan aunitz iten do nee iduriz, biño... onbre! Lan in ta dirua, labrantza

### GURE HITZAK

#### Trukada:

Trukada. Trukea, trukatzea.

#### Muxintxo eguna:

Urri aldera herriak baimena ematen zuen igande batez herriko lurretako iratzea egiteko. Muxintxo igandea deitzen zitzaion egun horri.

#### Bida:

Biga. Bi zenbatzailea izenordaina denean, hau da, bakarrik doanean, izenik gabe ondoan, biga erabiltzen da.



Emakumeak baserriko lanetan

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Alorrean lanean

ezta ori, e! Agiz difentia da! Ta emakumia gañera beti... klaro, gizonak zandu die beti pixko at... oainko gizonak nik uste pixko at bajatu dien kategoriz, norbait e biar badute, biarko noski! *¡Anda no!* Makumia pixko at e... nere iduriz ai zate zeben... zeben tutzuen posibilidatz balitzen. Miño guk ori ezkenun, labrantza batian ateitzen den dirua biyena bai, biño ff! etakit; biyena den gauz bat beñ e ezta zuria, e! Ta... ola. Gero, pues, andik aitzinera, pues, bazkaldu ta uda bali'mezen siesta in, ta arraslian, pues, berdiñ, gauza bera, berriz e...

(Etxalar)



Elvira Iturria - Igantzi

### Jorrak

A, zeekin? Artua ola koxkortzen tzenian, ez? Ura lerroka zaiten tzen ta bueno, zerin e bai, parraztin ere igual. Biño lerroka zen artan pasatzen tzen bost ortza erraiten genion, astukin, arrotzko ura. Ta difentzi audiya zaiten tzun, aekin. Ta ura pasatu, egunian pixko at pasatu ta ura yorratu iten genun. Ta gero: "Oi, belarreko denbora ederra da", ta ura utzi ta belarrera. Bano ze uste zu? Bai, nungi ataktuk, tenore txarra zaiten tzen, oain tenori au. Artuak ta belarrak. Ta denak egin biar. Da, artua belarrez yosia, orituan aunditzen ez, eta... zera, belarra denbora denin arat, belarrera. Ura re ondatu gabe biar tzen neguko gauz... gauza, eta artua ta oltzen ibiltzen giñen. Benga, ta ere bai, ezta ez eloi... yuat... yuan ta artua bi lerro iten bagintun ura iñ, ta gero "Belarreko iruzkia eldu da... bai eldu da belarre o... belarreko denbora, eldu da iruzkia" ta... belarra, pues belarrera yuan. Ta ola aitzen giñen (...).

**Ink.: Eta erran duzu, bi buelta ematen zen e... artoari bi buelta, ez? Lenbizi arbia...**

Lenbiziyan yorratu eta gero arbiya ereitko bertze zera at. Eta artun ereite antziñin go(r)otzak ateri. Ongarriya o zera oitik, gorotza. Ura dena aratua, dena zera ura, gorotz ura dena edatu, ta gero ura... ereiñ artua ta gero... artua ereiten tzen tenorez, denborak nola laguntzen tzun. Ala zen kontu(k), bai.

Eta... artua urun ta inxtantin iten tzen orrenbertze eta ara, arto yorratzena oain. Zirenak, lan guzik ta arto yorratzena! Ta gero nolbait eiten ginun, nolbait e moldatzen gin. Geo ama ta... zaiten tzien, xarrak ta zaiten tzien... ta ek inen zuzten otorduk eta... ta ola... ola moldatzen giñen.

(Etxalar)

### GURE HITZAK

#### Xori nigarra:

Txori negar. Zuhaitzek botatako erretzsina.



### ZUHAITZAK ETA FRUITUAK

#### Txori negarra

Eta... unako melokotoi ta mixika ta ok kuidado geigo izatten te, izatteunte **xori nigarra**.

**Ink.: A! Zer da ori?**

Xori xingarra... alko sustantzi bat botatzen du, eztakit goartu z(a)ten alko muki bat botatzen te... oiek, eta arek kuidado geigo izatten du, arek galazten dio geigo xertu(a) artzia.

(Bera)

## Txertoak

### **Ink.: Eta... txertaketak, nola egiten zenituzten?**

Pues, txertaketak, gu... aitzen giñen elorrikin igual udaria plantatzen. Azkei gure etxin bazien planta saill ederra... Elor zuriyak mendiyin bilddu, plantatu, ta andik bi urten burun do, ya **muskilla** pollita botazen zutelikan, txertatu, udaria. Ta udarik etziren aundiak itten plantak, geldizen zien nanuk arront ttikik geldizen die. Bai, ta eztire, adaxkak ere ttikik itten ttuzte biño udarik maten zuten. Udarik denak gure etxin, denak elorrikin iñak zaten tzien, bakar guziyak. Ta gu unat tor giñenikan ere, antxen geldittu zien denak. Oaiñ iñok eztu iten bakarrik ere.

### **Ink.: Eta, elor zuriari...**

Pues, elo... elor zuriari eraxten tzio udaria, bizpira ta perilla do madaria, ta orik eraxt zizkio elor zuriyari.

### **Ink.: Eta... eta beltzari ere bertze...**

Beltzari, nik beti adittu dut, pues, z... arana, t'ok ongi artzen ttula elor beltzak, arana ta...

(Igantzi)



Txertoa nola egiten den

## Gaztainak nola mantendu ◉

### **Ink.: Eta Senberro etxeан, ze... egiten zuten ilargiarekin zerbait berezia e... gaztañekin lotuta...**

Bai, or kuidatze uzten gaztaña ongi, ta kontzen tzioten Ama Birjiñak arte, Ama'rjiñ imengo bestak. Ordun a... afana, bo zatteunztena, eun batin postria gaztaña yatko. Amabortza... abutztun amabortzin, ezpaitu aguantzen orrenbertze, biño, idortu itn da, ifu... patzen ba(d)uzue solairun, sekazn da, peña bezala yartzen da go(g)orra. Biño, ori an... ori **mixmaurra** erratn tzio gaztain morkotsa orren ondarra, zaborra, ta aretan nasia, an denak a... bereix gabe, garbittu gabe, artan konzn zioten, ta astiñ e... beiñ eo buelta matten men tzioten gaztaiñ areri, segun illargia nola den. Bai... ta kozn zioten abuztu arte, bestatan yat(e)ko.

(Arantza)

## Zerriak mendian gaztainez gizendu ◉

### **Ink.: Ta leno zatten tzien, zerriyak itten tzien utzi, gaztainttara yuatko... zerriyak, mendiyin...**

Bai, leno... etzen guain bezala, oain saltzen (d)ie zerrikumik, batzuk e... yatko ttikiyak, erreta, ta bertzik berriz itxitan gizentzko, umik eautn ie. Lenoo berriz zatn tzen **bargua**. Bargua... zen zerriya... urtekua o... ola, ta, oik itn tzien txikitu, gero gizentzko, ta gaztañin gizezn tzien, da **bagatxa**... bagatxa urtik tokazn zien bagua...

**Alaba:** Biño gero zatten tzen ori, e... ya erriko itxik itzatten tzun, matten tzun al... o... erratten zuten ya zerriya biltzeko ta geigo ez utzitzko...

A, bueno, ori ordun emin gaztaña importanti zen, joe, gaztain denboran esperun eoten tzen, zetik e... leno erran duna... mixeria zatn tzen. Ta, gaztaña bilddu, ta gaztaña saldu. Arekin pagazn zien tiendatko zorrak ta... ta erosi re bai, ordun, konpaziotara oint(a)kuk, abarkak berriya(k), galtzerdi txapiño... berriyak, ta erosi ta, joe, ordun

## GURE HITZAK

**Muskilla:** Kimu.

**Mixmaurra:**

Mismaur. Gaztaina luze mantentzen zen morkotsaren barrenean. Morkots horrek sortzen zuen hondarrari mismaurra deitzen zaio.

**Bargua:**

Bargo. Txerri ar gaztea.

**Bagatxa:**

Pagatxa. Pago ezkurra.

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Zerriak mendian

### GURE HITZAK

#### Baikuntza:

Bahikuntza.  
Aziendek ezarritako  
muga pasatuz gero,  
jabeei paratzen  
zitzaien denuntziari  
edo isunari deitzen  
zaio.

**Albintia:** Almirante.  
Aguazila.

**Aizegua:** Haize hego.  
Hego haizea.

**Miauria:** Mihuri.  
Bihia, alea.



Hagak idortzen

gaztañakin moldazn zen. Ta, yana igual, itxin ere otordua, igual afaria gaztañakin, zerrria gizentzko, ta... serbizio terribli zen gaztaña.

**Alaba:** Eta ori nola deitzen tzion, Aiuntamientuk erratten tzulikan...

A, gero, orretaz e... bakotxak bere terrenu zatn tzun, (g)aztaindegiya, bere mugarrakin, bee terrenua. Ta, **baikuntza** bai yarzen tzen, mendi(y)in azinda zatn tzen: ardiyak ta... zerriyak e... baserritan ta libre, ba erriyin e bai, ordun erriyin e zerriya den libre zatn tzen. Ta, yuatzien gaztainditara, ta gaztaña yaten baizten, ta... jolin, partikularrak bilddu bar tzuna azindak yaten! Pazn zen baikuntza, baikuntza. **Albintia** ta zatn tzen ordun mendiko... guardamontia deitze tziona erriyin, bono, gure denboan zatn tzen Santus emen Martiñonin, ta orik itte uzten multatu, multatu... bilddu, ta gero unenberze multa pagatu bar zunun, ek bilze... biltze uzten orrat, baxtterni orretara, Aiuntamientuna zatn tzen.

**Lag.:** Ta baikuntza ori zer tzen?

Ta oixen, baikuntza erratn nio bai, baikuntza A... A(l)fontsok meza ondun, ordun bandua yozn tzun, abisuk ta ola:

- Ta, bueno, eldu den e... biartikan, igual astelnatik zann da baikuntza (g)aztaindiyin.

Ta, fo! Lan pollita zatn tzen ba azindari kontzen! Ardiyak ta, la martxa pollittin menditik ta, ori... **aizegua** ta asizn tzulik ta... ta, onat tor... ta emen multatu. Ta... partikularrak, yendik ere biltzen ai zenak ta igual arrika ta miña man ta... dentik. Biño baikuntza ori zatn tzen, multa, eztakit zenbat zatn tzen ordun mño... miño... naiku zatn tzen. Ta or pasatze (g)enun, ni ooitzen naiz e, baikunz denbo guziyin Miakan, au, Tomas Kaltxku au, gure itxin artua ori zerbatt e, pagatu do eztakit, do. Ta bazkaria... amak erauten tziu Miakara ta gu ardi zai, gaztaindita sartu gabe.

(Arantza)

#### Gaztaina klaseak eta hagak

A! Bueno... nabaittu pikortik ere itn a gutti (g)otti-(b)etti, e! Biño, bazenakin, bueno, "Oain tsanmigel gaztaña ya..." ta bijilzn tzenun.

**Lag.:** Temporadaka?

Bai, ta gero segido... gaztaña ura, sanmigela bildduz keo, xba... xuria... xuriya re aszen zen ta, gan bar zenun, ta ustu. **Miauria** asizn tzen lurra, gaztaña ustela, a(g)a erratte genion, makil luze bat...

**Lag.:** Aga.

Aga, edo zauriyak ibilzen zienak, miiak) ta luzik biar zten, da muturra ibi(l)zen tzena. Muinta iñ ta yuatziren e... trebi zena, aiz trebi zena arbola gañin muturraño yuatzien, ta arek artzen tzun gotti-betti ttipi-tapa lemizko aga ttikiyakin, bertzik e... berriz a... trebi oi, guttixio trebi zenak aga aundigukin beittiotik itn tzun.

**Lag.:** Nik aga ederra biarko nuke, ez?

Bai, men torzn tzien... emen torzn tzien Sunbiltikan, Sunbiltikan saltzera, a... Iparrikordakuk, ez Iparrikorda ez, Ziborkorda. Atta, ta alaba, neska bat, ta mutilla.

Irukin tortzen tzien bizkarrin Sunbilko ori, emin e... beka (e)rrekan baserria, ta, andikan, agak saltzera Arantzara, ta or yarzen zien igande goizin elizko atin.

**Lag.:** Agak saltzera?

Agak saltzera andik...

**Lag.:** Agak saldu? Raru da...

Bai, emen e... biar tzu material polita arrautu, e! Ta etzen emen ola zatten, Sunbillak zatn tzun **tsara** do, gaztain tsara ordun zarik ittko ta ibizn zen, **eskaia** ori ittko, ta tsara, paetan orik biltzen zten, agak, ta unat saltzera. Ta emen yendia, igande... meztik ateri, ta probatzen. Bai. Yo! ta:

- Bo, auxe biar dut nik.

Ta... ta ek eskola re, ordun eskolik ere ez, ta zatteunzten prezua a(g)ari bek' ixkiñin, e... duro bat do... ordun pezetak, e... iru (pe)zeta bali(o) bazun do... lau, lauko iskiñak, o... iru koxka, bai.

**Lag.:** Preziuk.

Bai.

Onenbertze pezeta, ez, ara bakotxak aen tiendatan ta nola pazn da prezua? Ta ek koxk[ak] iñak:

- A, onek lau pezeta.

Ta:

- Onek bi pezeta –e... ttikigu bada-.



Berako Altzate auzoa

(Arantza)

### Gaztaina biltzea

Biyo gaztaña ongi biltzeko biar du bota. Uantxo ontzin, agakin yoka bota, ta gero biltzen dire ura zerekina, arbazta bat ola billu, pintza bezala in ta a(r)ekin biltzen da, bertzelaz zulatze'maitu ba.

**Ink.:** Matxardak, ez?

Bai. Aekin biltzen da, morkotxakin. Ta gero itten da pilla batin patu, e! pillak izena du **eskortia**. Ura da arriz buelta billua, eskortia, eta karo, artara irauten du gaztañak, bertzela beila... arrak eta bela ondazen da gaztaña. Ta ola eot da beti bustiyin, iratzikin tapatu eskorti ura, ta gero biar den aña ateri baztertikan, arraztelu batekin tiatu, xu... berexi, ta itten tzu erre anboliñin. Ordun da (g)aztaña ona. Ta arti(k) irauten tzu pues igual nik eztakit, martxu arte igual. Oi da gaztañan izaera. Eta gero, ori gaztañak duenak (sic), ta bertze aunitzek eitteunte kandelan artu, subastan, e! Kandela deizn da gaztañana, e! Konpaziotara, pues e... nik ze erran dut, Ifernuko errekan, konpaziota, Ifernuko erreka Itxelarra da, baia bueno, Infernuko errekan pues bueno, amar gaztañondo olako ta olko ta olko onemerze dirutan. Gaztaña biltzeko, klaro, bere denbora bear du, plazua. Ta "Ya nork mejotzen dun!", emen ola zatn tzien subastak. Ori itn tzun guardamontik, mendiko... zea, guardak. Lenoko guardak, oainguk tz... oain ezta olakoik. Lemiziko yotz uzten bi kanpana elizan, tun! tun! Ta, "Koño, gau[r] kandela duk". Or(d)un yuaten tzien Erriko Etxera, ta Erriko Etxeko sala aundiyan subasta, kandela zaten tzen. Ta ordun guardamontik (...): "Olko errekan

### GURE HITZAK

**Tsara:** Txara.  
Zuhairka, zuhaitz gaztea.

**Eskoria:** Heskai.  
Landareez egindako hesia.

**Eskortia:** Eskorta.  
Gaztainerak gordetzeko esparru hesitua eta sabairik gabea.

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Gaztainak

onemertze gaztañondo, onebertze dirutan. Ya nor(k) mejotzen duen!”. Ta batek eskeintza bat itn du, bertzik bertzia, ta ola gaztaña... bix kosia oi... gosia do biarra zen, ta ordun eitten tzen pues bueno, zeñek... emat tzio pues taka, pun! mallukin yotzeunte, juezak bezala, igual. Paum! “Erran dut beiñ!”, ta, iru aldiz errattin iru al... “Iru aldiz erran dut!”. Ta pum! “Orrenzat gelditzen da”. Ta ordun, gaztañ ek, gaztañ ek zuk artu baldin bazittu, pues gero pagazen zu gaztañ ura ta itten tzu billu. Ta karrukin do karri ta gero eskortin ein. Oi da gaztañan afera.

(Lesaka)

### Gaztainak kandelan hartu

Gaztañekin itt uxten e... deizen diote kandela yozen zioten, kandela da subasta, euskaraz kandela erraten tzaio, ezenekin? Bai, kandelan, e! itten zen ateri gaztañak. Ta oroitzen nais ni, mutiko gazte-gaztia, Erriko Itxin *viva voz* errat(e)n den bezala itt(e) n tzun *guardamonte* zar batek, Ujenio... ez, nola zun izena? Gregorio. Gregorio... Etxegarai, ta... arek, konpazta Ifernuko... ez I(n)fernua ez, emen, jeneralki zath zen zeran, Atxulin bordako... “Atxulin bordako erreka ondu ontan badire eztakit zemat gaztañondo, onenberze dirutan. Ya nor(k) mejotzen duen!”. Itten voz *alta*, ta, batek tak! “Onebertze!” Bertzik “Arenbertze!”. Ta: “Onelkok erran du onenberze diru, ya nork mejotzen duen!”. Ta azkeneko, iru aldiz ittin: “Erran dut bein. Erran dut bi aldiz. Erran dut iru aldiz”. Pam! yotzin geldizen zuen arentzat, gaztaiñ ura.

(Lesaka)

...denak sartu artan, bildu, miaure bildu ta itxera karri. Ura bai, ura itxera kartzen tzen segidun. Yuaten giñen asto batkin ta beitikun karri, ta... bai. Eta gero, pues, bildu ta dena ura, moskots ura bildu, aga batzukin yo anti beiti ta moskots ura bildu ta kortxel artan altxato. Ura saski aundeyikin bizkarrin artu ta arat eramin, ta an altxatu. Bueno, gero, karo, gero andik ekarri itxera... gero. Karo, ori, gaztañan ori setienbre aldin ola gaztaña ondutzen da. Oaiñ ondutzen die leno japonesa ori, biño emengo gaztaña... leno japonesa etzen, emengo gaztaña erraitn diogu guk eta oaiñ, karo, oaiñ aiz guttitu da. Ta ura bieltxo ondutzen tzen. Aunitz obia da, e! Ura, aitz obia da, dudik gabia gañera. Bakarrik oaiñ, lengo arbolak iartu die ta bertzerik ezta, klaro.

(Etxalar)



Berako mendiak

### AZIENDAK/ANIMALIAK

#### Bahikuntza

Baikuntza. Zera, denuntziatu itten tzutela, zera, ardiya, guri eskapatuta do... enpen gu e[z] xoan arditara ta ek sartu, eta, galarazi baitzagon, e pues baikuntza areri erraten tzioten.

(Arantza)

## San Anton kofradia

Maixterrak lenago agiz pobrik izatten tziren! Eta, igual beiak bertze norbattek emanak ta ola izatten zittuzten e... ori... arekin segitz(e)ko, ta, San Antonen konfardiya pagatu bar izatten tzen.

**Ink.: A, kofradi bat...**

Bai, konfardia, San An... San Antonen konfardiya izatten tzuten. Ta nomatt ere botatzen tzuten sos pixko bat, ta gero azinda'ma(t) desgraziatzen zenian arekin, sos arekiñ erosi.

Eta, azinda'mat igual...edo... anka xetu edo lepazurra xetu do orrela, izayen tzen aragi merkia saltzeko. Ura merkigo izatten tzen. Eta, egitten tzen, egitten omen tzen, karo, ni ari naiz lenoko lana... egitten omen tzen aragiy'ura, igual aragi txar samarra izaki, ta ura gazittu, ta bakallu(a) bezala zintzillika paratu. Ta arek izena du **sasiña**.

(Bera)

## GURE HITZAK

**Sasiña:** Aziendaren bat istripuan hilez gero, haragi hori aprobetxatzeko, merkeago saltzen zen eta bakailaoa bezala, gazitu eta zintzilik paratzen zen, kontserbatzeko.

Pues ori, illea kentzen tzaio... gu(k) porejenplo, gu(k) kendutzen diogu, asitzen gera maion len aldetik ola, ta gero ya junio zaiten dugu, klaro. Segun... ez, illia kenduz kero segidun eskautzen die mendira, e(k) badakite nora yua'mar ten, ordun etzaigu interesatzen igual oañik mendira yuertia, o bildotsik geixkuk in die do... gañera urteko bildotsak, aurten bildotsa azitzeko utzi tugunak, eldu (d)en urteko ardiya egiteko utzi dienak, pues oikiri amari kendutz... kendu gindion guk, noiz? maion ola, eta klaro, geltzen tzaiote esnia, errapian, eta ura nai ta nai ez biar diozu kendu, zortzi eguntik, amabortz eguntik o bertze... bertze errapi galduzen da. Bai, ta orrengatiken etzaiun interesatzen moztuzia, bein moztuz keo yuanen tzien eskapo. Bai, ezt... e bein umik kenduz koztik ta ekeri esnia bi-iru aldiz kendutzen baiz... ta... ta mozten batzo, aio, ek yuatz die. Orr...

(Etxalar)

## Buztana moztuta duten behorrak txarrak izaten dira

Ta ori nola... ze zatn den, biorrari buztana mozten bazaio, ya bior txarra zen. Oaiñ ere, orron... pottoka ta oiek, buztana moztua kuste'mauzue, lurreñoko buztana zatten baitute... ta, buztana moztua ola ikusten badli'mazue buztana moztua, bior ura txarra, biziatura, sobra bertze lekutara, sorotan ta sartzeko ta... biziatura bior... *viziau*.

(Bera)



Lesakako ikuspegia

Gaur ez, biño bueno, bai, aitzen giñen bai maiten, pe... ardo pixko at aetxii, bixkortzen tzela ta eztait ze iten tzela... biño, klaro, bazu... orre(k) badu bez... bee trukua. Oaiñ esnia nai den ainbat edan ta uañik sobratzen tzaiona igual botazen du, itzitzen duu lurrera, biño orduan asitzen giñen segin kendutzen letxerira erauteko. Ta klaro, etx... aretxi zekin bizkortu bar tzun? Ardo pixko batekin edo... arroltze gorringua ta maiten ginton, arduari naasi arroltze gorringua...

(Etxalar)



Erlea



Erlauntzak

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak

### ERLEAK ●

Attak zatte xun erlik ta be... mutik koxkortan beti an ibiltzen giñ attan ondotikan, erli... erlitan.

Ta, baño, primaberan ta umik atetzko tenorin, pues, eunin igual amarbiaje itten ginttun erlateira. Attak errate zuen: "Bai, beiziok, beiziok, yuan ta beiziok aber erlakumia(k) badien". Antziñeko illunabarrin igual kusten tziren kajak betik: "Bai, onek atek ik umia biar, o etzi do...". Ta yuan, ta begitu ta etzen atetzen igual euntan, biño atezen tziren ta ordun o(k), geldizen tziren, *en general*, zerbatt e adarrin, baldin baz sagar ordun, sagar or barna, do muxika arbola baldin bazeen, muxika arbolan adarrin dena geldizn a, pillota bazala ori, motzoko-motzoko batin. Pues ordun, pss, atetzen zelikan abixten genion attari, ta arek jatzen xun kajak prest, kaja txar batzuk eiñak berak tablakin, ta an sartzen ziren erlakumiak.

Ta egun batin bazeen laizarondo bat ta ola, franko altua. Ta atta yuan zen laizarran gañera, ta ni, berriz, kajari kontzen azpitikan, mutik kozkorra ni ta, attak in bar zun adarra yozko [indarrez] burukin, ta erlekumia bota betti. Ta nik ordun in bar nun kajan sartu. Ta in genun attak yo zulin, nik kaja muiñ zanen nion, ta ordun tor ziten burutik betti, erlakumia dena, oso-osua. Ta... nik ezpanio kasuik ere in, etzun iñen ausikirik, biño asi nitzen pixket mur eskukin ola, ta in tziten **autxiktu**. Bueno! Igual in zanen zituen oeita amar **autxike!**

(...)

Emen suertu zen berriz erriyin bertze bat. Erl... erlakume bat ate zen, ta bazeen kubierta zar batzuk ta toldo zar batzuk, ta sartu zen an; sartu ez, an, bilddu zen artara. Ta yende guziya or... erlia ta izittua, autxiki iñen zutela ta ola. Ta tor tzen gure itxera gizonia ta erran tziu:

- I, eztakit, erlakume bat baduk antxen ta... ze in bar di? Ai zin sartzen ta...
- Ni aitzen naiz, eztakit, ni uaiñ ez naiz aspaldin aittu, biño...

Yuan ta kusi nun ta, joñio! Ba! Banun saski bat, saskiya itten aitzen naiz pixko at ta saski bat banun iña or, luxia, panaderikua. Ta, ba! Meka... yuan ta:

- Ba onaixte sartu bar dit.

Yuan nitzen ta kusi nun multxokua ta pat nun aren gañin, saskiya, ta izautu nun segidun. Erlia dena yarri zen ipurdiz gotti "ñiii..." olko musika batekin, ta asi zen barrena sartzen. Ta:

- Ba! Au seguru duk.

Ta ordun itten da, yozn duzu xistua "pi-pi-pi-pi-pi-pi-pi-pi..." kajan gañin, ta ordun ta agudogo sartzen da, ta instant bun sartu zen barrenera, erlia. Ta gero eam nun mendira ta paatu nun an, ta deskuidun pasat tziten. Karo, saskiya nola zen leuna, egin tzun **bereska** pixko at, biño ze in zun ezteia itten asi zelikan, aek zan bazittun bi xiri, bi aldetara paratu(k) guoian, bereska segutuko zen an. Biño, nik ez paratu xiririk, ta in tzun bereska ta eziya itten asi zelikan, ta karga pixket ein, betti erori, lurrera eroi zion bereska, bere eziyakin, ta il zen, akautu zen.

Ta gero ibiltzen giñen billa re, erle billa re.

**Ink.: Asurara do...**

Bai, gu(k) badakiu bi orduko bidia ta geigo iten, mutik koskorrik, be, gu baño juizio

guttiго zuten itxin oañikan gu utzitzen tziutenak. Bi egunko artu zako betia ta Asurara, erle billa.

Ta... yuan ta denboa txarra, denboa zattekin eurik arrauzen die, *en general*, uratik. Ura edatunte, ta uratik zuzenin yuaten dire eben lekura, nimbait ere, eben lekura, arat artuko ute uretik zuzen-zuzenin ta ordun bi lagun do iru zanez kero, batek artzen du bide pixko at, ta bertzik abixtn dio emendik:

- Ara, eldu duk!

Ta arek kusn u noaño yuatin den, ta arek, bertzik abixtn dio:

- Gora eldu duk!.

Ta ya ordun ya ixtantin yuaten zara bere lekura. Ta ala yuan giñen, ta denbora(k) kanbiatu zun, ta, asi giñen pues, urik gabe, arboltan billaka, ta bizkarra sartu g(e)nun gottik betti ta ola aritz **besango** at ta, begitu, ta:

- Mekaben diez! Emen erli ba[t] duk!

Begitu ta erlia. Asi ta segidun bat arrautu genun. Ta begitu lenbizko lana ya baduhun gurutzerikan, ezpazun gurutzerikan "Au guria duk", ta gurutzi baldi'mada, errespetazen da beti. Ezta... nik eztut... ni ibil naiz franko, biño gurutzia baldin bada, ixi xilik buelta, fuera. Bertzela, bai, bertzela erratteunte suerte txarra maten dula, pues erlia ola, batek arrautu ta bertzik kentzen badio eztia, pues aitz suerte txarra maten dula, ais gaus sagratu dela ta ola, ta ezkenun iundaño, iundaño, iundaño ere bertzeniken iundaño artu, ta guri ere arrautu iutenak beti an arrau ttugu, igual da urtean burun yuanta re pues errespetatu zun yendeak. Gurutzia in, beti erlia ateze [de]n toki aldetik. Geo ez erlia atzitik ateatzen bada, gibek'aldin ez in gurutzia, beti erlin aldi artikan. Nabal batekin ola, arbol axala kendu, ta gurutze at normala in. Ta peña baldin bada, peñin berriz itten da zerbatt ere, tella puxko atkin do, gurutzia ondo-ondu ta errespetazen da beti. Ta ola ibiltze giñen igantan, bueno!

(...)

Lenogo itten tzen pues eztia karzen zenun itxera, ta... pues artu eskukin, ta pillota bazala, dena kentzen tzenun pozal bat(e)ra, eztia al den guziya, dena kendu ta gero zaten zen trapoa arizkua do, trapo fiña bat. Areri itten zenion xako (b)at, xaku arta botazen zenun aldein ezt pixko at, artu eskukin, ta berriz zanpaka, zanpaka, zanpaka, zanpaka atetzen zenun bertze eltze bat, do bertze barreño bat(e)ra do, eztia. Ura zaten zen garbitzeko xistema. Ta gero, pues, eztia, ura ala itten zen, ta gero geldizen zen, pu... ez ongi garbittua, ezteiak oañik izatn zun eztia ondarra, geigo, ta ura itn zen, *en general*, u[r] berun pasatu pixko at, potoku.

Ek denak urratu ta u[r] berun, ta gauz bera, berriz ere xaku artan pasatu, ura, ur ura, ta ur arkin, ta i... iriña pixkot, ogi iriña pixko atkin itten tzen oaiñ papilla gixra mustrillua erraten zio, ta probexzen tzen dena, ondar ura. Aitz ona geldizen da, ta gero bota zaizko areri eltxaurra mordoxko at ta, gel... aitz ona geldizn da, aitz ona. Ezta fuertia gelditzen, ezteia biño aunitz suabegu da, biño yatn da, pues, eltzari bezala, kutxarikin. Ta artik itten genun pill bat.

**Erraina:** Biño gozua zen, ez?

Bai, bai, gozua bai. Zion(ek) nai tzinun tamañin parazen tzu, zuk nai zun aña ura man, ura auniz matten badiozu motelgua geldizn da, ura guttiго matten badizu fuertexigo. Ori eitten ai zarelikan kusten tzu aisa.

## GURE HITZAK

### Besango:

Besanga.

Zuhaitz adarra.



Erlauntza egiten.



Eztiz betetako beraskak

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Erlauntzak



Erleak beraska egiten

### GURE HITZAK

#### Erlamanduk:

Erlamando.  
Erle arra, egiteko  
bakarra erregina  
ernaltzea duena.

**Erraina:** Ta ori zer da eztian sobrantikin?

Sobra, orduko sobrantikin, oain ezta olkorik deus ere. Zakarrekin, ura probextiagatik. Ta gero, gelditzen da ondarra gañera berriz, ura da argizaia ya. Ori, ya ura argizaia da, dena ezta argizaia, biño puska at argizaia. Ordun itten da, zatteunte erlik bereska zarra, ta zarrak baute argizaia auniz geigo. Ta ek bota barrin erlateyin, itten du denak itxera karri, paze audi batin paratu, ta itten tzu egosi, ura, eztia. Bueno, bereskek. Ta ordun ateza da, ya argizeia kentzen tzio bereskari, ta ordun botatzen tzu ur ura bertze poxal bat(e)ra, ta gauz bera iten da berriz zakun ura berua dagolikan pasatu, zuk ze forma nai duzun argiziyiri man, redondua do kuadrua, pa(r)azen tzu katxarro at, ta ura pixko atekin, ura otza pixko atkin, ta botatzen tzu arat, pasatzen duzu ur ura ta argizaia gelditt(u)ko da gañin, uraren gañin. Ta geldittuko da argizaia fiñ-fiñ-fiñ, ori-oriya dena kuadro-kuadrua... zuk na(i) zun posturakua, nai baduzu redondua, o pozala nolkua den, pues ateko da argizai ura dena, dena, dena gañera.

(...)

Ta or *zanganos* [euskarahoskera] do errateunte bertze batzuk zaten dire, ek eztakitz eztia yatera do zer torsn diren, pues ekeri armazen dire igual lau, bortz erle, ta uxaxten ttuzte kajatikan.

**Ink.:** A, oi da. Edo iltzen dituzte...

Bai, bai, ill autxika ta, egun batzuk zatten ttuzte baño aitz jaleua ikagarri armatze ute. Ek eztakitz ez, yan itten dioten eztia do ze zatteunen, biño eztute ametitzen iñor ere. Erlik ortan justizia ikagarri (i)ttenten du, e! Mekasuen la mar!

Ta, gero bertze pilla bat gauza pasazen dire or, pues, gu(k) bei biño geiotan einkatu dugu erlateyin, igual bi erle ondun, ta emengua onat pasatu, ta emengua orrat, kanbiatu, erlik. Konpazio batera bi men die: bat men ta bertzia or. Emengua orrat karri ta orkua onat. Mutik koskorak, negoziuk. Ordun, erlia, emengua nola men egondu den, zuzenin torzn da, kanpotik torzn dana orrat, ta mengua onat. Karo, ek zuzenin eben kajak artu ttuzte... Bueno! Ordun armatzeunte krixtona. Izauten te segidun eztela ebena, ta ondazen die erlik, ezin te seittu ala. Yoka asizn die torri orduko, barrenguk yoka areri, armatzeunte krixton jaleua. Orik egin du(g)u prueba geonek. Pues, biyek kanbiatz dire, orrengatik bear du been tokiyin. Oi, kanbiatz battuzu zuk ta urbillin paratu, zuzenin torko dire eben kajara, ta, karo, ek eztakte kanbiatu dela, ordun sartzen dire bertze etxin lapurra(k) bezaltzen. Pues ordun yoka iltzeunte ta itteunte autxiki. Oik, eben defentsa eztena ute. Ta ek, erlik, eztena sarzen dio batek bertziri, ta eztena sartzen den erlia iltzen da. Etaki(t) pobre utzitzen du bere puxkakin, ipurdik itten du autxiki. E! Ipurdikin itteunte autxiki. Nik bein beño geiotan in dut prueba, erlia, klaro, ya illa, ez? Artu ta paratu eskun, ona, kalluan tokiyin ta ipurdi "xxxx" sartzen du ipurdia ta tiratu ta bere puskakin, ipurdia, eztena an utzi. (...)

**Erraina:** Ta zanganos orikeri nola erratten diozu euskeraz?

(...) **Erlamanduk** eztute deus itten. Or lan itteuntena da erregiña, arek arroitzik in ta are... arek gobernatzen tu denak. Ta erlik ere ura matte zatteunte, pues ezpaduzu sartzen zuk erregiña kajan ezta erlekumerik sartzen. Nai zuna iñen tzu, biño ezta sartuko. Ura sarzen baduzu, ba, bakarra artuta re, erli sartuko da barrenara, ura sartuz kero. Bertz... bertzela ezta sartzen. Arei seizen diote, erreñari.

(Igantzi)

## NEURRI ZAHARRAK

Pues leno ibilzen ziren neurrik pues errugua, zaten zen pues oei kilo, ura zaten zen kalkulua, eun kil... o... errugu bat arto, betetzen zenun, xiria pasatzen zenion gaintik, ta o(g)ei kilo.

Errugu'rdiya zaten zen, pues, erdiya. Ta gero **gaitxurua**, zaten zen kuarto bat, ttik... bertzia ttikigua. Neurrik ori zaten tzien iru, iru neurri.

**Ink.:** *A, eta oi... gai... nola erran duzu?*

Gaitxurua...

**Ink.:** *Eta oi eta eta laka gauza bera da, ez?*

Bai, bai, dena, dena, ori dena, dena, laka.

**Erraina:** Ze zatten ziren kajak?

Kajak, kaja ttiki batzuk bai, kajak, eurrezko... tablazko kajak. Erru'rdiya, oañik gue itxin, gu ona tor giñenin an geldit tzen. Erru'rdi, erru'rdiya ta errugua zaten tzen aundigua, ogei kilokua.

**Erraina:** Eta dena orrekin neurtzen tzen?

Bai, artua...

**Ink.:** *Eta etxe guztietañ egoten zen?*

Ez...

**Ink.:** *Edo bakar batzuetan...?*

Bakar batzutan. Eztakit, eztakit nola zaten tzen, arto aunitz iten tzen tokiyin ta ola, zatte zanen zen ori.

Ta gero errota zaten tzen pues laka, ta zuk zakuri errotak yotzik etzu... nola etzun kobratzen, arek iten tzion pues oei kilo baldin bazinttun, on... onemertze kendu, artua.Zuk artua botatzen zenun kajara errotan yotzko, pues neurri ttak, ura kendu ta bere zakura bota, ta gañekua zuretzat.

**Ink.:** *Bueno, orduan apezek bezala...*

Bai, ek beti segurutikan, lemiziko oi, eurek seutu, bai.

**Ink.:** *Eta e... sagarrak neurtzeko bazea...*

Bai, konporta. Kaja audi bat eurrez, tablazkua, bi kiderkin bi aldetik, ura bete ta lak... ori zaten zen karga, karga sagarra, berroita amar bat kilo do ola zaten zen, ura zakura bota. Ta ura onemertze kilo.



Neurri zaharrak.  
Lakaria eta gaitzerua.

(Igantzi)

## Errotazainak bere lanaren truke erregu bat hartu

...pues, kentzen tzunun, laka bat kentzen tzunun zeantzat e... errugu(a)ntzat denbor etan, gero geixio kentzen tzen, ta gero baute geo asteko ta geixio...

**Ink.:** *Osea ke erruguantzako, ogei kilontzako laka.*

Bai, laka, bai. Kilo ba[t] piño geixigo da laka, e! Kilo ba[t] piño geixao au kilokua da.

**Ink.:** *Eta ortaz ttikito? lapur txikito?*

Bai igual... igual nibela rasin kendu bearrean igual betexigo artu ta... biño al zunun.

(Bera)



Behi parearekin lurra aratzen

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Onddoz betetako zare bat

### GURE HITZAK

#### Arrautukatu:

Harrapatukatu.  
Harrapatu izan.  
Bortzirietan -*katu* eta  
-*ketu* atzizkiak anitz  
erabiltzen dira. Forma  
hori duten aditzek  
normalean ohitura  
erranahia izaten dute.



Basoa

### ONDDOAK, ZIZAK ETA PERRETIXKOAK

#### Onddoak non atera

Bagun azpiyan onddorikan... obekina atezen dana. Miño zuringua ta ezta, bertzeik eta ezta re, aritzen azpikua beltza. Onddo... onddo beltxa atezen a aritzan azpiyin.

*Ink.: Ta oi (sic) ze bear du, itzala, eguzkia...?*

E, illargiya nola dun ta iguzki re nola den, ori... igual... er... ori erratteunte. Iguzki(k) zeiñ aldetikan yozn dun, aretikan leno atezen dala, mendiyan, aretan iguzkian aldi aretikan leno atezen dala... erratteunte.

(...) Illargiyan kuartun asizn a onddua atetzen igual. Ta ya illargiyan erdira orduko ya onddua asizn a geigo agertzen. Ta ilbezten enborran, ya... ondduk ya betti asizn a ilberan.

#### Onddoen ipurdia utzi behar da

Ori erratteunte. Ipurdia utzi bear dela ondoko urtin... andikan ondoko urtin do... gero... andiken yaozen direla berriz. Oi prezisuz zaten dala... errateunzta aek. Guk beti... attak beti garbittu... garbittu itten ginttun guk beti.

#### Onddoak handitzen dira

Tikitikan aundizen dire. Bakarriken leno re... ttikiak kusi ta bai, bi eunen buruko igual aunditzen direla ta... eztakitt ez gero yuan ta esttuun arrautzen, edo, ez bertzek erautten ztten aundittuta, bi eunen burun yuan ta ni[k] exttut **arrautukatu**.

(Arantza)

#### Onddoak ikusiz gero ez dira gehiago handitzen

Bakarra aditu zandu duu, onddo ttiki bat, onddo ttiki bat ikusi, ura ikusi ta ura etzela aunditzen, olko erratte batzuek; onddo ttiki bat ikusi, ola, ttikiya, koxkorra ola: "Utzi bar diat biarkotz", ura etzela aunditzen erran, pruebaik eztut nik.

(Bera)

### EHIZA

#### Zenbat jende behar den...

*Ink.: E... a, eta ba... baduzue soldata finko bat o zerbait?*

Bai, e... gaantizatzen du e... nagusi onek e... oinbesteko bat. Oinbesteko... yornal bat arrapatzeten badugu, bueno, arrapatzeten dudugu... ditugun usuak iten ditugu... denak saltzen dire, batzuk bizirik, bertzik illik. Dirua... e... pillatzen da eta gero pilla ortikan ezpada allegatzen e... gastuak denak e... kubritzeko, nagusiak e... ordaintzen du falta dena.

**Ink.: A, eta oi etzen ala leen, ez?**

Ez, ez, lenogo... oain dela urte mordoska etzen... arrapatzen tzen arabera zen.

**Ink.: Oi da. Bueno, ta orduan garrantzi geio, bueno, bai garrantzi aundiagoa izanen zuen e... egun ona zen edo txarra zen, ez?**

Bai, bai, e... garrantzia e... oraiñ ere egun onak e... azken batian e... gogua yuaten da ezpada arrapatzen... yornala... arrapatuz nai da justifikatu arat joaten denak, e... bertzela eztu sentidorikan, e... ara joan ta... an, e... lo egon edo deus egin gabe egon, usoik ez arrapatu eta... ezta... ortarako ezta... ezta joaten jendia.

**Ink.: Karo, eta nora saltzen da usoa? Eta... zenbatetan, edo...?**

Geienbat e... Frantzira saltzen da e... restaurantetara. Nola den e... uso bat e... garbia, ez perdigoirik eta gabia, ordun restaurantetan saltzen da ongi. Eta bueno, arat bertara yuaten den yendiak, batek bida, bestik iru, kapritxorako ola... eta ori saldutzen da milla bortzeun pezetetan. Eta biziya, berriz ere, e... zera ziegatako, apeotako erraiten dena, oitikan eun ta... eun ta o... eun, eun ta ogei ola saltzen dire Toledo ta Urbasa aldi ortara ta ola eraman tuzte iztirako, oiek lau milla pezetetan.

**Ink.: Normal. Oiek dira bertze usoak erakartzeko, ez?**

Bertze usoak erakartzeko, bai. **Zinbel**etan jartzen duztena bertze... bertze sistema bat, bertze iziko sistema bat da ori re.

## Nola ehizatu ◉

**Ink.: Eta nola iltzen dire uxuk? Ya sarean arrapatuta...**

A, sa... sarean arrapatutako e... lepua artu autxikiyan eta burua... biurtu, bai, desnukatu... erratn den ori. Bai.

Badire formulak, bertze batzue... bertze sare batzutan e... lurran kontra iltzen tuzte, bertze batzuek e... ola bizkarraz e... tiatu arri bateri ta...



Etxalarko uso ehiztariak

## GURE HITZAK

**Zinbel:** Hegaziak era-kartzeko, bertze hegazti bat paratzen da soka batez lotua, amu gisa. Hegazti horri deitzen zaio zinbel.



Usategietan pala botatzen

## Hartutako usoekin zer egiten den ◉

**Ink.: Eta, e... nola yakin da zenbat e... gorde bizirik saltzeko? Oi nola eiten duzue?**

Buen, zenbaten eskaria e... zenbaten eskaria eta gero beti batzuek e... kontzen dire gordeta eskarik ez izanta re... gero bazkato egiten ditugu, e... artua, baba, baba xia ematen dituu (sic) do bertzela ezkurra ematen diogu goizetan. E... ezpada arrapatzeko espentzikan e... ordun gordetzen ditugu bizirik batzuek. Nola garesti saltzen diren eta klientia atenditzeko... ordun bazkatzen ditugu, bazkatu erraiten diogu... eman yatera, el Miño ez dute eurek yaten, el Biar zaio sartu.

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Ardiak jezten

### Ehizatzeko arrazoiak aldatu dira

**Ink.:** *Eta au da betidanik dagoen oitura, ez? Usategiena...*

Bai, bai, e... ori erraiten dutenaz, eztakit e... zortzireun urte edo... e... unek, erraiten du... nagusi onek bortzeun urte baditu eskrituratuak dittunak e... paperak e... bai, bere familiak ditunak, bai.

### Hudo ehiza

Ni enaiz ortaratuz oño, miño'manakien batzuk e... dedikatzen tziren orretara, **udu(a)k** arraptzera, e... larruak asko balio zuelakotz.

**Ink.:** *Zenba[t] balio zuen?*

Ordun, denbora etan, milla ta bortzeun pezetataño paatzen tzuten.

(...)

Axeriyendako bai. **Uxaria**... azeriyendako ematten tzuen, oain, eztakit zemat ematten tzuen, beñoz zerbatt ematten tzuen. Ta gero... e... azkanarrundako re bai; azkanarrua eitten du... artotan-ta dañua. Azkanarra badakizu zer den? *Tejón*, erdaraz, ori da.

(Lesaka)

### GURE HITZAK

#### **Udua:**

Hudoa (*Mustela furo*). Animalia bat, erreka bazterretan bizitzen dena.

#### **Uxaria:** Usari.

Zenbait animalia ehizatzearen alde ematen zen saria.

### Lehenbiziko usoa apezarentzat

Oktubren, izturiek biar zioten apezari denak lemiziko usua apezari erauni, ta aunitzek etzuten iltzen, ta etzioten erauntzen:

- Zer, usua?
- Ha! Nola ekarriko ot, eztut il ta! Eztut pakarrik il!

(Igantzi)



### Sariak azeriak eta azkonarrak harrapatzeagatik

Axeriyendako bai. Uxaria... azeriyendako ematten tzuen, oain, eztakit zemat ematten tzuen, beñoz zerbatt ematten tzuen. Ta gero... e... azkanarrundako re bai; azkanarrua eitten du... artotan-ta dañua. Azkanarra badakizu zer den? *Tejón*, erdaraz, ori da.

(Lesaka)

**Ink.:** *Eta eitzaria ere izan zara, edo bazara, o...*

Eitzaria, bai. Banun afiziua... terriblia nik. Atta(i) gustazn tzion, biñoz ordun aitz(e)n tzen egonara, geldittu usuk ta arbolin, ta ni aekin yuaten nitzen. Ta... mño, geo nioune asi ntze, ameka urtetan i(l) nun lemizko usua, ameka urtekin, bai. Ta ya amabikin iru, ta amairukin bertzi iru ta gero, ba, gero uso aunitz iltze genun... orrek aitzun akotadua oaiñ ok dien ortan. Guk or... ordun il da usorik geina or, urti etan.

**Lag.:** Eta ordun, guain bezala, ainbertze eiture zatten tzen? Guaiñ bez... Ez, e... etzen, ta gero etzen dirurik, ua e... tzue... guk pagatzen genun amar- amabi duro ola, orkua, bakotxak. Biño ura re etzen, dirurik, ta... ogeita... iru lagun ola zatten giñen...

**Lag.:** Ogeita iru bakarra?

Bai, ala an akotadun? Oain zann die berriz e...

**Alaba:** Lautn ogei igual...

Geigo...

**Alaba:** Do geigo...

Zenbat seto die or?

**Alaba:** Ogeita zazpi seto eta iru persona bakotxak...

A, bai? Bai, lautn ogei...

**Alaba:** Bai, lautn ogei lagun.

**Ink.:** Joe...

Or ta gero Baatxarra berzia, an berze pill bat, bai... guk ordun e... etzen guain beza... guaiñ ee bajatko like bai, gu bezala yuan bar balute, emendik oñaz ateri, ta Ekaitzko gaña bi ordu, taka-taka bizkarrin ee kartutxuk ta morralia, o... ori yatek(o) ta eskopeta ta... ta, berriz berze bi ordu torzko, bueno, aguxio torsn da gotti[k] betti.

**Alaba:** Biño lemizko meza zatten tzunten...



Fermín Larretxea - Arantza

## Egunero meza

Bai, e... ordun **urrirun** zatn tzen egunero sei t'erditan meza. Asitzn tzen txintxirria seitan, neskak zatn tzien yuatz tzienak, yuan ta asitzen ordu erdi bat geldittu gabe tin!tin! tin!tin! tin!tin! tin!tin! Ta gero meza, prozesua,eme, kantari...

**Lag.:** Egunero?!

Egunero.

**Alaba:** Goizko sei t'erditan.

**Lag.:** Egunero prozesua...!

**Ink.:** *Egunero prozesua...!*

Bai, "Esnatu zaitezte"-z kantatzeunten...

**Lag.:** Nola?

"Esnatu zaiteztez,  
Gaur egun sentia,  
Esnatu zaitezten,  
Birjiña Maria"

Bue, nik... gutti enteize (d)ut, biño zerbatt e ola zen kantazeuntena...

Ta ianditan berriz zatn tzen lau t'erditan meza, izturi meza.

**Lag.:** Izturina?

Urri... urrirun bai. Ta, akotadun giñenak an Ekaitzin, apezari eautten ginion ori, meza ori pagatzko bi uso, bakotxak.

**Lag.:** A bai?

Bai.



Ehiztari meza

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Ehiztaria zahatotik ardoa edaten



Egurra pikatuta, atseden hartzen

**Ink.:** *Eta leenbiziko usoa etzitziaion ematen apezari? Lenbiziko usoa... ez? Eizatzen zenutena...*

Ez, bi uso, nai zelik bakotxak eramin, meza ori goizin matteko lau t'erditan. Ezta it meza utzitzia ordun... joe! Bakizu zer tzen?

**Lag.:** Oeit' iru, bakotxak bi uso, ordun apezak uso alde ederra bildduko zun!

Bai... Ta gero, gero... ori e... ate zten subasta, libre, nai zunak artu. Guk amar urteko artu gunun, ta gero amar urtik pasat' tz(i)elik subasta libre ate zen, ta, kaumarrak artu zten, bazien emen... ortze... markesak ta, *Marqueses de Astigarraga*, ta, gero... famosuk emen... Irungo ardo almazenko ori, Artzak, ta... bueno, gipuzkanuk ola artu uzten. Biño, apeza usorik gabe, ta kendu zun lau t'erditko meza ori:

- Emen ezpada aitzintik pagatzen, eztut mezik manen.

Gu yuan giñen iru lagun ya meza... mat... man... te zun, ta ola, ta:

- Nik biar dittut ieun duro, ta ezpatzue orik ieun duro oik karzen, ezta mezik zanen. Ta biar ezta mezik zertik ezta anuntziatura.

Ta, bueno, bueno, nik da... enin geigo kasik in. Ta yuate giñen Berara, an e... frailik edo ixtoriuk ta ori goizin goiz matte uzten, ta, aat meza entzun, ta geo Ekaitza yuatro.

**Lag.:** Beraño yuan lemizko?!

Bai... ze relijiua, e! (...).

**Ink.:** *Eta ze eizatzen zenuten? (...)*

Bueno, bai, bekadak bieltxio, gero nobienbren asizn da. Nik ez, enitzen ibiltzen bekadatan, usuk. Lemizko zatn tzen e... asizn tzienak e... aosto, ttorttolla, ta gero txaloma, eken ondotik, ta gero ondotik usua. Ta, gañekun, emen e... ordun basurdi(k) ta etzen, Artikutzakun. Miño ura... bedatu zatn tzen, etzatteken an ill, ta etzen... ordun basurdi guttigo. Oaiñ iltz... iltzeunte basurdia usu biño geigo... ta ale [hala ere] berretzen ai zio...

**Ink.:** *Biño, Artikutzan egun bat libre izaten tzen, ez? Basurdeak eizatzeko...*

Egun bat matte uzten e... mugakuri. Obazn tzienak Artikutzakin eun bat, batida euna erraten tzen. Arantzari segun zenbateken gogua, ta gero men itn tzen erabi ortara matn tzuten... onenberze lagun yuan, auniz baldin bazun terrenua, mugazen zena, lagun geio. Arantza(k) franko mugazn du... emendikan... ni... gaztia, nik yuat(e) ko gogoa nun ta yuatzn tzien zarraguk emen, ta ni apuntu (nu)ten urti artan, ta, orduntxe akautu zen. Ni prestatua, prestatua... yuatko, kartutxuk, balak ta bostak ta erosik ta andik deittu (b)arra ze eguntan yuan, ta bakarren artin zerbait zand(u) uzte(n) do Donostiko Aiuntamientuna baita Artikutza. Ta an zerbatt zand(u) uzten Aiuntamientun, ta, akabo, etziten tokatu yuertia, ta geigo ez (d)ute man.

(Arantza)

### GURE HITZAK

#### Artikin:

Artearekin. Arte.  
Animaliak harrapatzeko tresna, trampa, zepoa.

#### Azeriak

Azerik? Azeri... **artikin** elurra ai denboran ta aizn zen, artikin arrautzen. Elur(ra) itn tzilik, errestun segittu, ta, zulun sarzen die azerik. Ta itn tzioten zulu artan pareta iñ, xulo bat utzi, ta xulun barrengaldin artia. Ta an arrautze uzte, elurrakin, errestutik. Gero baziren emen ele... erbi eizin ta aizen tzienak zakurrakin, ta ek bakarren bat iltzen bauzte(n), Jerbasio ta ola... mño ola errestutika, lurrin aizen tzen geina. Biño ek

ere, azerik ee tipuk, pentsatzen zan(n) uzten ura ze... arti ura, ek arrautzuku do zela do an zerbatt bazela sumat zuzten mio, ez atrebitzen, tardatze uzten, arron(t) gosik akautuk an pasatu biño lenoo, ta... batzuk eitn tzioiten arri koxkorra do artu ta dispatu re... ta ek etzakite ebek, eztute bai adittu ta ez kusi ta pruebaik ittko utzi ba... artirena, biyo... nola pentsatze uzte, e! (...)

**Lag.:** Ta gero ze itten tzen azerikin?


Azerikin eskia, itxez itxe azer-eskia, ta matn tzen. Zetik azerik eitn tzun dañua, oiutan, olluk yan, ta... ardiyak, beldotsa partikularki, beldots aunitz... umik azitzen ai dielik. Ta, gero larrua. Larrua e... larrutze uzten, t(a) saldu.

## Hudoak

Ta ordun zan tzen, gerran ondun, udua. Fama ikagarriya. Oita bos durota larrua, pagatze un zera, ta ordun geldiz zie abetsak e zanen tzien gerra ondunan (er) norbatt ere. Ura ainberze pagatzko, udun larrua zan tzun fura (b)at ikaarriya... (z)etik, oita bos duro ordun, illaute guziyin lanin ari mendiyin ta mutillak ta aizen tzienak, ta, oita zortzi duro ola iauzen zun. Ta, larru (b)atek, berriz, illaute guzikoyornala...

Ta gabaz yuatin tziren, gabaz o... gare, kuebatan ta sartzen, ta, an paat tzuzten... ta artikin ta ola arrautze uzten... etzuten nai zatten tirukin ta ondatu, (z)etik larrua... gero... ola tirua pixkot muturrea do tiatuz, miño artikin ura re besotik edo...

(Arantza)



Gerardo Danboriena - Etxalar

## Izokin arrantza

(...) oain dela lau urte nik atei nuen lemizko izokiya, bai, ta saldu nun ogeita amar milla pezet(a)tan kilua. Beño, geroztikan, geroztikan bein saldu zanen da oeita amar millatan uste ut, bertze bein, ta aurten eztute artu, ara! Ta gero saldu dena saldu da zortzi millatan do ola, geina... gaestina saldu dena.



Arrantzale kuadrilla

## GISUA ◉

Gero lanak... pues emen kisua re, kisua iten zen, gisua. Gisua bakizu zer den? Arriya, ori e... arriya errezen da, bakizu? Arriya erre, ta ori ibiltzen zen pues, ibiltzen genun, landari maiteko abonu bazala.

**Ink.:** A... ona da bai, bai.

Agiz ona bai, bai. Orrek arintzen du ta, gero ibilzen genun paetari emaiteko, xurizeko. Eta, masa, masa iteko, rebokuk, kanpoko aldeko e... suriy'ori, rebole masa ori maiteko ibiltzen genun.

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak

### GURE HITZAK

**Legarra:** Hondar.

**Granza:**

Gisu labetik harriak ateratzean, gelditzen zen hondarrari deitzen zaio.

**Zolian:**

Zolan. Zola. Lurra, beheko aldea.



Mendi mutilak lanean



Zuhaitza garbitzen

**Ink.: Auek betetzeko, ez? Edo baita re...?**

Ez, ez, ez, pareta, pareta bildutzeko, kanpoko... zuriy'ori nola, ori leundu ta gero zuritu. Ori iten gun **legarra** ta kisua naasi, ta... guaiñ zementukin bazala, pues ordun gisukin.

**Ink.: Ori tapatzeko?**

Bai, bai, pareta bildutzeko. Ori iten nugun.

**Ink.: Eta e... eta kisua nola egiten da zeazki? Edo ze...?**

Kisua? Ori... aste batez e... utan, osea, labiak badie espresak...

**Ink.: Kisua labeak, ez?**

Bai, gero, bazutan burdin batzuk ta den... arriyak olko arri multzoa, ongi plegatua. Gero aste batez egoin tzen a... garretan, guritu it(e)n zen, ta gero bi egun o... bi eun noski oztutzeat utzitzen zuten. Ta gero, gure atta zenak berexi itn zun xurixua ta **granza**. Granza erraiten genion, izaiten zun olko are bat bazela, legarra bezela ura erretzen tzena, ta ura geltzen zen legar beti. Ta orixkuna berexi. Beatziga... landako bali(o) zun eozeñek, biño xuitzko ez, xuitzko al beziñ xuria ta... fiñana biar zun.

Ta gero arri ura aip... al bazen, beru... berua zelikan oñikan barrika batin ura paatu eta bañu bat in. Ya neurria zaiten genun, ori auniz iña nik, ta geo, arriya ba... bota arat ta, asizn zen pixkat arzen zun ura arriyak, txupatzen zun "xxx..." fuerte ta pixkanaka asizn zen irakitzentzera, ta azkenian asizn zen irakitzentzera biño terriblia, irakin "pu! pu! pu! pu!" biño fuerte ar... ur ori. Ta momentu artun biar zinun agai batekin, mugitu arriya fuerte, urratzeko, zertaz berzenaz gelzen zen masa iña, **zolian**. Ta irakin ai zelikan, geo al bezin guztia aguantu bear zenun, muitzeko. Ta gero, itzin tzenulikan ya patzen tzenun balde bat ura, ta berriz arzen zen iakiten uañikan. Ta ya azkenikan, dena ya... likido itn tzelikan, ura emaiten zen eta pixkat na(a)s, eta nasi, ta nasi, ta nasi, ta nasi, ta gero deposituk.

Guk igual, urtian... bai, lau-bos milla litro, bai, salzen zann zien, kisua itxetarat, xuritzeko, xuritzeko. Ordun dena, baserritan dena, itxetan dena xu(r)i. Gisua zaitn zen xuitzko, gisua. Ori ta gero, ibiltzen tzen pues, morterua iteko, a... paetak apaintzeko. Kisua... pues ori, ori izaitn tzen emengo... pintura, ta fatxadak dena oi zen, kisua.

(Etxalar)

### BERTZELAKOAK

#### Mendi mutilen bizimodu



Egitten genun goizin yeki, eta ogi pixko (b)atekin ardo trago bat [irriz], ardo trago bat, eta... gu... gu an ordun mutill aitzen giñen, e! be... berze na... nagu... nagusik zatten ginttun. Eta, guk ezkunun ogiya, baba, berzerigan ezkunun zatten, ogiya ta baba ta litro bat ardo, li... egun guzikoi li... litro (a)t ardo zatten gunun.

**Lag.: Ta eune... eunero gauz bera? Baba, ta ogiya ta...**

Egunero, e... eunero, e... eunero... eunero, ta, baba... baban ondotikan zopa, zopa yate(n) genun auni... auniztan.

**Emaztea:** Lemziko baba ta gero zopa!

Aurreni(k) baba ta gero... gero zopa.

**Lag.:** Ta illuntzin lanin geldittu.

Ta, illu... illuntzin lanin geldittu, ta, berriz gauza ba eso, segun, batzutan nagusi batzukin igual gabako garbantzu zatten genun; garbantzua an ta ura... ura ona. (...)

**Emaztea:** Zergatik lemziko baba ta gero zopa? Biarren plateran zopa.

Bai, lenikan zopa yanez kero, karo, baba yatko gogo guttigo zanen tzelako [irriz].

**Emaztea:** Orrengatik ori, bere... bere sekretua du orrek!

(...) Eta gero, gero gañera orretako goizin, errain tzuet e... geo... zea, ogiya ta arduata. Geunek batzutan eamatten ginttun zerdin zaarrak, ta zerdin za(a)rak eraumtten ginttunin, zerdeñ erdika bat, zerdeña erdika bat ya... yate (g)enun desaiuno... desaiunazko, (desaiunatzeko), ta berze... berze erdiya berze eguneko altxatu [irriz], bai. Ta ol... oltxe.

**Lag.:** Emendik... emendik yende auni(tz) yuaten tzen, mendi mutil? Bai...

Ba(i), bai, emendik... eme... emendik... bueno, gero geigo or zandu da bai, denbora bat Frantzira asi zenin, geigo ibazten zen beñ... yuate giñen, yuate giñen bastante, eme... emendikan Iratira. Iratin, emen sos banako batzuk irauz... idauz a(a)la gasta izen zen ta, an sos batzuk sobrat... sobratu iten tzien, baakizu, an ezkiñen bajatzen iñotan ere!

**Lag.:** An, gero... ori da, gaba-ta non pasatzen tzunten?

An? txabolan!

**Emaztea:** Asteburuk ere bai.

E?

**Lag.:** Txabolin?

Txa... txa(b)olin. Ta, gero... iande eguna allezen zenin geonek arropa(k) garbittu, geonek [irriz]... geonek arropa(k) garbitzen giñun... beti; uda... uda... bueno, uda bat edo zandu (ge)nun bai, nagusik an betti errira asi zien bi... bialzen xuztela ta, ni... nik ere bialdu bar ninttula ta uda batin ola, baño gañ... kasik erratt(e)ko moun beti, beti ge... geune(k). Batzutan zortzittik itten ginttun, berze batz(u)tan amabostigan, se... segun [irriz], segun. (...)

**Lag.:** Ta iganditan ere baba yaten tzunten?

E?

**Lag.:** Iganditan e(e) baba?

Iganditan dife(e)ntzia pixko at beren... berentzeko eitte genun igual... denak unitzen bagiñen, igual bildots bat erosi, zela edo... igande guziz ez, i(g)ande guziz ezkunun itten biñ... bai, berendu... berendu pixko baten dife(r)entzia za... eitte genun jeneralin, ori bai. Ta berze bazutan igual bakallu karrazi, ta bakallu ta tomatikinta... mño, ura... ura zatten genun gere kontura, ura... ura etziun nagusik ematten, ura... ura zatten genun... gere... gere kontura itten genun.

(Arantza)



Mendi mutilak atseden hartzan



Harginak

## 4.1. Lana, lanbideak eta zaletasunak



Izokin arrantzan



Meatzean lanean

### Harginek izokin gutxiago jan nahi zuten ☺

Elizara, etorri men tzien eliza au bigarren golpez iña... bi golpez iña omen da. Ta bigarren golpi ortan izan bar tzuen, Ameriketa...tik etorri men tzen bat, a... oso abetsa zanen tzen nonbatt, eta, aren dirukin ein tzen bigarren altxaldi y'ori. Ta nai zun, bai, ta nai zun... geigo nai zun egin. Lesako eliztikan bettin bada ermita bat an bettin, Salbatore izena una. Ermita aretan nai zun in, arrizko bidia dena, tapatua, arriz, kondizionkin: ura iltzin sartzeko aldarin, Aita Santua u olko bat sartuko baluteke bezala. Ta ura elizak etzion... etzion ameittu nomatt, uaingu biño fiñagua o zer baizien ere (...).

Ta ordun, bigarren aldiya ortan, aren dirukin altxatu zen ortan, kar ziuzten argiñak, klaro, argiñ aunitz bar zten or, ta arotxak ere, erramintak zorrozteko ta. Eta ar... orko arriya, eliz ort(a)ko arriya ateri izan bar du, Iturriko borda or da baserri bat, an bada arrobi bat, ta arrobi artan ateriko arriya omen da ori. Gero pikatu ta karo, pareta iñ.

Eta, orduan omen tzuten kondizioni patu(a) argiñak, astin bi aldiz etzioten izokia ma'mar geigo ez, bertze matt zioten egunoo, nomatt e izoki zatn tzen emen pilleka, ta kondizione ori omen tzen.

Eta, arrobin ari zienak, baizu e... ek bi egunez ez, iruzlauz do manen baitzieten ba izokia, (...). Ta katillun ipurdin, katilluti(k) yaten zane uzten, katillun ipurdin patu men tzion argiñak, batek o bertzek o pa(a)tuk, ta patzen men tzun: "Nola yan, ala lan, Iturkordako arrobian". (...)

Bai, gero argiñ oiek, onat torri ta nomatt e etzien konpontzen eze... kontratistakin o ze bra... nolla it tzuten, ori eztakit, Estadua o zer tzen eztakit. Ta ordun in men tzuten bittarte, emen tziren bittarte, eztakit sei do... zortzi illaute do urte bat do zer, or baa bertze itxe audi bat izena duna Borddenia, t'ura iñ omen zuten bittartin, eleganti aski (i)txia gañea.

(Lesaka)

### Meatzarieiek pribilejioak denbora haietan

**Ink.: Dena den, zuek, mineroek, bazenuten... e... razio doblea, ez?**

Bai. Guk zandu genun gauza orren gañian, zera... difentzia, ogia razioni doblia eman tziutzen, biño, ori ya... gosete aundiyoiek pasatu ta geroxio zen igual, biño ya asi zien ogi(y)a ongi matten. Zetik lebizin ematten zuten ura etzen ogiya re ta. Ta... bueno... pues... orduan ere kontuk zien, etziutzen aski ematten. Niri doblei matten tziaten, da lanin ai zenari bai... bakarri maten zioten, ta bertze familiari pues erdiya. Ta... nola eskasa zatten tzen, pues... ni lana yuaten nitzenian, andik ebatsi itten tziaten, txekuak.

**Ink.: Ze, anai-arrebek?**

Oixe, ni zaurrena ta bertze bos banittuen ondotikan... ta zuk arrauzu zein tzen ebatsi ziana. Da ze i'mar tzenion? Pues auniztan er... eitten nion marka ta erratten nion: "Aizue, izautuko ut, e! Marka in diot, yaten badidazue...". Ta berze zenbaitan gorde.

**Ink.: Biño arrapatuko zuten segidun.**

Bai, bai, bai. Seguro, arrautuko zutela...

(Bera)



Behorrarekin lurra prestatzen

**Aita zapataria eta ile-apaintzailea**

Egun guziyan [indarrez] zapata egiten aritzen tzen, egun guziyin, gelditu gabe. Bakarrik begitzen tzion eltziri. Goizin amak paratzen tzun eltzia sun, guk patata xurittu ta... eitten nittugun, denak prestatu ta arek patata sartu eltariri. Gero ura bazkaria zatn tzen. Oztik bagiñen ameka senide, eta denantzat, ta denak bialtzen gattuzten eskolara. Eztela ikaragarriyak ziren, nola... eztakit erniak do... nai zuten (b)enpin guk ikastia, e(z)nugun beñ ere eskolikan ola galduzen, e! (Bai), agiz ori ziren... guratso... agiz guratso... eztakit.

Ta gero gañera zen ere pelukerua, denbora berin.

**Ink.: A bai?**

Bai, bai. Illia moztu ta bizarra kendu ta dena errikua, dena yendia arengana yuaten tzen. Ta emen erriyin bazun beyin kuarto ttiki bat, banugun itxe ttiki bat eta or goizko... goizko meza zatn tzen zortzitan, ta meza ondun dena(k) yuaten tziren bizarra kentzera t'illia mozteria ta... bai, bai. Ta guri ere, beti illia bera[k] mozten tzigun, gañea a lo garçon, e! A lo garçon tzen ordun moda, guri nixkari a lo garçon, bai. Ez, ez... Oi! zenbat lan eitten tzun, gaxua! [irriz].

(Igantzi)

## 4.2. Industria

### FABRIKAK ETA ZENTRALAK

**Lesakako fabrika**

Eta lemizikoa erretan tzuten asi zela, katalan ba(t) tzen nausia, katalana, ta lendaiziko asi zela bidon tzarrak erosten, onako gasolinan ta bidonak nola zatten die ola illunak eta oitikan berreun litrokuk zatten die orik. Etikan e(r)osi zarrak, eta ziselakin moztu ola, daka! ta zabaldu, ta geo ua laminatu ta txapak itten, lendaisiko. Ta ala axi ta bu! ordun gerra ondu artan baitzen eskasi gogorra gauz guzitik, dena falta baitzen! Ta arekin segittun indartzen asi, mejotzen, Bera, ta bua! Segittun urte baten buun do ola ba... an da etzula tokirikan ta... fabrika aunditzeko ta ola, ta anak



Lesakako fabrika

## 4.2. Industria

Lesakara terrenu billa. Ta bat eta... ona[t] torri zen ta segittu(a)n emen arreglatu zen preziukin ta gauzakin, ta erosi zittun terrenuk, eta in tzun pabellon bat, ederra, ta segittun makinak ta paratzen ta asi zen, ta, asi zen lanian. Ta segittun yendian billa... billa asi zen, yende billa, eta nai zun dena bertko yendia, urbill **otakua**. Eta, urbill otako yendiak, berriz, etzun batere ola berotasunarikan fabrikan asteko, zergatik kostunbratuegia zen, ta beti kanpuan le... usatua... kanpo librian, ta andikan bea[k] nai zulik itxera yuan ta etxeti[k] pea(k) nai zulik lanea, ta ola, ta, an, berriz, zortzi ordu ein bear do amar, fabrikan, eta emengo yendia, otako, erriy'otako yendia etzen bate berotzen, (ola ta ola). Asitzen baziren batzuk, asitzen bazien ola, yuan ta lania asitzen bazien, igual e... illaute bat o bien buru(a)n fuera, da berriz atera, ta, martxa! Ta ola. Beno, ta etzuten yenderik, eziñ arrapatu. Eta asi zien yuaten Salamankara eta Soriara ta... e... Galiziera ta... Andaluzia ta oit(a)ra yuaten, autobusakin ta yuaten tzien, autobus bat o artu, ta aber yendia, ango yendia ekartzen tzuten. Ta bai! Ango yendia kargatu ta autobusa kargatuta (e)torzen zen segittun, bi egun do iru egunen buruan yendia arraututa. Ekeri gauz bera pasatzen tzaion, autobus bat yende torri, or Salamankatikan, eta zortzi eunen buuko denak martxa, be! Batzuk Frantzia yuan tziela erremolatxa eztaki[t] zer, bestiak matsa biltzera, bestiak eztakit zer... ek ere fabriketan aittu abe... aittu gabekuk ta ez **laketu**, ez... ezin laketu. Eta... ola, eta biaji(a)k ta biaji(a)k ta biaji(a)k ola eiten xusten or barna ta... bai e... eztakit zenbat yende karri zanen tzuten, bayo ek denetatik, ekar xuten guzitikan oañikan or die, Lesakan or bizi die uaindikan. E... zanen tzien e... dozena erdi bat Salamankakuk, gea... geatu ziena[k] ta lanin ola, bertze lau do bortz andaluzak, bertze gallego batzu(k), gutti, t'ortxe gelditu zien, eta gero asi zen emengo yendia pixkat berotzen, eta, leno erran dutena, labrantzako martxa ori gero ta gaizkigo, gero ta gaizkigo preziukin ta ola, ta yendia asi zen konturatzentz "Be! Emen etzeok labrantzakin, e! *¡Mal asunto!*" [irriz]. Asi zen bat apuntatzen ta bertzia apuntatzen, ta bertzia apuntatzen, eta yende eskasi goorra zagon, bu! Geo asi baitzien lemizko pabellon bat aundiya egin, ta geo segittu(a)n a... aen ondotikan segittun bertzia, ta segittun bertzia, ta, ba! Martxa goorra. Bo! Biltzen tzen, e... bueno, eitten tzen lana pillaka, zergatikan gerra ondua zen ta zegon eskasi goorra gauz guzietak (gañe) (?).

(Igantzi)



Lesakako fabrika bedeinkatzen

### GURE HITZAK

**Otakua:**  
Hauetakoa.

**Laketu:**  
Toki batera egin, ohitu.

### Sábado inglés

Bueno, *sábado inglés* ori fabrikan lenbizin e... itten tzen e... pues, astin asteleatik asi laruntara, larunta arratsin (a)kautzen tzen lante... lana. Gero alletu zen momento bat, pues, ya sartzen tzen astin ordu batzuk ta orren bittartiz, larunta arratsaldin, arratsaldeko lana i'mar tzena, konpazio batera lau ordu t'erdi, pues orik astin sartzen tziren, pues egunero ordu erdi bat, ta orren bittartez, pues, *sábado inglés* eitt... osea, libre gelditzen tzen. Ori... ori zen difeentzia ori.

(Lesaka)

## 4.3. Garraiobideak

### AUTOAK, AUTOBUSAK, KAMIOIAK

#### Autobusa

Ama yoatn tzen attakin autobusin, biye[k] yoat tzeren ori(k), astin irutan: astelna, astizkena ta launta. Ta gero, beti neskato zatten gunun guk, ori, Donixi espostu artinkun. Lemizko bat, ura espos(t) zen aman anaiakin. Oaiñ aterpe dun... Luzio baita, orren nagusin ama, tia Brigida. Emen egon zen, ni yaiotzko torri, ta ameka do... amaika urtez do ameka-amabi do... emen egon zen gurekin ura, arek azi giñun gu. Ta ura espos(t) zen tio Anjelkin, gure aman az... anaiakin. Ta geo tor zen Donixi Arizpekua, ta arek ere berze eztakit be(d)etzi urte do in zittun, ta, ura berriz, aman illobakin. Dena parientik, dena [indarrez] geldit tzen familin, bai [irriz]. Ta, ori, gu orik azi gattuzte geina; ama yoat(e) tzen attakin, amak baliyo zun... attak konduzittu bai xixtun (?), gero attak etzun ola... esto... amak ainko kapazidadi yendikin ta ola, sekugu zen, gue atta ola, ta nerbio... jeniu geigokua ta ola, amak bazun kapazidade audiya, ama... guri(a) ikaagarriya zen, kapazidade audiya zun. Ta sosa atetz(e)ko re bai, karzen zittun igual: "Zu, Maria, etzintzeke karko...", ordun epaitzen emen konprara ta ola yuaten, igual zapatak, atorrak, txaketak... Ori yoatn tzen tiendeta ta pillan matte zkionten, ya bazuten... zun konfiantza, edozein zera, ta... matte zkionten, ta karri ta: "Oi!", pues zein gustazen zion geldittu do... ori, ta, gero an mat tzioten *tanto por* zientua, ta gero portia berak zerbatt e kobrau ta ola, sos batzuk atezen zittun geigo.

**Lag.:** Ta attak iru biaj... iru eguntan atezen zen ta ama kobrautzen, kobra... lanean, ez?

Amak kobrautu, amak kobrautu, ta gero ori, gero arroltzik ere emen bil... bildu arroltzik, ta... Gartxinera yoat tzen, illautin burun Justakin kontuk itte gittun, gu yuaten giñen eske. Ni aren **atxaparra** begiratu, oain guri ere xartu, ola ikaagarri pollita [irriz], ni beti (ni)zen tia Justan... etx(a)parrak unela artu ta (pori...) kontatzen, ta ni: "Ai, orren atxaparra pollita[k]!", pentsaze! gu gaztik ta guk (sic) arenak politik iduitzen. Nik oaiñ egotten al nadia (?), propi(o) ttugu guaiñ, ta ura pollita iduitzen! Ta, andikan... ta gero illauten burun yoatn tzen ama kontuk ittera, ori... ekina ateik' zun diru pixkot, an, partikularrari, emen arroltze ona zatte'maitzen, (gue) arroltziak ere erautten tzittun ta ola, puska, eztakit ze geigo, ol... ibilzen tzen.

**Ink.:** *Eta autobusa nora gaten zen?*

Autobusa...



Juan Esteban Apeztegia,  
Bidasotarra autobusaren  
aitzinean

### GURE HITZAK

**Atxaparra:** Atzpar. Eskuei deitzeko modu afektiboa.



Inaxi Iparragirre - Arantza



Berako hainbat emakume autoan

## 4.3. Garraio bideak

### Bidaiaik

**Ink.:** *Bai, biajeak nora egiten zituen?*

Orrek emen, gero Igantziko yendia, Berako yendi re bai, Beran ere artzen tzun aunitz, astelnatan ta... ori, launtatan buelta **enpen** auniz, lana zuien yendi

aunitz yuat tzen, Berako yendi puska yuatin tzen. Ta gero Iruna ta Donostira. Donostin *la plaza Sarriegi-n* [euskal ahoskera] itn tzun, an parte zarrin, *la plaza Sarriegi* [euskal ahoskera], bakizu? An genun parada guk, e... Berak... ok, Lesaka ta Bera, orik txa... *alternando* itn tzuten, Jexux ta ori, ta bertzia... Lesakkua, nola zen ura? Orik biyek itn tzuten txandaka, batin egun batin ta... bat Donostira egun batin ta bertzian Iruñira, ta gero urrengo eunin alrebes, ek yuatin tziren bi lekutara. Ta gero bertzik, enaiz oroizen Asteasukuk. Gu iru autobus bakarrak gelditzen giñen an, iru linea bakarrak, bai.

**Lag.:** *Ta orik e... astelna ta launtatan Donostira? bueno, Donostitik unat o Donostira...*

Astelnatan emendik zapitan ateri, ta an zortzi t'erdik bedetzik aldeko arat alletu, mantso-mantso. Ta gero... [irriz] gero Errenerriara re bai, Errenerin e geldittu, ta gero **zarik**, bateri, ta paketik, ta... ola denari, ori, zu, esto, igual esperun, gaixuenak Olaokordako... esperun beti emendi[k] xaria bialia, ta, ok ere bai, Joxe Ramonen... esto... attautxik bialzen tzion, nik eztakit, Ost... arrek emendikan arropa zikiña bialzen te zion, ta gero andik bialzen zion tente demonio beti itxiya zaria, ango... au atezan zen an, Joxe Ramonen atta. Rektogo ateik' zen, gu autobusin alletu orduko [indarrez] antxe zen ura. Ta bueltan kark' zun ori, puntual [indarrez] demonio, launtatan, bai [irriz]. Ta, gero, pues ola, gero nik eztakit emendik ze bialtzen tzann tzen, illarra, ta ollo, ta ollasko, ta ola bialtzen tzann (tzen), ta gero andik zerbatt e bialzen zuten bueltan ere, ta ola, pakete.... paketeriya ta ola.

**Ink.:** *Eta Igantzira sartzean ze erraten tzioten zure aitari?*

Igandi... a! Igantzira sartzen tzen... bue... lemizko etzen sartzen, ta gero konseit tzuten ek astizkentzamakarri(k). Attak erran tzun astizkena egun... aldiro etzela sartuko, zertaz oain bada modua, miño ordun tzen aiz... zera, ta izizen zen yendia. Aratkun ez, aratkun ya... aisko, miño gotti[k] pettikun itn tzun sensaziua yuan bar tzenula goiti[k] petti, tsusi zen.

**Lag.:** *Kurba ura...*

**Lag.:** *Kurba txarra...*

Ba kurb' ura, zuek izautu zue kurb' ura, e! Gero kendu... ura kendu tzen... ordun attak i'mar tzun: "Bueno, ni sartuko naz, miño... izu kurba ori!", ordun ura in bar tzun, Diputaziori galdeku ta ura... gañea lurra zen dena, etzun arriyik ta deus orrek, ori dena lurra zuen, miño ura ta: "Ai Pedro!", ta gure atta koleezen tzen, klaro, beretzat ere autobusari deus e pasa e... beti ongi idukzen zun, bai, gure attak autobusa ast... astelna, astizkena ta launta zatn tzittun. Ta astirtia ta... ortzeuna ta ortzila pasazen zittun beti kuidatzen, betik ori kott... esto... autobusa kuidatzen, zer dun, zerbatt e falta baldin badu... beti berak moldazen zun.

Ta gero amabostik zatn tzen Lesakara f... e... feria, merkatua. Ara[t] pai unela yendia, pillan [indarrez] yendia, txutik ta guzi. Ura zatten genun negoziorik obena



Bidasotarra autobusa, Igeldon

[irriak], Lesakkua, Lesakku biajia, ura geixio izan bazen! Lesak'ko biajia. (...)

**Ink.: Eta zenbat urtez izan zenuten autobusa?**

Guk... gure attak asi zu, ta attak akaut zu, bueno, attak akaut ez, Oskar ere ibil tzen, ni espostuta... guk... gu espostu ta bi urten burun do ola utzi gunun, ta gu ttikiyak giñel(a)ik... berroeta... ni[k] eztaki(t) zemat urte, berroeta lau bat urte-edo, ba(i). Gu, yaio biño len... yaio biño len asiya zann tzen gue atta. Lenbizko asi zen ori... bi anaiak, bertze anaia or tienda zuna, Frantzisko, t'ok asi ziren lenbizko biyek... lantzik bent(a)ra, orrat asi zeren, miño gero attautxik, klaro, nee attautxi zen ori, biyek ibiltzko, biyentzat ezpaitzen negoziorik, ta ura asi zen gero tienda, ta... arek ardua ta ola karzen zitton. Arek Iruñin... kartzen tzun Eugi, Karlos Eugi, andik kartzen tzun ardua, ta emen denin... or Alondiga bat zatn tzen, orrara barrikak. Denari artu zenbat kar bar den, ta kamiona karzen tzun, ta orrela. Ura bertze modo batin yoan tzen, ta atta[k] perriz autobusakin seit zu.

**Ink.: Non izaten zen Alondiga?**

Ok, guk guain garajia dugun lekun. Alondiga ttiki bat, bai.



Etxalarren auto zahar batean

## Patxi okulistarengana

Erautn tzun ola yendia, igual *análisis* in bar duna ta... [a]mak erautn tzittun, ta igual, ordun zen... ori, *Segurida[d] Sozial* emen oain bezala etzen, ta pagazen tzen... ura ze... ori zen... esto...

**Lag.: Unión Previsora.**

*Unión Previsora. Unión Previsora*, ta ara yoan bar tzen... orrat, zubiya pasatu ta... oaiñ in bait'te monumentu ori or, esto... *playa* aldin, or monumento berri bat in bait'te...

**Ink.: Kursala?**

Kursalan, bai. An, urbill artan tzen oficina, ta arat yuan: "Bueno, zuk emen espetu", ofizinara yuan ta ateri... tarjeta, ta gero yuan bar tzunun *la calle Urbietan*, atezen zuten odola. Arara yuan orrekin, ta an odola ateri, ta, ya lana eiña, mño, gero egun guzin arekin ibilli bar tzenun. Ta ori yoan tzen berriz okulistang(a)na, Frantxixko, gizaoa! Arrunkordakua, ta, ori [irriz], yuan ta, kus zioten, ta: "Bueno, aber!" Gero, klaro, monturak kustko, ori, kristalana ya in tzioten ta, montura kustko. Pat tzioten ta: "Uuuu! okin eerki (i)kustn dut!" [irriz], ta gure ama irri ezin kontuz, ta, "Pieza okin ederki (i)kustn dut!". Da en... gero benpin, [irriz] gero ya atei zeren enpen andik, ta:

- Bueno, Frantxixko, oain zuk niri segittu! –karo, ezpai... ori-
- Bale, bale, nik segittk' izut zuri!

Ta, segitzen men tzion, ta nozpatt ere ola, konturazt da, ta: "Nik non dut au?!", ta bertze atso bateri segi... bertze emakume bat, aman gisko zann tzun ta areri, ta: "Ai, Frantxixko! Atoz unat!".

"Bai, galdu ez nunin nik! Maria, galdu ez nunin!", amak, gure amak erraten tzun [irriz].



Autoak Beran

## 4.4. Kontrabandoa



La Bidasotarraren  
lehen autobusa

### Arrainarekin gertatua ☺

**Ink.:** *Eta arraña, autobusean ekartzen zuen zure aitak?*

A bai! Arraia. Yoatn tzen... orrat, pla... ari... puertura, gure atta, ta an kustn bazun ola... alletu berriya, zardiña do antxoa, ta... ori re bai, e... berdela ez, bertzia...

**Lag.:** Txitxarra.

Txitxarra. Txitxarra ta ola, ori, merluza ta olkuk milagroz, ola, ta orik, ya onarako garestixkuk zeren. Ola, tokazen bazen tartin ola, karzen zun, bai. Miño, jeneralin ori, antxua, txardiña ta... txitxarroa ta ola. Ta gero ura allezen tze(n)in: "Ala, badugu zardiña!", ta gu ortxe erri guzitik: "Bueno, txardiña!", ta denak platerekin an. Yoatn tzen ixtantin ori. Yendik erosten tzun, e! fresko-freskoa.

**Ink.:** *Zuek saltzen zenuten? Edo tio Jenarok?*

Bai, bai ez, ez, gu(k), guk. A! Ta Jenarok itn tzun... ura launtatan yoatn tzen, ta arek ere (e)karzn tzun launtatan, bai, arek launtatan karzen zun ta... plantak ere bai, aza plantak ta... porro, ta plantak, ta... arek puska karzen zun ta or elizko... Errontenko atia... o zera baita, or yartzen tzen, esto... paret(a) orretan, ta, an saltzen tzittun orrek. Ta orrek ere itn tzun, orrek ere enkargo ta... Irundikan aunitz itn zun.

(Arantza)

## 4.4. Kontrabandoa

### Amatxi Joxepa kontrabandista

**Ink.:** *Eta amatxi Joxepa ere kontrabandista zenuen? Zuk...*

Ba, bai, bua! amatxi ura... ura terribli zen. Arek... ura ibilzen zen karrukin, esto... Frantzitik, orik, *La Chicana*, nik ori oain non den e[z] xakinki, *La Chicana* ori ze... lekutan tzen Frantzin orixe eztakit, miño Frantzitik karzen tzittuztela bai; onako... basija, kafe ta... kafia ta... kafe ta oriken... zea... katillo ta... oritikan, ona, ona, *La Chicana*, onak ezatn tzien ai(z). Ta oritik kartzen tzuten ta ori... nunbaitt karrua karru barra zun orrek ordun orrat, Doneztebarako. Ta [irriz] oi bere kontrabandukin, ta, bere ama artu zun, ori[k] bizitzen tzeren ordun, oñik espost [g]abe izann tzen amatxi, klaro, amakin ta ola zen. Ori[k] bizi ziren... or zubiya pasatu ta Bera aldera itxe bat baita oaiñ ori zerana da, Ezkutona, itxe... or itxe bat, Beratik Lesa... ori, ya Beratik! [nahasi da], Lesak'ko zubitik Bera aldera, ezkertara or itxi ori, ba(i), ori. Or bizitzn tzeren. (...)

**Lag.:** Ama artu ta ze in tzun arek?

Amatxik in tzun:

- Zu, ama, lagundu (b)ar diazu niri! Badut... au pasat'arra dut! -gero zann tzun geigo, katillu ori biño geigo zann tzun, ni[k] ezpaitaki[t] ze gauz zann tzittun geigo re, ta:

- Yoan barrak gara Doneztebara.

Ta:

- Bueno, bueno, yoann gaittun biyek.

Ama-alabak, biyek, ta, ordun bakizu ola, pañulukin-ta ola ibilzen zeren ori... ama... xa(a)rrak, amatxin... ama ala ibiltn guk ezkenun izautu biño... ala ibilzen tzeren.

Ta (b)enpien biyek abit tziren ta... Sunbillara biño len, geldit tzun, batek, karabinero batek, ta, esto... erran tzion amatxi(k), bua! *cuesta* zela, osea, betik [g]ora zela, ta, alletu... xabalara alletu... bueno, rektara alletu artinkun ya etzion utziko, bertzela yoann tzaiola karra ta:

- A bai, bai, bai, bai! Bueno! –arek segitt zion ondotik, ta– Bueno, bueno, bale!

Ta ok mantson-mantsun, klaro, ka... zerakin, zaldiyekin mantso, betik [g]otti, ta:

- Ai, Joxepa, galduk [g]ide! –Joxepa zun izena ta amatxik e[z] xakinki nik nola zun izena, nik adittu bai, biño eniz oroitzen no...

- Zaude xillik, ama!

Ta:

- Ai, Joxepa, galduk [g]ide! –berriz ere are(k)-.

Ta:

- Zaude (i)xillik ama!

Ta, gero (b)enpin, ola omen tzuzin, ta gero antxe ya rektara, ya alletzerakun, amatxik:

- Ama, zu goain artu fuerte ori, e! Zuk fuerte artu, gogor kontu!

Ta:

- Miño zer dun in barra?

- Zuk kontu fuerte orreri!

Ta [irriz] amatxik artu ola riendak, artu fuerte ek zeri, zaldiyari, ta, ura ola ma'marra zion areri fuerte, ta ura prestatu ta da! [indarrez] A, zerari, ori eskutan onela artua baitzuen karra artua, areri da! man ta gero ala! [indarrez] txutik yarri bera ta, aire! bere karrukin betik [g]otti ta [irriz], bertzia [indarrez] eskutan miñakin ta kendua, ta martxa! Ta, gero klaro, Sunbillera allet tzen, ta Sunbilko bestak men tzeren ta Sunbillan an bakizu, ordun plaz-plazan an yendia, ta:

- *iPara a ésa! ipara a ésa!* –ori oiuka-.

Ta, amatxi berriz xutik:

- *iCamino! icamino! (icamino!)* [irriz]

Ta:

- Ai, Josepa! – ama berriz bertzaldetik .

Ta:

- Zaude xillik, ama! *iCamino! icamino!*

Ta, bertzik:

- *iPantalones a esa! ipantalones!*

Klaro, denak arrittuk, amatxi ura... T(a) ura (b)enpen yoan Doneztebera ta non i'marra[k] baitzittun une(k), bere karru ta denak sartu betti batin, ta, arratsin gero trenin buelta, trenin tor zen, ta ordun trena zatn tzen, ta:

- Oi, ama, Joxepa, gu oaiñ zer gattun i'marrak?!

Ta:

- Ze i'marrak? Deus ere ez, pañuluk oltxe patu ta lo [indarrez] yoan bar dugu!



Guardia zibilak zelatan



Martinborda baserriko familia,  
Beran

## 4.4. Kontrabandoa

### GURE HITZAK

**Mixtu bixtu:** Mistoa  
edo pospoloa piztu.

Ta, biyek ola leita(n) lo. Ta or Sunbilla allet tzenin, **mixtu bixtu** ta, k(l)aro, orik ordun, oan gaur ez lirake iñen orik ola, biño ordun ezpaitzen oaingo zerik, mixtu bixtu ta, denbora txarra (o)men tzen, ta itzaltzen, ta, a(g)ian itzalko zion amatxik [irriz] agian itzal koz... E[z] men tzittun izautu ere, denin begitu, ta bai:

- Tira, tira!

Kontesko pasat tzirenin. Gero nozpatt e kar men tzun karra!

(Arantza)

### Kontrabandisten trukoak

Truko bat ori zen, makilla biar tzen beti berdia, arek lurrin arriya yota itten tzuen kask! kaxk! miño idorrak itten du klask! [fuerteago] Ta kara... “Oi! ori etzuken kontrabandista!”, sumatz keo karabiñeruk zann tziela numatt ere, ola zoazinak ta ori, beti berdia, lengo zarran kontsejua.

Eta orretik aparte, lengo zaarrek erranen tzuten: “Kasu, e! Ez or bertzi[k] piño geigo diruik da aertzen ari, e! Beila zeben buruk a(g)ertzeko. Esti... besta gutti egin!”.

Ta ola, ala da. Bertzi, guttigo zena re... da etzabilen arekiñ erran: “Ez, etzautzula izautu kontrabandistak [g]iñela!”. Ta olko... kontsejuak, oik zaarrak ematten xuzten, e! Gaztik eztakit beti beteko genittuen; ek etzixuzten iñen been denborian miño benpin.

(...)

Erratn tzuten: “Ba! bira, yenderik ez pasatu, yenderik ez artu pasatz(e)ko, yendik solas itten dik, beiek eta paketak, ek eztittik itten”.

(Bera)



Hurritz makilak



Karabineroak

almendra garraio, biajia... biaje bakotxian, eta zazpi ordu! Eta, egun batian in tzigun elurra, eta ezin segitu, elur errestotik elduko baikiñen, eta erri urbilti(k) pasatze giñen, ta zen gure borda bat, belar iten genugun ta belarraz betia, eta gootu zaigun borda artan gorde bar gintugula, biaji ura; gero elurra kendutzen tzunin eraunin

### Paketeak garraiatzeko

Eta beti oroitzen naiz, oañikan soldado enitzen yuana, ta almendra... asi nitzen almendra garraio. Eta lemiziko asitzia izandu nun lantziko Bentatikan erau'mar tzaiten genugun Sarakun beitixko sartu bar tzaiten genugun. Jo! Eta ogeita amabos kilon izena zaite tzuten, zakotan tortzen tzen, ta ogeita amabos kilon izena zaiten tzuten, biño nagusi kontuko oie[k] beti kilo gutiyo erran, mño pisatzen tzuten!

Ta, egu[n] batian in tzun, ez nun biaje aunitz-aunitz egiñ, e! Andikan; yendia aspertu zen, mño ogei lagunen grupotaraño ta kontatuketu tut, ogei laguntaraño ta...

gintugula, ta borda artan belarrin gorde gintugun. Ta, gu(k) ere iduitzen karga geio bazutela ta: "Alua, pisat'ar tiu ba!". Eta baguzi ta pisatzen tugu ta berrogeita **bira** kilo pisatzen tzuten. Ta ala in gintugun... bo! Biaje mordoxka bat, miño gero laburt(u) zuten, erdi biaji(a) pagat zuten. Ya errira... erritikan goiti, ta ola zaiten tzen, erriraño ekartzen tzuzten ni[k] eztait kamiontan edo... gero guk baxterrín artutzen gintugun biño(n) norbait e dediktzen tzen baxtertzeko, ta gero biaje erdiya in ta ola, ta gero ura arriñao zaiten tzen.

Ta irauzi! Erran bear zaiztet zemat irauzten genun: zazpi ordu kargaren azpiyan eta amabos duro, iruogeita... amabos pezeta, amabos duro. Eztut penarikan... lana eiñeko niken biño bet... arena beti bout, kontra(b)anduan... naigo nun izautu ezpaldi'manuen. Arekin gorputzari ze paliza eman nion nik! Ni alletuketukatu naiz emen baserri batin lanin **ariki**, eta egunaz iten nun argin lana eta gabaz kontrabandurat. Ta izaiten tzen i... iru-lau ordu gabaz lana, do he! he-he-he! Ola, lau bat ordu do bortz ee bai aldika, ta segun. Eta, astian bortz egun segidan [indarrez] ein genintun, ta ler iñak [indarrez], eta siesta iten genugun ta nagusiyari, siesta egiten ezpanitzen ernatua ta, nagusiya... ta biyek ta iratzin iten nun eyian lo, ta iratzian zangu paatzen nun nagusiyari yoka ta ura muitzen tzelikan, ordun ernatzen nitzen, bertzela enintzen ernatuko. T'itxi artaku(k) baziren, itxe batin benpiñ, buru kontukuk, ta leno deitzen tziaten langille, pion, ta an lanin ai nitzelikan etziaten deitzen; normal da, eske geo eunez ezpainun lana igual eiñen! Eta ek ere ez tontu(k), biñon baitziren bertzik ere aritzen tzianak. Ta bertze lagun batek erran tzian:

- Aizak, se, eztuk eterri nai?

Ta:

- Ba, igual, baño jobar!

Zen front... muga aldetikan urbillin baserri'yura, ta andik itxea torri ta berriz ee yuan... Ta iten (ge)nun gaba lentikan lana, eta: "E! Nik eraunen dit bokadillo bat!"- eta... – "Ator lanera!". Eta, nagusiya bidin utzi, eta are[k] bokadillukin ta areki'matian rak! paketi eske. Ta ordun ekartzen gintugun ya paketiar, andikan, Frantxitik unat, puntilla ta ola erraiten tzuten izaiten tzela. Ta bueno, puntillak, rodamentuak, eta... edozein gauza zaiten tzen oitikan, karga kasi...

#### **Ink.: Kaseina ere pasten zenuten?**

Mmm... eztut uste ni[k] beñ e karri duten; nik ez, ez, ez, nik ez, sakaina nik eztut beñ e karri. Gero... kobria re bai, bueno, kobrikin istoria politak ere badire. Emen erosten tziren... ordun baziren guarda zibiltan ta iurek kontrabandun ibiltzen tzirenak, e! Bai, (bai). Ta batena benpin klarua ut, izena eztut erraiten al, miñon... ejerxitoko bat bazen, eta neone soldado egondu bainaiz, ta, aren istorio dena badakit. Ekartzen gintugun eta iten gintugun bi biaje, ta guk kanpamentu(k) gintugun erriti(k) goraxio, eta, kanpamen... bi biaje iñ orrat eta itxerat, ta gelditzen tzien kanpamentun gordeak, miño kanpamentuti[k] bat nere giltzen azpiyan egoite'maitzen, eta etxitun iñork sartutzen al, (ta) biamon goizin tortzen tzen ofizialia oitikan bat ejerxitoko kamionakin eta kobre rollu denak eraute ztun. Erauten tzituen, (bai, bai, bai), eta, bueno, ola bixkorkitan.

#### GURE HITZAK

##### **Bira:** Bina.

I letraz bukatzen diren zenbatzaile banatzaileek -RA egiten dute Baztan-Bidasoan.

**Ariki:** Adizki trinkoak erabili ordez, puntu-ritasuna adierazteko -KI erabiltzen da.



Puntillak



Pikuborda

## 4.4. Kontrabandoa



Javier Indaburu - Etxalar

### GURE HITZAK

**Uelde:** Ugalde. Ibaia.



Berako mendi mutilik

Ta gero nere anaia ere soldado emen egitia tokatu zen, ta arekiñ ere suertu zen. (Ta), ola, kontrabandua ola zen, miño etzeren ola gauz delikadua... etzen, beti guarda zibil(ei) eskapo egin bai, miño baziren bai ordun ere... eritu ta iten tzuzten, zemait guarda zibil ezpaitzien saldutzen ere! Eta ek letxin egoiten tziren, eta aldi batin oroitzten naiz, ni enintzen an, biñon orrengo egunin, eritu zuten arekin batin zagon laguna nerekin suertu zen pareja, ta egun artan ee guri eltzia, eltzia erraiten iogu, karabiñeruk atei zazkigun, mño ezakigun gure pa... nere parejari ateri; nere anaia bazuien ta, ordun ere zen... **uelde** bat tzen, ta errekkak audiya(k), ta pasatu bar (ge) nun zubi batian naitez. Ta i'mar genugun ura eskinetxe eskiñ etorri ta geo zubi ura pasatu ta berriz ura eskin-eskin goiti yuan ta, ta guarda zibilak esperuan. Lagun bat pasatu zen pakete batekin, ta areri etzioten kasik in; bino bazakiten dena, truku dena, orrengu bikin tortzen tzela. Bat batekin yuan eta aixko kontrabandistik obexkuna yuaten tzen bakarrakiñ; ta, ura pasato eta ondotikan nere anai bat suertu zen, (ta) bertze anaia, berriz, nerekin. Uraz bertzaldian nee anaiari ra! txaketatik artu zioten eta: "*iEcha el paquete, maricón!*", eta bertzik diu! eskautu, paketia bota, ta bere lagunak ere bai, ta artuak aunditu(k) tziren, Bestaberri ingurua zen zerbait ere, artuk aunditu(k) tziren. (Ta), bat eskaut tzen arto tartin barna gordeka ta, batek segit tzion areri ta bertzia kao, paketia zaitu bar zuen; ta nee anaia, berriz, eskautu zen goiti, eta sartu zen ustekabian errekara, eta unañoko uria, eta zar... bazterrak artua (ta) urin sartua geldi-geldirik an egon. Eta: "*iVen, ven, que el de aquí se ha escapau para arriba!*", egiten tzioten, eta, bertzik txaketa kendu... galduki. Txaketa ura... baitzien emen paisanuak ere karabiñerukin ta agiz laguna(k) tzienak, ta nee anaia, karrikakuk lagunak, ta karabiñeruk txaketa ura etzuten erranen noski nona zen, e... biño ezin fiatu. Eta, txaket' ura efetibamente, karabiñeruk karri eta: "*iE! ¿Ya conocéis este jertsei?*", oain eztakit ze erran tzuten.

Eta, geo nee lagunak o... nee anaien lagunak, karrikarat ha! bizpairu egun agertu (g)abe in ztuen ta, bi arreba banituen, oain bat [d]ut, biñon... ordun bi arreba, ta bi arreben artin, iru egunez jerse bat igual-iguala [indarrez] egin, ta jerse marron bat tzen, eta jerse igual-iguala egin ta, jerse(k)in da bee lagunak:

- Mekaguen tal! I ze? Nik ire txaketa ikusi dit guarda zibiltan!  
I kontrabandun kendu ute (sic) txaketa!

Eta:

- Ni! -oi ukat ar tzuen, oixen! eta...- ta nik una txaketa emen.

(Ta):

- Mikaguen diez! Pues, igual-igual tzuken! Igual-iguala! – ta-ta yotzen nik i izanen izela!

Eta:

- Ez, pues enioken ni!

Pasatu zen, bai. Ta gu urak bertze aldian, ta zen bezperan eritu zuten aren lagunakiñ ni, ta, erraiten nion, arek da(n)! Paketia bota zuen, tiruk... kiao, urez bertzaldin bertan tiroka, eta, paketia bota, ta: "Eztuk guretzat, eztuk guretzat!" [isilpeka], ta uren soindukin etzuten aituko, etzuten aitzen, fuu! Fu-fu!, *riada* audiya zen. Eta, bertzia(k) tirua zala ta, meka! Are(k) bota, jo! Nik ee bota ondarrin! Eta, biñon gu biño gibelotik eldu zen bertze bat, bakarka eldu zena bazen, oaiñ Ameri(k)etan bizi da,

ta, are(k) botatua bazun gootxio ta: "Ah! Emen eztiken iñor e ondotik eldu! Ni(k) au artu ta erau'mar dit, ni(k) salbat ar dit!". Paketia galduz geozi(k) yornalik ezpaitzenun zaiten! Ta, nik eraun nuen ta nee paketikin gibeleaf, ta an nagusiyak arrautu gintugun, gibelian, poliki gibeloo yuanta, emen baserri bat urbillian ta:

- He! Paketik galdu tiu! –erran nion-. Paketik galdu tiu!

Ta, ta:

- Non duk?! Joxe Ramon. Non du(k) Joxe Ramon?

Ta:

- Bai, ni(k) etait ura lasterka.

- Mika(uen)! Bo(n)! Ura yuan du(k) ta nik, koño, bizak, nik neria galdu dit, biño bertze batena ekarri dit! Nik paketia emen dit!.

Eta paketia gorde genugun an urbill artan, eta, ala! bakotxa gere etxerat. Mño gero diru ema'mar tzuten denborian, pues, etziren gaizki portatu, nee anaiak txaketa galdu baitzuen, ta nere anaiari eman tzioten yornalan erdiya, eta niri in tziaten erdiya kendu. Erra... gero erran nion nagusiri:

- Nik eniken meezi galduzia! Oi zuen sakeltik ma'mar tziunten!

Eta:

- Ez, ola konpondu diu.

Ta:

- Bueno, bueno, bale, bale!

(...)

#### **Ink.: Gañera emengo geienek...**

Bai, bai, kontrabandun emen mundu guziya ibiltzen tzen. Eta buf! unako Zuamurdi aldi ortan ez dut erraiten, an ikusikuak... an astuakin ta guziyakiñ aritzen tziren an. Ta, bueno, uste dut...



Mendiko bideak



Kontrabandoan  
(Arizkungo Ordoki jatetxeak utzitako argazkia)

Kontrabandun... ni gutti ibilli naiz, e! Aiz gutti. Bueno, bai, batzuk bai, biño... gu... gure kontra... geixo guttixo, denak ibiltzen giñen emen. Al tzenian miño, kontrabandua biaje luzia, bat inketu dut. Men ttikiyak bai, llaburrak, emendik Bidasoaño, mendik Bidasoaño zatten tzien biaje franko in ttugu ta... miño, kontrabandu o, luzia beiñ in dut, emendi(k) Tolosara oñez. (Bai).

Mendik ate giñen, e... Lesakatik ate giñen, bizikletan Lesakaño yuan giñen, gue laun batek eaman tzuen emendikan ureño, Bidasoaño, gero Bidaso gurutz zuen bertze batek, ta gu bizikletan Lesakara yuan, ta bi laun ta idi pare batekin, bi... bi idikin. Ta, emendi(k) yuan giñen illunarrin Lesaka... bueno, illuntxen ura gurutz. Ura gurutz ta gero gotti Igantzi aldera abituta, an artu gunuen bi launek ta yuan giñen andikan e... Iantziko bazterti(k) pasatu, Arantzako mendietan barna, Artikuzko atakara. Artikuzko atakan sartu ta Artikutzko mendi... mendiya, ta, andi[k] gurutz ta

## 4.4. Kontrabandoa



Egurra pikatzen

andikan Asurara, b... badie bi baserri. Or eztakit nongo t... Zubitako terrenuk do... eztakit zer den. Arat alletu giñen goizi bostako, gaba guziya yuanta. Goizin bostatikan arrasaldiko bortzak arte in ginun lo. Igual maz... pixkot yateko pixkot eaman genun gueki'matian ta arrasaldiko, goi... bueno, arrasaldiko bortzak aldin andik abitu giñen, ta illuntzeko alletu giñen Goizutara. Laguna genuen, baserri artako gizona zen, Zelestino zuen izena. Ta, Goizutara alletu biño pixko[t] lentxio erran tziun:

- Bueno, zuek aski zue emen egottia. Espezu(e) men. Ta, nik arraptu bar dut lagun bat, mendik antziñera segitzeko.

Ta bueno, bertan geldittu (g)iñen. Illunabarre ola bixta galdu eo ez galdu ola zeon ta eon, ta eon, ta eon, ta eon, ta yaus ez. "Ze demonion (i)billi ote da?". Noizpatt e mutiko gazte at torri zen ta ori re bai, aat bittarteko lagun ori, Selestino ori ere bai, biek etorri zien ta:

- Bai, antxe eltzetzuk eziñ engaintuz. Ta, bai, bai, taberna batian, ta, antxe, ta beilla yua'mar du(t) perriz. Ta erran diot segitun yuanen nitzela musin aitzera, engaintz(e)ko.

Mutiko gaztia geatu gittun, pasatu giñe zubi txar bat'tiken, karretera guuztu, zubi txar bat'ti(k) pasatu, erreka zen, ta, zubiya pasatu ta beti gotti segi; segi, segi, segi. Nekatu, ta ibiyi gero, ibilli bi idi tzin biño, eken... gu[k] buztarri, biin artin buztarri bizkarrian. Buztarria bakizu zer den?

### Ink.: Bai.

Iru... ta ura bizkarrian eaman gunun. Biamun goizian, bueno, ortako deskanstu ere in genun; borda bat arrautu gunun, bordan geldittu giñen, ta belar idor pixkot, be... belar idorra bazen, ta, bazkat... bazka pixkot eman genion, geounek ere pixko at yan genuen, ta, goizin argittu ta beila alletu (g)iñen Berastegira. Berastegin karreteran sartu, buztartu ginttu, buztarri paatu genion idiiri, ta makilligin Tolosara, karreteaz karretera. Tolosaa alletu biño pixko bat leentxotiken, e... Txarama du izena, Txaramatikan artu gunun, erreka ttiki bat gurutzta mendira betik [g]otti. Ta, mendirat goitiko ondorrea alletu giñenian, andik ziarka-ziarka, segiduan zera, Altzora. An geldittu (g)iñen, baserri batian. Oi zen luzina.

(Bera)



Karabineroak eta kontrabandista

### Paketeak

Pues guk auniztan ezkenakin zer tzen ere barnin, ze zuaien barrenin, e! Biño, aunitz gauza erratten zuten ordun, pues, bazirela zerak, pues: puntilla, *hilo de oro*, eta... gero despertadorik, eta zerak ere bai, este... (zer da au?)

### Ink.: Rodamientoak.

*Rodamientos, rodamientos* eta... ola gauza aunitz, zetikan etzen pf! guk ze barrenin zuaien ezkenun yakitten, ezkenun yakitten zetikan... Ta galdu... gero galduzen tzien denboan, zetik galduketu dire paketik autsi, ta igual bidin galduak, ta ola. Ta gero altxatu re bues eitten tzien toki ba...tzuk ff! e... yakintan edo seguro xamarrin, ba... bakizu, edozein alletu, eta... ebasten baitzuten. Ta ebatsi gabe, pues, nai zen pixkot altxatu toki on txamarrin, on txamarrin ola. Biñon, ba! kasuk ola pasatu... pf! aunitz,

zetik denboa luze xamar izandu baitzen lana ori, bai, ta ola.

Dentik, klase guzitko zerak izandu ziren emen. Gu(k) bertzela suerte terriblia izandu genun Bidasukin, e! (Zetik) Bidasoko ura bakizu ze ba... nola ibilzen zen, batin u... uriya egiñ eta gotti etorzen zen, ta betti etortzen zen, ta toki yakintan pasatu bar zenun, ta e[k] perriz a... guar' zibillek artutzen xusten, ta yuan bar zenun toki... zerata [eskapatzen bezala] ta ola.

Bai, gu bolaa aundiyyin aittu giñen *barco anfibio*, zea, plastiko bat aizatu, ta arekin pasatzen giñelikan ura, bua! jesus! Gure laguna zaarna zen, guretik ola zaarna, ta emen oain Bentati[k] peitxio or nola dao presa, presa orretan p(a)satzen genun auniztan, lantxa arekin. Ta, bakizu, pues, tiatu bar tzun batek ta ola, eta, uran erdiyin geldittu ta: "Mekabe(n) reus! Tira! Tira!" [irriz].



Lesakan meztik ateratzen

### Kontrabandisten seinalea

A ba, bueno! Mezara yuaria aski (i)zaten zen lantzin, korura yuan, ta ezautko zenun dena, zein zabilen bizkar lanian, e! Kallua eiña, zimurra, zimurtua [irriz] zea, bizkarra, bai, bai, ala zen, ezauzen ziren aisa zein tziren, o!

### Pakete kopurua

Segun, ori (i)zautu bear zen, spediciona bazala etorzen zen, alegia, bueno, batin tor zien sei, bertzin tor zien amar, amar-amabi, amalautaño, amar-amabi, geinikan amabi, geigo ez, e! geinin ura, zaten tzen ura. Ta gero yendia arrautzeko re, billu bar baitzenun zuk kuadrilla, eta, egunoro denak etziren konforme yuateko re, eta dentikan, dentik zatn zen, ta pues, artu bar zenun ta baipena yakin bar zenun, an etzen... batek bi pakete ezin x(k)un karri!



Dantxarineko muga

### Taldeen antolakuntza

Pues, kuadrilla, bi baiginen, emen bi[k] zatte genun. Nik banun baten... soka bat, bi soka ziren torzen zienak, e! Bat tortzen tzen andikan ta bertzi(a) emendikan. Eta, bat tonzn zen nerengana eta berzia torze zen –emen bertzia da– bertze batengana. Eta... ola, pues segun, bakarrik guk itte genun, bi(y)ek itte genun lana.

### Kasu bat

Pues pasatu zaigun guri b'lantziko bentako zerin, pues, uain gazte bat, Ameriketan da, ta, gazte-gaztia, amasei bat urte do, gazte-gaztia zen, biño fiña! (...) lantziko benta gañin die bi borda, ola, ta gero piñadi oi etsiya dago alanbrikin, eta, alanbria pasatu bar zenun aatek'aldera ta, bertze kuadril ta biyek batin yuan giñen, denak. Ta erran nion: "Bueno, ez gero... begitu ongi, e! Ez gero gure ondotik... eziuk jaleu(k) emen biarni(k), begitu ongi!". Ta, ek falso samarrak, ni ara pasatu alanbrin ta bordara, rak! ta,

## 4.4. Kontrabandoa



Trena

an, eta biamunin. Ta guar' tzibilla(k) erran tzuen: *"¡Va, estos no van a trabajar hoy, estos vendrán mañana!"*, ta or yarri puntun, ta begitu zioten ta, sumatu eeki eldu zi(r)ela. Paketi guztiak galdu xuzten bertze kuadrilla(k) ta gu berriz gaba artan bertan lan ein genulkoz pasatu ginttun.

### Ink.: Ze ausartak!

Bai, bai. Ta, jo! ori, mutiko gazti ori... erran nion: "Zuk s... niri segi!", ta antxen, zakur batek segiken bezala segizen zian orrek niri. Ta paketik [g]orde barra ginttun. Paketik [g]orde eta atzea berri, Bordakati(k) barna, iñor etzen, ya yuana tzi... yuan tziren, man tzuten batida (e)man tzuten ta martx... martxa in tzuten. Ta, segidun atzea yendia billu, ta paketi(k) pasatu ginttun. Ta, bertzik in zuten ez geigo yuan, utzi



Karabineroak

bazixten, gona aundiak artu, ta oiken azpiyian ta... ta oikiri deitzen genion guk estraperlistak. Oik emakumiak jazen tzin jenealian.

### Kontrabandoa eta estraperloa

Bai, estraperlo deitzen genion emen bertan eitten tzen negoziua zen ori, bertako yendiak. Porejenplo, aixtin erran dugun tren orretan tortzen tzien emakumiak. Andikan ekarko zuten, Gipuzkutikan Nafarrura igual arraia do zerbatt ere, ta emendik e... arrotzen baldin bazuten eramen tzuten yateko zera... gauza: edo arrautze, edo illar, edo arto... batekin bertze. Ta oiek etzuten libre ori ittia, e... guar' tzibilak biltzen zien trenian, biño iñoneko **martingala** guztiak

## GURE HITZAK

**Martingala:**  
Trikimailua, amarrua.

### Ink.: A, bai, e!

Orretako ernegua da emakumia gizona biño, bai, bai. Ta oiek, pues, trena pagatu bako zuten ederki, biño, trena pagatu ta dentako ateitzen tzuten. Pensazu, esnia emendika Gipuzkura eramitten tzen, emen bildduta, ta oita amar litroko esne ontzyak trenian, emen bilddu, ta trenin eramen. Ta, gero, esne ontzik ongi garbittu ta ekartzen tzuten jenerua andikan, kontrabandun, es... esne ontzik utsak eldu balike bezala trenian, ta ekartzen tzuten kafia. Kafia ordun kontrabandu zen, Frantzia eramatten gunun, gero gabaz Frantzira eramen. Frantxitik bertze zerbatt e karri. Frantxitikan: kubiertak... naiz kubierta gutti aski zen ordun, biño kamionak eta kotxe bat edo bertze do... puntillak, aixtin leittu zu zue(k) kobria, kobria ta latoia, txatarrak, alemanak Frantzman botatuak gerra denborian zera(k)... bonbak, tak... ekin kapsulak, latoiak eo kobriak, ori kontrabandun karzen tzen gabaz, Espaňira. Ze gauza, e!

bi guar' zibillek dda! nei golpia ta nik bxx! buelta eman ta linternaki(n) ezaki[t] zer...tikan [irriz] pa! pa! [tiroak] bieltikan, bieltik ta ek bittartin ez pasatu alanbria ikusi arte nik ze itten nun [irriak].

### Ink.: Ze ausartak!

Bai, bai. Ta, jo! ori, mutiko gazti ori... erran nion: "Zuk s... niri segi!", ta antxen, zakur batek segiken bezala segizen zian orrek niri. Ta paketik [g]orde barra ginttun. Paketik [g]orde eta atzea berri, Bordakati(k) barna, iñor etzen, ya yuana tzi... yuan tziren, man tzuten batida (e)man tzuten ta martx... martxa in tzuten. Ta, segidun atzea yendia billu, ta paketi(k) pasatu ginttun. Ta, bertzik in zuten ez geigo yuan, utzi

(Igantzi)

### Kontrabandoa eta estraperloa

Bai, estraperlo deitzen genion emen bertan eitten tzen negoziua zen ori, bertako yendiak. Porejenplo, aixtin erran dugun tren orretan tortzen tzien emakumiak. Andikan ekarko zuten, Gipuzkutikan Nafarrura igual arraia do zerbatt ere, ta emendik e... arrotzen baldin bazuten eramen tzuten yateko zera... gauza: edo arrautze, edo illar, edo arto... batekin bertze. Ta oiek etzuten libre ori ittia, e... guar' tzibilak biltzen zien trenian, biño iñoneko **martingala** guztiak

bazixten, gona aundiak artu, ta oiken azpiyian ta... ta oikiri deitzen genion guk estraperlistak. Oik emakumiak jazen tzin jenealian.

### Ink.: A, bai, e!

Orretako ernegua da emakumia gizona biño, bai, bai. Ta oiek, pues, trena pagatu bako zuten ederki, biño, trena pagatu ta dentako ateitzen tzuten. Pensazu, esnia emendika Gipuzkura eramitten tzen, emen bildduta, ta oita amar litroko esne ontzyak trenian, emen bilddu, ta trenin eramen. Ta, gero, esne ontzik ongi garbittu ta ekartzen tzuten jenerua andikan, kontrabandun, es... esne ontzik utsak eldu balike bezala trenian, ta ekartzen tzuten kafia. Kafia ordun kontrabandu zen, Frantzia eramatten gunun, gero gabaz Frantzira eramen. Frantxitik bertze zerbatt e karri. Frantxitikan: kubiertak... naiz kubierta gutti aski zen ordun, biño kamionak eta kotxe bat edo bertze do... puntillak, aixtin leittu zu zue(k) kobria, kobria ta latoia, txatarrak, alemanak Frantzman botatuak gerra denborian zera(k)... bonbak, tak... ekin kapsulak, latoiak eo kobriak, ori kontrabandun karzen tzen gabaz, Espaňira. Ze gauza, e!

**Ink.: A, bai, e!**

Gaixtua bizkarrako... dena punta zorrotzak ta sendorra.

**Ink.: Ta pisatuko zuen ere bai, edo...?**

Bai... oixe, gaixtua. Bei larrau, bertzia kontrabandun ibilzen zena. Orre re gaxtua, usai bat... gordiña, beiak il ta... beiak il ta gero, ta aekin paketiak iñak. Ori ere aiz gaixtua zen bizkarreko. Kubierta re etzen ona zatten, zetik zemaitan kubierta aundiak eta ola bizkarrian gaixto zatten tzen. **Eltzetzuan** beldur.

**Ink.: Beti...**

Aixtian erran tzut korsetiekin ze istilluk kusi zien emen... pentsazu, ni oroitzen naiz emen... emen gizonak ai zien lanian fabrika orretan, ta egurdiyan, egurdiko bazkaltzeko demorian amabitik ordu bat(e)ra bazkaltzen zuten, ta ordun bazkaltzeko eramatten tzaion, emen mutiko koskorak, bazkaria. Ta, mutiko koskor batek eram(a) tten zion bazkaria gizo'materi, ta gizon ura in zen noizpatt e kejatu bere itxian, beurik etzuten mutikorik, ta bertze itxekuk eramit(te)n tzion, ta in tzen kejatu gizon oi itxea torta:

- Ongi ogi gutti biali diazue gaur bazkaltzeko.
- Bueno.
- Guk beti bezala biali (d)izugu ogiya. –erran tzioten itxian.

Ta:

- Neri gutti alletu zatt.

Ta, bai, mutikuak ere ze zann zuen gosia, ta malizi ttiki(y)a. Ta, berriz ere in zanen tzion pikardia ori, ta berriz e(r)e kejatu gizona. Bono, orainguan pentsatu zuen emakume orrek ze in. Bueno, guardia i'mar tziola. Ta emen... emendikan oain den bidi ori etzen oain bezala, **estrata** audi bat tzen orduan. Ta or... or barna mutikuak nomatt e or itten tzuen aziyua, nabala eramen ta kentzen tzion. Ta in tzuen emakume orrek arrapatu. Pensazu zertaño obligatua zen yendia. Gosiak. Ba... bai.

Errana badago: *Es má(s) listo que... que el hambre erratten tzaio ernia denari, ta egiya da ori. Gosia(k) gauza aunitz ariñazten ttu.*

(Lesaka)

**Zenbait karabinerok beren burua saldu**

- *Hola, buenas tardes señor Mendigorri ¿qué anda usted[?]*

- *Dos ardi beltjas falta[n].*

Yasta, kontraseña iña, ya bazekitten ze(i)n bidetikan Mendigorrik bei[k] pasatu bar tzittuen. Ta gaztia engaintua, siñetsi: "Pues yo no he visto ninguna oveja ne... negra". Ta, nola ikusko zittu(e)n? Geo berak erraten: "¡Jo! jcómo me engañaron!".

(Bera)

**GURE HITZAK****Eltzetzua:**

Guardia zibilari modu informalean, lagunartean deitzeko modua da. Garai batean eltzea eramatzen zuten jakiak prestatzeko eta hortik heldu zaie izena.

**Estrata:** Bide meharra, gurdia-eta ibiltzeko modukoa.



Javier Sansiñena - Etxalar



Karabineroak zelatan

## 4.4. Kontrabandoa



Pakete garraioan



Astoarekin Berako karriketan

### Ogi garraio ◎

Ogi garraio... enaiz oroitzen seguru nik, oi... amabos bat urte edo ola nintilik izanen tzen, amabortz-amasei bat urte... Or urte pare (b)at o bizpairu ibilli giñen Frantziatogi eske yuaten giñen, (e)mendikan. Ekartzen gintugun... bos lagun zaiten giñen dentarat, yuaten giñenak gure grupuan, biño ezkiñen dena[k] bati yuaten; gu bertze nere lagun bat, nere urte berekua eta... bertze bat, iru, guk irure(k) bai, beti elkarrekin. Ta egun batian ekartzen nintun nik zazpi ogi, bira kilugu(k) zaiten tziren, ta emen ezpaitzen ogirikan, etzuten emaiten orduan, ogi(y)a kendutzen tzuten, (ta), ogirikan gabetenik eta artuak akautzen zkigun Sanfermintako, ta zerbait e ya'mar zen, ta ordun emaiten

tzuten Sanfermiñak o Santiagoko tarti ortan emaiten tzutenogi raziona. Ta ogi razoni ura re gutti zen, artua dena akautua, ta ordun asi giñen ogiya ekartzen Frantzitikan. Eta, klaro! egunin... eguneko ekartzen nun ogi bat bi kilokua, ta bua! ordun ya asi giñen. Oroitzen naiz erauten genun txokolte... bizpairu pastilla eta an ogi fresko-freskoa artu ta lemiziko zanpada bat iten nun an eta zazpiyik etzien itxeat allatzten. Ta aldi batian kendu ziuten mugaat allatzin soldaduak; alto bota ziuten ta gelditu giñen, ta ya nora yoaki giñen, ogi eske yoaki giñela, eta ordun giñen bida, eta irugarna bera bak... bakarkaz yoaki zen, ta, gu biri... ta ha! nik...

- Zemat ekartzen zu zuk?

Ta:

- Ni(k) bida! -gezu(rra e)rran nion-.

Eta bertziak:

- Ni(k) bat! -ta arek ekartzen tzitun zortzi, ta nik zazpi-.

Eta:

- A, bueno, bueno! Ongi da! Zoazte, biño txaketak utzitzue emen, bertzela ezpaitzate emendik torko eta gero ma'ma(r) duzu, ogiak... erdiyak ma'mar tzu emen guri!

(Ze) ek gosi... guk gosia ta ek ere gosia zuten, eta, antxe txaketak eske yua'mar baigenugun! Ta bertze irugarren lagunari kargatu gintiogun bertze ogiyak, klaro, bertze lekutik yuan tzen! Eta gu... pasatu giñen... pues, ni bi ogikin ta bitik bat kendu ziaten, ta bertzia batekin, eta areri erdiya, eta arek zazpi bialdu ztun bertzikin, ta ni(k), berriz, bialdu nintun borz bertzikin. Eta gero elkar arrautu genugun, eta, karo, biogi... niogi bat gutiyokin itxerat, ogi bat gutiyokin itxerat.

Ta berze aldiyan berriz e suertzaigun, ura oañik rarugua. Ya ari giñen itxerat urbiltzen, ta denbora txarra zen, iten tzun kazkabarria ta... a... illargiya ere bazen, biño kazkabarria denborin tarteka klaru(k) ta bertzetan kazkabarria, ta bueno, batin txutik, bertzin eroriyak... ogi guziyik papurtuk [g]intugun. Eta botatzen diute alto(a), (ta), gelditu; ta baenun berroeita amar metroko distantzi(y)a eo orrela eta gu(k) pensatzen genun guarda zibillak zanen tziela, miño etziren ala zanen! Ek etzien gurenat eldu eta gu ezkiñen ekengana yuaten, gu geldirik ta ek [g]eldirik; gauz bat raru. Ta bazen bidegurutzia ta ek guri zautzen gaituzten... gero yakindu genugun nor tziren. Eta,

in tziren, ek artu zuten beko bidia, ta gu(k) genun gainkua artu biarra, ta, iru lagun oitikan batan baserrian pasatu bar genugun, ta gu, bertze nere lagun ori, itxeraño tortzen nitzen (sic) lagun ori ta biyek, guk (sic) eskautuko giñenak arek geldia(a)zi ziun, ta bertze tipu oie(k) pentsat tzuten, zien soldado bat eta paisano bat, ogiya kendu nai ziutenak, ta gu gelditzi artan pues, fa! etziren tortzen al! Miño pensat tzuten gero gu biye(k) gelditko iñela baserri ura pasatuta, bertze baserrik' atin, ta nik ogiya(k) gorde nai nitun an, mño bertziri beldurra eman tzion:

- Eztit utziko... emen ogiya gordetzerat, zeti[k] itxin beatzen baziatek, arrautuko ziatek!

Ta:

- Miño emen meta azpiyin gordeko tiu atian.

(Ta):

- Ez!

(Ta) bertzik:

- Mekaguen tal, goazen! Goazen, Jabier, yo'a'mar diu! E, puñeta!

(Ta):

- Bai, bizak, e! Gaur galduko tiu ogi(y)ak, e! Kusko duk! Au raruu duk!

Eta efetibamente, andikan lemiziko zokorat alletu iñelikan, altori[k] ta yeus e bota gabe... gabetenikan, tiroka asi zkigun. Tiroka, ta tipiti-tapa! tiroka. Ta, jobar! Ni lasterka ta nik ogiya bota, ta, ni ezpainaiz eundaño kontrabandista zandu, ta bertzia bai, bertzia kontrabandista zen, trozo andiya segitu zuen bere ogiya bizkarrian, mño bertzik eldu baizkiun ondotik! Ta ni(k) ari nion distantzia polita kendutzen utsik! Ta arek ere ondarrian bota zun, ta yuan giñen, buelta eman ta arek bota zuni(a)n utzi (g)izten. Ta bertzea leku bati buelta man, ta nee lagun orren itxetikan pasatzian, biyek sartu giñen aren itxian. Eta, oañikan itxin sartu ta erran tzioten, arratsin amabi t'erdik-ordu batak aldia ola zanen tzen, eta:

- Mutiko, mutikoa, ze! Ogiya(k) galdu tzue zuek? **Illupa(k)**, más que illupa(k)!

Eta mutilkun... mutillen amak ere:

- Oain ze ya'mar diu astian?!

Erristan **pixpildu** zuten! Eta andik ateitak ni bakarri[k] tixerat, eldu naiz itxera(t) eta ama guatze(r)a yuan gabe, nee esperun, eta amak:

- Non tuk ogiya(k), Jabier?

Ta:

- Ogiyak, ama, galdu tugu, ola ta ola, ta...

Eta ni penatua, eta ama asi zen niarrez, ya neon re ya niarra eskautzen tzait [begiak uretan], ama asi zen niarrez urriktuta.

- Ogi pixko at yat(e)ko ola ibilli biar!

Ta beti oroitzentz gure aman eskuz, ze biotz ona zuen arek. Errista? Bai, zera! etzen erristiken, ez!

Eta oitik batugu pasatuak; ola, miarenak oiek.



Etxalarko ehiztari taldea

## GURE HITZAK

**Illupa:** Ilupa. Ganoragabea.

**Pixpildu:** Pispildu, kiskali.

## 4.5. Feriak, azokak, merkatuak eta saltzaile ibiltariak



Lesakako feriak

### 4.5. Feriak, azokak, merkatuak eta saltzaile ibiltariak

Agiz kanbitu da denbora batetikan ori, feriak, ori bai, bai. (...) Orduan tzen azinda; goain dela berroeita amar urte, pues, azinda ta errantzaitutena, aizkora saltzalle'mat e... turron saltzalle'mat eta akabo. Geo, txurrero'mat ere, bueno bai, ori re izaten tzen; urra... ordun txurreruak etzien oan bezala ibiltzen, orduan olko m... katxarro esp(r)eso bat izai... izatn tzuten, ori, bizkarrin ibiltzen tzutena, ta, ura utzi lurrian...

#### Ink.: *Ze barkilloak bezala?*

Ba, markillu(k) bezala. Saltzen tzuten barkillua ta tzatzen tzuten ori, elau. Eta... ta txurruak, ta ola. Beñon, oaiñ, oaiñ montatzen ttuzte, joe! kriston barrakak, ori...

(Lesaka)



Martinbordako familia  
akordeoiarekin

### Donibaneko merkatura

Ni enaiz oroitzen miñon, gure ama zenak anaia artu ta yuaten izanen tzen... ori, ollaskukin, arraultzikin, gasnak... ta gao, oiek denak saldu, ta gero ontziyak ta ze biar tzen, edo... yaunztek arropa do ze biar tzen trukan ekarri.

(Bera)

### Erregeen pribilegioak Lesakan

Nabarrak bakizu bere reinua zula, m? Eta, erregia, eztakinik zein tzen *Sancho el Sabio* eztakit zein errege zanen tzen orduan, ta in tzion, Lesakatik yuan zien boluntariuk, soldaduk, boluntariuk bazinak baitzien, ta in zion orrek lagundu ta irauzi zten gerra, batalla ura irauz zuten, Lesakuk lagunduta. Eta orduan, ze emanen... ze propina do zer... zer emanen, ta eman tzion astero bortz erritako merkatua Lesakan itteko. Bortz erri die: Arantza, Iantz, Txalar, Bera ta Lesaka.

(Lesaka)



# 5

## Historia/Politika



BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

**Historia/Politika**

**5**





## 5.1. Karlistak

### Karlistek etxeak hartzen zituzten ☀

Gero... garlistan gerran denborako istorio pixko bat. Emen Kamiua, itxe aundia, ta geroztikan ere soldaduk or ibili izandukatu die. Kamiua. Pues, or bizi zen nere amautxi zena, bere gurasukin. Ta karlistak eterri zielikan pues sartu zien... artu zuen itxi ori ebentzat. Ta familia, buen nere amautxin familia dena kuarto audi batin sartu ta antxen, antxen dena ebentzat. Ta gañekua dena eben esku artua, azinda(k) ta denak. Bakarrikan, gure amautxin amari aurra iteko utzi zuten goatze bat bein.

(Etxalar)

### Karlisten kontuak

Erraiten tzuten baserri batian, pasatzian, emen karlistak erraiten tzuten... bertze gerrak ya akautzen yoaki zanen tzien, akaberan, ari (i)zanen tziren karlistak menin artutzen liberalak, liberalak omen tzien kontraiuak eta artu zten, t(a) unat eldu zien beti gibelka-gibelka unat, ta emen ya... eta eskapoka eldu ziren unat ta emen gogor, emen akautu zen karlisten gerra! Emen akautu zen! Emen ta Bartzaran ta... puntu untan akautu zen! Ta Itxelarran suertu zen puntu (b)at franko gogorra, gure gurasuk erraiten tzuten forman. Ta... beti oroitzentz naiz nola erraiten tzuten, t'ura aunitz aldiz erraiten tzuten, baserri baterat alletu ziela karlistak ta ordun yendia ere dena beldurka emen, ta atiak ta fuerte etsitzen zuzten! Eta hendia [aspirazioa] euskalduna, bas... e... erdaraz etzakitenak, ni(k) neonek ere, amazazpi urtetan ya ez naki(y)en erdaraz! Argin pion asi nitzelikan nagusik bialtzen tzian karabiñerun itxetaat ta ola ta... ta orduan oañikan euskaldun u(ts) tziren, etzuten itzik iten! Eta karlistak:

- *iQueremos luz! iQueremos luz!*

Baserri batian, erraiten tzuten izena ta dena, ze baserrin ta dena, ta igual dut erraitia ere, Tonpalaneko borda, Tonpanleko bordan, (ta) baserriyan eta:

- *iQueremos luz! - (ta) - iQueremos luz! iQueremos luz!* [euskarahoskera]

(Ta) bertziak nada!

- Ze arraio iten tek oiek?! -barrenian, eta- bai, ma(a)nen tziou, or tuk [g]aztañ usteko agaiak, ta or luziak oie[k] tuk! luziak oie[k] tuk! lu(z)... luzia, ori zann a, erran naiko tek!

Eta, leio bat ireki eta gaztañ usteko agaia(k) eman omen tzioten. Eta pentsatzen dut bertzia(k) ordun irri ein ta yuan zanen tzien, bee gaztañ usteko agaia artu do ez artu, eztakit ze in tzuten! Ta ori kontatzen tzuten!

(...)



Iratzea pikatzen



Pedro Jose Telletxeak 100 urte bete zituen eguna

## 5.1. Karlistak

### Karlistak eta liberalak

Eta bertzia, Errandeneko borda, baserriya, an liberalak sartu omen tziren, miño sartu bordarat, e! Ta dena [indarrez] arrasatu omen tzuten, arrautzen [indarrez] tzuzten xingarrak eta arrautu zuzten guziyak eraun men zuzten. Oseake denak iten tzuten artutzen zena ta, miño bai karlistak ere, e!



Karlista txapel gorridunak  
Lesakako alkatearekin



Karlisten lubakiak.  
José Cusachs, 1888

Ta karlista[k] bertze... bertze ane(k)dota bat e badut, oaiñ **emazteki** xaar batek kontatu berriya dit ori. Ta ezta gezurtiya, ni[k] piño istoria aunitz aundiyagu du arek. Aren amautxin atta Itxaurrikoa zen, eta, erretiradan, eldu ziren grupon... nomait ere eskautu biar, eta sartu ziren karrikako itxe batian or. Eta karriko itxi orretan, pues, zuzten beiak ta ordun karlistak kz... Aiutamentu kastitu tzuten aiz fuerte! Ta istorian ori re egiya da, ori re egiya da, zengatikan karlistak yaten omen tzuten erriyain konturat; emengo karlista denak erriyak mantentu bar omen tzituen. Eta ordun in tzitun erriyak zor aundiyak! Eta nere bisabueluak denbor etan bere semia soldado zuen, biñon duik(a)e bazuten pasta pixko'mat ta erriya alletu zen baserritarrakeri ta dirua zuenari larriak ta saldu, eta dirua artu ekiri emaiteko! Eta ordun erosiko terrenuk, oraingun nere yaiotitxin an dire eskrituratan, an dadezi, leitzen tugu, nere bisabuelua, Juan Kruz Indaburu... a... est... Berrueta, arek erosiyak terrenuak, ta Karlista gerra denboran erosiya(k) dire oiek. Eta oie(k) denak gerra ura dela medio... gertatu tziren oie(k) denak.

Itxelar aiz fuerte kastitu zen, ta, erraiten dute erregia ere, eken erregia, Karlos (e) takit zemata zen, erraiten tzuten gue atta(k) ta, Karlos eztait zemata zen, eta, etorri omen tzen, ura re eskapoka, ta ura yuan tzen Bartzanerat. (Ta) erraiten te gue atta ta oiek, ura Baztandikan... Baztango m... mugetikan Frantzikora pasatu zela, ta erran tzula: "Berriz etorriko naiz! –Nafarrorat-. Berriz etorriko naiz!". Oain eztakit etorri zen edo etzen. Eta or karrikako Itxelarko baser... o... Itxaurriy'ortan, ortan ata(a)tu omen tzuten aiz fuerte ta, kendutze omen tzuzten baserritarrakeri, bateri bei bat, andik orrengun bertziri bertzia, ta... yateko! Itn tzuten gero denboraz *requisa* erraiten tzen bezalko bat eiten tzuten ek ere. Ta, itxe batin enpiñ, iru-lau bei do bortz eo zema[t] paizien ere ya biterat etorri zien; ta omen tzien bei bat eta **mia** bat, ta etorri omen zkiyon baten eske, ta erran men tzion oañ axtion erran duten emazteki xaar or... orren amatxin attak erran men tzion:

- Ai, benpin, mia polit ori ez erami benpin!

Ta:

- Nola ezez! Pues, orain bertan illen dugu ori, eta ementxe bertan yanen dugu!

Kao, beldur ziren... eskapo zoazin. Eta in tzuten besta, mia ura il tzuten, bertan illa erre ta dena in tzuten, ta, oañik itxeko sillak ta denak yausi omen zuzten beiti eta ase bat ederra egin tzuten denborian, ra! Bertze gañekuk sillak-ta ateri ta sillak oañik kanpun erre omen tzuzten zuten errabi(y)akin. Eta ordun ya eskapo... yuaterakun iñ omen tzuten ori.

(Etxalar)

### GURE HITZAK

#### Emazteki:

Emakumea.

#### Mia:

Biga.  
Biren bat urteko  
txahal edo aratxe  
emea.

## 5.2. 1936ko gerra

### Gerran gertatua ◉

Atta yuan zen egun batian, oita amaseyin, em... emezortziya ola zanen tzun illautik zerak (...), *dieziocho julion* zanen zen *Alzamiento de no sé cuántos*, bakizu nola zen Francon denbora, zen. Ta orduan, nola baitzen gure atta republikanua, beti... zatn die batzuk biño bertzik, nik ere zan dut pixkat, biño ez sobera(n). Muturra bear ezten lekun sartu...tze'maita gey(e)ji, politikan. Politika(k) eztu yaus e, politika politikuntza(t) da, gu bezalakuntzat ez. Gure attak yuan bar zandu zun igesik, bai, atta y(u)an tzen igesi, ta karo, guarda zibillak etorri zien attan billa. Atta etzuten arrautu, ta in tzuten ama eramen. Ta amak zun bularran azitzen ai zen irugarren anaia, e! urte bat tzun, anaia, ta eaman xun ga... preso, Iruñira. Ta atta etzen tortzen. Ta tartin guarda zibillak etorzen zien itxera, gu ama(u)txikin giñen ordun, amona orrekin, eta etorzen zien ta sarzen zien fusila... been pis... ze, armari puntin sarzn zi(o)ten baioneta bat, izatn da oi lu... sartzen zaiona ezpata luze bat, baioneta izena duna, ta arekin torzn zien gabaz igual, ta artu zuzen oia, guatzia, ta dra! man zioten buelta, uste uzten atta guatzin azpin gordeta ola zagola. Ta ori in zten aldi baz... aldi sallaz guri in tziutentori. Ta gero, karo, denak etzien attan aldekuk, maxterra zen atta, itxea etzun beria, ta in tziutentori biali itxetikan, bai. Ta geldittu giñen derrepente itxerik gabe, amari(k) gabe ta attari(k) gabe. Amona, oain erran zten ori ta aren amona zarra. Ta itxetik biali zutenin, denak etzin gaixtuk ere, ta in tziutentori, batek karidadez eman ziun itxia.

(Lesaka)

### Apezak herriko jendea salbatu ◉

A, batzoki ortik eraum tzittuzten gartzelera, bai. Eraum tzittuzten nere atta ta bere anaia, ta bere koñadua, aman aiz... anaia. Gero... Don Bitoriano, mediko xarra, sekretariu xarra... orik, bortz ek. Ta baziren... bertze bi etzittuzten eamen baserrin tzirelkoz, Madalenkordako Julian ta... ta Pantxo, Lutzinkordakua. Orik baserrin tzirelkoz ez zittuzten... biño orik zeren *como...* etzattketen erritik mugitu do nola zatn da oaiñ ere ori? Esto... ori. Ta iduk zittuzten an. Eon tzeren *un doce de agosto*, ta *hasta finales de agosto* do ola. Ta... in tzuten emen Beran, in tzioten lenbizko... zera, m... solasaldiya ta bueno, ya zer tzeren ta ola, ta ok, etzirela deus e, or... ortxe batzoki bat, ta ortxe kanta batzuk ta orrela, biño, keba! Emen... Orik ere... ori(k) in tzittuzten ka...ori, orrat yoatn tzila ta orik ori, ze... gañekuk ze... emen ok ze politiko ta ze zerak!. Benpen o... yoan tzeren, ta eraun tzittuzten, te iltzera erauna[k] tzeren, e! Iltzera err...an erran tzioten! Miño gero Don... una(t) tor tzeren galdeka, ta Don Michel, bazen orainko [indarrez] apeza, ta arek erran tzun:



Jesus Mari Sein eta Mañula Sein  
- Igantzi



Etxalarko apeza

## 5.2. 1936ko gerra



Jostunen tailerra



Espainiako bandera  
Berako balkoi batean

- *Primero... lenbizko nere lepua!*

*E[k] piño len nere lepua!*

Ura... areri mozteko lepua, bai, a  
rek erran tzun. Ta:

- *iBueno, bueno, no, no, no, no!*

Yarri zan bar tzun... ura ola zen  
gañera, sermoitan ere, bera [indarrez]  
yozen tzun; ordun baziren pulpittuk,  
pulpittua, gero kendu dire, yozen

[indarrez] tzun arek, Infernua ta eztakit

tzer, ta... Pulpito? Ez, zuek kendu[k] tere orduko. Or, konfesionariu baita, emen,  
baguzil[k] bett'kotti ezker, ezkerran ortxen, bai, ta an itn tzittuzten sermoiak ta ori.  
Ori zen... biño, benditu [indarrez] zen gizaju(a), santu zen ori!

Ola, gaur guziye[k] bilddu giñun, ta bere... itxin, gero arreba bat bazun Benita,  
ura monja yuan tzen gero, ta... ala! Denari! Kopak ateri ta, patxarana itn tzun! Denei  
patxaran ta galletek matten. Ta ala! Denak, musin ta... esto bertze... kartatan-ta,  
guantxe aritzen giñen gu, ikaagarriya zen ona ura, benditu zen. (...) Ta gero, orrek  
artzen tzun... loteria, ta denari, ola... bira pzeta do orduko bi pzeta, bira pzetana do...  
denei partzen tzun, tokazen bazen denari... zatiko. Etzen beñ e tokatu biño bazittun  
ola idea onak, ta orrek erran tzun: "Lemizko nere lepua!", orikiri ez zertzko. Ta gero,  
klaro, yuan tzeren orrekin ola: "*Que no, que eran excelentes personas*", gañera denak  
erriyin bazutela zerbatt, bat zela medikua, bertzi tzela sekretariau, bertzik karzen  
zula erriko ardua, bertzia ferratzen ai zena, ta bertzik erriko serbiziua, denak bazutela  
eben zera, ta denak "*Que eran bellísimas personas*", ta eztakit tzer, ta orrek pat tzan  
bar tzun miño... eru bezela yartzen tzen! Ta, gero an yoan ta orrek man tzann tzuten  
oriken zera, ta: "*Bueno, que ya..., a finales de agosto* atea zeren. Ta, ori, attautxi  
Bergankua zatn tzen trankilua, ta, fardela itten, ta, Don Bitoriano, berriz:

- *iQué haces, F... Frantzisko, se les va a olvidar! ¡Deja eso! ¡Ya te... ya... co... compraremos*

*alguna cosa, deja eso aquí y vamos! ¡Ala! -ola priska, andik atetzko- iSe les va a olvidar! [irriz]*

Ta, kusten tzittuzten euno-euno tiruk, ta tio Bitoriano zaon an soldado, ori... arat  
erauna, gaztik eraunak soldado, ta egunoro yoaten omen tzen, tiruk adizen zittun, ta  
ya... ixilzen zenin arratsin, yoan ta, begitu, ta ya nor arrautzen ote zun errikurik, erratn  
tzun berak. Negar [indarrez] ittko (gogo) matn tzin orrek, e! Bai, bai. "Ta benpen, oaiñ  
enpen exttuk, oaiñ enpen exttuk", ta ola. Ta gero kontesko bai, tor tzerenin, ba(i).  
Miño gure atta beti izi... ikarin eotn tzen. Ni oroitzen naz guk oaiñ atia or dugu, or leiu  
zen, ori beti idekia iduktzen gunun, ta, mostradorin norbait sartzen denin:

- Nor da? Or zein da? [izu ahotsarekin]

Ta:

- Ez, ez, emengu da.

- A, ya, ya. [apal-apal]

Norbatt e kanpku do baldin bada, saltatu ta Arizpera yuakto zen, eskaut... eskautu  
naizik, izittu, izittu, bai.

(Arantza)

## Gerra Lesakan

**Ink.: Bonbetaz-ta (babes)teko?**

Bueno... bueno, bonba... abiazonia torzen zenin yotzen zuten kanpana, elizan, ta... guk itxin bagunun refugio bat eiña, pues, ola... zako batzukin ta an porsikaso ere sartzen giñen, an etorzen zelik. Ba, pf! (Ez)takit, itxia botatzeko re ainbertze bonba etzen zanen, biño! (Ez)takit, e... zerbatt ere, zerbatt ere intentatu.

Ta gero orretik aparte, pues gauza bat kuriosua re bazen, nik uste, estratejikan gañin. E... jeneralin, polboriñak montatzen dire... montatzen dire erri ingurutan do toki apartetan, zertik esplotatze'madu, pues aber! (Bueno), pues emen estrajeti... estrateji bat zandu zen zagon erriyan erdi-erdiyin polboriña, Eskol' Ttikiyin. Ta ordun ekartzen zuten materiala ta an utzitzen zuten ta ori iñork erek etzekien, eure[k] pertzerik, zertik ura yakin bazuten, pues, aski zuten arat... ura bonbardeatzen ta bolatzen zun dena, biño ola... ola zen ta, ta ola... ola... ola pasatu zen, ola pasatu zen. Ori gauzak! Gauzak e... pentsatzen eztirenak eitten duzu ta aze... igual bertzik erraten duzu: "Bueno pues, koño! Ori no... gual zane ute or labadero zar batin, do bazter batin nomatt e, ola zane uzten, ta almazena... osea... osea, armamentuna". Mño zagon erriyan erdiyan zagon ta, antxe altxatzen zuten, ta karo, etzuten pentsatzen an zatten al tzela ori, zen estrateji bat, ez... ez arrautzeko, ez?



Soldaduak Irun inguruan

## Gerran jarraituak

Emen, pues e... yende aunitz za... bueno, auniz do zandu zen persegittua, osea, etzirenak sinpatizante mobimentukin, pues, ek in tzuzten, pues, *inc[il]uso* preso artu, preso artu ta batzuk Iruñera biali; gero *inc[il]uso* proposatu zuzten e... fusilatza re bai. Ta gero ein tzuten lista bat, ori... fin, ura erretorak ikusi zun lista ura ta erran tzun pues an falta zela bat, ta galdetza *a ver* nor zen, pues, bera zela, ta ordun bueno, pues pentsatu zuten lista ura retifikatu barko zela, zertik ura etzela oso konforme aren erranakin. Ta ola e... suertez, pues emen itzen iñor e fusilturik zan; etzen iñor e fusiltu, e... urbillin, Beran po(r) ejenplo bai, biño emen ez, emen ez.

(Lesaka)

## Amaren negarra semea gerrara zihola ikusita

Ni ooitzen naiz nere ama, emen eskala goian ta sukaldia or dugu, eta bueno, marrumaka [indarrez] nigarrez, nigarrez, bua! Fardel txar bat artu, arropa txar batzukin ta ola, ta nai ta nai ez atei barra etxetikan, eta ondarko eskalera betti, ni eskalera betti, eta niarrez [indarrez], gelditzko ta gelditzko, ta espeatzko pixkot ta ze, ze, ze, zer te zun amak, zer te zun, ta, aixturra batzukin etorri eta ille puxka batzuk emen moztu zitian.

**Ink.: Ai! Gordetzeko gero, ez?**

(Bai), rekuerdutako.

(Igantzi)



Berako Maritxenea baserriko familia

## 5.3. 1936ko gerraren ondokoak

### 5.3. 1936ko gerraren ondokoak



Igantziko hilerria

#### MAKIAK ◉

Makik guk somatzen gintun pues... bazutan gure... atta zenak oroitzen naiz mendiyan, baserritikan, lan... lanetikan etorri ta paperak propanda arrautua karri. Ta bueno, ek klaro... e(k) gorde bar zien, zertaz ekin arrautuz kero, bazeñun ya jaleua.

Gero, nola yuaten tzien eltzetzuk ta... soldaduk ere bai yuaten tzien nimbait abisia o bakarren batek ze zaiten zuen salatzillia, zaiten zen emen erriyan, da kiao, dentan zaitn da. Ta kao igual aunditua. Ta benpin ola yuaten tzien ta eben bombakin ta... belarrin barna soldaduk ta ikusten tun nola yuaten tzien. Da geo erraite zuten, ezpaitzien igual itxoletat... ezpen tzien eure(k) sartzen, erriko yende bat bialtzen omen tzuten antziñin, ara beitzeat. Eta ordun llun bat... emengo yende bat il tzen, leertu zun bonba batek. Ta makik utxitakua erran zuten, makik, ta benpin don Julian (er)raten zuten, ura il tzen.

(Etxalar)

#### Makientzat hilerri zibila ◉

Te geo kanposantuan bazagon, ez elizea yuate etzienengana, ez, leno bazien *maquis*, zanen tzue aditzia, *maquis*. Eta emen tor tzien makik onat, eta lantziko ta Arantzako mendiayn aittu zien tiruka, emengo ejertzitua eta maki[k] tor tzien Franzitik yuana[k] tzien, eta andik engainttu do or(r)ela baitzien ere, etor tzien mendiz-mendiz, ta baita Franco eztaki[t] ze, ta Franco... in bar zun dena arte (?) undittu, ala, ta il tzen, bi edo iru il tzen emen lantzin, illiz tiroz ta geo zentral bateko depositun ere, kanalin deskuittu eta zentralako depositura yua(n) tzen ta an atei zuten. Te ekintza[t] bazeñen kanposantuan egiña kuadro bat, konpatzera lau



Makiak

metro kuadrado (o) orrela, *dos por dos* do orrela, eta zen ura, kuadr' ura ekintzat, lurra bedeiktu gabia.

#### Ink.: Ala! Makientzat, e!

Bai, makintzat. Ta ek itzatn tz(i)en ta eibartarrak, ta ni nola igeltseru zandu bainaiz, pue, nik ein nun, neonek sepultura in nion an, eibartarrari. Tor tzen neegana ta nik ein nion. Ta goanik antxe(n) [d]a sepultura, biño bakarrikan paet' ura ya botatu da, ya Franco il tzenin ta ordun paretak denak bota zien, eta geldit zen lurra dena bedeiktu, dena... dena berdiñña.

(Igantzi)

## DESTERRATUAK

Ordun ni, oroitzen naiz benpin... desterratuk egonduk. Bat gure... nere andrin atta zena, desterratua. Ta etakit zabill yendikin ezun bat o... berzia ostatukua, desterratua u... au egondu zen Ultzaman. Ta berzi... Larrañaga ori egondu zen Elorriion noski.

Gero, garzelin ere bai e(g)ondu zien bi, bi gazte. Biño ezta... ez... ezpaitikan yende pasa, zerbait sumatu, olko... bai. Ordun... ori zen.

Gero berze bat ere bai, berze... au berak kontatua da, berai aitu diot. Baserriat yuan, ta Frantzia pasatzeko ortan ere aitzen zien faltsikian polizik. Ta ezetz, etzela olko... olkotan aitzen ura. Dirua eskeñi ta ezetz, etzela. Azkenin urria eskeñi men tzioten ta pixkan-pixkan, artan pues, joño! pixkat animtu (g)izona. Ta bueno benpin zorro zin da baiez.

(Etxalar)



## GURE HITZAK

### Itxekita:

Atxikita. Itsatsita.



Gerratik ihesi

## GOSEA ETA MISERIA

### Gerrako miseria

Goizian zapitan idikzn tzen karnizeri(y)a. Oliyorik etzen, ta karnizeriyan beia noiz il tzen enteratzen zen ta beiarengan sebua kontsegitzeko goizian bostako kolara yuanak karnizeri batera. Sebua oliyotako billi.

**Ink.: Olio arras garesti, ez?**

Ta ura pagatu bar tzenun, arek agintzen tzuna, karnizeruk. Biño gero ibilli bar tzenun aitz erne arekin ya'mar bazezen, ezpazenen aiz berua, gelditzen zaitzun emen **itxekita**, oz...tzen bali'mazen pixko bat, sebua oztutze'maita, ta gogortze'maita. Pues... pues ura i'mar tzenun pixket ozten baziñen, berriz berotu bar zenun yateko. Biño nola etzen oliyorik...

(Bera)



Hildako soldaduen omenezko oroitarria

## 5.4. Bertze gerra batzuk

### II. gerrako kontuak

A, emen abiona bai. Abiona eroi zen, ordun alemanak tzaukaten Prantzia eben esku, alemana(k) zauden denin, emen, frontera dena, gordia, ta... emendik, nik uste emendik abitu zen e... Biarritz aireportua, ortik ateri zen ori, *Nochebuena* ar... arratsa, Egurri goiza. Ta, batzuek erratte uzten an juerga iñak tziela, *Nochebuena* o... alemanak, beti (e)re onat torri goizko zapitan, yendia mezara eldu zena, bidin ordun meza(r)a tortzen baitzen, ta negun illunbin, goizin zapitan meza, ta illundu orduko zorzi t'erdik zatn ie, au argittu orduko. Ta, esku suzten, bueno! Emen aunitzek, ordun emakumik

## 5.4. Bertze gerra batzuk

RELACION DEL MATERIAL RECUPERADO DEL AVION ALQUIN QUE SE ENCUENTRA  
EN EL MONTA \_\_\_\_ AIZALAGUI \_\_\_\_ DEL TERRITORIO MUNICIPAL DE ARANAZ (Navarra)

### ARMAMENTO DAFENSO

- 2 - Ametralladoras M.-G. - 131 Mos. 54514 y 62006- c/ 13 mm/
- 3- Ametralladoras M.G. - 151 c/ 20,07 mm/
- 1- Pistola P.M. c/ 7,65 mm/
- 3-- Pistolas Mauser Worker c/ 7,65
- 1- Pistola Schmetesser c/ 6,35
- 1- Botín Salvavidas con su correspondiente equipo (incompleto)
- 2- Impermeables.
- 2- Torretas de Ametralladoras M.G. - 151
- 2- Soportes de Ametralladoras M.G. - 151 (incompletos)
- 2- Asientos de piloto de blindaje
- Restos de separadores de aborto.
- Municiones calibre 13 y 20.

Aranaz 3 de Enero de 1944

27

Aizalegin eroritako  
hegazkinean atzemandako  
materialaren zerrenda



Ju 290 moduko hegazkina

tzien ta ordun e... emen yendia(k) gerran ibillik ta, gerratik torrik España, emengo Gerra Zibila, ta gero Mundiala asi zun, ta gerran ibillik yarriyak, illakin ta yarriyak ta... gozin yuan tzien ta, batek kendu relojua ta, eskuan relojukin t(a) an, eben maukan gañin patuk ta... konometruk o zer dire orik? Ta, oiri ta artu ta geo aek kendu ttuzte, zetik yarriyak zauden emengo gerran illan tartin ta... (...)

**Lag.:** Ta... gero illekin ze iun zten? Eztuten karrakil batzuk zan...?

A bai, illak gero kar ziuzten errira, karrutan, beiakin. Kargatu gurdiyan gañin, gurdiya erratn tzion... karrua ta gurdiya, bi klase badire...

**Lag.:** A bai?

**Ink.:** Ta ze differentzia?

Gurdiya da... antiguoia, frenurik gabia, berzik bazuzten ori karruk, rueda zabalguk, ta ori rueda ola biribillak, gurdiyak, ta oitan kar ziuzten. Ta, lebizko eaum tziuzten kanposantura, kanposantun kanpko aldin gurdiy'orki utzi ziuzten ta beiak eram tziuzten, ta itte uzten guardia, an, ekiri, e... bi ordutik bi ordura bi laun o... aub, anaia ura e... (otako) baikit in tzula onek ere guardia, illen guardia an itten. Bño gero kar tziuzten, men e... oain Yurrekuk moldatu uten itxi oi, Baxternia, Aiuntamientuna, ta sartu tziuzten or, gurdiy'orki.

**Alaba:** Gurdiyak ez, illak.

**Lag.:** Illak.

Bono, aren gurdin bai, illak. Ta, gu begira. Etor tziren gero alemanak eske, andik, kamionakin, ta, kamiontan eam tziuzten. Ta plazan or e... kargaderua, ortik bota ziuzten kapiara, biño, orrat karzko, an begira ta nere lagun bat paet ixkintik beira, ola, paeta(n) paatua. Ta, ek ola baitzauden, illak oltxe denak... errik, ta atzaparrak ta denak beltz-beltz-beltxin, gor-goorrak, ta, zerriya erretan nola itn da ola, biarrik ta oik, biarrik ta oik denak ola ta... ta, aren, nere laun ori paet ixkin ta beira, ta, atin iskinko arriya, beso batek ola artu du ta, andik utzi dunin, ta! [indarrez] biarondo yozn du (...).

**Alaba:** Ta gero alemanak, e... tor tzien militarrak?

Bai, toz...

**Alaba:** Ta abiona eraum tzuten?

Abiona e... ba! abiona emin egon tzen erri guziya puskaz betia! (...) Ta, emen abionan egalak ta gero puskak, biño, gero asi zien txatarreru oik ta puska... erauntte azken guzi(a) eaun zten... abiona...

ta bien eldu zelik ta bua! abiona orit... bajua, ta, kero su ikagarriak, ta Azken Juiziua zann tzela ta, Azken Juiziua...

Ta, gero, yendia asi zen yuaten, ni rezan nitzen, muti(k) koskorra, amar gizon illak an.

**Lag.:** Amar gizon...

Sutan, bueno, xeetu zen dena. Bat o bertze kuszn tzen, ya etzuten utzitzen, geo guar' tzibillak ta tor tziren, ta, gero ok ein zten... bai biño, lemin... yuan

## 5.5. Soldadu denbora

### Gerran soldadu

Gero gerra enborian egondu (giñen), ta gerran e(g)ondu gen artan, urte bat pasatu genun gerran. Ta, etan, pues, ibilli giñen kalamidade guziyikin: gosiak, ori lemiziko gauza, gosiak, miseria, **kokusua**, zorriya pilleka [indarrez], milloika. Ta gero, olla, gerra bukatu arte. Ta, gerra bukatu zenian, sartu giñuzten koartelian Balentzian, Andaluzin ibilli, ta, gero, Balentzira destintu giñuzten. (Ba), Balentzin egondu giñen, (a), oaiñ erran dena, i... ogeita amasei illaute, iru urte, ta etan, an bai, an ongi pasatu genun. *Bien mantenidos*. An zandu gen... kozinan urte bat pasatu ta gero bertze bi urte kamarero gisa eondu giñen... an ongi, bakarrik izandu genun an fusiltzen suertu zion. Bi aldiz suertu zaitt ere fusiltzen... fusilmentua.

**Ink.: Zuk fusildu?**

Bai, nik fu... fu...

**Ink.: Zuk norbait...**

**Ink.: Bai, yendea...**

Bai, i yendia iltzen... tokatu zaitten bi aldiz. Ura tristi(a) da, e!

**Ink.: Buf!**

Tristi(a). Bi aldiz. Izandu nun lagun bat lemizi(k)o aldiyan biraka. Asike ogeita lau zien iltzeko, ta paatu giñuzten amabi turno batian, ta amabik, ek intz... ek iltzeko, amabiek iltzeko giñen ogeita lau soldado. Ogeita s... lau soldadu bear ginttuen bi tiro do bos tiro tietu bakotxari. Bosna tiro, bien artian. Izandu nuen laguna, lemizikuan, Arrotxiikua, Jose Irazoki, il zen. Antonion zera, auzo berekua.

Bigarreni eztakit nor nuen, bigarren tandan. Ta in ttun ogeita lau bitandatan, ogeita lau batian ta bertze egun batez, andikan ogei bat egun burun berriz bertze ogeita lau.

**Ink.: Eta yende ori zertaz fusilatzen zen?**

Ai... ori... gorriyak tzielako erran nu... “*los rojos*” erratten tziutene. “*Que eran los rojos*”. Ai, ordun dena *rojos* zin, kontraio guziyak.

(...)

Lezon pasatu nittun eztakit zenbat deora, eztakit zemat in giñun, urte bat edo... eztakit ze in genun. Gero, andikan *Peñas de Aya-ras*. *Peñas de Ayas-en* eondu giñen, or egondu giñenian, a! lana in bear genun azkar. Karretea itten aittu giñen Oiartzundikan *Peñas de Ayas-era*. Or, or, or, or atakia izandu genun, or.

**Ink.: Atakia zertaz?**

Lan i'marra, ba(k)izu ze lan pillak in ginttun an! Ui ama! Ta yateko txarra, ta ordun tzen, yateko txar mortala gunun, bua! Ta ordun tzen, enkargatu giñun ua, bei zar bat ekartzko. Enkargatu ziun nee lagun bateri, ola an zen soldado batei, ta zen Amaiurkua. Ta, arek aitz urrun tzula kartz(eko) andiken, ta ya nik karko nion. Ta baietz, nik karko nula. Kusku nula, arrautzen banun

### GURE HITZAK

#### Kukusu:

Kukuso. Arkakusoa.



Jesusa Sanzberro - Etxalar



Dornakuko Fernando  
Errandonea soldadu denboran

## 5.5. Soldadu denbora

karko nula. Torri nitzen ta arrautu genun. Bai, etzen ordun lau sos o geixio norma... beiak etzun... gutti balio zun. Ta eramtten ai giñelikan, bueno, ekarri nun andikan, ta goiz batez yuaki nitzen neriakin, goizian mendik, eztakit noiz, argittuta atei nitzen, ta bidez bide argittu bano lentxio. Bidez bide ta erriya guruztu ta Alkaigan goitti nuaelia, Alkain erditsuan eltzetzo batek arraptu.

Ta, ya noa eamaki nun ta, zera, *Peñas de Ayasta* aat eamaki nuela ta, kontrabana... ya papera nun, enula paperikan. (Ta), bueno, ordun gielara, *detenido*. Ta komandantzira, Alondigara, Berako Alondiga. Orrat torri ta or *incomunicau*, etziaten abixten uzten iñotat ere, ta aguazila bazen orduan, demora artan, Juanito Oroz. Ta, ura an barna pasatzian, aek erran tzin:

- Ze aiz or?

Ta:

- Ementxe. Ta ola ta ola. Ta, enaute deus t'ere telefonatze ta yeus e(re) enaute uzten.

Ta:

- Ez?

Ta:

- Ez.

- Bueno, ordun sarri etorko nauk.

Ta, tarti artan komandantzira, o zera komandantia tor zela ta a(r)en antziñera eraman nauten. Aen antziñera eramen, eltzetzu ure an tzen, eltzetzu biali uzten seittuan, “*Bueno, ya encargaremos nosotros*” erran tzioten ta, gero, ura in zten enborian komandantiak erran tzin ya no(r)at... esplikatu nion nola zen, nola eman zitent... dena. An ze erran tziutent ta, ordu... erran nionin, bueno, seittun telefonozt ten aat, Loiolara, ta an etzakittela yeus ere ta benpe... a... nik eztaki[t] nola konpondu zien, andikan ekarri zten kamion zar bat, kamionin sartu ta martxa, biyek.

### Ink.: Zu ta beia?

Biyek. Orra *Peñas de Aiko* zera ortara, *Castillo Ingles*-era ta, orrat torri ta bazen karnizero aitn zena, gure adiñekua, ernaniar bat, ta aek il tzuen. Aek il ta larrutu ta denak ein tzun, miño, sasoi txarra baitzen, ta usaia asi baitzaion beila. Ta nai zuen tenienti arek nai zun, bono, kapitanak nai zuen aragiy'ura partittu, so... soldaduntzat egunero manez, ese... bueno, poliki-poliki-poliki-poliki, alegiñ pixko bat emanez, biño, usaia asi baitzaion. Ta ean tzuten bueno, bear gunula “*sábado-lunes*” tortzekoztan itxera, bakotxa(k) bosna kilo do eztakit ze pagatuta. Ta, gu aragi zar ura pagatu ta itxera eramtten asi? Ez, ez, ez, ez. “*Bueno, entozes sin permiso, sin sábado-lunes*” ta gu bertan geldittu. Be! Ze ori eramatte? Ez, ez, ez, bertan geldittu ga, obe (d)a ta galdu izandu baitzuen, karo, aek bitarteko txuskuak denak an zatten xuen, ta, ink... ink... gero gu an gelditzko guri yatera ma'mar tziun... e... *el ahorro* izortu baitzaion... ta aragiya bota in tziten, tzen galdu zen, etze... tze... etzen posible.

(Bera)



Emakume taldea  
akordeoiarekin



Soldaduak motorrean

## Soldadu garaia: 1947-1948

A! Te gero bertze asunto bat, nik ekarri nun Franzitik moto bat, Be Eme Ube [BMW], katxarru bat, demor' etan, e! Et(a) ezin matrikulatu, dokumentazionik enun kontseitzen! Eta ni nitzen los e... [irriz] Lesakan soldado, ta niri **gogotu** yaketa soldado nitzen, *Ejértzito Tierra*-n matrikula paatu nion, E Te [ET] *cuatro mil y pico*, eztaki[t], *Ejérzito Tierra*. Pues, ura gootu, gaur enun iñen, enun dokumentazionik ta motua Be Eme Ube [BMW], Saratik karria, o! Zer da kontu ta, baguzi –goaiñ il da Jerardo Leiza Arantzan- biye[k] paguzi motukin Lesako zubi aldera probatzera pixko(t), buelta at ema'mar or ta kapitana, bere andrikin pasitzen:

- *iAlto! iA[d]ónde váis!*
- *Vamos a probar la moto, vamos a dar una vuelta por ahí.*
- *Pero, pe(o) yo no sabía, yo capitán y no sabía que teníamos una moto en la compañía! iEjérzito Tierra!*

Ta nik ordun egiya erran:

- *Mi capitán, la moto es mía, el pase [lo que pasa es que] como no tengo documentación, e, se me ha ocurrido poner "Ejérzito Tierra".*
- *iAnda, anda, iros de aquí, iros de aquí, iros de aquí y no conprometerm(e) a mí, iros de aquí, e! iLargaros de aquí!*

Ta martxa motua artuta [irriz]. Bai, Lesakan bai. (...)

A! Eta gero, ni(k) motu ori, enun dokumentazionik arrautzen, ta saldu nion Orioko beteinario bateri, Orioko beteinariuri, eta, trato ein nun demor' etan, oeita sei milla pezeta, e! Demor' etan, gaurko ye... eztakit, milloi erdi biño geigo. Oeita sei mi(l)a trato in nun, mño "*con la condición me tienes que traer a casa, a Orio*". Ta ordun zatn tzen kontrola fuertia Endaltsan, guar' zibillak. *Ventas de Irún*, bertze kontrola, dedios! Ta, yuan ta an Orion bertze kontrola, militar... zera(k), guar' zibillak. Ze in bar dut? Ta ni gogotu Pater, Teniente Pater, Zuarramurdikua zen, Zuarramurdiku zen Teniente Pater, Don Anjel Larri, Zuarramurdikua. Ta bueno, nik aekin tratua in nun:

- *Oiga, tengo este problema y te(n)go que llevar la moto a... a Orio. ¿Y uste[d] me podía acompañar? –baizue tenientia!- ¿Me podría acompañar uste[d] atrás y yo con la moto?*

- *¿Qué me das? – ta gustazen zaion koñak francesa, Remi Martin- ¿Qué me das?*

Ta:

- *Le regalaré una botella de Remi Martin si sale bien la cosa [euska ahoskera].*
- *iAla, préparate, vamos!*

Ta, baguzi, bues, bie(k) motun goiza batin, ni kaskukin ta soldado yauntziya ura e tenientia, Endaltsara alletu, galdi... geldirazi, ta militarrak, ta! saludua: "*iPueden tirar!*". Yuaten gera *Ventas de Irún*, an igual: "*iAlto!*", berriz e gu kusi ta, ta! saludua: "*iPasen!*". Oriora alletu, igual, iru kontroltan salutu ta gu [irriz], Oriora. Orion ni(k) o(g)eita sei milla pezetak artu, an trena artu, eldu gara Irunera, Irunan autobusa do eztaki[t] ze artu nun, Lesakara ta, akautua zen motun... moturen asuntua.



**Soldadu garaiko argazkia**

	<b>GURE HITZAK</b>	
	<b>Gogotu:</b> Gogoratu. Bururatu.	
	(Igantzi)	

## 5.5. Soldadu denbora

### Soldadu eta kontrabandoan



Soldadu garaiko argazkia

Ordun tzen kafia, kafe iteko denbora zen, eta, erran tziuten bueno, e... zortzi... eztakit amar eguneko permisua do e... manen tziutela, biño aprentsiu bat egiten bagenun: an bazela, kontrabandua ibiltzen zela, ta bagenekiun ibilten tzela, ordun kafegatikan ta ibiltzen tziela bagenekiun. Ta iñ iusten nonbratu serbizua itt(e) ko, ta oik arrautzeo. Ta “Mekaguen!” Ordun in genun, jo! zortzi eguneko permisua, amar eguneko permisua kontseituzz kero, itxea torri ta kontrabandu pixot inn gunun, sos piskot irauzko nula, ta atei giñen serbiziota. Ta atei iñen lau soldado, ta kabu bat. Ta kabua zen Santa Marta, Errenteiko, pentsa zatzue pelukeriya, *de señoritas* zen. Eta, atei giñen ta arraptu ginttuen, egon tzauzila. Ya deskansten ai zien, andik bazen terreplema bat, goiti[k] petti San Antonara, goiti betti malda ikaragarri ura. Ta itten xuxten paketek arat ekarri, ta arbazta badakizue zer den? Ez? Arbolan adarra, paratu ola elkarrekiñ, ta aldapa baitzun goiti[k] petti ikaragarri, ta yuxtu paketek aren gañin patu, karo, errestan bei... bekondora eramen. Ta an tzaozin esperun ta aien... ta guk arrautu. Atei giñen ta etzien mugittu ere, bertan eon zien ta... eman xiusten sei zako ziet... iru, utzi giñuzten iru. Ta bertzik uzteko erran tziuten, ta bueno...

*Ink.: Karo, irurekin naikua, ya...*

Naikua genun, bu! Gu kontent. Oduan badiu permisua... kakazarra bai! Arto paketik ta eaman yoten, bertzik artu ta Donostia eamen ta akabo kafia, ta akabo permisua.

(Bera)



# 6

Kultura



BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

Kultura

6





## 6.1. Erlilioa

### APEZAK

#### Xaldix apeza

Sobera ona, mundu ontan bizitzeko... gixajo bat, bai... karo, orrek, emen mutill audi, bueno mutillak... klaro, amasei-ogei urte bittartin do ola, karo, yuaten tziren konfesteria arengana ta bueno...

(...)

Karo, nere gisa etzun fazilidadeidik ola... itz eitteko, ta sermoiñ ta ola, eta... bai, bai Jesusen biotza eztakit zer ta bai ta ola ta Ama Barjiña ta bal, bal... ta, kontutu gabe denbora aunitz samar pasatzen zanen zun, (...), biñon eoten zen an, bai. Eta, aldi batin saardo etia yuan ta ala baten ta, kao ya konfiantza bezela artu zuten, e... eben eskutan bezala mengu mutiyi gaztik, or amaxkar ortitik ogei, ogeitta bittartin orik ziren, eta:

- Koño, On Frantzisko, sermoia aitz ongi itten tzu –erran zioten- .

Iandetan, pulpiti yuaten da, pulpittua baizu ba erdiin nola den, eta:

- Sermoi luzi itten zu.

Eta:

- A, bai, bai, bai. Bueno, ordun zu ba er...

Eta:

- Ordun señale bat mann dugu.

- Bai, bai, zuek man señalea.

- Guk iñen dugu eztula ejum!, ejuju! ola, ta ori itten geldittu, sermoia...

(Ta):

- A, bien, bien, bien, bien.

Igandian kuadrill' ori ta iyo ziren kuadri' guzi mezara... sermoi itten asitzen da, eta andik, nik eztakit kalkultzen, biño segidun zanen tzen, igual minutu batn bun do ola, mutill oi(k) dena(k) Aju! Ju! Ju! Aju! Ju! Ju! ta arek pulpitutik:

- Uañik ez! Oañik ez! –eskukin, ta ori itten tzula...-.

Eta, karo, xil-xile ena etzen diskusorik ere, eta berriz andik pixko utzizen men zioten ta ordun:

- Abo! Abo! Ajuju! –eztula itten asi-.

Ta:

- Oain bai.

Ta ordun ya akautu sermoia, (ze uste) zu. Ola ibilzen zuten, bai.



Apezak



Bestaberriko prozesioa Beran

#### Juan Bautista "Xaldix" apeza estraperloan

Arek zandu zun kasoa bat, Lesakan eondu zen ura, ta yuaten tzen San Anton ermita, bakizu ba non den presa? San Anton? Pue[s] xoaten tzen mando baten gañin, mando baten gañin, t'ordun tzen gerra ondu artan gosia, etzen puskikan, eta oiartzuarra ta irundarrak eta etortzen tzien San Antonara mezara. T'onek eaute ixun arrautziak, itxin



### Apeza esku pilotan Etxalarren

o... ollo aunitz bazun onek, amak, ama bazun bitxo bat, bizitero bat, eta San Antonera yuaten tzen mando baten gañin, mando baten gañin, eta:

- *Já ver! –guar' tzibillak bidin ateri, ta oi ttaka-ttaka-ttaka, zera... bo! Gañea dena, bakizu orik e... beren sotanekin dena tapatua, eta guar'zibillak nomatt e sumatu edo norbattek errana: "Ese lleva... haze contrabando, haze estraperlo, el cura, suele llevar pan y huevos y cosas suele llevar a... a San Antón y tal". "¡Sí!" –Kaskazuritik- [guardia zibil baten goitzena].*

Bidin geldittu ute:

- *Jola, ta ori, Juan Bautista! ¿Qué tal? ¿Qué a, qué a...?*
- *¡Ba! Yo a misa, ¡ba! Hay que ir a San Antón a celebrar misa y tal, y esto y...*

- *¿Y... y qué lleva usted debajo (de) la sotana?*

- *¡Nada, nada, nada, nada!*

- *¿Y esos huevos? ¿Esos huevos? [irriz]*

Ta:

- *¡No, no, no, yo no llevo nada!*

Ta, bi dozena arrautze ta bi-iru ogi ta sotana azpiyin ara zauzkinak neoziatzeko, oia... oiartzuarri saltzeko.

"Zer da or, Xaldix?" [irriz]. Gixajo, miño ori espres in tzioten, e! Espres in tzioten guar' tzibillek. O! (...) "¿Qué lleva usted debajo (de) la sotana?", ta yakiki guar' zibillak ze erautte xun, arraultze ta ogi ta oitikan [irriak].

(Igantzi)



Belarra biltzen

### GURE HITZAK

**Atzendu:** Ahaztu.

**Pizar:** Pixka bat, apur bat.

### ZERGAK ETA BETEBEHARRAK

#### Culto y clero

*Culto y cle(r)o bazen inpuesto bat, e... elizako inpuesto bat. Eta emen suertu zien kasuk e... familiar batzuk ola, bat o bi d'iru zanen tzien denbora etan igual, e... zor, ori zor, atzendua do... diruik ez o atz... utziya, eta suertu zen itxi ortan bat iltzia, ta apezak ezpauzen ura pagatzen –ta zanen tzen duro'mat o ola denbor' etan, ez geigo, el e...– ezpauzen ura... zor ura paatzen, etzula... amatxi etzula intertuko. Bai ta gue... artan e gure attak interbenittu zun, bazun amistade aundiya amatxi oikin eta yuan tzen apezengana:*

- Miño nola da posible au? Iñio au nola itten al da? Zuek ori, relijiu ori, ori erratten zue, ori irausten zue ta buaiñ, orik, zo(r) **pizar** orrengatik eztuzela intertuko emakume miserabli ok? Oi nola da posible?!

Ta eztakit etzion gure attak igual pagatu ze zo' sten [zor zuten] eta intierrua in tzen. Ze, ze, ze, zerak zien, e! *Culto y clero, impuesto munizipal!* [irriak]

(Igantzi)

## SAKRAMENTUAK

## Bataioa

Pues... aurra, jaiozen zen itxin bertan, em... emakumia karo, partura ya apurun yarritzen tzenin, deizen zuten medikua, t'ero partera at, ta partera zatten zen gure ama. Ta... aurra jaiotze zen guzitara joate tzen gure ama. Lesakan erdiya bada ere, zanen da aisa, bate esajeratu gabe, gure ama sortu berrin medikukin an aurra jaiotzen. Ta... orik denak. Eta... gero, ori pasatu eta... geroogo bataitu bar zen oldoko egunian luzinaz, luzinaz ondoko egunian. Eta... portzikaso re, ordun nola zaten zen, klaro, ta itt... eitten zen bal ba egun berean, biñon guttinaz bi egun leno, miñon... bia... ondoko egunengana. Zertaz, bertzela ezpazen bataitzen, ta iltze'mazen aur ura Linbura jun bar... yuaten tzela errat... erraten zuten, e! Ez Purgatorioa ta ez Zerua, Linbura. Ori erratten zuten.

Bueno, gero aurra jaio, ta biamunian, lenuotik zatten dire, attautxi ta amatxi, e! Ta biamunean eliza yuaten zen, bertze emakume bat aurra artu, ataxi ta amatxi... eurek yuaten tzien elizara, bataitzera. Eta... an bataiua, elizan sartu ta eskin batin da segidun, ola... kuartu... zera... bai, or...i, katxar' oi burnizkogo zerekin atia iña. Eta an olko... k... pa... palangana o ze(r) da? katxarro aundi'yori an. Atzentzen [ateratzen] zen ura, eta... attatxik ta amatxik artzen zuten aurra. Nik oi, ikusi utena zerta ni monagillo egondu nitzen. Ta ortik zemat billa aldiz. Eta gero an, klaro, apezak artzen tzun, nozpatt ere olaz itten zun buruan sartzen zion an... ba, zera ortan, ura zatia, gatza maten tzion, ta ola asitzen tzien nigarrez, karrasika... normal. Eta ola-ola bastante denbora, eztakit zenbat orazio do itten zien apezak, ta attautxik ta amatxik ere in bar zioten ola zerbatt ere gatzakin do ola... bai. Asike, orreatik erratten da: "Koño! I atta... attautxi kalkatu yaz!" edo "Amatxi kalkatu yaz!" (...). Zen bataittu, eta... elizan aldaria aldera yuan ta an erreztu, ta bataioa ori zaten zen. Miñon aldiyan bat, e! Aurra bat, e! Eun batin suertzen baziren bi, zanen zen egurdia edo... goizin... goiza do ola. Alik ta zerana, oldoko eunin itteko, enteinzen? Zertaz zen bertzela Linbora yuanen tzela, ta bataituz kero ya, trankil ego... enteitzen? Pues bataio ori zatten zen.

Gero, kanpora ateri, eta... **attautxi ta amatxi**, abetsa zena(k), izku zun, zatten zen **erramutsa**. Erramutsa erran nai dut dirua botatzia, ez arroza, e! Dirua. Biño dirua, denbora ortan aundina-aundina bi sos. Pezetik ta ez, e! Ta bazun, pezetak asko bali(y)o zun! Bi sos... sos bat... arbiya, **maraulia** ere bai, ss... e! Sosen erdiya, este... **ardiya**, ta ardiyan erdia marauria, pentsazu. Ordun... ordun pezeta bat tzen... ta duro botaz kero amerikanua. Dena aten, aur... aur denak erramu titzen zuten ta... tute karo, diru izatten zuten leno patu olko papera batian, oain ganbiyuk zatten den bezala. Ta an deikzen zuten ta ra! botazen zen, denak iraulka... an ura... ura artzera. Ta gero, andik attautxi ta amatxi, est... ori, este... abetsa zenak, e! Eta... geien... geienak abetsa guti. Pobri zenak, auniz aurrik o esperun ta: "O! Gaur ez dute erramutsik!" Karo. Eta gero itxera.

Ta itxin... iñen zuten bazkari'mat do ola attautxik ta amatxik. A, bueno, eta au... izena, ori, importantia, izena ma'mar zen mutiku bani'mazen ataxina, Periko baldi bazen Periko, Jose baldin bazen Jose. Eta amatxi baldin bazen, a... beno... au... nexka baldin bazen, amatxina, Maria do zea...



Aitatxi-amatxiak iloba jaio berriarekin



Joxe Esteban Telletxea eta Pakita Etxarte - Zalain zoko

## GURE HITZAK

**Attautxi eta amatxi:**

- Attautxi eta amatxi.
- Aitabitxi eta amabitxi.

**Erramutsa:**

- Attautxi-amatxiek bataio egunean elizatik ateratzean botatzen zitzuten txanponei deitzen zaie.

**Maraulia:**

- Marabedi. Garai bateko txanpona.

**Ardiya:**

- Garai bateko txanpona, marabediaren balio bi-koitza zuena.

(Lesaka)

## 6.1. Erljioa

### Ebanjelioak sortu berriei

**Ink.: Sortu berriei zer... ze iten zitzainen? Ze oitura zen?**

Ba, sortutzen tzen aurra eta bi egunen buruan ori, bataitzen tzen. Eta aurri paratzen tzitzaison Ebanjeliyuza zena, ori, detente ba[t] bez... detente guk erratten genion, eztaki(tt), ori... laxo pollit bat izatten tzuen, eta ura... arek... ura *imperdible* batekin paratzen tzitzaison atorrian edo... kamisetan, paratzen tzizaion.

(Bera)



Neskak jaunartze egunean



Igantziko elizako aitorlekua

### Jaunartzea-konfesatzea

Sakristian nik b(a)ut anekdota do kasoa at pasatua. Ordun, bakizu, gañea konfestaera zat tzen *primer viernes* erratte gionion, zatten zen. Eta gu biri... bi lagun orik, erran [du]ten orik, bi lagunek, pues, aitzen gin astokeitan, bu! Yostetan ta... ba, adiña gaztik zait... gaztik baiginen, ta ola aitzen giñen, ta, ostia kartzen genun apezan itxetikan, neskuk matten tziun, eta ekartzen genun, eta giorek paatzen nittuun kopontan, ta an paatzen nittuun denak.

Eta batin, ze p(a)satu zen? Ein nun nik yan, osti ura. Ta ordun nola ezpaitzen libre

komultzia yeus artu gaetenikan, arratseko amabitatik antziñera ezazkin yaus artu, ez yan ta ez edan, komultu... komultu antziñin, arratseko amabi[k] bitarteko bai. Mño nik goizko zortzitan ostei ura... osti (u)ra yan nun, eta gero ordu'rdi eten buruan, mezako enboran nitzen komultu bearra. Ta pentsazu ordun ze... indarkeri zenbateku zen, pue(s) niri pentsatu: "Oi, ama! Nik au artu diet, oan ezin dut komultu. Ezin duanez komultu, apezak yoko it nik!". Orrela, e! Orrela gauza, e! Errista [indarrez] fuerte emanen die edo yoko it ni zengatik emitzen egin. Ta ni(k) naukan, bueno, remordimiento at ikaragarri(y)a aren beldurrakin, komultu barko nula, eta neetzat bekatu ikarri itten nun, (en)teizen zu? Bekatu ikaarri itten nun, zetikan barua autsi bainun. Eta ni, beldur arek garaittu naben, aren beld... aren distiplina... aren beldur arek, ein nitzen komultu. Mño komultu nitzen, bueno, ua zen gauz bat sartu ziaten barrenin karga bat, ikaragarriya [indarrez] ezin nuna kendu geigo, zetikan, uga... gañea yo'a'mar nun beti aengana kofestera, ta nik ura e... ura ez kofestu. Eta nik naukan nee burukin: "Biño nik ze bekatu egin dut!". (Ze)tikan, bekatua nik ein nun o... ori, barua autsi nulkoz. Eta, gero, yazi kofestia, bertze bekatua, ta nee burun pentsatzeneun: "Baño ni ze pakik, bekatu mortala[k] paittut emen burutan, zenbat ote itut?". Ola, ez ko(n)festu, ez ko(n)festu, ez konfestua, eta launteeo konfestu bar zatten nun, launteeo [indarrez] konfestu.

Bea, ori zen gauz bat... bueno, eztut ikusten gauz oik ongi dela enpin, mño nola... orrela baitzen, gue... gue ttiki denboan orrela baitzen, eta, orrela urtik [indarrez] aguntu zkian niri, urtik [indarrez], ze gero ongi konfestuatikan nola es nun ko(n)festen gauz ura, ta beti beegin in barra, enize atrebitze bea errattia. Eta ola pasatu

nittuen nik... urtik, e! Ezin. Gero bertze misioneruk etorriz ta orrela, es... ek esplituta, ek in na... in nauten kalmatu, eta, yarri nitzen trankiltua. Pf! Pentsazue, gaur, berriz, gauz oi... gau... zer den? Goan, ongi [indarrez] afalduta zoazi ta komultzen al tzera, mño ordun ezpaitze orrela (...). Arratsko amabitian, bittartiño bai, biño amabitikan antziñira, komuldu bittartiño ezin tziñen... ezin tzenun ezta urikan [indarrez] ere ezin tzenuen edan, ez... etzen libre.

(Igantzi)



Aldarea Bestaberrin

### Heriotzaren berri nola eman •

Asiko gera iltzetikan; bueno, iltzen da eta yuaten tziñen auzoko lemiziko itxera(t), ta erratten tzunun “Il tzaigu” eta ura yuaten tzen ta yotzen tzen agonia. Eta agonia yo eta orduan ba abisten tz... ginittuen oñez, e! zertaz etzen beikulorik eta yaus, eta oñez abisten gunun auzuata... (ori). Gero, ori, auzotikan etortzen tziren ori, bi neskatz eta e... ibiltzen tzen pariente guziyek ori, e... abisten; bertze auzuak eta pariente guziye(k), pasatzen tzunun orduz da... Ta ematten tzizuten gero, etortzen tziñelik bada ematten tzen bazkaliariya (sic) do zerbait neska ekiri.

Gero arratsa alletzen tzen eta **gabailla** itten tzen, eta Arrosariua erreztu ta Arrosariua erreztu ta Arrosariua erreztu, eta gero, bada... goizko bostan edo orrela, amabietan edo orrela ematten tzen ori... afariya, eta goizko bostan do seitan do orrela matten tzen txokoltia, eta... ya itxera. Eta gu biño lenokuak, ba(da) orduan kaja, ta yuaten tziñen ori... emen Teodosiok itten tzittuen, kajak itten tzittuna, egiñ itten tzittun berak, eta neskatzak gabillian in biar zuten ura forratu beltzaz lana zen, e! Eta... biño gu, nere denborako[z] xa ori etzen, ya ekartzen tzitzutzen kajak egiñak, eta preziyo difen... desberdiñetakuak eta (bueno), ola, eitten tzen.

Eta gero biyamunian ori... gero ziren ori... kiasiak: *primera... pri... primerísima, primera, segunda ta tercera*. Eta *primerísimak*, ori, bixtutzen tzen, ori... Berako elizan bada pantail e... pantalla bat izugarri ederra, eta ura bixtua *primerísima(k)*, bertziak ez, e! Eta pri... e *primera(k)*, *primerísima(k)* eta *primerak* izatten tzittuen ori, entierrua eta bi funtzio, bertze bi eguntan. Eta eti[k] batian, bada, Sunbiltik eta Itxelartik eta... Frantzittik eta etortzen tzazkitzun parientiak, ta ematten tzunun bazkaliariya, oikiri; eta... bueno, ola moldatzen tzen.

Ta ya... ta ya *segundak* ori, bi egun zittun ta *terzerak* bat edo ezpainaiz... ez naiz oroitzen ongi.

**Ink.: Orduan ze, primerisimoak... primerisimakoak zer tziren aberats-aberatsak...?**

Bai, eta gañera, gañera, arropa elegantikin apezak. Bai, agitz e dena... dena urrezko... bueno, tirakin ta gauzakiñ.

(...)



Hilerriko bidean

### GURE HITZAK

#### **Gabailla:**

Gaubeila. Lo egiteko orduetan iratzarririk ematen den denbora; bereziki, hildako bat beilatzen ematen dena.



Etxalarko elizako hilerria

## 6.1. Erljioa

### Hildakoa non kontzen zen ☀

**Ink.: Eta ildakoa non gordetzen zen?**

Ori, emen, bueno... ai! ze itxian erratten tzu? Ori, salan emen. Mai baten gañian paratzen tzen edo... banketa batzuetan gañian paratzen da, ta... etxian. Eta oraiñ ere bai, bada tanatoriu biñon oañikan etxe(e)tan ori... eitten da.

**Ink.: Eta par(a)tzen zitzaison ola, kandelaren bat, ez?**

A! bai, bai, kandela, ori, bedeikatua, ori... Kandelero egunin bedeikatuko kandela, bat edo bi edo baldin bazenittun, ba ura paratzen ziren, ek bixtu(k) paratzen ziren.

**Ink.: Eta il kutxa eramatzen zuten barrideek, ez? bueno... edo auzokoek.**

Auzokuak bai. Auzoko mutillek erami(n)tzten zuten, eta gero ekiri ematten zizaioten afari bat. Eta monagillua... oi! monagillua(k), ori... sei kandel... mutikuk eramintzen zittutzen antziñian eta ekiri ematten tzitzaison sari(y)a, bueno... zu... zuri iduitzen tzizaizuna do zuri... zuk nai zenuna ematten tzizaion.

**Ink.: Eta Beran eta Etxalarren diferentea da, ez?**

Bai, bai, ori, Bera ta Itxelar difentia da, e... ze emen solteruk eramintzen tzuten, eta an solterua iltzen baldin bazen, ezkonduk eramen, ta ezkondu(a) iltzen baldin baze(n), solteruk.

**Ink.: Eta ofrendak egiten zenituzten?**

Eta ofrenda(k) bai, ori... yuaten giñen elizera eta... apeza ere, e yuaten tzen apeza ta monagillua, ori, zako batekin, ta ematten gunue(n) **olata** erratten gionion, olata zen olko... ori, ogi ttiki bat, pollita, e! Ta arat botatzen tzunun, eta... eta sosa ori, bandejara. Sosa, seguro orduan zentimu[k] tziren, e! sosa esaten gionion.

**Ink.: A! eta gero, norbait iltzen zenean etxe batean bi urtez oi...**

Be... beltzaz.

**Ink.: Bai, eta bi urtez elizara familiako norbait, ez?**

Bai, bi, bai. E ori... eta ezpalin baziñen zu posible yuaria, ba paratzen zunun ordezkoa, eta ordezko areri pagatzen tzenion. Ta baziren emakumia(k) ba orretara dedikat... dedikatzen tzirenak, zertaz etzuten bertze etorkirikan eta... bueno, edo pixko at laguntzeko do... zutenari, zuten irauziri, erranen dugu.


(Bera)

### Elizan hilerria izaten zuen etxe bakoitzak ☀

Illerria, illerria erratn diogu ori...

**Ink.: Kanposantuari, ez?**

Ez, an bertan, elizan bertan izatn tzien sillak, bakotxak bee tokiyin, izan luko bezela erosia terrenu ura, ura an ezula iñorak e ukitzen al. Ta silla an zatten zen, silla do... ez silla ori bere... zerakin, nol(a) errann nuke? Bueno, b'ori, yarrita... beraunka yartzekua ta yarrita eottekua. Ta izatn tzien baserrin do itxin izena an zatten tzen, ta ua ezin tzenun ukittu, onbre, ukittu... bizu, he! Orrenbertzeño ola e[z], biño ezin ziñ an egon.



### GURE HITZAK

#### Olata:

Elizan, familiako hilaren alde eskaintzen zen ogia edo opila.



Pietateko Ama Birjinaren ermita

A egon... an egotten al tziñen, silla artan, ezpalin bazen itxekoandria etorria egotten al tziñeke, (biño) itxekandrea etorriz kero, andik **fuetu** bar tzenun, e! Ya aren tokia zen. Ta geo pazen zun argi bat, argiziriya pazen zun an, an ori.... antzink'aldin, ta ua zen señalia, difuntun zea (zen). Ola orek aguanzen zun urte bat ta geigo orek, egune-egune-egunoro gauz ori bera.

Edo kandelak ere bai, an... an bat o pai, zatte ute aparatu ttiki bat ola, ta kandelak igual iru do lau kandela bakotxa[k] bee... il berri(y) etan, e! Konpaazio urte batez do orrela. Bertzik ez, bertzik ez dute, biño illez... orun zuk nabaizen zenun zein tzi... zein tzen il berriya, sartuz kero, pues bazenekin: "Una nun den ori, una nun den... zein den illa", zea azertzn zen aisa. Biño goan ez, goan dena galdu da, goan ya banku[k] tie paratuk eta... ya ezta yaus ere.

(Igantzi)



Etxalarko elizako hilobiak

### Defuntua elizako atearen uzten zen

Eta... gero, este... difuntua, gizonan ondarkeren, yuaten zen kaja yauntzitzera, kaja. Ta ond... emakumik asitzen tziren abetsa baldin bazen, e! paratu aixtin erran duun bezala... saskiya intziri edo ori, ta an iru-lau bakallu badere, bai, t'ua geo apeznnat zatn zen, bakallua. Bai... trop... emakume tropa (b)at ondotik, ta allegat yuaten zenin, este... difuntua, gizonak denak barrenara sartuak, e... este... apezak atarin geldizten ziren (...).

Emen Lesakan ez, zuek, bueno, or da olko arko bat eta or, difuntua or eottenham zen. Eta emakumik ta... denak pasatu bittartin, denak pasazten tzienin, ordun errezen zion difunturi or, eta gero, atik itxi ta difuntu bakarrik or geldizten zen, illa, kajan, atarian, bai. Eta gero, yuan ta meza dena egin, itten zenin, berriz probua gizonak tortzen tziren ta atarian lemizko... balin bazien itxekuk do urbillekuk apezan onduan, ta berzik... ek izan bar denak orra yua ta, or berriz oraziuk egitten tzun, bittartin, illa or kajan, or eottenham zen. Ba, bai, gure... *eso hasta [e]l año sesenta*, beti or. Eta... el año sesentan etor tzen eztakit ordena bat o zerbatt ere, ya elizan sartu bar zela. Ta... gauza, arront egia erraten dut, e! Suertu zion gure amari, (e)! *El año sesenta el treinta de agoston illa da, el año sesenta*, asike berroita bat urte oaiñ el dire, bai... ol... lemizko aldiya ta ddenak arrittuak, karo lemizko aldiya. Ta elizan oain sartzen den bezala e... aldaristik orko zera batea, beti toki batin patzeunte.

(...)

Eta... orzu... ordun zen kostunbre bat, solteru, beno ori ezkonduntzat beltza ze... yantzia denak, e! Ola zen *primera, segunda, tertzen* izan.

**Ink.: Ori ilidakoa?**

E?

**Ink.: Ildakoa beltzez jantzia?**

Bai, ori beltza. Miño solteruntzat, ta solterantzat kaja tela zuriya, ba, bai, tela zuriya, zuriya. Tela zuriya. Primera baldin bazea agitz, ta segundukuk ta tertzerakuk baizua. Solteru ta solterantzat...

(Lesaka)



Igantziko eliza

### GURE HITZAK

**Fuetu:** Fueratu.  
Bidali, kanporatu.

## 6.1. Erljioa

### MEZAK, ESKEAK ETA BEDEINKATZEAK

#### Erramu eguna

Pues e... ori izaten da igandia, Erramo eguna, eta eitten dugu a... eramen erramua, zema[t] nai duzun, pixko ba(t), bi adar-edo, t(a) itten da prozesiya, eta bedeikatu, eta gero tximista ta trumoia den def...orian defentsarako izatten da Erramo eguna. Erramua, tromenta eldu den demorian, pues, eitten dire gurutzian paratu suan eta garrikan gabe erre; ura da... tormentan defentsa. Pues, ori irautsiketu gattuzte.

Gero, bertzia izatten dugu San Juan eguna; loriak bedeikatzen ttugu. Eta... bezperan egitten ttugu erre, San Juan bezperan egitten dire erre, zarrak.

##### Ink.: Loriak?

Zarrak. Loriak, konpaazio batera, gaur bedeikatu biar ttutzu, eta eitten dire bezperan, egitten dugu sua, ta egitten gera saltoka ibilli su arelan. Ta loria[k] pakarrak ez, gero kartoik edo edozein sua egin biar dena paperakiñ-edo, su aundiya egitten da. Eta su aundiya itten den denborin, saltoka ibilli yendia ta yasta. Ta gero biamunian lori(k) bedeikatua...

Joxe Fagoaga - Alkaiaga

#### GURE HITZAK

**Xorta:** Tanta. Likidoez mintzatzuz, pixka bat.

**Aituketua:** Aditukatu. Aditu izan. Bortzirietan *-katu* eta *-ketu* atzizkiak anitz erabiltzen dira. Forma hori duten aditzek normalean ohitura errannahia izaten dute.

#### Kandelero

Kandelero bai, kandela(k) bedeikatzen ttugu. Elizara yuan ta kandela(k) bixtutzen dire, eta bedeikatzen ttugu kandela(k), egitten dute prozesua elizan bueltan, eta denak e ibiltzen ttugu. Gero itxera etortzen gara, e igual da arrasaldin izanta re, pues kandelakin bedeikatu, alimaliyak eta presonak, denak bedeikatzen gara. Gere eskaziua egiñ eta ille pixko bat erre...

##### Ink.: Animalieei belarrian.

Belarrian, ezkerreko belarrian pixko at erre. Eta ara! gure pasaitzu(a) ori da.

##### Ink.: Eta persona, illea bakarra.

Bai, guk illia ola artu...

##### Ink.: Ezkerreko aldekoa ere bai? edo...

Bueno, nai den... o... obekiena nola eldu zaitzun, pues eztu orrek importantzirik izanen. Gero, pues, espaldan botatzen dire iru kandel **xorta**; lemiziko botatzen iduki kandela bixtua, ta gero banaka-banaka iru xorta bota.

#### San Anton

San Anton egunin, pues, deus ere. Bedeikatzen ttutzu alimalien gauza(k), eta nola izandu zuen San Juanek xakurra, pues, zakurrentzat ogiya, katuntzat ere bai... Alimaliyan eguna da San Anton eguna. Eta Erramo eguna da denantzako, eta tormentan defentsarako.

##### Ink.: Eta... San Anton egunan aziendak ezin dira lotu.

Ez. Ori **aittuketua**uzu?

##### Ink.: Bai.

Erramu adarra

A! pues ez, ez. Bo, oaiñ eztugu lanik, e!

**Senarra:** Zu! Orrek ere badu bere ixtoria. Kontatuko zaitu(t) nik (...). San Anton egunen erran duzu aziendak eztela libre...

**Ink.: Lotzia.**

Lo... lortzia, ez. Ta, San Anton egunakin mandazai bat yuaki men tzen bidaxka batin barna, ta, iñ omen tzaion mandua amilddu, ta geldittu men tzen elorri baten kontra, mandua, ta, mandazaiak ikusi zuenian ura elorrin kontra geldittua, erratten omen do : "Ai! ez eskerrak San Antoniori ez, eskerrak elorriyari, bertzela bettiko errekan tzukan!". Ta mandua asitze men da mugitzen ta krask! autsi elorriya ta anda dia! bettiko errekarra mandua. San Anton egunakin.

## San Blas eguna ☀

San Blas egunin egitten dira azukriak eta yaneria presonantzako.

**Ink.: Bedeinkatu.**

Bedeikatu. Eta ek, zintzurko miña zatten tzun denborian, San Blasekiñ bedeikatuko gauza artu eta zintzurko miña defentsa dago, kendu itten du zintzurko miña.

**Ink.: Eta bedeinkatzeko ze, eramatene da elizara...**

O, pues eramitten duzu nai bauzu pastela, nai bauzu azuk... azukre-pastillak izatten die, azukre koxkorra erratten diogu guk. Etikan erametten ttugu, ta eramtten ttugu pastelak, eta nai baldin bazu ogiya re, nai bauzu zuretzat ta nai bauzu alimaliyari ematteko, eztio kalterik egitten. Eta... orrela, guk (sic) ola oittuketu gara, orrela irautsi gattuzte, bai.

(Lesaka)



Igantziko bataiarria

## Santu guztien egunean

Estanpa ttiki batekin ume guztiak denak plazan barna: "Marautxo bat! Marautxo bat!". Ta bi sosko bat edo sos bat edo matten tzen... bai noski! "Marautxo bat! Marautxo bat!" denak ibiltzen tziren.

(Bera)



Apezak meza ematen

## Klasearen arabera ofrenda bat edo bertze eraman elizara

**Ink.: Eta... primerisimak, primerak ta oiek ze ofrenda egiten zuten? Aare anka... ta orrela do...?**

Ui, lenago-lenago erratten te zikiro izterra eramatten zutela. Nik erratten nizuen xaxkiy'ortan artu ta zikiro izterra eramatten omen tzen, al(a) eramatten omen tzen, nik eztut ikusi.

**Ink.: Ori zer, primerakuk?**

Bai. Eta primerisimakuak, bu! Demontrin kandelak ta demontrian burrunba izatten zuten. Oiek denak kendu biarrak, noisnai ordu zen kentzeko.

(Bera)

## 6.1. Erljioa

### GURE HITZAK

#### Arkazia:

Akazia (*Acacia sp.*).  
Zuhaitz mota bat.



Balkezenea baseria. Bera

### Balkezenean meza eman hemeretzi hilabetez

**Ink.: Eta gero emen, emeretzi illabetez eman tzuten meza, ez? Etxe untan.**

Bai, bai, itxe onetan bai; man tzen emeretzi, zertaz e... kapilla erre zen, ori... paratu zuten... ori, nazimento bat eta pentsatzen tzen arretikan erre zanen tzela, eliza, e! Eta... bada nomaitt ere eman bear tzela, meza, zertaz bertzenaz kontaktua akautzen tzen, berriz ein nai... egitteko, kontaktua akautuko zela, eta bueno, guk erran gunun: "Bueno, guk emanen dugu... guk utziko dugu... ori", eta, lemiziko, bueno, komunan ondoko kuartua Sankristiko paratu gunuen, eta emen, ori... rekinatorio batian ori... nai zuenak konfestu, orain ezta yaitsu yendia konfesten, biño oañikan ordun itten tzen, *el año setenta y uno* zen ura, e! Eta or ori... konfesnariua, eta emeretzi illautez. Eta... eta familia bearra geldittu zelakoz illoba, berzenaz, oañikan eztaki(t) noiz arte yuanen giñen. Bañ... gero, katuak miauka, zakurrak saingaka, beiak morruka.

**Anaia:** Etzuten beiak ta beñ e morrurik in, e!

He-he! Aizu! Eta etzen posible, ya, e! Ta aurra asitzen baldi'mazen nigarrez ba...

Eta ya yuan giñen elizera, eta etzen yaus ere, e! Ori... gero karri zen... ori, aldaria, agiz marmolazko ederra da, zertaz Diputaziuak emana zion e... Berako... izandu zien mo(n)ja batzuek orain ba eskola profesionaleko orrat... orrat, eta gero eman tzigun Inato Irazokik eman tziun ura emengoz. Eta gero retablo bat ekarri zuten, apeza ta o(k) yuan tziren eztaki(t) norat, eta ekarri zuten retablo bat eta paratu zuten, ta zola in tziaion ori, paratu tabla, beñon auzolana in tzen pilla bat, e! auzolanakiñ iña da eliz(a) ori. Ori, tellatuan-ta ez, tellatuan eman tze, bueno... pagatu zen, meñon erriyak eman tzigun... ori, **arkaziak** eitteko zurajia dena, eta... bueno.

**Ink.: Auzolana ya ez da egiten ainbeste, ez?**

Oai... oaiñ ezta auzolana, e! Yendia... eztakitt, biño ordun aunitz ein tzen; eskerrak auzolanari egin tzen, e! Bai. Ta gero, bada, (e)in tzen billu zen diru ere, yendik eman zuen dirua, eta... ordun tzen Nikaraguan zan bar tzen, ori, e... te... terremotua, eta ein tzen pixko bat igual unat emanen tzena bada eman tzen arat eta orrela, beñon... beñon ez, ez, bilddu zen bai, diru poliki, poliki!

(Bera)



Ekaitza heldu zela errateko  
jotzen ziren ezkilak

### EZKILAK

#### Ezkilak erasoen kontra

Etortzen tzelikan trumoia ta arri [indarrez] erasua, arriya zatten zen. Ordun, bazen tipu bat yotzeko: din-dan! din-dan! din-dan! din-dan! din-dan! di! Izautzen nuen ezkiltikan, zautzen genun, arriko erasu ze... bue, geo denbora bera ere (e)zautzen genun, bai, denbora bera ala zen, e... beek erratten tzu, mño zen ez... ezki[] yotzeko manera difentia, ta-ta-ta-ta-ta-ta! ti-to-to! Izautzen nun: "Au difentia!".

**Ink.: Ta ze, yendea etxetan sartzeko, ez?**

Kao, yendik geo errezteko, errezteko, errezteko ori... tempestade izugarriy'ori akautu daien.

## Erre ezkila ◉

Gero, mendi ba[t] sutan baldin badago orrela, sutan, gabaz suerzn da auniztan ta egunaz ere bai, yendia muitzeko, ori, “Piñuk erretzen ai die!” do eztaki[t] zer, dena muitzeko, ordun bada bertze ezkil klase bat, bertze ezkil klase bat.

### Ink.: *Nola da? Iten al duzu?*

Yo ta, yo... or yozn da, (yozn da) dan-dan-dan! din-din-din! dan-dan-dan! din-din-din! A, orretako, yendik ya bazekin: “Oi sua! Sua! Nun da sua? Nun (d)a?!” , geo ikusten tzu nomatt ere **ikia** ta yuatin tzen lasterka, apurua.

## EGUNEROKO EZKILAK

### Goizeko ezkila jotzeak ◉

Argi-zkilla yotzen tzen goizko zapitán. Eta gero yotzen tzen zazpi t'ertan anuntziua, meza zorzan dela erran naizikan, deia. Aek deia nai zun izan. Argi-zkilla zapit(u)kua eta deia, gaur yustu, don! don! Ezkil audi(y)a, don! Ya argi-zkilla, ya... ya baakiu argi-zkilla ya... zazpiye[k] tiela. Eta, ori... zazpi t'ertan deia, orrekin meza... yuateko zea zen. Ta zazpi t'ertan berriz, gu monagilluak, tin! tin! tin! ordu'rdi batez, zortziyik bittartiño, ta zortzitan geo meza.

Geo kontsagrazioko enboran, *Santus*-ko ondotko zea artan, yozn tzen txirrintxi, txirrintxikin, trin! trin! trin! Yotzen, ta, yo bar zittun ezkillak iru dum-dum-dum! Eta geo konsagraziokoan, ura, apezak beraunka itn dulikan do ostia altxaze dulik ura, dum! Bakotxa.

Ta leno bazen bertze ezkil yotze bat ere, ori... arrasaldeko irutan, irutan Jesukristo il baitzen *a las tres de la tarde*, il tzen, eta aren señalia, rekuerdo bat, irutan yozten zen.

### Ink.: *Ta nola zen?*

Ura, don! don! don! Zen irutan yozten tzena. Bua! Ta ni neone... afizio ikaarri nik ori, ezkil yotzeko ta, beti monagillo ibillia orrela, ta, eskoltikan maestruri pix itteko permisoz galduet, ta yakitten genun iruak punttu relojui beitzi(n), ordu etzen relojuikan eskutan, miño, orratza[k] ta ikusten nittun e... elizkuk ta, dak! atei, ta igual geone[k] yo ura, gustura! Bai, gustura! [indarrez] Ura, iru, iru ezkillik yo... yotzen genittun.



Igantziko elizako ezkilak



Arantzako kanpandorreoa

### Ilun-ezkila ◉

Beno, etzun ordu... ordurik etzen. Segun nola, eguna nola eztaki[t], udan ta negun etzenun... etzenun tenore bea yotzera. Beti tamain bat artzen tzuen ezkil-yotzillik eta ura yo(e)z kero, zenbatt aldiz yendi dena dantzan bittartiño, igande eunakin, t'ura yoz kero, miño kordionak pieza akauzen zun, etzun akautzen piez' ura, e! ra! kortazen zun.

### Ink.: *Eta neska yuaten zen itxera...*

Eta plazan badie... konpazio leno dena erruk erruk zatten baizien, au dena

## GURE HITZAK

**Ikia:** Ke.

## 6.1. Erljioa

berriz e, ber... beti eotten zen. Eta, de(n)a betia, neska ta mutill, an dena(k), pues minu[tu] [ba]tzun barrenin ez zenun plaza[n] iñor e kusko, denak [indarrez], bakotxak bee bidia. Batzuk... goiko azokuk, pues, an barna, bertzik, auzu ortkuk an barna, bakotxak bee ze(r)a. Ta yuaten etzen... neska ura, ori, ezkilla yota, pues zen edozein, (en)teizen tzu? Edozein nai du erran, pues, *una cualquiera*, ura yuaten tzena...



Etxalarko kanpandorrea

### Hil-ekila

III-ekilla erratte genion, gizona (b)aldin bazen asiko zen, bi ekilla tie, batek bum! Ta bertzia ber(riz), tan! Aa, mia ta lodi(y)a. Ta gizona baldin bazen tan! asiko zen mia, ta or ya: "Ai, gizona da! Norbait ere gizona da!". Ta bertzi baldin ba, pues, emakumi da.

**Ink.: Eta gaur orrek segitzen du?**

Segizen du orrek, segizn du, segizn du.(...)

**Ink.: Eta aur bat iltzen baldin bazen diferentea zen ere bai?**

Ura zen beriz ezkil ttiki utsa, ezkil ttiki(y)a, ttin! tin! tin! Ya arek erran nai zun... a betzela... ori, Zeruko... zera zela ori. Ta orrexegatik kaja xuri(y)a zatn tzun arek, kaja xuriya.

**Ink.: Aingeru edo...**

Aingerua, aingeruz. Onako aurra baldin bazen bataittu berriyaedo komu(l)tzeko aurra edo, ba! Iru-lau-bos-sei urteko tamaiñ ori, aurra, aurra, inoxenti orik, orik... oikintzat yiar tze(n) ttin! ttin! Goan eztakit, geroztikan ezta noski ill ere emen, aspaldi eztut ikusi, biño ordun beeizten tzen, ezkiltikan.

(Igantzi)



Joxe Ignacio Fagoaga - Arantza

Leno zaiten tzen argi-ekilla, gero izaiten tzen egurdiyan... ori euskaraz eztakit nola erraiten den, *el Angelus* bezala da, ta, gu (g)oañikan ni baserriyan osabakin ta itza-mutill ibiltzen nitzenian, landan gelditzen giñen, ta boneta eskukin kendu, eta egiten tzun otoitz iten genugun.

(Etxalar)

### Ezkilengatik jakin zein apezek emanen zuen meza

...elizan, monagilluri deitzeko, ordun, zazpitan o lemiziko meza noiz zen, pues igua aittuko ze, tan! tan! igual bortz, e! Ta amautxik adittu xu ta: "I, Benardo! Yeikidi! Bikaiuk... meza mattera... meza laguntzera yuan bar duk". Bortz...tikan bazekin bikaiu... erriko erretorak zittula bos kanpana, seikua eztakit nork, zazpiku badakit zeñek, ta ola yikit tzun dena zeiñ apezak ematten tzun meza, bai, gure amautxik yakit tzun.

Ta gero zatten tzen deia. Deia... gero itte uzten meza biño bos minuto lenago do tin gin! tin gin! Bertze... kanpana ol(a) tzen egun guzi(a), kanpana bertzeik aditzen! Oaiñ ezta.

(Lesaka)

## Aberatsek ezkila aunitz

Kanpantik gure amautxik bazekeien yende abetsa samar badin bazen, ob... adi dezatela, olko importantziko yendea il du(k). Oain, ospitalin do balin bazen pobre at illa, iru-lau kanpana ta:

- Koño! Ze ote zen? Norbatt il ote da? Kanpanak ote ziren?
- Ospitalekua omen da.

Pum. Etzuen bate(e) balorerikan, m? Biño “Ño! Luze yo ute, nor il(l) ote da?”. Ta ya ordun bazen kategoria.

(Lesaka)



Lesakako eliza

## OSPAKIZUNAK

### Ortzegun Santua

Ortzegun Santuan leno(g)o, itten tzen ori... Frantzira baduien karretera orretan tziren ori... gurutziak, ori...

**Ink.: Gurutzebideak.**

Bai, guru... guruzbidiak an tziren, eta eitten tzen ori... gure osaba batek itten tzittun guruzbidiak an barna, ta yuaten giñen kuadrill... kuadril kozkorra yuaten giñen eta... Ortzegun Santo goizin itten tzen ori. Ta gero ermita bat bada, an ermita ttiki bat, eta aretan eitten tzen ondarko oraziuak eta... an akautzen tzen.

**Ink.: Eta adar-opillak ere egiten dire, ez?**

**Adar-opillak** itten tziren. Ori... oraiñ itten die tartak ta orrela, oain miño lenogo re bai, biño a... itten tzuten ori... ogi espezial bat, mutur bat barreneera bertzi kanpora, mutur bat barrenea bertzi kanpora, e! Eta... eta ori, paratzen tzittiozten arraultziak, iru do lau do... lau biño geigo ez, e! Edo bi do... segun.

**Ink.: Egosik, ez?**

Egosi... erriak an. Ori panadere... panaderirat erami(n)tzen tzunun arraultzik, eta itten tzittiuzten an.

(Bera)

### Ortzirale Santua

**Ink.: Eta gero, Ortziral Santuan ze egiten zen...? Egiten zenuten zerbait...**

Orzil Santu eunin?

**Ink.: Bai.**

Orzil Santu eunin, or e... funtziona, zatn tzen ori, gal... kalbariuk o... kanp(o) santura... Ondotik bijilia zatn tzen, Orzil Santu euna, bijilia. Yan bar zenun arraia, ago... otik, gu aitze giñen arraia re ordun etzen fundamto audi(y)ik zatten, ta diru re gutti ta latak yaten, xardin lata ta otik, atuna ta oitik yan...

**Lag.: Ta gero nola zen,orrako karrakan ori?**

A, karrakana... elizan, ori... monumentua pazn tzen ordun an, aldarin frenti ortan, arko audi bat eiten tzen, uain ezta itten ori, e!

GURE HITZAK
<b>Adarropillak:</b> Ogi mota berezia, adarduna. Arrautza erreak ere izaten zituen.



Bestaberri Beran

## 6.1. Erljioa

Lag.: Ez.

Ta, orra monumentua ari mor... ta kantatu it(e)n tzen:  
“Karraka! Karraka!  
Monumentuarentzat,  
Nai eztunarentzat,  
Atiak etsi! Atiak etsi!”  
Denak eliza yuatko, buelta bat ematn tzen karrakakin karrike barna, ori, dei ori  
itten.

Alaba: Ze ordutan?

Eguerdi aldi do ola zatn tzen ori, eguerdi ondun o... ibiz(e)n zienak, ta gero, elizan,  
zatn tzen e... momento bat, karrakakin ta yuati zen, ta, ori... argi guziyik itzali, ta,  
karrakak [indarrez]... ikagarrizko eskanbilla pazen tzen. Batzuk... gu a... bankukin ta  
aitze (gi)ñen, banku artu ta gauka! ta kaunka! ta kaunka! Ta, bertzik karrakakin ta,  
bua! Biño, segidun berriz argia bixtutze asitze tzie(n). Kandelak ta an bistutzen bade...  
denak itzali ittn tzien, lemizko e... sankristabak itzaltze xun denak orrekin... kapullu  
orrekin. Ta, gero argiyak. Kostunbrik ola zien orik. Orzil Santo euna. Gero laumta,  
laumta... ori... Gloria do... ezt... ori... *sáb(a)do de Gloria*... ordun, bo! Animo (b)at,  
Garizma akaut tzen, biaunin kordiona, ta benga animua, bua!

Ba... Bazko Egunakin gero kordiona, bua! Gaur biño dantzan geigo ibitzen zen, bai,  
plazan. Pillazen zen seidun, kordiona asitzko, seidun denak [indarrez] alde guzitik...

(Arantza)



Lesakako elizatik ateratzen



Bestaberri Beran

### PROZESIOAK

#### Bestaberri

Ink.: *Eta gero, Bestaberri? Corpus eguna?*

Bestaberri, Corpusen itten da betti(y)an, bueno, erriyan; eitten  
da... agiz polita paratzen da *Calle de Alzate*, Alzateko kalleo... ori,  
girnaldak ori, balkoi batetikan bertzera, eta gero emen, Altzateko  
plaza unetan egitten dute bendiziu man, eta or, ta dena botatzen  
da iratzia.

Ink.: *Lurrin?*

Lurrian. Eta erdiyan paratzen da ori... euna, euna eztuzue  
yakiñen, olko... ola zabalako tela bat, beñon euna du izena. Eta  
ura paratzen da b(a) erre... bide guziyin, ura paratzen da. Eta gañera itten da ori, e...  
Berako elizko eskaltan, paratzen te lau postekin para... eitten da... dena adornatu, ori,  
ezpelakin-ta, biño ongi egiña, e! arrosakin ta gauzakiñ. Eta bandera ar... arbolatzen  
da, ori... Berako plazan, eta denbora aretan Santisimua egoten da ori, aren azpiyan,  
bai. Zertaz Santisimukiñ itte... erretorak itten du ta apeza ondotikan-ta eitten du, ta  
gero lemiziko komunia in tzutenak botatzen diote (sic) ostuak, e... arros(a) ostuak  
(ba) ori... orreri. Ta muttiku(k) ta neska(k) yuaten dire, eta gero... ba mojak-eta baitire  
emen, eta kantatzen yuaten da bidian; kantatzen da. E... gero ori, eitten da emen,  
Altzatan, ez Altzatako plazan, bettigo, egitten da berriz or ere, e... arbolatutzen da ta  
or ematteunte ame... ameketakoa ori... ekiri ta pajiri ta gauzari.

**Anaia:** Gero an berriz [apal-apal].

Ta gero an berriz, eitten da.

**Ink.:** *Jesus! Eta dantzaren bat iten da? do...*

E? Bes...?

**Ink.:** *Dantzaren bat?*

Ez, ez.

**Anaia:** Txistukin dena.

Txistukiñ, oi... ori itten da, txistuen *al... al son del txistu* itten da bandera arbolatu, e! Bai, agitz... polita da, e!

(Bera)



Meza Beran

### OTOITZAK ETA ORAZIOAK

#### Egunari agur tia Brijidarekin

**Ink.:** *Eta gauetan, ze egiten zizuen?*

Arek kontuk kontatze zkiun:

- Ala, guazen, guatzera, erostunak eldu baldin badire (e)re, segi guatzera!

Lego irurek an, ta gu guañik e[z] xoan nai ta antxe irurek. Ta... an biye... irurek  
kuarto batin itten gunun lo ta gero:

- Bueno, zuk guain kontuk kontatku guri!

Ta antxen ura guri kontuk kontatzen, miñio, asperzen tzen, ta:

- Bueno, oaintzen aski dugu! [irriz]

Ba(i), guri kontuk kontatzen. Gu gero asertzen bagiñen:

- Tia Bri... .... ez [nahastu da]- Brijia, moña luzia! [irriz]

Errate... ille bat ola prezioso [indarrez] zun, ola, esto... rubia-rubia zen, ola, *un rubio...* ez alako rubio klaru ori, rubio polit bat tzun, ta, Brijia moña luzia erratten genion, gu re gaixtuk [irriz].

**Lag.:** Ta oroitzen tzara kontu orietkon bat do...? Ez...

Keba, nik kontu oritik ez nun oroitt(u)ko.

**Ink.:** *Baño gero kontu oien ondotik orazioa egiten zenuten, ez? Gauetan...*

A bai!:

"Ai, gure Jangoiko maitia

eman diguzu egun on bat pasatz(e)ko grazia.

Oraiñ emaziuzu deus ofentt'abe gaba bat ona pasatzekua.

Azken fiñin, animako salbaizua.

Gaurko nekik, trabajuk, itzak, obrak, pentsamentuk, yatik, edatik,  
pauso guziyek izan ttezela gure pekatun satisfaziorako  
ta Jesus dibinon onran. Amen".

Te gero Aita Guria errezen genun, ta *a la cama*:

- Ala, oaiñ *a la kuxet [couche]!* -erratn tziun igual [irriz], *a la kuxet.*

**Ink.:** *Eta orazioa nork irakatsia zen?*

Ori amatxik, amatxik ba, ura ikaarri religiosa zatn tzen, Joxepa, bai, Joxepa.



San Migelen irudiari  
musu ematen



Jaunartze eguneko gosaria Etxalarren

## 6.1. Erljioa

### ARAU ESTUAK, DEBEKUAK, ZIGORRAK, SORTUTAKO BELDURRA

#### Jaunartzea •

Bueno, ori... ari giñen prestatzen Mikailita, gure katekista, ta ola, ta izugarrizko beldurra, barurik eta zer in... ta nola yoan bar tzen konfestu ta komultzera... eta ola, ta barurik, eta ez go(g)otzeko yaus artzia, ta nik nola galduet nion:

- Mikaila, biño ni biar goizian arpegi garbitzin ura ttantta bat sartzen bazait, enai[z] xoaten al ni komultzera? [haurren ahotsa imitatuz]

Ta:

- Bai, orrengati[k] pai! Bai, bai, ura ttantta batengati[k] pai. [ahotsa fina eginez]

Ta nola nik ori galduet nion sei-zazpi urtekin katekistari.

#### Txuleten truke komunioa egitea lortu

Te gero... gero zera, denbo... ordun tzen ba, andik agudo, e... apezak berak erra... esamiña, doctrina galdeka asi guri (...), esamiña, ta zer da? ta ni nomatt ere be... be... zu, ba sei urte ta zazpi urte gabe bi parte ikasi (b)ar tzien, le... lemiziko partí(a) ta bi partetan, nomatt ere aapeza tokatu zen brutua. Ta geo b'ikarikin [indarrez] do nik enion ongi kontestu preguntau bat:

- Ez zara komultuko! Fueru! Zuk ezt... eztakizu doctrina, etzara komultuko! [haserre] Jesus! Ni itxea yuan, niarrez, ta amak:

- Zeuzu? Zeuzu? [ahotsa fina]

Ta:

- Apezak erran dit enaizela komultuko, ez dutela komunio... lemiziku komuniu iñen. Ta, amak marineruk ta xapat' txarolak ta denak erosi, geiena ya prestatua, eta ama re niarrez. Ta atta eldu da betik [g]otti, ta:

- Zer zue? [indarrez]

- Bai, oain tor da muttiku niarrez apezak [irria ezin kontuz] erran diola eztula lemiziko komunioa iñen.

- Eztula iñen? Ha-ha! Banuie!

Gure atta ra! apezin txera. Zazi ze erran xion!

- Ze pasazen da Don Matias, ze? Mutikuk eztula ko... eztula ongi kontestu pregunta bat, izkera bat ta, eztula... ze, ze pasazen da?

Ta:

- Bo, bo!... [murmurio antzeko bat ahots zakarrez]

Ezaki(t) ze solas in zanen zizten, itxea etor tzen, kaska! kaska! kilo txuleta prestatu zun, kilo txuleta, paketia in zun.

- To! Goaie apezin itxea, au maziok apezari!

Ta nik [irriz] apezari eman nion ura:

- A bueno, bueno, to, bai, bai, eiñen du(k) komuniua ta bueno, bueno, egon frankill, e! Egon frankil! [ahots zakar eta desatseginez]

Nik komuniu in nun [irriz].

(Igantzi)



Angelita Errandonea  
lehen jaunartzean

**Igandeak** ☺

**Lag.:** Len igantan zatten tzen emen kordiona,ez?

Bai...

**Lag.:** Aspaldi bidi... iandero...

Iandero... bai, ta yendia biltzen tzen... e... kanptarrak ere torzn tzien franko igual arraslin, neskan bat izautzen balin bauzten o... nobiuz do asiyak igual, ta... torzn tzien. Ta beti zatten baitzen, emen gero Arantza kordinista aunitz zen, beti bazeñ kordinaria, bat ezpada berzia. Bai, Ebarixto ta, gero au Gregorio (...), gero Jabier Errota bertze kordinixta, ta, berzia Itxoberrikordan Fermin, ta... Juakin... Juakiñ au...

**Lag.:** Ta ori ze zatn zen gorapin?

(...)

Plazan... uriya baldin bazeñ gorapin. Biño **gorapia** eskas zatn tzen, yendia auniz biltzen tzen...



Joxe Mari Danboriena eta Puri Danboriena - Etxalar

**Ink.:** *Eta neskak mutilekin dantzan?*

**Lag.:** Ta apeza? Apezak ze errateunzten?

Apezak kastittu uzten ordun, baltsan ibilliz kero...

**Lag.:** Kastitu?

Bai, *Hijas de María*, zatn tzen *Hijas de Mari-kuk*, oañik e badie... *Hijas de Mari-kuk*. *Hijas de María* erratte diot nik e... ezpada esposten... zuek *Hijas de María* zate.

Ta, berzik luixtarra(k) berriz, mutilla(k)... gu or ibiltze giñen medalla zuri do... zuriya ta azula, medalla aundi bat, ola pat'ta, ori... igandero komultzera.

**Lag.:** A, bai?

Antxe [indarrez]. Ta ale... *hij...* ori... berriz *Hijas de Mari-kuk*, ta, dantzan kusten baldin bazun apezak neska... mutillekin, botatzn tzun *Hijas de Ma(r)i-tik...*

**Lag.:** Ta mutillak?

Ta... Mutillak? Eztut uste ainbertze... miño, neska ezpazen ibiltzen, mutilla etzen ibilko... (...).

**Lag.:** Ta ori ze, neskak espost artikun or egotten tziren o ze?

Bai. Gero berze ordena zate uzten, espostuez keo bertze ordena da, ori... *Hijas de Mari-kuk...* solterak...



Dantzan  
Larrategaina baserrian

(Arantza)

**Lehen erlijioa obligazioa zen** ☺

Gero erratn tzen religio geigo lenogo, biño ez, zen obligazten tzattuzelakoz guratsuk. Ezpaziñen yuaten Bezpeta -Bezperak izatten tziren arrasaldetan-, pues, ez ziñen itxetik ateitzen, etzaittuzten utzitzen itxetik ateitzera, miño gañera, pasitzera yuateko or barna, e! Orraño! Fabrika ondoño, fabrikara.

(Igantzi)

**GURE HITZAK****Gorapia:**

Gorape. Aterpea, estalpea.

## 6.2. Eskola



Eskolako neskak  
gorputz heziketan



Artoa ereiten

## 6.2. Eskola

### Maistra

Ba! maestra... ura maestra gunun! Irutn oei la(g)un-do batkin, Doña Felisa, que en paz descance [irriak]. Arek artzen giñun ta, or gu gola denak z... ori, ta ura guri mi... mitin ematten. Ta, gero Glori Serkankua, nere... lengusua da, men, Bergankoia, gero arek ari galdet tzion:

- ¿Tú qué eres?

Ta:

- ¿Yo? vasca.

- ¡No se te ocurra decir [euskal ahoskera] que eres vasca! ¡Di que eres navarra!

¡Navarra! Oi ama! La navarra. Ta gu... guk ama-ta enteintzen geniñen ordun gu vasca deittu gununa, vasca. Ez, ez, que navarra. Ta [irriz] gero, antxen belaunka denak, aren bueltan denak belaunka, las va... las vascas de rodillas, ai ama! [irriz]. Gogorra zatn tzen, aiz gogorra zen ura, bai. Ez, kure... Kontxita etzun artu por unos días, hasta cumplir los seis años. Guri baziun un paquete terrible [indarrez], konta... erratn tziuten la[s] rojas, ezkun bar... como vascas giñelkoz la[s] rojas beti, bai. Bai, politika ordun gaixtu zen ura, bai.

(Arantza)

### Maisu gogorrak ◎

Bazien emen ola... baserritarrak ta franko... gu pixko[t], piño, gu biño makurrogo baseritarrak, e(k) beti eskolan gu biño biel(a)go, ta ola, eta, erran ta erran [indarrez] ta etzion sartzen burutan lekzionik ta prolemak ta zerak ta: "¡Estos tienen en vez de sesos tienen la cabeza serrín! ¡Serrín!" [euskal ahoskera] erratn tzion maestruk, eta Miel... zera, gizaju uri ta: "¡Ala, a cortar leña! ¡Tú a cortar leña y tú a la huerta!". Ta bialtze ixun bere baratzera ta egu(r) xetzen lana, lana beti. Gure denboran ori, e! Bai.

**Ink.: Eta gurasoek, aur oien gurasoek, etzuten deus erraten?**

Denbor etan bazen beldur bat izugarriya apeza ta maestru ta okeri. Pazun... olko jauntxo batzu[k] zien erritan, jauntxuk! (...)

**Emaztea: Eske maestruk yotzen bazun, itxera yuan ta itxin ere paliza...**

Itxin e paliza! A, ni[k] beiñ erran nion attari:

- Aizu, maestruk yo nau!
- Nola? Ze in duk?
- Bai, yostetan ari nitzen...

Di-da! [indarrez] Bertze bi biarrondoko ta akabo! Ni enitzen geigo attangana kuentukin yuan, e! "Maestruk yo nau". Ho! Ta oaiñ? Oaiñ atta ta ama laster eskolara, e! Maestruri kara mattera e! Die, gauzak kanbiatu die, e! Bo! Izugarriya! (...)

(Igantzi)

Bueno, eskolara, ameketan zatn zen, komento bat ederra bazen emen, e! Lesakan, oaiñ e... desapaezittu, bueno, on dago... gainkua an dago beño barrena dena ustua, komento bat, ta an yotze zuten ameketan kanpana, ttin-ttin! ttin-ttin! ttin-ttin! ttin-ttin! bueno, baserritika(n) *echando...*

**Semea: Txintxirria.**

Bai, bai.

**Semea: Txintxirria.**

Txintxirria, bai, kanpain ttiki batzu(k), bai, ta... ori... lasterka, prestan pixkat muturra garbittuta, lasterka dotrinera, ta ortxe dotrina erausko ziuten, apezak, elizko xoko batian paatzen giñuzten an denak, ta, dotrina, biño eskolara beñ ere.

(...)

Ni asi niñun eskolara, ta ordun tzen kolejiua, ta asi niñun kolejiura, ta, jolin! kolejiura, badakizu ordun, basertar bat kolejiura! Orrek, beño eitn tziaten kobratus, bastante, ta urte batez fuera! biali ñun. Miño gero zen orko... orko... nagusia zen, kolejiuk... nagusi abetsak ziren, medikun famili bat, eta... bazeñ Doña Abelina, zen Doña Abelina, eta, gero ni geldittu nitzen, eta bueno, arrastan tortzko, arrastan kolejiun ematten tzuten ordu bat, etortzen giñen arrastan, eta gero ya arrastku bere... ematte(n) tzuten ori re... denboa puxko batin ematten tzuten, eta ura akautzen tzenin, kolejiua gabazko ura, pues, akautu. Ta, miño orrek ematten tzion pena, ni ari nintzela ikasten gauzak agitz ongi, ta Doña Abelina orri erran tzioten, bueno, ni bialtzko ekin txera, ta ni baserritikan or erriyan sarre(r)an da billa bat, ta billa artkuk ziren, ni bialtzeko eunoro, pena zela, erran tzioten nere aizpari, ni ari nitzela ikasten agitz ongi ta gañera baliyo nula, banula... artzela... artzen nula dena burutan ta ikasten nula, ta gañera, aizu, jolin! puntu kruzak ta orduko eztakit zer in nittun, olkuk.

(Lesaka)

## Ortzeñun gizen

“Ortzeñun gizen! Ortzeñun gizen!

Zingar arrolte

Bat ezpada beste<sup>3</sup>!

Biek obe!”

Ori goain geitu diote, lenogo ez zen, erra'i [erran nahi dut], nik nere denboretan ibilli naizenin e... orrela etxetan, ez, ez nuen e... ori, ezkenu(n) erraiten “biek obe”, miño goaiñ ausartagoak “biek obe” erraten dute, asike or iten dute.

(Etxalar)

3 Normalean “Bertze” erabiltzen da.

## GURE HITZAK

**Txintxirria:**

Txintxarri.

Ezkila txiki bat.



Etxalarko eskola



Iñudeak eta artzaia

## 6.3. Besta egunak



Arantzako dantzariak

## 6.3. Besta egunak

### HERRIKO BESTAK ◉

Ta, bestak egun pill bat eitn tzen men ordun. E... beti, guaiñ e... musikeruk e... beti, egunero difenti tie men... ordun errentiarak tor zien, oeita lau-bortz urte do, beti kuadrill bera, Errenteiko bandana(k).

**Lag.:** Ta zemat egun besta?

Ordun erriyak paat zann xun... lab egun, uste ut paatzen xun erriyak. Gero amerikanun bat do torzen bazen, a... laugarren egunin ya akautu bazala, ta, ya musikan akabillan porrrrrrro! Afontso, tanborra, bandua yotzen ta:- Adios! Badiu zerbatt e! Erri... norbatte(k) pagatu do izann dik egunan bat.

Ta:

- Biar musika zann dela! -Alfontsok, oiua-.

Ta:

- Oeee! *iBieen!* -Denak oiuka ordun, bailin ai den tokiyin- *iBieen!* *iBieen!*

Ta , gero orrengo egunin berriz igual bandeja pasatu, arrei, ta, berriz ere, bandua:

- Biar musika zann dela! -Alfontsok- porrrrrr! – tanborra yotzen tzun-.

Ta, ala igual sei-zazpi eun pasa ola [irriak].

**Lag.:** Ta len ze zatten tzen bestatan ola, guaiñ... guaiñ bezala etzen... etziren zanen...? Musika ta geigo ze zatten tzen?

Bueno... zortzikua ta itn tzien ordun. Zortzikua... mutillak, biño mutill egiñak ob... sasoikuk, ta, ola, ala biar du.

**Lag.:** Aurrak ez... (...)

**Lag.:** Ta geigo ze zatten tzen? Zortzikua, musika ta ola... zerbatt ere...?

Bertsolaiak e bai.

**Lag.:** Bertsolaiak.

Bertsolaiak... ordun, onat e... urte sallin tor zan tzien Baserri, (fa)mosua, Uztarpide... Uztarpide orik biyek tor tzien onak, e! Yartzen tzien bat Lopenin igual, ta berzia Andresengo leiun...

**Lag.:** Leitik leira?

Leitik leira, yendia azpiyin dena aditzen...edo Pottunin do oitan eitn tzen, balkoyin, da an yarri, batik pertzera. Bersolai onak zien orik.

**Ink.:** *Eta ze besta ospatzen ziren emen urtean zear? Ola... ze besta edo ze egun ola... berezi?*

**Lag.:** Ama'rjintik... Ama'rjiñak ta gero aparte ola ze besta zatten tzen emen?

Bueno, bestak e... yaiak, oi(k) zatn tzien e... auniz geigo uañ miño, biño besta...

(Arantza)



Besta giroan

## INAUTEAK •

Iñauteriek nik... gerra denboran akantu men tzien. Ta nik, astia berriz, e... berroita bortzin ola izautu nitun, ta... nola zen debe(k)tuk uañikan, e... asi zuten pixko (b)at guar' tzillak galduetu ta alkate(r)i, ta bueno, alba... alkatik baimena man ta ola. *Fiestas de la Primavera* es zuten. Ortikan, iñautiak.

Ta gero jueves gordo, ortzeun... ortzeun gizen. Ori berroita zortzian asi zuten berriz, zorrian, bedetzin ola. Mutikuk, aurrik yuatin gin beti seitute. Eta... emengo, uaiñ akantu da, bengo... emengo personajiak izaiten zien Damalariak. Ni ibili izanduk(a)tu naiz, Damaliak. Bi pareja ateizn zien, yauntziak lengo gisara... ta ek paseitu ta plazatan dantza in ta...

**Ink.: Nola lengo gisara?**

Lengo yaunzkerak, antiguko yaunzkerak. Mengu personajik Damalarik izaitn tzin, ta uaiñ akantu die. Ta antziñekun... ori erri geientan artza zaiten omen zen, artza bat ere, artza... artza. (...)

Yaunzkerak, guk, traje normala zen, miño emakumiak ez gona, bes... gona bekondoaño puntilla batzukin, gero txanbra xuri bat, olko x... txapel bat puntilla batzukin ta olko... dama. Osea, politena zaitn tzen emakumiaz yauntzitzen zena, gañekuan pues to... traje bat, pajarita bat, ta olko... ta oi zen, emengo personaiak oi zen: Damalariak.

**Ink.: Eta beste yendea etzen yauntzitzen?**

Ba, beti pixkot gutiyago. Buen... blusa bazukin ta... uain geigo, uaiñ ya... yauntzen da...

**Ink.: Baño oi urtero izaten zen bikote bat, ez?**

Bai, bai. Bi, bi bikote.

**Ink.: A, bi bikote.**

Bi bikote, bai. Goo [gero]... carroza zait zen, bueno, beiakin titzen zen karraua ta aren gañin ura bestitua ezpelakin ta... beztitua, ta aren gañin yuaten tzin Damalariak. Ta gero zait zen tokiya okiña...

**Ink.: Zer zien neska ta mutilla, do...?**

Ez, ez, bi mutil.

(Etxalar)



Berako Alejandro Salazar,  
mozorrotuta



Emakumeak mozorrotuta

## Mozorroak •

**Ink.: Eta mozorroena, oi nola da? Mozorro xuria ta beltza bada, ez?**

Bai, moxor xuriya(k) zien e... eskin ibilzen zienak itxitan. Ori(k) ibilzen tzien ordun dena oñaz, oain kotxikin yuatin die... auzutara yuatin tzien e... kuadrilla, ba... mozorro mutilla re auniz zatten baitzen ordun. Bai, erriya... emin e... bazen abitantia... oaingo doblia kasi, Arantza, ta umia itte'maitzen, amar-amabi ume edozein txetan tzen, baserritan ta bono, erriyin e bai. Ta, mozoru zatn tzen pilla. Ara yuatin tzien bi zaeteru, auzoko etxera zare aundiylakin, ek zaeteruk errat(e)n tzioten, bertzik biltzen

## GURE HITZAK

**Zaeteru:** Zaretero.  
Zareak, saskiak  
eramatene zitzuztenak.

## 6.3. Besta egunak



Joxe Mari Ordoki - Arantza

yuan ta ek eamatt ozten be... berriz bidia jeneala. Ta, ekiri arroltzik ta biltzen tzienak eki entretu, ek kargatu zare aundiyikin...

**Lag.:** Ze biltzen tzen? Arroltzia?

Arroltzia, emen arroltzia, emen... or Beran ta oitan txingarra ola (...).

**Lag.:** Ta zerbatt e oiua do kantua do zerbatt e itten tzuten mozorruk? Itxetan? Yuaten tzilikan, do...?

“Puxka- puxka”. Mozorruk etzuten e... “puxka-puxka” oiua ordun, bertzela zatn tzen Santa’ktan ta oitan kantak ta, biño...

**Ink.:** *Eta mozorro beltzak?*

Mozorro beltza berriz, etzen e... eitten, gu, muti[!] koskorrik ta giñelaik, ya gu... iñe, gu asi giñen gero lemizko, oik gerra aitziñin bai, biño gero galazi baitzien...

**Lag.:** Ta akabo...

Ta, geo gu asi giñen, lemizko mozorro beltzak atetzen. Emen Xapatatta ordun, e... aixtio erran dut panaderu eotn tzena... Joakin, ura launa gunun, ta, Xapatattan zerriyak ta zatte tziuzten, Silberiok, Sarobe orrek, ta, ortik ate giñen, baxe... bat yuan tzen Lesakara, erostra, oaiñ illa da, Josetxo Xuantoinkua, ta kar xtut maxkarak an erosta... ta, yauntzi giñen. Ta, zortzikua, ordun erri guzi(y)iri buelta matte baitzen, lemizko plazan ibillu ta gero elizko atari orra, arunko atari gotti, emen gure etxe azpi(y) a barna, ta zortzikun ondarko muturra allet tzelik, ate giñen gu... Maria! Ze iñok etzun pentsatzen... emingu(k): “Ai! Ei!”

Da bulla, ta gu zortzikun, segi eken ondotik. Biño gero, an ordena eztakit, albinti... asi zen, e... alkatik erran zann zion o erretiatzko do, ta mozor zuriyek ordun mozor beltzari, guri, maxkara kentzen... bate o bertziri kendu re in tzioten... niri etziaten kendu, ni(k) xistua banun, eskutan, ta, tiatzen nin golpia ta... ta eskapt nitzen. Maño, gero asi zen diskusia, geien alde nai yendi kusi, ta, biaunin yauntzi zien denak, albintik ta...

**Lag.:** Denak.

Denak.



Inauterietako mozorroak

### Mozorro jantziak

**Ink.:** *Eta yauntzia nola zuten? Beltzek ta xuriek?*

(...) Arrauen tzen arrop' zarrak patu.

**Ink.:** *Eta xuriek?*

Xuriek bai, zuriz, galtza zuri, ator zuriya, eta ziñu... zinturon gorriya, ta pañulo gorriya, ta gero... orik... e... papera...

**Lag.:** Zintak.

Zinta orik.

**Lag.:** Bizkarrin. Ta zapela?

Zapel gorriya.

**Ink.:** *Eta zapatak?*

Espartziñ e... zuriyak zinta gorriyakin.

**Ink.: A, joe, elegantea orduan...**

Ba... ongi, ongi itn tzen ordun zortzi[koa], ta gañea ongi ikas zuzten, erausi zion orrek, Jazinto Bergara, Kruz Mai txistulai ona ura, Kruz Mai onen anaia, emin Tuanen bizizn tzien, ta, orrat, ta aixtin errauntena, ek... gu ttikigu(k) giñen, miño bi-iru muti[!] koskorrauk yuate giñen, aundiyan tartin an eiltze iñen ondotik, geo ni eznix tokatu plazan atetzia...

**Alaba:** Biar tzun yakin dantzan sartzeko mozorro, ez?

Bai, mozor... e... orik eskin ibiltzeku uri bai.

**Lag.:** E... kordiona erautten tzuten?

Bai...

**Lag.:** Ta gero ori... nola deitzen tzio orikiri?

**Kaskantillak?** Bai...

**Lag.:** Kaskantillak.

Bai, kaskantillak yotze uzten emen ongi batzuk, dantza(r)i o(r)ik... au Bonifazio au, Bakotxakordakuunek yotzen xun ongi, berzia... Benito Irulleku re bai, ta... Bonifaxion anaia Santiago bat oaiñ e... Ernanin do an da, aek e bai, ta ola bazien, Filipn bordaku uik ee bai...

**Alaba:** Miño ezpazakiten dantzan etziren mozorro sartzen...

Bakarran bat zat zann tzien bai, ola, baztertik, biño geienak e... zortzikolaiaik tzien, zortziko itn tzun ongi.

**Lag.:** Ta gero puskekin ta ze itteunzten, mozorruk...? Puska(k) bilddu ta gero ze itteunzten ekin?

Puska bilddu ba... gaur e... mozorruk obekio yateunte bai orik ere, bai. Ordun, itteunzten arroltzi(k) ieurek, tortilla, e... batin patatakin ta bertzin e... urdaiazpikukin, ta, tortillin yaten zten, arroltzik eurek... ura... ostatun menua, bertze... igual ollo gisadua ta... do ardi gisadua, oain yaten zte angulak ta osk... gauza oiek oain...

**Alaba:** Eta gero yuaten tzien baserrikuk tzirenak itxera lo ittera o... gelditzen tziren erriyin, lo itten...?

Dentik bazien, bazien erriyin itte uztenak, emen geldize tzienak. Igual parienti do baldin bauzten, edo emen, gue itxin ee geldizen zienak baziren, iñautitan lo itten bertan geldittu. Bertze batzuk yuatzin itxera, miño ordun dena oñe[z] xuan barra zatte baitzen...

**Alaba:** Ta emen ze gelditzen tzen yendia lo itten, o zer?

Emen geldittu... mozorrak ta...

**Alaba:** Eta bertze yendik ta ola tortzen tzien lo ittera?

A, bai. Ordun geigo zatn tzen, zeatik e... ori biajanti, representanti oik ta torz(e)n zieliak, ta torzen zien, etzuten kotxi(k) zatten, torz(e)n tzien... Serapio, panaderua erraten tziona, sifonak ta orik, edari oitik ekartze xtun, ta aretan tortzen tzien Iantziko Bentin, ordun zatn tzen trena, Iantz(i)ko bentan, ta estaziutik, orrek artzen xun ta karzen xun. Ta geo geldizen zien emen lo itten, ta ondoko eunin yuan. Ordun lo itten geldize(n) zen aunitz, ola, tratantik, ordun tratanti re aunitz zatn tzen, zaldi gañin ibilzen zien tratantik erosten, itxez itxe, baserritan ta... ta, ek geldizen zien lo itten bertan. Igantziko Bentan bertan auniz gelditzen zen ori, fond'ortan tratante ta... biajante ta... orik, lo itten...



Arantzako dantzari txikiak



Kalabazinak eta kalabazak

## GURE HITZAK

### Kaskantilla:

Kaskaineta.

Eskuetan hartzen

den musika-tresna txikia.

## 6.3. Besta egunak

### Eskea

**Ink.:** *Eta gero eskea, ze egunetan yuaten tzen eskea egittera?*

Eskia astelena, baserrit(a)ra. Egun batin iñ yuzten noski... eun batin baserrik einn tziuzten denak, ta gero, astirtin erriya... t(a) akabo arekin.

**Ink.:** *Eta zer e... nola eskatzen zen, "puxka- puxka"...?*

"Puxka! Puxka!". Ya ate ondoa yuan ta oiu egin.

**Lag.:** Bai, "Puxka! Puxka!"

Ta, arroitzik, emin etzen bertze puska... lukainka bat o bertze igual zann tzen, lukainkak... baserri zar orik.

**Lag.:** Ta, esku bakarra itn tzen do itxetara sartu ta... dantzan ta aritzen tzen?

Bai, gonbitu iten tzioten, aunitz itxe, ta geiendin baserritan benpen...

**Lag.:** Sartu berrenera ta barrengukin dantzan...?

**Ink.:** *Ta tragua ta baita re? Etxe bakoitzean tragoa eta ola? Edo ez? Bai, ez?*

Bai, bai. Ba, bai, bai, etzuten... mozorrak e... baserritan ibilzen zien eunin, ta etzuten auni[z] xaten, an ixkin batin yan bertzin yan, ta, afaltzeko go(g)o ttikiya...

(Arantza)

Puska biltzen



Musikariak mozorroturik

"Pelegrino, pelegrino.

Una limosnita por amor de Dios.

Zinga[r] arraultze!

Bat ezpada bertze! Bertze!"

Aurrak ibilzen tziren, ori. Ta gizonak berriz, za... ori:  
"Zing[ar] arraultze! Bat ezpada bertze!". Ura... ura bakarra.

(Bera)

**Ink.:** *Eta iñautetako arropa ere egiten tzuen, ez? Zure...*

### Inauterietarako arropa

Iñautetako arropa kontatzen tzun bai arek, nola... jazten tziren iñautetako arropa(k), mozorrok eauntzitzen tzirela denak, mozorrak, galtzak, alde bat gorriya ta bertzi(a) urdiña, ta bertzia o... gurutz... gurutzin, gero bertzia gorriya ta bertzia... ber... bi koloretakuk.

**Ink.:** *Orduan ze? ezkerreko ankan aurrean kolore bat ta atzean beste bat eta emen [eskuineko hankan] aldrebese.*

Or aldrebese, bai, guruz... guruztatu.

**Ink.:** *Eta atorra eta zapata-eta?*

Orig, atorra... atorra eztakitt atorra ze koloretku zatten tzuten. Galtza ori erratten tzun, oañikan... illoba oritkon bateri in tzion nozbatt antzerkin bat in bar tzutela do... Klemenek ta orik, ta... ein tzizkion lengo iñautetako arropa bezalkukin alde bat ur... zuriya ta bertzia berdia, ta, orrela dena(k), mutill gaztik denak yauntzitzen tzirela iñauteritan.

**Ink.: Eta zapela-ta eramaten tzuten igual? Edo...**

Zapela... zapela gorriya, seguro. Zapela gorriya ta alkandora... eztakitt, ator gorriya ezpazuten eaumtten... bai! Orik nor do nor y'oañikan izanen da Arantza igual e... ni[k] piño obekio dakiena gauza oriken berri.

(Arantza)

Iñauteritan? Bada, etortzen dire lemiziko ortzegunakin, etortzen dire aurak, eta ek egitten dute:

*"Peregrino, peregrino**Una limosnita por amor de Dios**Zingar arraultze**Bat ezpada bertze, bertze!"*

Ta ematten diozu arraultziak eta dirua eta giltxaurrak edo nai z... nai zuna ero galle... nai zuna, galletak eta oiek ematten ttio dentikan, ez?

**Ink.: Ori aurreri?**

Ori aurriari. E! beñon oraiñ etortzen dire ikastolatik eta bertze publiku... bueno, orretikan-ta, beñor etortzen dire ongi prestatuak eta kantatzen tzattuzte, kantak, bueno, agitz e... agiz polita da, bai.

Eta gero, ori... astelenakin, bueno, gero igandikiñ izatten da erriyan, e! izatten dire... ori, iñauti... iñu... iñudik ta artzaia.

**Ink.: Eta ori nola zen? Leen... emakumeak ezin tzuten ateri, ez? mororrotuak?**

Bai, bakarri[k]... ez, ez, gure denboran etzen libre, ta gero, gero bai, biñon... gero! ya gu zartu giñen!

**Ink.: E(z), miño, nola mozor... mo, nola yazten dire? Nola yauntzitzen dire?**

A! agitz elegante yantzitzen da yendia, e! U Ori... disfraz izugarriyak, estuzu ezautzen igual! estutzu ezautzen, ta etortze... etortzen dire unat. Bueno, ta iñudi(k) ta oie(k) yauntzitzen da, mutilla ya(u)ntzitzen da neskaz, eta neska m... mutillaz.

**Ink.: Miño ori izanen da berrigoa, ez?**

Biño be... bai, leenogo itten omen tzen, eta gero ba galaziak ziren gauza oie(k) denak, ta gero eiña[k] tire berriz paratu. Ta bigeltikan yuaten dire, beiñ ikusi dut, eta yuaten dire mediko(z) xantzi(y)a bat, bueno medikoz, bata zuriyakin ta bertzia eztaki(t) nola yantziya, ta yuaten dire ekiñ ondotikan. Ta orregatikan dire ori... neska galantak, zertaz paratzen zattuzte petxo batzuek eta... emen, emen ttugu arropak, e! emen ttugu Anttonen arropak eta, e ez... ori... berriz mutillak, jeneralian txarxagua neska, eta... e! galtza urdintan eta ator xuriya ta kapelukin ta... yuaten dire.

**Ink.: Eta gero emen, astelenean elduek eskea egiten dute? edo...**

Bai, bai, ori... ordun egitten te:



Berako Iñudeak eta artzaia



Kaldereroak Beran

## 6.3. Besta egunak



Erregeak Beran

“Zingar arraultze  
bat ezpada bertz, bertz!”  
Ta tortzen die kuadrillak, ta  
ematten diogu berriz e, arraultzi(a)  
k eta matten dugu.

(Bera)

### NEGUKO BESTA EGUNAK

#### EGUBERRIAK ◉

**Ink.:** *Ta Urtezarrean ze kantatzen zenuten? Edo z... n... egiten zen eskea, edo ze iten tzen?*

Eskia ordun e, miño kantatzeunte Urte Salbe...  
“Urte Salbe  
Ongi etorri  
Agur Jainkuak (d)iguela.  
Agur Jainkuak  
(d)iguela nola,  
egun audi bat dekarran.”

Ori, tira be(r)tsua...

**Lag.:** Dena bertsuk.

Ta, bertsua lemizko poliki, miño mantso samar ati idektzen bauzten, ordun as...  
tzio [irriz] bertsolai arek... pikatzen.

**Ink.:** *Atakatzen, ez?*

Bai, bigar sarze auniz itxetan sartzen tzen ordun, baserritan, erriyin ez mio [miño]  
baserritan... ta... zatn tzien igual... gaztaña erre zare bat e... gaztain xaria, zatn tzen gaztañantzat espresa zaria. Ta  
ura bete antxen, trapo bat(e)kin tapatu bero-beru(k), ta  
bozik yaten tzien gaztaña ta ardua. Ta, bertzi itxin ateko  
uzten gazta ta ogiya, ta bertze etxin zerriya il berri samarra  
do, xixorra ta ogiya, ta...

**Ink.:** *Eta zertaz egiten zen bi egunez?*

Gero, bailia yo ta kian, emen aixtin erran tena ordun  
zatn tzen auniz, ta neska auniz ta baserritan prest eoten  
tzien, maja yauntziyak, ta, dantzan ibiltzko baserritan.

Bai, gero itxeko neskak da igual auzokuk ba(t) bertz  
itxen batin baka... bat baldin bazen do yuatz tzen berzi  
(b)eten itxera ta, an kordiona yotze uten ta, dantzan, an  
etzuen apezak kusten... dantzan.

**Lag.:** *Ta ori nola ibilz(e)n zen, auzo bakoxtan kuadril difentia? Do nola zen ori?*

Bai. Bai, e... aixtion erran du(u)na e... ordun berexn tzen, gu erriko kuadrilla, dena  
erritarra(k), ta Azkilarrekuk igual...

**Lag.:** An.



Eskerako prest

**Ink.:** *Bakoitzaz bere auzun.*

Ez, ez, e... ibizen tzen, denin, bueno, bi auzo ola itz tzen. Mño etzen em... benpi re... bue, bakotxak be(e) auzun, nola zun andregai do ola igual zatn tzen ta...

**Lag.:** Interesak...

Bai...

**Ink.:** *Errege bezperan...*

Gauz bera, igual.

**Lag.:** Ta zengatik bi euntan?

Bua! Orduntxe ibiltzeatik...

(Arantza)



Juan Bautista Irigoien eta  
Clementina Irigoien - Arantza

## Urtezahar eguna

Urtezar egunin etortzen ziren *Yos te salve*, arratsian, e! Eta kantatzen tziguten ta ematten genion ba sari(y)a, e!

**Ink.:** *Ze sari?*

(Orduan) dirua. Eta gero, oraiñ etortzen direnari ematten ttiogu galletak ta ardua ta gauza, oaiñ etortzen diren kuadrilla; etortzen da oraiñ agitz aunitz etortzen dire, e... lenogo etortzen tziren igual bi ta iru, aldiyan, eta txanda aunitz, eta oraiñ etortzen dire dena(k) batian. Eta... eta itten in diogu ba galletak eta ardua ta oiek ematten ginittion, ematten ttugu.

**Ink.:** *Eta nola da Dios te salve ori?*

"Yos (sic) te salve, ongi etorri

Yabon (sic) Jainkuak dizuela

Legiarekin kunpli dezagun

Urteberriyen bezpera"

Ta gero badire estrofak eta... unek obekio...

[anaiai buruz ari da]



Urtezahar egunean eskean

**Ink.:** *Eta oiek zer dira bersuk? Bapatean...*

Bersoak bai, bai. Gañera orain botatzen ttigutze bersolariyak igual etorzen dire, bertsotan aritzen direnak, eta bo! ta botatzen ttigutze aiz politak.

**Ink.:** *Eta gero, mutiyak arratxaldean yuaten tziren gaztañak yatera?*

Bai, ori... lenogo yuaten tziren, bai. Emen auzuan izatten gunuen ostattua ta yoa... e... ok yoaten tziren eta gu itxian.

**Ink.:** *Eta gero, eskea egiteko beste modu bat "Gilan galan duenak eztuenari eman"?*

Bai, biñon baserrian ez.

**Ink.:** *Ori baserrian ez, ori errian.*

Ez, ez, ori erriya(n).

(Bera)

## 6.3. Besta egunak



Olentzero Lesakan



Arto buruak

### Urtezahar egunean

Ela, ela  
Nor da? nor da?  
Ni naiz Urteberri  
Zer dakartzu berri  
Uraren gaña  
Pakea ta osasuna  
Etxekoandrea ona  
Nagusia obea  
Ideki, ideki atea!  
Bota, bota **urtatxak!**  
Txan txilipitona  
Goiz afari ona  
Kupela barrenean  
Mama goxo  
Aurrak yostatzeko  
*Tira, tira artillería*  
*Como la varia*  
*Grande (y) borracho*  
*Grande (y) borracho*  
Ideki, ideki atia!  
Bota, bota urtatzak!

(Etxalar)

### Urtezaharreko koplak

#### Ongi emanda

*"Dios te salve*  
Ongi etorri  
Gabon Yainkuak dizuela  
Legiarekin bete dezagun  
Urteberriyen bezpera".

Ta gero ortan:  
"San Silvestre[k] biddali digu  
Izar eder bat giddari  
Aren ondotik eben kabilta  
Ate guzitan kantari".

### GURE HITZAK

#### Urtatxak:

Urtats. Gabon-saria, eskean joaten direnei ematen zaiena.

Ni kantari txarra naiz, e! ta baziren bertsuak, ordun berriz *Dios te salve* eta geo bertzia igual:

"Iru eta bi bos dira  
Bertze zazpiyekin dozena  
Datorren urtian erranen dittu(t)  
Lagun okiñ izenak".

(...)

“Goratua, bedeinkatua  
Aldareko sakramentu santua  
Pekaturikan, mantxarik [g]abe  
Da Birjiña kontzebittua”.

Ta ba(i)! ola bada... pilla osua da. Bai ta... ori:  
“Erreka aldian lizarra  
Zeru gañian izarra  
Etxe ontako nagusi jaunak  
Urre gorrizko bizarra”.  
[osatua]

### Gaizki emanda

“Sentitzen tzaitu(t) sentitzen  
Ari zarela yeikitzen  
Zure ointxo txiki polit oiekin  
Sala berriyan frinkatzen”.

Ta, ta bertzia asten tzen alrebesa, ori :  
“Yos te salve bakallo jale  
Legatza balitz obea  
Etxi ontako etxekandriak  
Du atorra kakaz betia”.

(Bera)



Haurrak Lesakako  
Olentzero egunean


Gero Urtezar egunin yuaten giñen baserritarat, eskian. Ta guk ez genun kantatu baño *Dios te salve* kantatzen men tzen. Ori anaia, anaia ta oiek kantatzen zuten, biño gu ya... gu alletu orduko ya galdu zen, ta... bueno, gu an zen astokeitan ibill... itxetan idetzen ziuten, an tragu batzuk eman, kafia... dantzaldi batzun... neskak baldin bazien, da ga... gaba guziya or pasatzen genun.

(Etxalar)

### UDAKO BESTA EGUNAK

#### San Joan

Sa Juan... du ixtoriua, atta zenak erraten zian nii beti, pues, San Juan agertu zelikan or, peñ' ortan, aranztarrek eraten tzutela, mugamuga nola den, Aantza ta lantziko mugan, Arantzaldera. Pasatzen zutela aldi artara ta ondoko egunko berriz lengo lekun zaten tzela. Ta ola ibilzen ziela peleian beti San Juan... San Juankin.



San Juan Xar

## 6.3. Besta egunak



Berako Etxeberria ostatuan



Ostalariak

### Ink.: *Eta ori aitak erraten zuen?*

Atak, attak erraten zun, bai, bai. Aek zaten zun feder ikagarriya, bua! Arek San Juanekin. Ta, ordun San Juan egunin zaten zen besta bat men, bes... besta bat. Besta bat, bestetan bezala, mentxu aertu die musikak eta pilott' partiduk ta denak. Yendia dena oñez ibiltzen zen. Ta kantinak zatten tziren, pues San Juanak nik izaut ttut zazpi, zortzi kantina. Bat zatten tzen, San Juanan goian bada olko kortxel bat bazala arrop... parekin, ta an. Bat. Ura gau guzin an egoten zen, gu ttikiak giñelik, gau guziyin. Ta ordun nola torzen zen yendia dena oñaz, tortzen tzien oiartzuarrok mendiz, mendiya barna, erreka ori betti, ta an kafia artu, ointku(k) kendu an, ta oñutsik andik betti bajazen tzien, nola daude (?) pixko at, oñutsik bajazen omen tziren, beti kantineruk beti ura arrankatu du oñutsik, garbitzera ankar bekotzera. Ta kantina(k) berriz, zatten tzien pues karreteran bertze aldin. Ta... pues... men, bidin ere bai, men... arrond andik onat ortako bidaguruze bat izaten zen, gero zaten zen kaminun itxia andik xo, osea, andik unatxio, an ere parazen zuten. Ta gero an, Muuka errekan, Arantzko mugan zaten tzen bertze kantina bat. Ta oitan nola torzen zen egun guzin yendia, ta ek, goizin torri ta arratsilin yuan, berriz oñaz, dena, egun guzi or pasazen zen, ta pill batek iten zun karri... bazkaria zerbett eretik, ta bazter oitan yan, ta gero kordiona zaten zen, musika zaten zen, pues, juerga or zaten tzen, Sa Juan egunin.

Ta guretzat zaten tzen besta bat. Joe, antzinko egunin guk ezkenun yaus e iñen lanik, antzinko eguna ona zat... lana zatten zen guretzat, xiri batzuk ein, ola, metro erdikuk do ola. Ek ongi paratu, xorroxtu ta prest-prest, leertu pixko at, ta artan sartzen genun erramua, lemiziko sartzen genun leizarra osto bat do aexko at, gero sartzen genion erramo bedeiktua, ta gero sartzen gen elor xuri(ya), xiri'yartan. Lertu pixkot ta lemiziko xiriya bat psatzen genun itxin paratzeko, pareta zarrak nola zaten zin itxe zar oitan, pues, paretin sartu, ta ura ya bedeik... bedeiktua geldizen zen itxia iarki. Gero, ondoko goizin, argitzin, yuaten giñen a, belar sorotara, o, landara, terreno (g)uzitara. Artu katill' ttiki batin u(r) bedeiktua, erramo xurten bat bere bi osto, d'iru ostokin ta xiriya sarzen genun aziendik ibiltzen ezen tokiyin, nomatt ere baxterrin, etzaila... ura goldikin do... beiak do ez arrautzko. Ta arrautzen bazeen ta, jes, segidun patu nonbatt ere, beiak arrapatz eztun tokeyin. Ua, sek, urte guzin [indarrez] antxe eonen tzen xiri ura, urte guziyin. Ta s... belar sootan gauz bera, sega ez... ondun etzen segadorik, segak aitzen baldi'miñen ta traba itten baldin bazun, traba itten zun tokeyin paatko nun, ta antxe eonen tzen ura ondoko urte arte. Ta, gero erramu ostu arkin bedeikzio maten tzenion, ta, guri ura erausi ziuten, Aita (G)ure bat erreztu ta ya landa ori bedeiktua. Se(g)i bertzera. Goizin itten genun rekorridu ori. Attak ta amak bidaltzen ziuten pues igual bat ixkin batea, ta bertzi bertzera. Ta alor ormi (?) xttunak, denetan paatzen zen ori. Ori... parazen zen dentan, dentan, dentan, dentan, dentan. (...)

Auzu artan zatten genun guk Sa Juanakin krixton fedia. Gu, bestan bezala zaten zen an, ordun. Guk antzinko egunin ezkenun deus iñen bertzerikan. Oixen, prestatu gauz ori, Sa Juanen negoziuk guretzat, Jesus, Maria ta Jose!

(Igantzi)

## 6.4. Aisialdia

### OSTATUAK ◉

Ordun, itxitan gaizki yan, mixeria. Illar gorriya baldin bazeñ, bazter txarra baldin bazeñ illar gorriya ere akauzen zen abudo... bazter fuertexiuk eitn tzun, biltzen tzun geigo, ta, eiziten tzen yaten gaztaña, ta, ordun, iganditan ta mezara torzen baizen dena, ta, gizonak itte usten besta aunitz, lemizko anisin asi, anise pill bat goizin. Ta, gero ya kontrola galdua, ta bueno, baziñtzen geldizten zeren... Baziñtzen geldizn zen ordun, ta usaia ta ostatun beti geixio, yanana, ta, arekin, usai aekin ta benpen animua... besta geigo itn tzen ordun besta erraten tzen, biño etzen besta ura. Gaizki... gaizki. Biño bat anisin asi ta euna pasatu men ta...

**Lag.:** Ori aste ondartan?

Igandia.

**Lag.:** Igandia.

Ordun etzen e... laumta etzen besta zatten, yaus ere, igandi bakarra.

**Lag.:** Ta astez, ostatun norbatt e ibiltzen tzen do...?

Bono bai... e... ordun aizen zen musin aunitz, eunero, musin aizen zienak bazien emen errikuk, kuadrilla, ta, baserritarraak ee bazien eguno(ro) torzen tzienak, musin aitzko, errira, oñaz. Biño musin, ardo yokun. A... botilla ura: "Bueno, litro at ardo yokat' iu".

Ta, baso (b)at, ta botilla ardu pazn tzen, ta baso bat'tik eateunzten denak, igual e... bos-sei partido yokat tziuzten da beti baso bat, kostunbri ura ala... [irriz] ta, tragua ori, ba... batek partittu zun, bueno, aek tragu in, pixkot geldizten bazeñ mai azpira (b)ota. Kostunbri ordun ala zen, etzen...

**Alaba:** Ze usaia arduna ostatun...

**Lag.:** Brru! Ze ondarra mai azpira (b)otatzen tzen?

Bai... ezpazun akautzen, mai azpira (b)ota.

**Alaba:** Eta beti-beti akautzen tzuten mus partidua, o...? (...)

A, bueno, mus partidua tokazen zien asertzik, asertu musin ai delik igual, zerbattengatik, tantungatik edo, ta ddipi! ta ddapa! yoka seidun. (...)

Bueno, ordun, bertzela ere iandero yoka aizen tzien emen.

**Lag.:** Iandero?

Iandero bazien yokalaiak. Etzen ordun sepazio aundiya izatn tzen erriyin, e! Erritarraak erritarrakin, Aienstarrak eben grupua, Azkilarekuk eben grupua, ta Iguzkaldia ta Orralar igual... denak sepatu(k). Etzen naasten guain bezala, di in itxe bat ola... bat bertziri... igual lengo... aintzinko igandin zerbatt errana ta ola, taurrengo igandiko prestatuk, yoka aitzko... ta emen zipi! ta zapal yoka aitu bai, (bai).

**Lag.:** Bai, e!

**Ink.:** Ta orduan kanpokoekin geiago, ez? Erritarren artean orrela...? Kanpokoekin?

Bai, gañea... ez, etzen ordun, ez baitzen yaus e(r)e, e... kotxerik ta etzen, ta ordun e... erraizen zen bertan dena, bakoitzak bee erriyin.



Felix etxeko ostattua



Ostattuan

## 6.4. Aisialdia

**Ink.: Biño lesakarren bat o igantziaren bat etorriez kero...?**

**Ink.: Arrika...**

Bueno, bue... bestetan ta... ordun torzen tzen, bestatan egun bat do zatn tzen, nola torzen zen oñaz... bigarren eguna zatn da geienin. Ta ordun, e... arrikaka fama Arantzak, arrikalaiarak, biño eitteunten torri e... igantziarrak o lesakarrak eo torzn tzienak e... kuadrilla, ta bakarran bat neskatstara, etik, ta itn tzioten bere kuadrilkuk, (ba...) bazterra yuan ta andik arrika man, ta gero aranztarrak, jode, fama... aanztarrak arrika... bai.

(Arantza)

### Atautxiak kamarero

**Ink.: Eta zure... atautxiak e... aritzen ziren ostatuan lanean, ez? Biak.**

A! biyek ba... Bueno, atautxi zen, bat zen... or bizien zen Marinia, oain zera da... frontona den lekun, or bizien tzeren. Ta zaukan emen ferrategiya, ferrazen zittun... zerak, beiak ta... abriak, ta orik denak ferrazen zittun. Ta gero be... iorek itn tzitzuzten ferrak ere. Bai. Ta bere semi re bai, Anjel, ta tio Bitoriano re bai, osaba, biyek ere arit tzeren. Gero osabak pat zun Irunan, Bitoriano, eztakit oroittuko ote zue... Ta, ori torzen tzen orrara(t) ta or arizen zen. Ta, ori, or tzatn tzen, sutegiya erratten genion gu(k). Gu yuate(n) giñen aispua, aspo audi [indarrez] bat, an sua, ta an itn tzun... berotu burnia ta itn tzitzuzten... orik, ferrak. Ta gero ferratu ta... bai, or aritzen tzen ferratzen. Ta launt... ianditan... Ta bertzia bizi zen berriz an baserri batin, Arizpe, te ori attautxi Jose Martin, bat Jose Martin ta bertzia Alejo, emengua Alejo, errikua. Benditua [indarrez] Alejo, ori... oroizen za... Alejo, gizajua!

Bertzi(a) ere bai, Marti Jose, on paska, bai. Amatxi elementagua zun, ola, Orizmendikua [irriz], amatxi. Ok amatxik elementaguk zeren, ori benditu zen. Ta (e)tortzen tzeren emen ardua, bueno... zera, *de camareros* [irriz], ta, igual ori:

- Zu, atetzu, atetzu, iru-lau... –eztakit baso...– sifonkin!

Ta ok ardua ateri, ta:

- Ai, Jozena Martius (?) errain tzut sinfonkin!

Ta:

- Ba, eztu importa!

Berak tragu in, ta gero sifona bota [irriz].

(Arantza)

### IGANDEETAKO MUSIKA

...ta ordu erdin batian plazan or funtzio ederra armazen zen, e! Ta gero baser... osea mendiyan ezain zen, berze... Irazakon, an funtzio armatzen zuten igandeuntan. Ta bue, or ibiltzen zien apezak, ura debekazten ta bai, ta guar' tzil ta or iiltzen da...

**Ink.: Zer iten tzen an?**

**Ink.: Ori zer zen, aber?**

Bailia armazen zuten.

(Etxalar)

## KIROLAK

## Luzean

Bai, ori ya ni... zerbatt e ola oroitzen naiz zerbatt, biño gelditt zen, ordun, bai... karrik benpin gure itxin pilotaak ta katzarruk zatn tzien. Pillota pill (b)a[t] pazen zako batin, ta, gu mutik koskorraak urrat(u) inttun denak [irriz], onako nak... barrengo bala o... erratn genion ura zatteunzten, ta ura atetzen aitze (gi)ñen.

Bño emen luzin bai, bakarrik gero galazi o eztakit ibin... xetzen gero persianak ta ok, abisua matten bauztn amerikanuk ta, gero, emengo famatuxkunak errikuk: mediko, botikaio ta... ok, k... amerikano ta ok kuadrilla itte uztena, orik aritzen zanen tzien. Ta, geo leiuak, leiuak xetzen ta, ya galaz zuzten. Botarriya an tzaten tzen Kaltxiko ixkiñin, boti mattko, an boti man ta, ala, sakian. Ta gero ura re, ura ne oroitzen naiz xet(u) uztelik.

**Ink.: Eta botarri orrek bazun gañean pilotaak uzteko leku bat, ez?**

Bai, orre(k) tzun, ola, ebaki koxkor bat ura berdiña, ta an ebaki oxkorra ta an pilotaak. Ta gero, boti mattko berriz, kaidakin, ez, zelaia ez, kola, kara. Botia ta, txa!

**Alaba:** Ta pilotaan emen leno aitzen tziren ori... plazan, etxe orren kontra...

Bai, p(l)aza... libri zen, etze... esker pareti(k) gabia! Itxeerri zen frontisa, pareta.

**Alaba:** Miño yokatzen tzuten irunaka, ez? Iruno...

Bai, auniz... auniztan bai, irunaka.

**Ink.: Iru iruren kontra.**

(Bai). Sei. Nola etzun ezker paretiak, zaero bat ta aitziñin bi.

Miño aunitz aizen tzen yendia leno pilotaan men... Bo! Txanda ezin arraptuz... plazan. Plaza ta arkupia.

Ta berzia zatn tzen arkupian aizn ziena trinketin. Ori nere denboran aizen tzien emen bazien onak, ordun Leandro Txunkua ta... Alejo bat Orunin, ta orik e... aitzinko sarin ondun eotn tzienak, ori airi artzen. Ta ola zatn tzien, bertzik rebotin. A trinketia s... pazn tzen sare bat, sare bat e... soka (b)at patu ta an zatn tzun zaria goi... saria goitti[k] petti arek, zintzilka. Ta, geo pilota zaten tzen aundiya, balonan ainku ya, ttikioxo biño, ola, ta...

**Alaba:** Oain boleibol bezala ola...  
(...)

**Ink.: Eta zenbat yende aritzen tzen or?**

Orretan lau, bi aldetikan bira.



Berako udaletxea



Pilota partida Etxalarren

(Arantza)


## 6.4. Aisialdia



Latasa eta aranztar baten apustua Sunbillan



Pilotan aritzeko eskularrua



### Laxoa:

Eskularruz, aurrez aurre paratzen diren bi talderen artean, jokatzen den pilotako-jokoak.

### Luzean

Bai, bai, lenogo bai. Ori largo erratn zaion ordun, luzian, e! Largon... erraten tzen. Or len erran dena, bi itxe zan bar zuten oain frontona (d) en toki orretan bertan, bi itxe, e! Arotzenia ta Argiñenia omen tzuten izena<sup>4\*</sup>. Eta orreta... orik kendu xusten eta oaiñ ya obekio dago aritzeko, biño ordun oso txarra omen tzagon, biar tzenun zuk eskibatu bi itxi ek eta luzera yokatu, aittek, miñon! auniztan sakatu ta tak! igual itxe ori yo ta (ara!). Ta, raia non tzagon pasatzeko. Nik nola ez nun ezautu! Miñon botarri(y)a ta denak or dabezi oañikan, an dago, sakatzeko ta... zea nola dagon, oañik ere an dago.

**Ink.: Bai, eta iru zulo, pilota uzteko-edo, ez?**

Baita, baita. Eta ola gauzak, bakarrik ni... ni ordukoz ez, ez, zetikan guru attak erraten ziuten guri ola, zetikan, Errik' Itxeko leitikan, ari zen ta, norbatt ere batzuntzat idea geigo, bere lagunak edo bere familiku eztakit, eta benpin andik erratten: "Bai, unek duk tanto! -(ta) [irriz]-: Bai, unek du tanto!", ta bertzik iteunzten denboan xi-xillikan [irriak], ixi-xi-xillikan, bai, irri ette... irriarria izan bar tzun ola, pues beti bere... bere lagunekeri... Bueno, ori denena zatten da, dudaik badu orrek bere... eztakitt e... nola den, biño(n) ba! bai, bai [irriak], orik, jesus! Onek gero, len erran dena, Allinia da gero or ostattua goik'aldin, or kurba artzen den arbola, baita arbol bat, zen arbol bat, orren ondoaño alletu zan bar zuten, sakia, bai.

Au **laxo**... Donezteban-ta aritzen den au, pues igualtxua da, bakarrik eztu... garbigua da, erran nai nuke... frontona ta gauzak... toki aundigua ta zera geigo du. Or neretzat Iruritakua da txarna dena. Sakatu eta luze xamar yotzen bada, bi tellatu dire antziñean, e! Ta, tellatua yo ta betti et... eroitzeko denboan artzen baldin badu ona da, ze raria, e! Pues te tilla gañera ya allezen baute ya errateunte ya tantu egiña da, e! ta ola. Nik ikus utena *un poco raro* uaxe da, ori, Iruritako... plaza, bai.

**Ink.: Eta Arantzara gaten ziñetenean zer tzen, bestetako programaren barnean oi, pilotako partida, ez?**

A bai, bai. Bai! onbre, ez gañea nolanaikua! [irriak] Bai, bai, bai, bueno. Amar duro irauzen zen, amar duro, ze gauza, e! jo! Bai, bai, ta ik ura entrezen yun(i)an andriari eskutara, zerua!

(Igantzi)

## APUSTU ETA AHALEGIN BEREZIAK

### Herri kirolak eta apustuak

**Ink.: Eta, erri kirolak emen egiten zenituzten, baño beti apostuekin loduta, ez?**

Bai, ala... asertuta. Asertu ta orduan apostu, dena asertuta zatn tzen ostattun, asizn zien desafiuka, ta... fuerte asertu. Bakin etzen itten, bueno, apostua ola yendia ta solasin yous e(r)e, dena errixtan, apostu itt(e)ko, bai. Ta, bo, gorrotoko apostuk a fiñ, gero fiñ yokazn tzien.

4 Bere semea, Oskar Txoperena, Igantziko toponimia aztertzen ari da eta artxiboetatik ateratako informazioa izanen da hau, segur aski, hark aitari errana eta aitak guri.

**Ink.: Eta ze apostu klase, o...?**

Aizko apostuk, ta... aare apostuk, ta... lasterka. Lasterka re emen yokat(u) uzten ta marka bat ikagarriya in zten. Emendi(k) Goizutara, bi mingo mutillak o(l)txe ostatun ta... asi, ta, ek ere asertu ta... ta bat e... alde batik goitti betik ta berzia b... betik, Artikutza barna, ta, biyek elkarren bistan. Biño batek lentxeo iyo erraniko puntu(a) plazan. Biño biyek elkar kuste uztelik alletu, e! Bat alde bat'tik, bertzia berztik. Miño marka ikagarriya. Nik uain fijo, arrattiko eztakit marka ura nola zen, miño, emendik Goizuta bors ordu pasazn diela, orik in zten bikin... zerbatt e ola zen...

***El rubio de Aranaz***

A, bai, aba fuerti zun. Ta, iru lagunko bankuk, aspald, e... espalda, ola, silla[k] pezala, ori bazala egurrezkuk e... karga aundiya ute, oaiñik be... bettin bada, ostatun. Ta artu abakin ta, da! gotti itt(e)n tzun. Nik eztut bi eskukin iñen, e!

**Ahari apustuak**

Bai, aarik apostuk e... bat emen ein zten e... ola, fuerte samarra, au, markat(u) uzten e... Arantza, biño etzien eminguk. Alde bat'tik zubitarrak, ta berze aldetik gipuzkanuk e... etakit Azkoitti o... nonbatt e... ba gipuzkanuk tzien beti re. Ta ek ere asertuta, oltxe ta emen elkarrei beitzen... gipuzkanuk tor zien bezperatik, ta... orik e bai, ta, emen gu ostateua ordun, gipuzkanuk emen tzien gure itxin, ta bertzi[k] berriz bertze ostateun. Ta, emen zubitarrak ta, ondoko erriy'oietkuk ta, badie yende pilla. Ta, trabesa bezpera arratsin, biaunin yokat arra, ta ok aitt tzien [aritu ziren] emenguk, ta gipuzkanuk yaus e... a... emenguk yokat(u) nai ta, ek kasik ez. Ta ba, diru bajatua, difentzin patua, ta, biño biaunin alletu da apostu momentua, ta artu zioten diru (g)uziya gipuzkanuk, dena, ate uzten guziya artu zioten, ta irauz zioten.

**Arpan apustuak**

Arpan apostuak yokatzn tzien (e)men. Ok e... Pantalion ta... ok aitzn tzien emen, arpanain. Lenotik aizko apostua ni mutiko ttikiya nitzelikan oroitzen naiz emen, yokat(u) uztela aizko apostua, ju(s)to ordun Uzkudun, boseadoria *Campión de Europa* eta gero... Mundialin ere... noski, *Campión...* Mundialin irauzi etzun in miño finala yokat tzun. Uzkudun gipuzkanua. Arek in tzula o(r)oitzen naiz beti, aizkorak gotti iña(k), ta:

- Asi!

Ta ordun da! da! arek man tzion asiera, Uzkudun orrek.

(Arantza)



Laster apustua



Arpan apustua

## 6.4. Aisialdia

### JOSTETAK

#### Xaldun kordin



Umeak tiobiboan

Leno nola dena dirurik gabeko asuntu orrekin, zatt tzen auzolanin ba[t] pertzi launzen zioten, m? Eta, artua bere... xuriketak, artua billu ta ganbaran, ta xuritze giñuzen artaxuritzin. Neska-mutil ta bono: "Guaze artaxuritze duten lekutara, iji ta aja", bakizu, [el]karrekin... eta gero zatten oittura nomatt e ematteunzten gaztañ erria(k), bertzik gaztañak erretzen xuxten, ta sagardua. Pitarra, itxin iñeko pitarra ta sa... gaztañ erria. Ta karo, gaztañ errik, yostetan aizen zien oño zeran, bakizu, azertze'mada ta ezpada azertzen, ta:

- Koño, nik zuri...

Ta ordun zatn tzen:

- Xaldun kordin!

Ya nork nai zun orikin, gonbida bat [d]a:

- Xaldun kordin!

Ta bertzik, artu z... nai zionak:

- Biyen artin! –eat zun.



Etxalarko eskolako umeak

Yostetan? aritzen giñen gauza aunitz: tokoka, sokasaltuan eta... eta gero *a pote-pullas*, eta... kalakorrotian eta...

**Ink.: Zer da kalakorrotia?**

Paratu poto bat eta ori... makillakin, po... ura bo... oi yo bear tzunuen.

**Anaia: Ura urrundik, e!**

Xo! Eta... ura urrundikan, e! Eta ori, gero, ba urbillena gelditzen tzenak berriz paratu bar tzuen an, por... zertaz urrun botatzen baldin bazunuen, e... bueno, gero paratu bear zenun urbullenak gelditzen tzenak, (arek) paratu bear tzun potua an.

**Ink.: Eta a pote-pullas, oi zer tzen?**

A pote-pullas? Ori... paratzen tzen ori, poto bat, eta tortzen tziñen e ori... ta yotzen

Ta:

- Ni.

Bate(k) (sic) berexten zen, kuadriltikan:

- Nik.

- Zuk.

Bien artin, apostu bien artean. Eta, gero:

- Zematen arte?

Zenbat, eskutan gaztañak, edo maalin edo non zen.

- Zematen arte?

Eta, koño, pues igual:

- Zortzi.

Ta kustin, lau ttu igual, ta zuk man bar ttiazu neri bertze lau.

(Lesaka)

tzenuen ostikoz, eta denak lasterka ya nork artzen tzun ura lemiziko, ta berriz paratzen tzen, eta orrela aritze(n) giñen.

**Ink.:** *Eta gero melastiro ere...*

Melastiro ere bai. Bat yartzen tzen... bueno, lau pataz, bi... bi zango ta bi besun gañin yartzen tzen ta, ori, areri pasa, (ori), batzutan areri pasatu, biño bertzetan igual ura ala zagolikan e irut... iru lagun gañerat!



Juanita Ariztegi - Etxalar

### Decodín decodán

*Decodín decodán*

*Dela dela dan*

*De palazio de cocina*

*¿Cuántos dedos hay encima?*

Zuk ola egondu bar tzunun, makurta, makurka, ta bigelk'aldin paratzen ginion orrela, ya zenbat tziren [behatzak], ta arek azertzen baldi'mazuen, zu[k] yarri bar zunun, ta bertzenaz ba yartz... yarri...

**Ink.:** *Eta gero, ez baldin bazuen asmatzen esaten zen zerbait? Titi-tititi?*

**Anaia:** *Si hu... si hubieras dicho cuatro [apal-apal].*

A! "si hubieras dicho cuatro", bai, bai!

*Si hubieras dicho cuatro*

*No tomarías tanto mal.*

*Decodín decodán*

*Dela dela dan*

*Del palacio a la cocina*

*¿Cuántos dedos hay encima?*

Eta berriz gauza bera.

**Ink.:** *Eta "decodín decodán" egitean yotzen da bizkarrean ola, "decodín decodán..." bai, ez?*

Bai, bai, bai, bai, bizkarra.



Etxalarko haurrek

### Abix-abix

**Ink.:** *Eta abix-abix ere...?*

Bai, bai, abix-abix ere aitze(n) giñen:

"Abix-abix

Kaka la bix

Arrantza la kopeta

Ipurdin bi kopeta

Irali

Kak'iraldian

Bale?

Bale"

Ta denak lasterka tal ya... ta bat gelditzen tzen are(k) nor arra(p)tzen tzuen eta...

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Segalaria

### Kandelero

Ta kandelero re bai, aritze(n) giñen:

“Kandelero

Lero lero

Bale?

Bale”

Eta gero arra(p)tzen tzenuna, ba yartze... paratzen tzen orrela, eta etortzen tz... bueno, eta berriz.

#### Ink.: Eskutik?

Eskukin paretan kontra, eta... barr... lemiziko arrapatzentzena. Ta gero urengua arra(p)tzen tzena bertzia... bertze eskua emana orri ta, gero bat etortzen tzen ta libratzen tzattuen.



Zugarramurdiko sorginen  
museoko sorgina

ekartzen omen tzion igual:

### Ikusi-mikusi

#### Ink.: Eta ikusi-mikusi ere...?

Bai, ikusi-mikusi aitzen giñen:

“Ikusi-mikusi, zer ikusi?

Ikusten dut unelko... asitzen da A-kin da akautzen da a... U-kin.”

Eta bueno, ya zer tzen, e! ta ya zeñek azertzen tzun lemizikorikan, eta... berriz. Gero arek erranen tzuen berriz, eta orrela aitzen giñen, ba! denbora pasatu biar tzen!

(Bera)

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra

### SORGINAK

#### Garbeko sorginak ◎

Pues Garberin tziren bi aizpa, bat soltera ta bertzia ezkondu zen bere illobakin, Juanitokin, Juanito... ez... lentxo il tzanen tzen, zu... yaio biño len [laguntzaileari zuzentzen zaio], eta espotu zen ta oriek ikaragarrizko sorgiñan fama zuten, agitz, denak, e! Beldur zatten genion, ta guri beti erratten tziutentz gurasuk: “Garbereko parin pasatzin au [behatz lodia ondoko bi behatzten artean] paratu, gurutzia!

#### Lag: Biatzakin?

Bai, biatzekin rabu! ori, gurutzia dela, eta ordun etz... ezin tzutela deus ere egin.

Ta ori, Madalen ori, igual et... gure ama gaxua pobria zen, zortzi ume bazittun, gizona illa zun gazterik, ni bi urtekua geldittu nitzen, eta

- Maria! –oiu iñ, or Bixinon itxin bizi giñelikan, eta- bai, badut ilar txuriya eta zuretzat ekarria aza! [Ahots mehez]

Ta, “Oi! Madalenek sorgiña[k] ttu miño ni[k] piar iñet ori ta, egiñen dut!”. Pues etzion iñori kaltik in, ta gure ama iltzezo yarri zen. A(g)itz grabe yarri zen. Eta gabaz beti “Maria!” ta “Maria!” ura, oiu ura aditzen tzuen, beti. Ta gero ori, kabaz joaten tzien neskazar orri e... zerara, ni[k] txar-txarra izautu nun, e! Eta errik’ itturria Garberetikan arropak garbitzera, ta beti gabaz, ta artikan: “Ori arrautu bear diu Madalen, ezik bizirik iraunen, Madalen tzar orri!”. Ta, yuaten tziren, ta, beti ematten tzioten ola, bi aldetikan lotzen tziren, bi karreteratikan errik’ itturria artu bar tzutela, biño eskautzen tzen. Eta gero erran tzioten, egun batin benpin arraut tzanon tz... tzuten urbillin, ta, berari golpik eman, ta golpik eman ta etzen... etzen zetzen, etzela...

**Lag.:** Etzun miñik artzen.

Miñik etzula artzen. Ta erran tzioten norbattek, ordun ainbertze baitzen ola aditzen tzena, pues, ematteko itzalari golpia, ta ordun izanen tzela golpatua.

**Lag.:** Madalenen itzalari golpia emanta.

Bai, itzalari. Ta itzalari eman, ta nola dena... mazakriyallatua, dena eridakin ta ...

**Lag.:** Bere itzalari yo ta berak eridak?

Bai, berak eridak, berari eman ta etzula zererikan, podererikan, bueno, bazula berak poderia nonbatt ere salbatzko. Ola erratten tzuten le(e).

Ta gero, elizara yuaten tzien [zalantzarekin bezala], ori, makumi ori, eta, apezak, librua itxitzen bazen, meza man, ta meza matteko librua, *libro sagrado* do ori, e... ura... etsitzen bazun, pues etzen eliztik ateitzen, ura.

**Ink.:** *Ta ze itten tzun?*

Ta an egon, apezak berriz ideki arte. Ta, apezak, nonbaitikan enteatu zen, nik apez xar ura izautzen nun, enteetu zen zerbaitz, ta, ein tzuten eun batin ideki(a) utzi, ideki(a) utzi, ta sankristira ura yuan eta ordun ateri, bertzela an egotten tzen Madalen, elizan.

Ta gero benpin gaizkittu zen e... ori, eta, apeza deittu, ta apeza[k] pazekin ala zela, ta ori egiya omen da, e! Pasatu(a)... Ni[k] bertzik erran ttuztenak zetzen tt, kontatzen ttut, eta, apezak erran tzion:

- Oain Madalen, ze in bar tzu? Oltxe egon barko zu sufritzen. Oin nori eman bar ttiozu zure gaixtakeriy'orik?

- T'oii emanen ttiot... nori emanen ttiot?! [lehengo ahots mehea ateraz] –an tzun koñadua be... ta aizpa, beño...- emanen ttiot ollarrari!

Ta :


- Ollarra?! Ollarrak eztizu izanen, zu[k] duzun poderi eztizu izanen ollarrak!

Eta, ordun eman zision ollarrari tabettiko mia bateri, bueno, bei bateri, mia, ederra omen tzuten, eta, ura zetzelik, apeza an omen tzen, zer... bere zerak ematten ta... ari men tzen ta, ordun Madalen il tzen, ta arekin batin ollarra, eta bettiko mia, ta orretan akaut(u) zen Madalen.

(Igantzi)



Etxalar



Oilarra

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Juanita Leiza - Arantza

**Ink.: Eta gero zuk aittu duzu... ere bai sorgiñen istorin bat, ez? En... Entzesorun bazirela do... Ori nola zen? Nola da ori?**

Bai, guri... guri ori kontatzen ziuten gu izitzko do... yostetara lenogo arat yuaten giñen, ta, gu... ni guaiñ egotten naiz pentsatzen gu izitzko erratten ote zuten. E... sekulako sua iña zaten tzela ta lagatza... paratu zaten tzela an zintzilka ta gero lagatzin... bertze paze audi bat zaten tzela, ta... ola istoriua. Ta, sorgiñak zatn tzirela. Miño guk ezkiñun beñ e sorgiñak ikus! Miño gu izitzko erratzen te zuten ordun? Nik traza ura itn dut benpen. Argittu orduko... ura gabaz atezen zela, gabaz kuste ustela, eta, argittu orduko iñor... iñor etzela deus zatten, ez lagatzikan ta ez pazerikan ta... ez yaus. Argittu orduko dena kendua.

(Arantza)

### Sorginak ote?

Bueno guk, guk ori, baseria eta... agiz toki politan genun baseria, ta gero bertze aldia, bertze aldia da karre... beyin erre... karretera ta bertze aldia da bertze mendiya. Eta, sorgiñak, eta, ikatuk egotten giñen, sorgin... egun batin, ori... egun batin ta aunitz aldiz, karruk zatn tzien ordun beiakin, ibilzen tziren karruk, baakizu zer dien, ta, yuaten tzien an... aratak'aldeko mendiyin bettik [g]otti yuaten tziren, an kargazen zuten bazka, belarra do... edo edozein gauza karr(i) bar tzutena, do patata edo ateria, ta karzen zuten gero malda ura betti ta gero za... aintzintik itn zen frenatu karraua, ta... ez zetzko. Beñ karruk bear tzatn tzun luede... ruedetan grasa, beñ gra... grasik ezpaigenun zatten eltzintzat ere, eltzintzat ere etzen zatten eltzarintzat ere grasikan, etzioten ematten karruri, ta arek an betti eldu zelikan, ta nola zatn tzen añen idorrak, ruedak eitn tzuten krik! krik!

Eta:

- Atozte, atozte, atozte! —gu leiora bialtzen giñuz...- Ara, ara, ara! An dire, Koskonteko errekan dire, sorgiña[k]!

Ta:

- Ai ama! —guk- Non ta dire? Non ta dire? -etzen kusten!

Ta gañea sorgiñak guk karraua kustea re sorgiña kusten genun, krik! ta krik! arek zun olivua falta, ta ruedak karraixika, idorra, idorrik.

(Lesaka)

### Sorgina tximiniatik beheiti

Etxalarko ikuspegia

Aanibarran, e... lamik, aunitz atakatzen omen tzittuzten ta... o sorgiñek, ta, aitzen omen tziren emakumik linua, ariya itten. (Da) ariya linu orrekin pues leun-leun-leun-leuna, ari polita itten omen tzuten emakumi orik, da, egunero tortzen men tzaien tximenetik betti, da erraten omen tzion:

- Ekarran **gantxa!**

Gantza, zopa, sebuukin iña.  
 - Karran gantza!  
 Ta, emakumik ikatuk beti. Gizon batek erran io:  
 - Lasai, nik arreglatuko ut ori. Bai, zuek ez torri.  
 Bera **yarri** da, sun ondun, ta paatu du zartai aundi batin oliyu erretzen. Ta, an tzeon oliyu oi pil-pil-pil-pil-pil-pil, ta er...  
 - Karran gantxa!  
 Ta:  
 - Oi! Atzo pirri-pirri ta gaur porddoka-porddok?  
 Klaro, gizon orrek e(z)paizun [emakumeak] bezela itten ariya.  
 - Karran gantxa!  
 Ta:  
 - Gantxa biar dun?  
 Da! [indarrez] tiatu dio zartagi oliyu oi ta kaskali dio mutur guzeia. Da ai! ai! ai! garrasika yuan da. Ta bertzik ate zaizko ze pasatzen den, ta:  
 - Ze pasatu zain? Ze pasatzen?  
 Ta:  
 - Neurrik nere buru! Neurrik ne... (...)  
 - Ba! Ieulik ere bururi in bali'maion izorratzia aski un!

(Arantza)

**GURE HITZAK****Yarri:** Jarri. Eseri.

Laino guztien azpitik

**Belea**

Nola erratten tzuten lenogo, bat omen tzen zera... beti gabaz bi lagunek itten omen tzuten lo, ta beti gabaz -orrik erratten tzittuztenak len- gabaz beti bat itten omen tzen... beti itten omen tzen ortzaz gotti lo. Biyek elkarrekin itten zanen zuten, bi lagunek. Eta, beti, gabaz, dardaittu onela ta... ezpen tzion kontesten, ta ezpen tzion kontesten, ta, oantxe amabiak arratskuk yo zutelikan, apatu omen tzun aspeska, "Orrek zer dik aba zabaldua?!", aspeska, zerbatt ere... yakinen tzun, ta aspeska. Ta ez muitzen, ta ez muitzen, ta andikan buelta eman omen tzion, ortzaz gotti, eta bele bat etorri omen tzaion onela bele bat, ta, aotik sartu ta... bixtua geldittu omen tzen.

**Sorginak uxatzeko****Ink.:** *Sorgiñak (sic) ze itxura zuten? Nola ziren? Ze esaten zuten...?*

Pues persona[k] pazala, segun, biño itten tziren bitxoz kanbiatu, ta... erratten tzuten, pues, ola, kusten tzittuztelik o zerbatt ere, pues e... "Laño guzin azpitik ta... lar guziyen gaintik".

**Lag.:** Ibiltzen tzirela...

Erratten tzuten yendik "Alda adi emendikan, laño guzin azpitik ta lar guzin gaintik" .

**Ink.:** *A ze, ek bialtzeko? Uxatzeko?*

Bai, bai.



Ebaki belarra

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Eguzki lorea


### Sorginen eskulanak

Et'ola biditan ta ikusten omen tzittuzten ek, sorgiñak egiñak, larrakin ola... arkuk, ta ikarrigarri gauz politak, gabaz itten omen tzittuzten, ek... ek pasatzeko eurek.

(Igantzi)

...arratn tzun ura, ura... sorgiñ ura bera iltzeko, bere gauz ura pasatu biar tziola bertze bateri, bertze bateri. Ta bertze bat geldittu... ordun orek ya... akauzen zula, zartu ta ezin illez ta kristonak [indarrez] kusten tzu ta etziela iltzen.

(Lesaka)



Akerraren burezurra

### GURE HITZAK

#### Zintzallua:

Zizeilu. Zurezko eserleku luzea eta bizkarduna, gehienetan bizkarraren erdiko zatia mugikorra eta mahai gisa erabiltzeko modukoa izaten duena.

### Axolorro baserriko misterioa

Ta bertzia dut berriz ere, ori serioxagua da, ta ori re egiya da, e! Ori pasatua da. Oain, eztu milagruri[k] yeus ere, e! Gero istoria akautzeken agertzen da dena, biñon! Yendia beldurka. Ta, emen bixtan da or baserri bat, gure atta ta oken baserriya, ta gure atta soltero zen oañik ordun, ta ziren bi anaia, ta bi anaiak, bueno, sasoyian, sasoikoak, biño, etziren balientiak, erraitn tzuen: "Ezkiñen balienti[k] gu re, biñon, jo(b)ar! eske alko eskandalua zen, ta dena ateitzen tzen gure borda ortikan. Ta egun batin bi anaiak elkar artu genioken". Ta zen untza bat, ta untzek ite'maitute yendien uuuuuu! Ta ola, arnesi triste bat, (ta), egunak ta egunak ta egunak ala yoaki, eta arrastan ori, orrela, ta jo(b)a! Baserriyak aldi ortkuak ta, ta beti ibiltze men tzen emen, gure... atta ta oiken baseria... bueno, baserriya ertik onddo-onddun da, eta, ortikan asi ta unaaxe tortze men tzen, orko bortzeu'mat metro do onatago eta bertze bortzeun bat metro aratxio, ta or tarte ortan, beti, or, garresi oitan ta ola ibiltzen. Ta or aldi ontako yendik denak izituk, arrastan ta itxera yuateko ta... izituk. Ta, atei omen tzen ordun erriko apeza, erretora, Don Manuel Zubigarai, erretora il berria omen tzen ta, erraiten omen zten, bai, aren arima zan... zela ateitzen tzena. Eta fa! Bull'ura, bulla ura, ta fuerte, ta fuerte, ta fuerte, ta, joño! Bi anaiek elkar artu, eta: "Yua'mar diu". Ta, bordan azpikon izaite men tzen **zintzallua**, ola, butaka tokin gisa biñon taulazkua, izaite men tzen ta, benpin, beti andikan aertzen tzela soindu ori, eta: "Yoa'mar diu, ta i'mar diu gaba batin guardia i'mar diu, ya zer den or agertzen dena". Ta biyek sakelak arriz bete eta bankun gañin arri monton bat pa(r)atu ta: "Alu oitikan etortzen baldi'mada norbait e, larri ibilli barko ik, gure bi....". Ta bo! Bertzia... gizona... gure atta ttiki xamarra zen biñon... fuerte-fuertia zen gue atta ere, biñon bertzia, bueno! Ura animtu zen bai geio, segur aski. "Yua'mar diu!", ta biye(k) baduzi orrat ta, zizallu ta gañin, egatzian, leio bat zaki ta, pla-pla-pla-pla-pla! [mahaieren kontra joz]. Eraj... ori, unta. Eta or asitzen da uuuuuuuu! Ta: "To, orra zer duken! Mekaguen!", bota omen ziozten bizpairu arri, geritzu omen tzen eta "Orra, gure Manuel Zubigarain arima zer tzen emen!".

(...)

Ta gero konprobat tzuten zer tzen, unta are[k] zengatik iten tzun garresiy'ek! E... pareta zen zartatzkua barrentikan, eta ez kanpotikan, ta aizea uriyikin ta ola, pareta

umedadia artutze'maitu, ta belarrez betetzen tzuten borda ori. T'iten tuzten arboa... arbu adarrak paatu paeten kontra belarra ez auts egiteko, ongi kontsertzeko belarra. Eta, untza orrek omen tzun kabiya numait an, eta umiak belar tartin beiti yuan, ta umi(k) galdu, eta gero pena, ta ha! untza(k) garresi ta garresi ta garresi ta... ni(k) eztakit ez zortzi egun, amabortz eun o zemat aguantu zun biñon... benpin ta barren ortan ta, geo belarra yanen po(d)erez umik an disekatuak arrautu omen zun ta: "Orra! Klaro, arek au ziken!". Bee umiak... umiak galdu ta ek... ek aklaratzeat ateitzen tzen! Ta ortan akautu zen.

(Etxalar)

### Lesakar bati sorginekin gertatua

Ta ementxen dago, bertan e... or dago erreka ori, zera, Lixardibattiko erreka. Ta, mutil batek beti aditzen omen tzun atsu bat sorgiña zela. Da, mutill ori delibeatu xamarra ta... ola. Ta, atsu orrei ondun pasatzin:

- Nai nkek sorgiña banitzake!

Eta, atsuk kasuik ez. Berriz orrengotopatzen zen enboran:

- Nai nkek sorgiña banintzake!

Ta, atsu orre(k) noizpatt e erran dio:

- Sorgiña nai duk izan?

Da:

- Bai.

- Bueno, gaueko amabitian oaietako erreka ta an arrautuko ittuk bi auntza, bat zuriya, adarrak gabia, ta bertzia beltza, adarrakin. Ta adardun ori artzak ta erraziorik "Laño guziyen azpitik ta sasi guzin gaintik".

Baietz. Yuan da mutilla, taka-taka-taka-taka yuan men da ta bi auntza antxe. Artu du adardun beltza ori, ta, erran dio:

- Sasi guziyen gañetik ta goibel guzien azpitik.

Bertzik artu ta eaman du, ta, akelarrera. (...) Eraman du ta, zulo baten ondora, kueba baten ondora ta, an atera zaizkio libro aundi batekin kuadrill bat. (Da):

- Ateaziozu, zere buru zulatu, ta odola, ta firmazu emen zure izena.

Bertzik artu du, zulatu (d)u bere burua, artu dio librua ta paratu dio: "Jesus, Maria ta Jose". Ra! Denak izkutatu zkio, arek ura eskrittua un enboan ta geldittu a bee librua eskutan, mutill ori. Ta *desierto* batin, etzakin non. "Ba! Ni nun ote naiz?"

Ta, kezkaturik, asi da eskian. Ta eskian ibillian, eskian ibillian, alleatu a berriz Lesakara, urtin buruan ta, etorri ta:

- Unelako atsua sorgiña da. Ta, alako re sorgiña da. Ta, olako re bai.

Ta, noizbait e autoridadik kargu artu diote ta... apezak eta artu diote kargu. "Ba al daki ze esaten ai den?"

- Baietz, bai, ala diela.

- Bueno, bueno, erre in bar dutela ba ori.

Ta: "Bueno, bien" biño lemiziko badula dokumentu bat ori erautsi biar diola. Aiuntamientun ate du libru ori, da, an firmatu ainbertze atsok, larogeita amarrek.



Berako paisaia




Urraba erreka

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Lamina Bertizaranako  
armarri batean

bat onat!



### GURE HITZAK

#### Ongendua:

Ukendu.  
Larruzalean ezartzen  
den gai edo ore  
koipetsua.

Sorginak eskopetekin  
desagerrazten ziren

Da, mekaguenla! arrittuk geldittu dire. "Bueno, bueno". Erriya garbittu bar dela, ta erriyi garbitzeko su ein, egur pill batekin, ta, denak an erre bar tzutzela. Ta an erre zittuzten segun Lixardibattiko errekan laroeta amar persona orik. Emakumik errateunte biño gizonak ere bai, seguro.

(Arantza)

Iza'mar zuten nomaitt e sorgiñak, e! Ni enaiz oroitzen miño sorgiñak, eta mutill batek ikus zittun sorgiñak larrugorritan yarri zien, ta eman bar zten **ongendua**. Ongi ongendua. Eta, bazuzen akelarrera yuan bar zten, been besta (...), eta, ordun in tzuten ura eman, ta yua'mar zuten, ta kao, trasportia ura uzten. Ta ezti:

- Bueno, ordu bat arat, ordu bat onat. Sasi guziyen gaintik, ta odoi guzien azpitik.

Ta yief! An desaparezitz tzien. Ta mutillak:

- Aiba, la letxe!

Biyo, ura etzen ongi oroittu, oi ze erra'mar zun. Ta, aek ere larrugorritan yarrita ongendo man dio, ta geo erraten du:

- Sasi guzien azpitik ta odoi guzi(y)en gaintik! Ordu bat arat, ordu

Rai! Ta itxin agersen da gero nozpatt e, ddena [indarrez] masakrillatua! Ta karo, zer tzun eiña? Sasin azpitik pasatu bar baitzen ba, ta larru [indarrez] demonio in!

(Lesaka)

#### Sorginak eskopetekin desagertu. Sorginari jotzeko itzalari eman behar zaio

Eskoptak baztertera edatu zielik ordun ziren...

**Ink.: Ya desagertu ziren betiko...**

Bai, bai, bai, bai. Oik ert... oik desagertuta ezta iñor agerzen. Oiek eskopeta... ta dudik [g]abe eskopetan tiruk bateri eztiote ies itten.

**Ink.: Ze, sorgiñek?**

Bai. Ta biarre'mat ematen baiozu bai ordun.

**Ink.: A...**

Bai, bigarrena manta. Nik aittua.

**Ink.: Eta golpekin igual, ez? Golpe bakarrakin...**

Bai seguro.

**Ink.: Gaizki ta bigarrenakin ongi patzen dire.**

Bai, ta gañera... ori, eztakit, nola izanen den, biño, illargiya baldi'mada, ta zu illargiyikin yuan, ta, igual emendik do... zea, zerbatt sentitzen tzu, ortikan, ta ordun, ura yo bar baldin bauzu, ta orratako aldetik baldin bauzu itzala, itzal aeri eman makillakin o zerekin ta, an arrapatzen, ura an zaten.

(Arantza)

## Sorginak eta laminak

**Ink.: Errota onduan egoten tzela lame kuadrilla...**

Bai, lame kuadrilla bat egotten tzela, eta, mendiyan, orretan, armas tartin bizi zela bertze... denan errege egitten tzuen... ori, sorgiña.

Lamin kontu gutti aitu du(t), sorgiña. Sorgiña, beti olko gonazar luze batekin... guri kontatuketu digute. Sorgiña. Ta lamiek ttikiyek omen tziren, ala erratten te.

**Ink.: Lamik ttikik...**

Lamiyek olko koxkor batzuk izatten zirela... ala erratten te, eztakit.

**Ink.: Eta sorgiñak nolakoak ziren orduan? Gona luzia...**

Sorgiña... gona luze batekin, sudur luze batzukin ta, antxen, armas tartian iñongo... auntza ta iñongo orrekin bizi zena. Ta, an biltzen omen zittuen ango belar klase guziyek bere lanabasa egitteko, gero bertzikiri eramitteko. Lanabasa, duikabe ori zanen da, *una pozima*, lanabasa, eta egitten zittula sekulako belar klasikin. Eta gero, ezpel bat egitten zuela urrtzan kiderrakin, urrtzan kiderra (...) Benpiñ ezpelan gañin gero bere laguntara yuateko. Ta ezpelan kiderra ura egitten tzuen yikitteko ura non izatten tzen, urritza. Urritzaken... kiderrak erratten te urritzak... ori... billatzen ttuzela, ura billatzen dela urritzak (sic). Bai, ta ala itten tzela.

Nola Zuamurdiko... leziatikan Berako Argaitzarat, ori, mendiy'ori guziya dena kiso arriya dela, orko ori. Ta kisu arriyan izatten direla zulo moloka audi batzuek, zuluak... zulo molokak duikabe oriyez izanen die *huecos* izanen da moloka, ez? Zulo moloka audi batzuek izatten derela. Eta, bazela Zuamur(di)tikan asi ta Berako Argaitzeño idi bat pasatz(e)ko añeko... zulua. (...) Ta gizon bat, ango gizon bateri gogotu tzitzaison, beti ori burutan zagola ta: "Artikan, nik egin biar dit biaji ori ikustera ya non den idiya ateitzko zulua. Ta illunabar batez, illargi betia omen tzen ta majo yauntzi omen tzen, bere blusa ederrakin ta bere zapiñak, zapin zuri ederrak, ta bere **eskalfroia** ta, kapelu paratu omen tzuen ta "Gaur yuan bar dit". Abitu omen tzen, yauntzi... yauntzi omen tzen, majo yauntzi omen tzen ta abitu omen tzen illunabarrian. Illunabarrian ikusi biar tzela... orrat, Argaitza aldeño ikusi bear tzuela ya ze pasatzen tzen. Ta an omen tzabilen alde bat'tik bertzea, iñongo bidaska, iñongo estrata, iñongo **zaraka** guziyen tartin barna ta alko'matian kusi men tzun zerbait gauz mugitzen tzela, ta yarri omen tzen, illun omen tzen ta yarri omen tzen begira ta... ikusi omen tzuen nola zerri audi [indarrez] batek salto egin nai zuen arbol zar, zapote zar baten gañerat. Salto itten omen tzuen, ta ezin alkanztuz berriz gibelara. Berri[z] xoaten omen zen, ta berriz gabela. Iru aldiz ola. Ta gizona arriturik gelditu omen zen ta pentsatu omen zun: "Au... au sorginkeria ote da? Sorgiña ote da?". Ta, ono, geriztu omen tzen, ezin tzuenian ya geriztu omen tzen iñongo... zaraka tarte guzitan barna, zerriy'ura. Ta, ura pentsatzen: "Au ze ote zen bada?". Ta, bueno, segittu omen tzuen antziñera. Ta omen tzabilen yo [indarrez] eskiñ batera ta yo [indarrez] bertzera, ta bidia segitzen omen tzuen, ta allelu omen tzen Apatiko errekarat. Ta Apatiko errekan, or arrautu omen tzittuen sekulako sorgiñak. Or bai, sorgiñak arrautu omen zittuen. Siñesten omen tzuen miñor arrautu men zittuen. Batzuek bokata arriyan gañian xarta-xarta bokata egitten ari omen tziren, eskiñ batian. Ta bertze mulluka audi batian sekulako dantzaldia ta sekulako garresiek ta ori. Ta egitten omen zun: "Ni... ni amesten ari ote niok do ikusi itten ote ttut?". Eta, goartu omen tzen egizki ikusten zittuela, ta gero bat banaka denak



Kontxesi Arangoa - Etxalar



Eskapaloia

### GURE HITZAK

#### **Eskalfroia:**

Eskalapoi. Zurezko pieza bat hustuz egiten den oinetakoa, zebait lurraldetako nekazariekin eta kidekoek erabiltzen dutena.

#### **Zaraka:**

Txaraka. Txara, zuhaixka eta txara eremua.

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra

### GURE HITZAK

**Tiñako:** Tinako.  
Tina txikia (suil mota).

**Xirrintxa:**  
Argi zirrinta.  
Egusentia.

**tiñako** batian sartu men tziren, an... dantzan ari ziren ek guziyek. Eta gizona arritturik geldittu ta: "Ze pasatzen da emen?". Eta, bueno, bere artikan ernatu ta segittu omen tzuen. Ta alletu omen tzen Argaitzerat. Ta yo alde batera, yo bertzera, yo bertzera(t), iñongo sasi tarte guzitan barna, deus etzuen arrautzen. Etzuen etsitzen, eta, goizko argi **xirrintxa** asi zenian pensatu zuen: "Yuan barko dit nik lenaoko tokirat ta pollikipoliki abitu barko ut, emen ezta daus ere". Ta, erran omen tzuen: "Au, au utziko dit ure... urrengo araldiyak ya ni(k) biño suerte obia izatten duen zulua arrautzeko". Ta bera antxen, guttika-guttika aski triste yuan omen tzen bere tokirat.

(Bera)



Arruzpiko Zubia

### Sorginen beldur. Arruzpin bi gizon bestatik bueltan...

**Ink.:** *Eta... ze pasatu zen Arruzpin bi gizon besta egin ta itxera ta...?*

A! besta in ta itxera zoazilikan, pues e... gorpuztik itteko gogua etorri zann zion ta: "Bueno nik, ementxe pixkot geldittu bar dit gibelara" ta, gibelara geldittu ta ein tzun galtzari... galtza kendu ta li... lurrin utzi, ta, botatzerakun buelta eman galtzari, bat azpikoz kontraz irauli, ta, gero, asi zenin galtzak yauntzitzen anka olak (sic) itten men tzun, gotti ta betti, (ta) ez sartzen, beti anka kanpun gelditzen, iñun ez arrautzen galtzariken.

Anka bat sartu ta bertzia ez arrautzen. Ta, ze pasatzen ote zion? "Ai, au lana! sorgiñak eraman tziatek anka bateko galtza, ta so... emen baditiñu sorgiñak ta, sorgiñak eraun tzite(k)!", bertzia asitzen men da bere lagunari oiuka:

- Aizak, aizak, ator pixkot, ator!

Ta:

- Ze pasatu zai[k] pa?

Ta:

- Sorgiñak eraman tziatek anka bateko galtza.

Ta:

- Ago xillikan, mutilla! Emen eztuk sorgiñikan.

Ta:

- Bai, eztit ni(k)... anka batko galtza bakarra dit emen, eztuk emen bertzia.

Ta, asitzen men dire begiraka, ta, kontrako... aldera buelta mana zaki ta, gero galtzak zuzenin patu ta, gure gizona yauntzi ta, fuera, sorgiñak fuera, ta...



Zugarramurdiko sorginen  
museoko sorgina

### Sorginak eta laminak

Orik, sorgiñak eta lamiak uste dut bi personaje zirela, bi persona...

**Lag.:** Bi difente?

Uste (d)ut ni[k] paietz uste dut.

**Lag.:** Ta lamik zer tziren?

Lami oiek... eztakit nik ori, sorgiña(k) bezain gaixtuk etziren zanen lamiak, mño...

**Ink.:** *Ba Argatako lamiek eraman tzuten Argatako neska, ez?*

Eztakitt ez sorgiñek eraman tzuten do ez lamiek eraman tzuten, biño orik uste (d) ut... nere uestez da bi personaje.

(Arantza)

## Sorginen kontuak neguan sukaldean

Bai, bai, kontatzen zkiuzten, negu partian kontatzen ziuzten ori(k) geinikan. Neguan biltzen giñen denak sukaldera. Sukaldian zatten tzen... aba, or kozina nola da zarra? zea, lurkua, lurko sua da ori, eta olako... bueno, ez ori... ori bezala ola elegantia... e(z), zarrak. Goitikan betti zintzillikan laratza, badakizu zer den larantza (sic)?

**Ink.: Bai, laratza? Bai.**

Adittua (g)uaiñ, e! Euskizeri! [irriz]

**Ink.: Lenagotik ere, e!**

Eta sukaldian dena[k] yarri, eta tanboliñari buelta ta buelta ta buelta batek, sua ein ta tanboliña buelta kaztañak erretzen. Eta bertziak an, eta, ama... ama, berriz, ama, berriz, yuaten tzen... ura, berriz, Arrosaioa erreztara. Familia denak an, sukaldin, t'ura Arrosaia erreztzen, beño yuatin tzen taluk ittera igual sukaldetikan eskalera gotxio [irriz] ta bigarren pisura igual ta, an Aita (G)uria zea [irriz] ta, bertzik erdi lo an sukaldia(n) [irriz] Arrosaio erreztzen, Ave María eztakit zer berriz ere, ta, segi, ara. Eta, a, gero, gero, opillak, taluk egit... e... egin ta betti bajazen zelikan, benga aup! talu(k) yan ta gaztaiñ erria(k) yan ta afaria ura zatn tzen, el Esnia ta talua, ta gaztaiñ erria(k), ta... ura, jenealin ura.

Eta gero asitzen tzien... ama, jenealin asitzen tzen e... txiste oitikan kontatzen, euskarazko... txistiak edo leno pasatako gauzak sorgiñak ta... sorgiñak ta lamiakin, lamik. Ta, kontazen zun nola e[k] ttikiyak zielik o eztaki(t) zer, tximenin betti gabaz gaztañak erretzen ta ari zielikan, nola bajazen zien ori, e... zea... no... nola erran dut? Lamiak eta bertzeak sorgiñak? sorgiñak. Ta andik bajatu, ta, nigarrez [indarrez] egotten tziela an tximene beltza zar aren tarti artan nigarrez [indarrez] an sorgiñak. Ta, bua! Gu denak mutiko koskorak ta ttikiyak ola ta, fu! Denak gauzak adittu ta izittuk, denak izittuk edo... alko gauzak zatten tziela, eta [irriz]... enpin, egun batin gootu omen tzaion norbattek tiro at ema'mar tziola; (ta), betik [g]otti eskopetak an tiro tiatu, sorgiñ areri, eta, urrengo egunin kato zar audi bat arrautu illa kanpun [irriz]. Katu ura zaki [irriz], ta, uste ta sorgiña(k) ziren [irriz]. Katua, ara... ara nolko sorgiña[k] zatn tzien leno, e!

(Igantzi)



Lurreko sua

**Ink.: Baduzue mairu zuloa, edo sorgiñen zuloa, edo nola erraten diozue?**

Bai, mairu zulua, men Arruzpin zatn (d)a. Zulo audi bat, kueba zulo bat, ta arei mairu zulua erratn dio(u) beti, Arruzpiko mairu zulua (...)

Ta an Arruzpin erratteunzten bat e... txea zuaina, erriyin besta iña, ta, asto bat, ta, astua, yarri gañin, ta, Pottunkorda goiko an o... Urrizmeakako ixkiñin Pottunkorda, badakizu zein den? An, aat orduko asto ikagarriya in... bua! Sorgiña zela....



Mairuzuloko kobazuloa

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Sagarrak

### Eskalea sorgina zen

Bat e... omen tzen, neska tzar bat eskin ibiltzen tzena, an gure erriyan, e! Arantzan. Mari Matias akerra omen tzun izena. Mari Matias akerra. Ta, eskian ibiltzen omen tzen ta, itxe batin ume kozkor batek eman dio limosna, ta, orrek, Mari Matiasek erran du ya man dion sagar bat, umi orreri erreglo bezala. Baño, aldameneko itxekuk, ondoko itxekuk ikus zun nola man dion ta seittuan erran dio ez gero ozkik ittko, ez autsikirik ez itteko, e! sagar aeri, ez itteko. Bueno, umik eztio in autsikirik. Da Mari Matias garbi yuan den denboran eraman, ta, bota izkio suri erramo bedeiktua, eta kandel bedeiktua, da eztaki(t) zer, iru espezie do, ta paatzu sagar ori ondun ta yo! esfumatu zio, ez dute geigo ikusi.

(Arantza)

### Belea sartu ahoan

Ori, amerikano bat. Ta bere semik kontazen zun, attak kontatua, atta zen amerikanua, da, Ameriketan urte mordoska at inda torri da ta, leno men ezkondu zen, ta oañik soltero zagolik yuatz tziren Doneztebera merkatura. Ta Sunbillin jeneralmente afari pokado bat in, musin pixkot ari ta goiz aldera itxera. Ta, biden eldu direlikan, gauberdi aldia do ola ta erran dio:

- I, motell. Ño! Nik ementxen kuluska bat i'mar dit, lo piska at i'mar dit.
- Motell! Motell! Alde intzak emendik! Eme ze in bar duk ik lo?!

Ta:

- Bai, bai, bai, nik naita re i'mar dit lo.

- Bo, bo, bo. Alde intzak, Jangoikun izenin. Oaiñ emen lo?

Ta:

- Bai, bai, bai, nik lo i'mar dit.

Bidin baxterko aldea aldatu da, yarri da ortzaz gora, ta bertzia fumatzallia zen ori, amerikanu ori, orrek zigarru piztu du, ta, etzanta yarri (e)n denboran ru! ate zio bele beltza ba(t) bezala aotik. Da, andikan minuto batzutara torri ta ra! sartu zio berri, ta, edarkar bat ederra in ta:

- Bueno, guazen motek, a zer kuluska goxua in ten!
- Ta bertzia arritua, sosprenttua do ikatua, ikusten un enboran kontezimentu ura.

(Arantza)



Belea

### Katu beltza sorgina zen

Joxepantoni zun orrek izena, emakumi arrek, ta orren senarrak Antonio, biyek izautu nittun nik (...). Ta, mutiku oi juergista, gaztia, da, ordun dena oñezka zen, da, neska za... o... izeba zar orrek erratten omen tzion:

- E! Eunen batin ikusko uk! E! Eunen batin kusko uk ze... ze estualdiya ema'mar duken!

Ta:

- Bai! -mutikuk- Bue!

(Da), berriz e ura atsu orrek ta, egun batian erritik bakar-bakarra baduie goizaldera, ordu batak o biyek aldea ola, ta, arpe baten azpitik ate zio katu beltz bat mar-mar! ta mar! ta marrauka katu belz bat. Karrote bat orrek eskutan, ez makilla arek, karrote bat. Ya! [indarrez] yo du karrotikin, ta:

- Yonazak berriz! Ta, yonazak berriz!

Ta ez, mutillak etzun yotzen, da, mutilla yuan da itxera. Ta juerga in goizin, zer da ta izeba, bertze oyin. Da aren izeba, neska... atso zar ori, sorgiñ ori. Arek makillekin yo ta izterrín krixton paliza mana, mainguka.

(Arantza)



Katu beltza

### Zenbat aldiz jo behar zaien sorginei

Bein joez kero, ta bi aldi[z] xo, irugarrena ezpadiozu matten, ya atakatzen omen tzattutzete.

**Ink.:** *Edo bein do iru aldiz?*

Beiñ edo iru aldiz.

**Ink.:** *Bi ez.*

Ez, bi ez.

(Arantza)

...katua agertu aitzin, ta katuri yo, arrautu makillekin ta beti ordun denak ibiltzen men tziren makillekin ta prestatu(k), urbiltzen tzeñin arrautzko, ta norbattek arrautu katua, yo [indarrez] katua ta biamu Graxin... kripto...

**Iloba:** Marigraxi gaizki...

Krixton kozkorrakin atsua burun do eztakit nun. Krixton [indarrez] kozkorrakin, Marigraxia, sorgiñan... katun forman ateria.

**Ink.:** *Ta errate zuten bein do iru aldiz yo bear zitzaiela, ez?*

**Ink.:** *Bai, iru aldiz yoz kero yasta, garbizen zela.*

(Lesaka)



Etxalarko gurutzea

### Sorginak hiltzean sorginkeria pasatu

Omen tzagon atso bat, urte aunitzin, Sunbillan, aonin (...). Ta beti, norbaitt ondora yuatin zen denboran eskua luzatzen omen zuen ta: "Artzue", "Artzue" erratten omen tzion, ta, iñor ez men tzien atrebitzen. Ta, apeza eraman te, ta apezak erran dio:

- Bai, au illen da. Miño biar dut emakume bat fuertia, ta deliberazio aundikua.

- Bai?

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Luis Madariaga - Arantza

Ta:

- Bai.

Unelako, alako, da... ta erran diote bateri ta, batek:

- Bai, bai, bai, bai.

Bueno, miño apezak erran dio *justamente* [euskarahoskera], e!

- Bigarren amabiyak, lemiziko amabiyak yo ta bigarren amabiyak yo bittarte, zuk, arek "Artzue" errat un denboran, erra'mar diozue "Ekartzue". Miño nik ollasko au artu ta lepua biurtu ta ateri bittarte. Ño, ri-ra, ta dak! ate ta bota bar ttuzu biyek bi aldet(a) ra. Ta ori orduntxe illa geldittuko da.

Baietz! Baietz! Iñen tzuela emakumi orrek. Bueno, plantatu dire, da, apeza bere lib(u)rakin ta bere erreduk itten, ta atsu ori "Artzue", ta "Artzue" esku luzatu an ta, emakumi orrek artu du bi ankan tartian, bi izardarrak tartian ollasku ori, ta, amabiek yo ute lemiziko, ta biarrena, yo bittarte tarte txiki bat [d]a, ta tarte ttikiy'orretan "Artzue", ta "Bai, ekartzue biño nik ollasku unei lepu biurtu ta atera bittarte!". Ta ri! da! Ta, arek ollaskua artu ta bota ttu bi... bi aldetara ta atsua seko geldittua. Ori Sunbillin gertatua omen da.

(Arantza)

Yuaten tziren emendikan San Antonera yuaten tziren, ordun oñaz, lanera. Karpinteruk ziren orik. Eta... b(a) ori... yuaten tziela lanera eta gero in men zittutene Artikutzan andregaiak. Ta yuan men ziren an... andrik Artikutza yuaten men ziren neskaxtera... metikan oñaz. Eta, bazuzelikan... arat bazuzelikan, bateri atetzen men zaio zaldi bat, aintzik'aldin.

**Iloba:** Ura bai sorgina!

Bai. Eta, ori... zaldi bat. Trapatan! Trapatan! Trapatan! Ta ura gañin antziñin, zaldiya. Eta... titu... arriya, ta titu arriya, ta e[z] xoaten. Bai, eta... noizpatt ere berriz lanera bazuzilikan argittu biño len, Artikutzara bazuzilikan obrak ittera, igeltseruk ziren. (...) Eta, ori... bazuzilikan berriz e zaldiya. Ta aizkora ttiki bat bazula, ta titzen [indarrez] men dio aizkora ttiki bat, eta, ori, titu [indarrez] ta yo omen tzun. Ta sekulako [indarrez] zalapartak ta zaldik ta il men zttun. Eta, gero, ezpen tzen agertu geigo. Ta gero yuaten men da, eta... an fama zuna omen tzen sorgiña fama zula gizon bat, Artikuzan.

Sorgiña zena... denak, sorgiñez tartazen zutena. Eta ura eztakit ze... zemateñoko ebakia eztakit nun eiña.

**Iloba:** Ai! Aizkorareki(n) iña!


Bi eunen burun do agertu zen ura. Eta, oritikan, agertzen men tziren titu ta arrautzen bazioten. Gañera, erratte tzuten, guri erra: "Zuek arrautze baldin bazue... agertzen bada oitikan, titu arriya do erami beti..." erama ziun ta gañera gu beti orrela ibiltze giñen, e! "Ibilli orrela, e! eztute atakatzen orrela".

**Ink.:** *Nola da orrela? Biatza lodia bi... biatzen artean.*

Bai, bai. Bai, orrela gurutzia eiñe, onetara eztire... eziunte dañurik in.

(Lesaka)

Sorginengandik babesteko  
behatzekin gurutzea egiten zen.

A close-up photograph of a person's hand, palm facing forward, holding a small, dark, irregular object between the thumb and forefinger.

## Arantzan sorginak zeuden

Maria Luisan alaba, Teresa. Orrek ere sorgiñak izatten omen tzittun, Maria Luisa orrek, da, alaba Teresa, emakume balientia zen oso. Ta, beti aitzen omen tzen "Artzue, artzue" ta ola (...). Ta beti... ez men tzun gauz aundirik artzen, zerbatt e(re) ezpañak busti saldakin, ta fin, ta ola. Ta beti, eskua luzatu ta "Artzue, ta artzue", ta iñork ere etzioten artzen. Ta, gaba pasatzena, laguntzena familiri yuaten omen tziren. Ta oi, gizon oi re bai, bai, gizon oi re bai. Ta, kafia artu ta anis pixarra'mat o ixorio, ta sun ondun berriketan da ixorio, ta "Artzue" (aek beti) "Artzue", ta, alako batin alabak erran omen tzion:

- Yua'mar dut, eram bar diot zerbait e amari.

(Ta):

- Bai, lagunduko ziot.

Ta:

- Ez, ez, ez, ez.

Bakarra bazen aski. Eon da, bakarra, ta, ixtantin buruko torri omen tzen ta:

- Bai, il da gaixua.

- Il da?

Ta:

- Bai, bai.

Yuan da ta illa. Gero, e... sospetxak, orrenak, ta niouni ere erran izandu baitit orrek, kontrabandun ibiltzen ginen gu, ta, gure itxetikan ola frente-frentin tzaon, biño tartin bazien itxe bat o bertze ta e... kanpo ttiki bat ere bai, baratze batzuk ere bai, ta ola, distantzi aundiya ez biñon... ta, aunitz tratatzen genun, familia orrekin guk. Da:

- Ze, torritzin ongi ibil zate? Kontrabandun?

Ta:

- Bai, bai. (...)

- Onelako(k) zinten, ta alko(k) zinten, ta orrelako(k) zinten.

Ta:

- Au nola ostietik enteatzen da?

(Ta), nik erran nion gizon orreri:

- Gizona, au... au kalamidade puta. Atso zerriy'orrek bijilatzen gattu. Ta orrek nola ostia ikusten al gattu gu gauen garaiy'ortan argi txar bat bakarra dago, ta izautu, banan-banan. Ta, danak erratten tu, denan izenak ta ola. Ta ni zematgarrena nitzen ta au, ta ori, ta ura. Bai, gizon ori sorgiña da.

- Bai? Zaudet xilik!

- Bai, bai, ori sorgiña da. Orren ama sorgiña zen.

Da, orain kontatu uten bezala, gauaz guardira yuaten giñen o launtzena yuaten giñen, ta, gau batin yuan tzen bakarra alaba. Ta gu(k) lagundu nai genion ta ezetz, ta belaxe torri zen kuartotik il tzela. Ta orduantxe an uzto zion eskua, ta ama sorgiñak, orrek pasat(u) zkion. Oi sorgiña da.




Sendabelarrak sutondoan idortzen.



Sorgina

(Arantza)

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Sendabelarrak idortzen



Bidasoa Beran

### Berari gertatua ◉

Emezortzi urte nittun nik. Ta gañera, egun señaltua, (ura), *veinticuatro de agosto* San... Santo Domingo? Bai, *el veinticuatro de agosto* zen ura. *El año... cuarenta y siete, cuarenta y ocho... cuarenta y siete*. Orduentxen ein zittun Goizutan ikaragarrizko inundaziuk, artu Leitzatik ta Ernanira bitarte, ikaagarrizko inundaziuk. Gero lanean asko aittu giñen gu an. Ta, gau orretan, egun orretan, pues, goiz guziyan beti trumoika ari zun... or... zea aldetik, *sur* aldetik, Goizuta aldetik ortikan beti trumoika ai zun. Ta emen beltz-beltz-beltz-beltza zagon. Ta emen azal...tze zun

atsaldeko bostak aldin ola uriya biño, uriya... *mantsalba*, ikaragarrizko erautsi(k) asi zittun. Bueno, yuan giñen errira ta gaba guztia erauntsia ari zten, da, espetu genun taberna batin ya atertzen ote zun ola, ta bai, ya gaban... uri(y)a atertu zun, da, ordun dena artu itte'mainen, ta gure itxerako bidia artu **artakan** tzen, ua gaintik artua, ta azpitik ee bai, bide eder bat, au bezalako... ta mentsun bide bat. Ola, da, bide ori ba(r)na baneyien da etzen aizerik, etzun ziarru bat beri muittuko, aizerik etzagón arraxtorikan ere. Ta, ni... nuaien bidi orren gañeko aldin, bi bat e... metrora do ola, artu artaka barna, ikaragarrizko aizia. Brrrababa! Artua bi aldetara dena muitzen tzulik. Mekauen! Kezka pute iña neien ta, itxin azpiko aldin, itxian ondo-ondun, urrak, adar batzuk, ta urran azpiyin belardi bat. Ta belardi orretan asto gris bat e(d)erra. "Au gure astua duk" – nik, guk ere astoa grisa genun- "Au gure astua duk". Ta ikusten nun nola betik gora nuaielikan, emendikan... bueno, oita amar metrora bezala ola. Urbildu nitzen bertaa, alletu nintzen, ta, yuan ta talkol atia, asten naiz talkol atia ta... tas! Astua desaparezittuta geldit ztien. Txaketa, soñen nuna, o... amabos metroan barrenin dena ura bezala busti nun izerdikin. Yo [indarrez] atia, ta, atea nun sarrailtik.

(...) Ni aiz persegittu izandu naiz e... gauez sorgiñakin, bat bizi zen bittarte, sekulan eztut erranen nor. Ura il tzen denboran, ya nere aluzinazionik eo... zeak yuan tziren.

(Arantza)

### GURE HITZAK

#### Artakan:

Artean.

#### Intxihuak:

Azti. Sorginaren ahalmenak dituen gizonezkoa. Bortzirietan ez da anitz aditzen solas hori.

Ink.: *Eta len erran duzun itxisu edo intxitxu edo oiek, nor tziren?*

**Intxitxuk?** Pues bai orik, sorgiñ orik.

**Iloba:** Sorginak...

(Lesaka)

### LAMINAK ◉

Nere amonan... ama, ta denbora aitan etzen... edaririk, etzen karreterik. Ta, ekartzen zuten anisa Goizutatik garrafon txiki, bueno... barrika txiki bat, gero baserrin paratu garrafon ttiki batin, na, ekartzen zuten erriko tiendara kontrabanduan. Orduan baziren siseruk erritan. Ta, gure amon' ori eldu zen elurra ta orma ta galtzada malda-

malda. Ta galtzada ori betti, irritxtaka, zes... zari ori artu **errestan** ta poliki-poliki, (ta), maldan. Bertzaldetik iuzkitten, unako neska eer batzuk illia orrazten, rubia-rubia-rubiak, urrezko bandeja, orrazik, orratzak... denak urrezkuk. Da, beira, beira. Ta be arrittuta, da "Ze neska ederra(k) dien!" da "Zeñen ongi ai dien orrazten!". Da, torri da, errira, ta entretu du bere anis pixar ori, ta, yuan da apezagana. Ta erran dio apezari:

- Badakizu gauz bat miraria... miragarriya kusi utela?

Ta:

- Bai? Ze ikusi uzu?

Ta:

- Kusi ttut lamik.

Ta:

- Lamik?

(Ta):

- Bai, Arruzpiko maldan lamik. Iguzkittan orrazten ari ziren. Rubia-rubiak ta neska ederrak, bandeja urrezko zuten, orrazik ere bai, da buruko pintzik ere bai, denak urrezkuk zittuzten.

Da:

- Ta ze erran dizue?

Ta:

- Ni(r)i eztiate dausik erran.

- A ez, e! Bueno, bueno. Nik arreglatuko ut asuntu ori.

- Bai? Nola?

Sartu da, eun batin, artu ittu kandel bedeiktua, librua eta... ur bedeikatua, bedeikatzeko, ta sartu da zulu artan ta orrek bazun ateira azpiz azpi goiko mendi kasko batera. Da, apez ori sartu da gabaz ek konjuratu bar ttula. Baziyuen, taka-taka-taka, ta bidin ate zaizko ta erran diote:

- Obe duk daramakizkiken errementuk daamazkiken, gañeakun ez itzan emendik ateako.

Apeza ikaatu ta andik atea ta ondoko eunin ill omen zen.



## GURE HITZAK

### Errestan:

Herrestan. Arrastaka.



Lamina Bertizaranako  
armarri batean

(Arantza)

Urrezko orraxiak nik emengo bateri aittukatu diot San Antonan bi... bi emakume eder [indarrez], buztan... buztan ederrakin ta ori z... arek bai siñesten zun, ori, ta, sorgintan. Bi emakume eder orraxtu ta orraxtu, urrezko orrekiñ ari zirela, ta yendia alletu zenian, txup! urrian sartu zirela.

**Ink.: Ta buztana zer zuten, arraiana?**

Bai.

(Bera)



Tximista erreka Etxalarren

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Berrotaran baseria

Lamik, guri kontat zuin amatzik:

- Bai, biziok, lamik badakik zer dien? Lamik ttuk erdiya zaldiya bezalkuk, ta bertze erdiya gizonan burukin zaldiyak.

**Ink.: Ze, gerritik bera...**

Bai, gerritik betti zaldiyak ta gerritik gora gizona, bono, persona.

- Ta bai, lamin zulua –kontat zuin amatzik- lame zulua or zatn duk Mastegin, Mastegi da olko arrobi bat. (...) lami zulu ori yuatin duk Berrotango sukaldeño.

Berrotaan da baserri bat (...). Eta, yuan... yuaten omen tziren ta lamik bazuten... ezuzten... ebasti libre zuten, ebatsi ta yaten zuten.

Eta, Berrotaran orretan, eitten tzun nomaitt oliuya (e)batsi, oliuya edan, e! oliuya. Eta andriak sumat zun oliyo faltan, klaro, oliuya razionatu zanen tzen ordun ere. Eta sumazen zun orrela.

Eta, biño bazuten lamik bi gauz: lamik berak miñ arzen balin bazun, barkatu zatn tzen. Biño bertzek itten bazion miñ eman, ya, fuera ziren, kastigua, illa do... desaparezizen tzien, segun. Eta yuan tzen eta Berrotaango sukaldin tak! agertzen, ta andri ura, Berrota(a)ngo andri ura ari zen zartagiña sun paatu, neskamin gañin, ta oliuya eltzii manitzeko do prestatzen, ta beitze:

- Ai urdie! Emen yaiz!

Ta dda! bota zion oliuya. Ta:

- Ai! ai! ai! ai! ai!

Ta ai! ai! ai! Ta sartu zen lamia zulun ta berriz tor zen onat, nomaitera, eta bertzek kus ztenin abarkittu zela o ka... o kaskali zela, ya kastigu zun ta en dio:

- Ez! Ez! Neonek in tziot nee bururi! Neaunek nee bururi!

Ta in zioten barkatu biziya.

(Lesaka)



Laminen urrezko  
ispilua eta orrazia

### Argatako laminak

Eta, nik eztakit, ura nola den bertze auzuau, pues gutti zetu nun, bakarrikan librua[k] padire, Prudentxi[k] badazki, an badakuzu auzokuk. Ni(k) beti adittua, pues, Argata[n] bazirela neska ederrak, ta beti yuaten tzirela, pues, gabaz ta orrela kanpora, ta, zera... biamona arte etzirela etortzen ta orrela. Eta benpin egun batin amak bial tzula zer eske, ur eske, suilla burun, suilla, lengo... katxarru orik burun, eta, andikan... -goizko amabi... amabik arte zela gaixtua, amabik... amabitian, ibiltzen

tzirela geina, e!- ta [irriz]... zetu zela, ur eske bial tzula, amak, ikusteko ya ze zetzen tzun, eta andikan puska baten burun suilla bota zutela tximenetikan, ta erran tzutela: "Argatako neska ederra guretzat ta suilla zuentzat", ta geigo etzela agertu neska.<sup>5\*</sup>

(Igantzi)

## Argatako laminak

Arto-xuritzia omen tzen Argatan, da, denbora etan etzen ardotik, ardu izanen tzen miño... emen gutti. Ta gaztaiñ errik yan ttuzte ta ura. Da, urik ere ez itxin, itturritik ekarri bar. Da, erran diote:

- Ño! Ura akautu ziou ola...

Ta:

- Nik ekarko ut.

- Ez.

Obe zela e[z] xoan. Ta:

- Bai, bai. Apostu eingo dizut ekarko utela unenbertze enboran burun, tturritik ura.

Artu du subilla, buruko... eo... zera ori, katxarru ori, ta yuan da neska ura eske, da, bota diote subilla ura tximenetik betti, ra! da erran diote... ta neska orren buruk' illik denak, erran dio (ta) tximinitikan: Argatko... ez, "Subilla ta neska onen illik zuentzako ta Argatko itxeko alaba eerra guetzako". Ta geigo etzen agertu, desagertuta geldittu zen. Segun.

(Arantza)



Lamina Bertizaranako  
armarri batean

## Argatako laminak ◉

... illunduta ezela emi... ezpen tzen ibilli bar zatten. Ek geldizen ziela ang... zenzenekin (?). Ez, etzela ibilli bar beñ ere illunduta, ge... neska ura... illunduta yuan, ur eske, subillan a... subilla[k] zaten tzien... subilla ta buruttia (...). Ta kao, neska ieurek geldittu ta... yon men zien ta man tzioten zetiken...

**Biloba:** Tximenetik.

Tximeneti[k] petti subilla. Da ean zonen:

"Gaba gabazko,

Eguna egunazko,

Gaba gabazko

Ta Argatako alaba guretza...

Guretzat ta subilla Argatakuntzat".

(Igantzi)



Berako bidea

## Laminek Argatagaraiako neska eraman

Ortsegun Santu egunin, yende gaxtua, gaxtuk ibilzen die libre, Jangoiku preso baita, preso artua do illa o zatn da, ortzegunin bakizu preso artu zutela. Eta, ordun gaxtuk libre. Joder! Jangoikua ba(aki)zu, nagusia falta zanez kero arratoiek besta, ez? Ta ai zien orretan. Ta ai zien nomaitt iris... zerago Argataraiko neska oiek ta mutillak eta billeran, ta:

- Ni! Ni(k) benpin eztit siñesten ori!

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Endarlatsako bidea

Ta:

- Oi gezurra!

Ta eztakit zer, ta, in tzun apostu:

- Baiez yuan ta subill bat ura ekarri nik, errek... zeatikan.

Balientia neska. Ezez ta baiez ta, neskak subilla artu, ta baduie errekarra, itturrira.

**Ink.: Gabaz...**

Gaba, arratseko amabitian. Amabitian zuten. Gaba[z] xuan ta, nonbatt, bidin, gaxtu oitakon batek artu ta eaman zanen du, subilla kendu o ze in baitio re! Eta, neska ez elduki. Ta:

- Aiba!

Ta:

- Eztun eldu.

Ta:

- Eztuk.

Ta:

- Eztuk.

Ta:

- Eztuk.

Ta alko batin, tximenitik kal! kal! kan! soñua laatza betti, subilla. Ta tximenin gaintikan solasa:

- Egunaz egunazkuntzat, gaba gabazkuntzat! Orra su... Argatarako subilla! –ura bota baitzion- ta Argatarako neskatxa guretzat!

Ta etzutenean geiao ikusi.

(Lesaka)



Lamina Bertizaranako  
armarri batean

### Berako laminak txiki-txikiak ziren

**Ink.: Frantzisko, ta emen baziren lamiak?**

Leno omen tzien, lenogo omen tzien. Bai ta trastadak eitten omen xuxten. Ta orren ttiki... ba, gezurrak zanen die oie[k]... ezta posible... kao.

**Ink.: Bueno, biño ze uste zuten?**

E? Or lamiak or dila, Lamisnia do ortan, xulo ba[t] pazela, ortik ateitzen tzien trastadak eittera, lapurkerira. Yan bar tzuten... ta gero kondentu men xuxten eztakit zenbat urteko, kon... zilu(a) zerratu omen tzioten ta kondentu. Ta Zuamurdin agertu men tzien. Or...

**Ink.: Zulo orretatik?**

Bai, or omen te, zera, pasua barrenaz barren Zuamurdira.

**Ink.: Eta nolakoak ziren lamiak?**

Pues gizonen formakuk bera-bera, beso bat audi. Ori errateunte, eztakitt. Nik eztut ikusi, e!

**Ink.: Ola, ttiki-ttiki-ttiki-ttikiak.**

Ttiki-ttikiyak bai, biño pilleka men tzien, pilleka [indarrez]. Ta trastadak itxera

yuanta ta... lapurkeriya (...).

**Ink.:** *Ta lamiak baziren gizonak eta emakumeak, edo...?*

Seguro, bearko...

**Ink.:** *Karo... bertzenaz...*

Bertzenaz akautuko zen, emakumia bakarra baldin bazeen *jno... no funtziona!*

(Bera)

## Lamina zuloak

Gero emen badire lami zuluk, or Antongordara guzilikan.

**Lag:** A bai?

Ta erratten tzuten, bai, Itturmordatikan aratxio pixko at, ola, bi zulo badire.

**Lag:** A, ez nekin...

bi zulo audi, bai. Ta beti guri amak erratten tziun:

- Aur(rak)... -guk an belar sorua izatten genun aratio, ta, ama[k] peti erratten tziun- aurruk zoazte zerin, or lami zulutan arata ez benpin arrimtu ola!

Eta, lenogo bakizu, siñesten tzen oain miño geigo, eta zera, eta, erratten tzuten ikaragarri neska ederrak ateitzen tzirela lami zulutikan iduzkitara eta orraxe urrezkukin, urrezkukin orraxten tzirela. (...)

**Ink.:** *Eta lamiak ta sorgiñak ez dire gauza bera?*

Ez.

**Ink.:** *Eta ze differentzia dago? Eske iñork eztigu erraten.*

**Ink.:** *Kontatu ori ongi...*

Pues ori, lamik orik, ori zetzen tzutela, lami zulutara, gero...

**Ink.:** *A, lamiak ederrak ziren... A...*

Bai, neska ederrak ateitzen tzirela, ta orraxe (i) kusten tzittuzzela lengo xarrak, orrase urrezkukin nola orraxten tziren ta neska guapak ille luze-luzikin ta ateitzen tzirela, ta gero arat sartzen tzirela, berriz.


**Ink.:** *Eta ze itten tzuten lamiak, yendea arrapatu?*

Ez, ez, ek eben biziya nonbatt ere barrenin in... an eiñen tzuten, dudik [g]abe! Iduzkitara ta ateitzen tzirela, bai, or lami zuluk...

**Lag:** *Eta sorgiñak ze differentzia dute ba ordun?*

Pues so...orgiñak, eztakit, erratten tzutenez benpin, bertze gauza. Badute poderi bat, guk eztuguna, e! Ta igual biurtzen dire... zakurraz, ta igual mandua torko zaizu antzink'aldera, o katua...

(Igantzi)



Lamina Bertizaranako  
armari batean



Lesaka

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Mañula Igantzi - Lesaka

### Lamina tximiniatik beheiti

Pues ori, ge... person bat arizn zen arrastan, ya bertzik denak guatzera yuatin tzerenin ori itten, txapiñ ariya, txapiñak ittko, ordun zapiña[k] nola itn tzeren, orrekin, esto... (er...dere...) ardiyan...

**Lag.:** Illikin.

Ardiya, bai. Ardiyan kentz... mozten deren orrekin itn tzen illi... illia, bueno, orrekin, itn tzuten zapiñ ariya erratn zen. Ta ura itten arizen zen, ta, tor z... torzen zion beti esto...: "Zu... karri..." ori, gero arek idu... itn tzuten baratxui zopa, gero ura artu ta guatzea yuatko, ta:

- Karri baratxui zopa! Karri baratxui zopa!

Torzen zaion beti arratsko amabitau bat, lamia. Ta orrek baratxui zopa. Ta baratxui zopa matn tzion fregadera azpitik baratxui zopa. Ta, klaro, ya aspertua ori, andri ori, izitzen, aldiro ori itten, ta:

- A bai! Gaur geldittko naz ni!

Ta, gizona geldittu, arratsin, ta, sartu... tor tzaio lamia, ta:

- A! Zu ez piriri-piriri! –orreka fiña itten baitzun– Zu pordok-pordok! –orreka zakar eitten– Zu pordok-pordok!

Ta, ori, (i)xillik ta:

- Karri baratxui zopa! Karri baratxui zopa!

Ta:

- Bai. Bai, baratxui zopa!

Artu, eltze ura, ta bra! Ta... ez [nahastu da]:

- Zu nor?

Ta, nola zen ori?...

- Ni, neork nere b(u)ru! –kontest zion arek– Ni neork nere b(u)ru!

Ta, gero:

- Karri baratxui zopa!

Ta, yoatn da ta artzen du ori ta ra! bota ta, erre, ta:

- Ai! Ai, ai! Ai, ai! –ta ola-.

- Zer? –bertzik– Zer? –galdezen tzion.

Ta :

- Ai, ai, ai!

Ta:

- Nork egin? Nork egin?

- Neork nere b(u)ru! Niork nere b(u)ru! [irriz]

Klaro, neork bere b(u)ru errana baitzun, erria, ta nork nere buru. Ta arek iña [irriz].

**Ink.:** *Ori amatxik kontatua? zure amatxik?*

Ori gure amatxik kontazen tzun, bai...

(Arantza)

San Anton ermita Lesakan



## Portulan laminekin pasatutakoa ☀

Lamixeneko erreka emen dugu, emendi[k] betti beila erreka, ta oain naiz izena mudatu omen diote, bai, oain or ya parazen diote Zia, Zia erreka, dena, eztaki[t] zengatikan. La... lamik omen tziren or, ta Portula da or baserriya, lemizikoa, eta, an, eun bat amaj... ama... amagerruri erran omen tzio(n) erregiñak:

- Ama, iduintzen tzait aur au trukatu di(g)utela.

- Bai! olkoik...

Ta:

- Bai, bai, au... au ezta, ezta gure umia.

Ta:

- Bai, ori ai... aise ikusko iñagun.

Iruleun arraultze paratu su onduan, eta, lamia zaki ura ta, seaskati[k] burua altxatu

ta:

- Battut irueun urte ta eztut beñ e orremertze eltze txiki (i)kusi su onduan –erran omen zuen.

Ta orduan bertzik orrekin, ezpelakin yoka ilko zutela ta bueno, ez, ez, barkatzeko ta aurra ekarri... aurra ekarri ta *paz* [euskarahoskera] y *bien*. Kue... kuentua da ori.

**Ink.: Eta lamiak nolakoak ziren?**

Eztakit, ttikiyak ta... ola omen tziren.

(Bera)



Bera

## Urrezko ezpata ☀

Emakume bat, lami oitakua pues... familia izaten asi da ta, partun, ta, emakume bat bazen komadrona itn tzuna, ordun komadrona ezke... eozein emakume ziren, *las más atrevidas* erratn den bezala. Da, “Ya! Unelako emakume komadrona ibiltzen dan or ta yua’mar diuk, ya ateintzen diun guri”.

Lami ori, o sorgiñ ori(k) yuan dire, erran diote ta, bai, bai, yuanen dela seittuan. Da, bueno, manen diotela... rekompentsa ona. Manen diotela rekompentsa aitz ona. “Bale”. Yuan du (sic), umi ori artu du, garbittu, moldatu, beztittu, ta, yarri dio ta, itxera abitu dire, eman diote ezpata urrezko bat, e(d)erra.

- Bera, zuk e... ez beitu atzera, atzera beitzen bazu erdiya kenduko izugu.

Baziuyen ta bertzik krixton musikakin atz(e)tik ta... alegrí ikaragarri, konpaintzen. (Ta), atin anka bat sartu du ta, atin anka bat sartu un denboran bertzi kanpon tori, tak! begitu du gibelat ta tak! kendu diote ezpatan erdiya.

(Arantza)



Suila

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Tupikia

**GURE HITZAK**

**Liñazi:** Linazi.  
Lihoaaren hazia.



Berako erraldoiak

Emen bai, emen beko... baserri batin, be-be-beko baserri batin, ori... emakume bat aitzen omen tzen gabaz galtzerdi itten, ardian illikin do ola ta afaria, gizona (sic) got tzaion ta afari(a) ondun atetzen omen tzio gizona ta, geo sartzen men tzien tellatutikan, tximeni betti lamik. Lamia erraten tziona leno... nomatt e olko zien, Bajanabarrakuk do okuk zien ek, bitxu ek. Ta, andri orrek erran men tzion:

- Bai, niri... sartzen tzait tximeni betti zera bat, bitxo bat, ta afari yatn dit.

Ta:

- A, bai? Bueno, bueno, gaur ni yan... zure arropakin yarriko naiz emen, ta zu segi guatzera.

Ta, gizona andrin arropakin yarri omen zen ta, *arma secreta* men zun, ondun: zartagi bat oliyo irakitten. Ta, zimeni betti lami berriz etorri ta seiun guardu. Ori... olako makill bat eskutan ibiltzen te... emakumik... soñu fiña ittin, pirri-pirri-pirri. Ta erran men zun:

- Hum! Atzo pirri-pirri ta gaur parra-parra? Men ze pasazen da? –lamik-

Ta, eskapo asi zelik titzen men dio oliyuat atz(e)tikan ta lami(k) garraxika:

- Neurrek nere buru! Neorrekk nere buru!

(Arantza)

### Laminak konjuratu zitzuten •

Lami ek mendira, e... Ternidara biali omen zittuzten, konjuatu omen zittuzten, errugu bat, **liñazi**, liña... liñun azia xe-xe-xia baita, arrizayia bezala- ta errugu bat pues e... oeita lau bat kilo do ola. Ba erruguko kaja –leno errugua, erru'rdiya, laka... gaitzurua ta laka ziren medidak. Oain kiluak ta... gramuak dien bezala-. Da, apez batek artu ittu e... arrugua ta... liñaz... liño azi, ta, bedenkazio man dio, ta kondenatu ittu Ternidako mendira, an pikorrak ainbat urteko. Oain zemat izango ziren! Ta geroztik ez men dire agertu.

(Arantza)

### ERRALDOIA •

Bai, jigantia omen tzen bat ta zango bat Talun gañian eta bertzia Aikerdin pa(r)atu ta, Berako fabrikako presan ura edaten omen tzuen.

**Ink.: Bidasoatik.**

Bidasoatikan. Eta, beratarrakiñ ola zerbait asertzen tzenian, uraz artutzen omen tzuen ta denbora ederra [indarrez] zuelikan brrrra! botatzen omen tzion dena, geo, lan guziyak ta dena(k) busti, belar ta gañerakoak.

(Bera)

## SATANKUMEAK

Pues oi...gu... gu ttikiyak giñelikan, gu engaintz(e)ko... muñekak zertako die? Pues gu en... engaintzeko, ez? Nexkak engaintzeko muñeka, ta mutikuntzat... eztakitt, makillak edo... bon... trastikeiyak. Ta ori, satankumiona ori... ori bai, ori in tzuen osabak, in tzuen. Oaiñ erran dena muñeka ttikiy'ori, muñeka forma du, pues... ttiki-ttikiya dena, serrinikin ta trapukin dena iña, ta...

**Ink.: Ta nola zituen begi gorriak...?**

Begi gorriyak pa(a)tuak... tela puxka ttiki batzukiñ an, zuazi ze, puntu'mat emanen tzioten orratzakin.

**Ink.: Ori begiyak ta zapatak.**

Ta zapatak ere bai gorriyak, eta gero kanpanilla ttiki batzuk paatu baj... (...) bakarrik ttikiyak, gaus ttikiyak xuxten paatuak. Ta klin! klin! klin! ette'maitzuen, ta gero ura laazti(k) tzi...tzillika paatzen tzenin kuerda at zera arekin, ttiki bat... pura...

**Ink.: Ari beltz batekin, ez?**

E?

**Ink.: Ari beltz batekin?**

Ari beltzakin, klaro. Laratza beltza, ta beltzin beltxa, ari beltxa ezpaita ageri. Ta gero argiya, ura an, suan, ta bertzia kuerdikiñ or sillin yarrita, ta petrolio emen berriz...

**Ink.: Ez zitzaison tranpa ikusten zure osabari...**

Karo, ezpaitzen trampi(k) kusten, ta gu engaintzen baigiñen ta, bertzikin til-til ibiltzen xtutu emendikan...



Etxalarko erraldoiak

**Ink.: Biño nola abixatzen zizuen at... agertuko zela santankumea? Bapatean?**

**Sua[k] egon bear zuen piztua edo ez?**

Ez, ez, ez sua dena garbi-garbi iña zen, ura... ura dena zen... bagenekegin, anuntziatzen tziuten, erraten tziuten, bai, igual zortzi egun leno(g)o:

- Ai! Satankumia torri barra da!

Ta:

- Noiz torri barra da?

Ta:

- Bai, biar do etzi do laumtin o igandin on... bai, torko da, seguro torko dela.

- Ta noiz?

Ta:


- Igandian.

Ta:

- Bueno, bueno...

Igandian ementxe yarri ta prestatzen tzuten, gu itxian ez giñeliken paatzen men tzuten an... goian. Burne bat zatn tzen, ortara, trabesaño laatza paatzeko, laatza tzintzilli(k) kontzeko burne bat. Artan paratzen zuten, ta:

- Bai, satankumia torko duk. Ta erne ementxe.



Lurreko sua

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Onddoz betetako saskia

Ta gu, danak mentxe kuxkurtuak, aurruk, ta bertzik tranposuak... andikan ariya pixko muitt... pla! beitti tortzen tzen, ta betti tor... tor... yartzen xa(b)al-txa(b)al lurrian, ta:

- Ara! Miña artu zanen du, miña artu zanen du. Espetu, espetu pixkot, miña artu zanen du.

Ta, bertzia an xoku artan bee ariya eskutan... ta gero instanteko, aka... ariya pixkot mugitzuz kero, ura bolon mugitzen baitzen, pixkot geixo ta, xutik yartzen tzenian din! din! glin! glin! glin! eskukin titu ta bertziek e, pa! kao, denak suelto xuen, ankaak ta besuk ta denak... Ta batin ola, ta bertzin anka ola, ta alde guzitara, ta ariya austen tzenian, ari ze... ariya gastatzen baitzen, laratzan burnin kontra, ta, nola gastatzen tzen denborian pl... pla! yuaten baitzen lurrera, lurrera yuan zenin bertzia argiya tap! itzali, aize man argiyari, ta argia itzali geldinn tzen ta bertzik satankumia artu ta gordeko zun ta akabo.

**Ink.: Ta zuek iztiten ziñeten?**

Bai, iztiten giñen.

**Ink.: Zer esaten zuten? Zer egiten zuen Satankume orrek?**

E... ori tortn tzela eztakit nondik, tortn tzela, ola itxi bisita tzela ta...

**Ink.: Gaixtuak ziñetelako?**

Ez, ez, e... gu yostetan aitzeko espres eitten zten ori, satankume famoso bat tzuen bai... buu! Ze ezpaitzen bertze itxetan ezpaitzen, ta emen... ta gero aurrek elkarrekin amertze yartzen giñen, igual iru itxetako aurruk biltzen giñen emen... ta satankumia izan du(u) ta bertze aurrek ezpaitzekitten zer tzen.

(Bera)



Azeria

### ANIMISMOA

#### Lehen animaliek, landareek... solas egin ☺

Denak solasten omen tzire(n). Ori, "Ez, orrek yan... Ez, ez ni yan, ez, yantzu... yantzu ori", bat bertziri ola aritzen tzirela. Ta goroldiua zela solasik eitten etzuena, lurrin beti zanpatu(a) zelakotz. Biñon, igan tzela ariz gañerat, ta erran tziola, a... andik oui in tzuela:

- Ni naiz nor nere buru.

Ariz gaintikan... aritz gainko... goroldiuk oui inkatu zuela.

Beti zangapian ibiltzen zittuztela ta ek etzutela deustako deretxorikan. Ta ura, ariz gaintikan arek oui inkatu zuela.

(Bera)

**Ink.: Eta, le(e)n, animaliek itz egiten zuten?**

Orrela erraten (u)te, alimaliyek denak itz ien tzutela, goroldiuk bakarrak ez. Ta gero, goroldiori e... erakusten asi ziren denboran izketan, denai aztu zaiola.

(Arantza)

## Azeri maliziontzia

Axeriak nomaitikan irri egin nai ziola otsuari, eta... pentsatu zuen: "Egin bear dut, orrako putzu artan egin ber dut zubi bat, eta erran ber diot etortzeko, eta nonbaitikan irri egin ber diot nik otsu orrerri".

Ta zubi bat egin tzuen arbazta batzukin ta nolpaitt ere egin, ta, gero, loiakin pixko at tapatu, eta gañin paratu zittun lore batzuk ta, ura engaitzeko. Ta konbitu zuen, etortzeko. Ta otsua etorri zen, ta erran tzion:

- Bira, bira, orrako Zubiy'ori zuretzat egin dut, zu pasatzeko.

Eta bertzia kontent eta:

- Bai, bai, pasatuko naiz, pasatuko.

Ta:

- Pasaxtte, pasaxtte.

Ta, axeriak salto in tzun alde bat(e)tik berte, biyon ura, zubi(y)a barna pasatuarazi. Erditxko parerat allelu zenian, bra! putzorat, otsua. Eta gero busti-bustiya eskiñerat, ar! Ji, ji, ji bertzia, bertzia, ajariz exkintikan, eta, atei zenian:

- Oi! Ezta, ezta daus e, iguzkittan pasatuko zaitzu, idortuko zara, idortuko zara.

Eta iguzkittarat eraman tzuela, eta otsuak oiu itten tzuela:

- Lenago otzak ta orain beruak!

(...) Eta, idortu zenian, antxen etzela nai orduko bere xulora yoanketu.

(Bera)



Mendian astoarekin

## Arotza eta lehoia

Leoiak beldurra arotxai omen tzion, bai. Nik aittua izatn dut, leoi panparroi bat men tzabilen erriz erri, panparrokeitan, ta nozpatt e tor tzen aotx onengana. Ta arotxak (sic), tenazakin ai zen sun, kao, tenaza sukin ibiltzen zu, berua zu tenaza, ta ajitze sudurtik artu leoari. Leoiak etzun arrautu, krixton beldurra zion andik aitzina arotxari.

(Lesaka)



Astoa

## Asto zaharra eta otsoa ☀

Asto zar audi bat bazela bere batian, eta berien gosik zagola, ta pentsatu zuen: "Lokarriyau xetu ta yuan bar dut larrerat". Ta lokarriya ortz audiyekein xetu ta yuan tzen larrera. Eta, larrian, yaten ari zelikan, ikusi zuen gainko aldin bazela ermita ttiki bat. Ta pentsatu zuen: "Yuan bar dit arat". Ta yuan tzen. Ta an arrautu zuen belar frekkuia ta agitz ongi zagon, ta agert tzi(z)aison otsua. (...) Bada, otsuak, ikusi zuenin astua, pentsatu zuen: "Oi! Badit gaurko nere txitxiya aski ona", ta, erran tzion:

- Agur, agur, astoko.

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Marcelino Etxeberria - Igantzi



Berdabio.  
Xabier Harregi Agirrezabala eta  
Juanito Iñarra Agirrezabala  
(*Giartzuarren baitan*)

### GURE HITZAK

#### **Biarri:**

Beharri. Belarri.

**Frinkatu:** Hanka  
lurrean paratu.

**Pullanka:** Ostiko.

Ta astuak kontestu zion:

- Ongi etorri, otsoko.

Ta (...) otsuk erran tzion:

- Gaurko nere afari,

ire buru ta **biarri**.

Ta astua izitzen asi zen ta erran tzion:

- Ez, ez, otsoko.

An gottian artalde,

artzayik ez ditek batere.

Maldi joaten baziñeke,

zikiro paria zenduke.

Ta, otsuk pentsatu zuen: "Onek... onek eskapo in nai dik, ta ez, ez". Ta orduan erran tzion otsuak:

- Oñan diat arantze,

ezin **frinkatu** bezalaxe.

Ta orduan astuk erran tzion, eskapu egin nai zuen nonbaitikan, ta erran tzion:

- An gottiyan ermita

mez(a) entzun biar di(t) ta.

Eta otsu(a) bertze alderdi(ra) begira zagolikan, trakatun-trakatun yuan tzen, eskautu zen, ta atia **pullanka** batekin itxi ta barrenin geldittu zen. Ta orduan astu... otsua, kerriski-karraska, pentsatu zuen: "Ara nere afari(y)a, gaurko, akabo. Ta ze in bear dut?", ta, orduan, otsuak kantatu zion:

- Asto zarra, mukizu

sobera malizi dakizu,

berriz erreka aldian

arrautzen bazattut,

meza entzuteko lanik

izanen eztuzu.

(Bera)

### Bi lagun eta hartzia

Bi lagun ais launak zien, ta bazian urte mordo bat etzutela elkar ikusi. Ta numai e mendiyin, artzak zanen ziren nonbait mendi artan, ta arautze ute, ta:

- Koño! Zer diok, aspaldiko?

Ta ikaragarrizko [indarrez] besarkak eman zten elkarreri. Eta, elkarri eman ta alko derrepente [indarrez] batek, emat dio lasterrari ta altxez(n) da arbol baten gañera. Ta bertzia arrittua: "Aiba, au ze in da, erotu?!". Ta ezpaizun... biela etzu beitu, atzera. Ta atzera beitzu ikustu u artza bat ya... ya urbildua. Batek kus zun artza, bertzik ez. Ta ze itn du? Artzak ezpen du yaten ba... nik kusi ttut telebisiun, bai, yaten, biño igual da. Artzak erra... bada errana *de cadáveres no se alimenta* errana den bezala, artza. In tzun orrek bee burua lur(e)a bota zun illana, in tzun illana. Ta artzak usaika-usaika ibilli zun ta etzuen asnasten bertzeik, zurrin. Ta errat du: "Bue! Au nere amona biño illogu ziok!", ta arzak martxa. Ta berriz e arboltik yautsi zen, ra! Eta:

- Koño! –berriz e lengo zera, badaizu- Joe!

Eta:

- Aizak, aizak, artzak iri zerbatt e erran dik!

Kao, belarrin ondun barna usaika ibilli baitzun ba, bertzik uste zun artza solas in aittu(u) ziola areri belarrin ondoa(n) zerbaitt erranez.

- Iri artzak zerbatt e erran dik! Ze erran dik?

Ta:

- Bai, biziok, bi solas ein zkiok –batek bertzi(i).

Ta:

- Ze solas ttuk oiek? –bestik galdet tzion.

Ta:

- Peligrun arkitzen yaizenin, alde inzak peligrun... utzitzen auten laguntikan.



Lesakako ikuspegia

(Lesaka)

## BERTZELAKO ISTORIOAK (IPUINAK)

### Berdabioko diru egilea

Arek egunian itn tzittun amar soskua, xuloduna, erret... *esto...* zillarra (...). Eitn tzun erreal bat e... gauian. Biño, denbora etako dirua zen. Ta, arrapatu zuten. Ta nai zuten jakin non eiten tzun, diru ori. Min' ori nun tzaon. Da, orduan ezin tzuten detektatu, etzen aparaturik. Ta, artu ute ta sartu ute kartzelan, da, deklaatzeko ya non den min' ori, ta, arek emanen diola direkzione bat: "Berdabioko ollarran kukurrukua arizen tzela... adizena zela arek diru ori eitn tzun tokiyin...tik". Ta artan akautu zen ta gizon ori il zen ta iñork eztu ikasi non.

(Arantza)

### Ezkilak

"Tan-tan! Tan-tan! Tan-tan!" batek aitzn a (sic), ta bertziak "Trin-trin! Trin-trin! Trin-trin!". Ta, eitten omen tzuen: "Zerri(y)a landan! Zerri(y)a landan! Zerri(y)a landan!", ta bertzik: "Ateri! Ateri! Ateri!".

(Bera)

### Patxiku ilargian

Patxiku? Amak biali zuela... biali zuela otatx zama eske. Erran tziola:

- Patxiku, uaie ta ekarrak otas zama bat, biar diguk ta.

Ta, gan tzela arrasalian, ta, bere otas zamakin, ta pres-pres paratu eta... yostetan asi zela. Ta yostetan asi zenian illundu zitzaiola. Ta gero ezin giatu itxerat, e[z] xakinki ze in. Ta asi zela oiuka (...):

- Argizak illargia! Argizak illargia!



Ilargia

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Mari Paz Trantxe eta  
Antonio Lizardi - Igantzi

### GURE HITZAK

#### **Porrakatua:**

Porrokatu. Amorratua,  
sutsua.

#### **Plantatu:** Jarri.

**Geriztuko:** Gerizatutu.  
Ezkutatu, gorde.

#### **Mandaluan:**

Manda loan. Lotan.



Berako inguruak

Ta illargik kasoik ere ez egitten. Ta arek fuertego:

- Argizak illagia! Argizak illagia!

Ta ondarrin erran tziola:

- Kaka dela illagia!

Ta illargiak artu, bere otas zamakin ta eraman tzuela. Ta orduz keoztik antxen dagola.

Ta guri erratten ziguten: "Bira, bira Patxiku non den". Ta guk ikusten genuen, e!

(Bera)

### Patziku eta Pello

Patziku ta Pello. Bat langille **porrakatua** ta bertzia alfer mortala. Bat nondik eskapo itten tzuen ta bertzia beti lanian. Ta erran tzion Patxiku... Patxi... Patxikuk erran tzion noski Pelloi:

- Yua'mar diguk egurra egitterat, egurrik eztigu ta yua'mar duk egur billa.

Ta:

- Bai, bai, gaur gero arata...

Ta, arrasilian **plantatu** zirela egur egitterat. Eta, Patxiku yo ta kia segidun asi zela lanian, ta bertzia nondikan **geriztuko** zen. Geriztu ta iguzkittan **mandaluan** an egondu zela. Eta Patxiku(k), illunabarrin lanian ler in ondotikan erran tzion:

- Yuan bar diuk etxera.

Ta:

- Bai, bai.

Plantatu zela etxera(t) yuateko. Ta itxerat etorri zenian su ondun yarri, ta, Patxiku ler egiña, alkiyan su ondun zagolikan, plinp! eroi zela. Ta ze pasatuko ote zizaion ta il zela. Eta bertzia, orduan apuratura, e[z] xakinki ze (e)giñ, etzakiela yo eskin batera, yo bertzerat, yoan tzela auzoko izeba baten itxerat, ta, erran tziola:

- Bizo, auxen pasatzen da...

Ta, nolpaitt e moldat zutela. Ta entierrua ta gauzak in zittoztela, eta, gero denbora pasatu ta paseita, egurra falta, ta egurra egin biar. Eta, yuan tzela ta erramientaik ez arrautzen, erramientak falta, Patxikuk nonbaitt e utziyak. Ta gogot tzitzaiola ortako... erni izanen tzen, gogot tzitzaiola auzu mua... auzuan betti ortan bada atton xar bat, ura segur aski agudo ilko da ta yuan bar dut. Ta yuan tzela, eta arri eskaltan arrautu zuela iguzkittan tzagola. Ta bertze agurrikan daus ere in gabe erran tziola:

- Zu, ni miño leno(go) ilko zara, etzara ilko, miño iltzen bazera, etzara Paradisura yuanen, miño yuaten bazera, eztuzu nere anaia ikusko bion ikusten baduzu, galdeziozu portzikaso non den aizkora ttikiya.

Ta, bere anaia zerutikan ura aditzen, ta kontestu ziola "Or, bi againen tartian, ote erdixka baten gañian, ortxen dagola."

Ara, bere... apurotik ateri zuen.

(Bera)

## Aranburuko gaztelua

Ta, Aranburuko gaztelua, oraiñ ere ortxen da, gaztelua!

### Ink.: Non da?

Emen, Sarako bidi ortan, Sarako sarrera ortan, ortxen da gaztelo koxkor bat. Ta, an izatten tzela, jaunxo bat, audi-mandiya, bere burua agitz audiya itten tzuena, eta, zartu ta ezin mugitu, ortikan. Ta seme bat bazuela, primua, lemiz(i)ko... lemizko semikiri Frantzian primo erraten diote emen, primua erratten diote. Eta, erran tziola:

- Yua'mear duk Donostia alderat, ta ikusi ya ze pasatzen den, ni ez niok gauza ta, ya ze pasatzen den.

Eta, bai, gizona plantatu zela, eta, gan tzela Larungo maldarretan barna, oñez, yuan biar, eguzkiya, ta Larungo maldan itxe bat bakarra ikusi zula, Kaulebattea. Gero, Endaltsako errekan berriz (...) Iltxaurta, Iltxaurrea, an arrautu zuela bertzia. Ta yuan tzela Donostirat ta an egun batzuk pasat(u) zittuela, eta agitz ongi pasatu zu(e)la, penatuta bueltan tzaillelika, eldu zelaikan berriz toki berian barna. Eta berriz zu... olko... Endaltsako zubi(y)an barna, berriz Kaulen auzu orretan barna yuan tzela, itxerat alletu zela. Ta erran tziola:

- Atta, izandu naiz Donostiyane.

Ta:

- Ze ikusi duk bada?

Ura... ura deseitan yikitteko ze... ikusi zuen. Eta, oi, nola itsasoa ikusi zuen ta itxe audi batzuk ere ikusi zittuela, eta nola bidian ikusi zuen Endaltsako errekan itxe bat, eta bertzia Larungo maldan. Bi itxe orik ikusi zittuela. Ta attak erran tziola:

- Urbillexko ongi bizitzeko.



Idi parearekin

(Bera)

## ANIMAK ◉

Sunbillan, sunbilko Ibarburun, ola itxetikan gotti otia omen tzen aerra, ote audiya, ta, gauetan etortzen omen tzen difuntu kaja bat gañin arri ori-ori batekin. Ta an gelditzen omen tzen, ta, itxekuk ikaatuk beti, ze pasten ote zen, o zengatik ote zen ta ola, ta, nozgatt e kontsultatu dire apezakin, ta, erran diote apezari pues nola torzen den difuntu kaja bat, bee difuntukin, argi ori bat gañin dulik, ta, ze itten al luteken. Ta, oi, yuan ta berakin itz itteko. Bueno, nozbait ee atrebittu dire yuertia ta galduet diote oi, ya ze dabillen o ze nai luken ola, ta, mez' bat ateratzeko ta eztela geio torriko. Ta, mez' bat ate men tzioten ta akabo, ez men tzen geigo agertu.



Iratze metak

(Arantza)

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra

### ILARGIAREN ERAGINA ◉



Mendian arbolak botatzen

Bueno, pues illargiaren eragiña ori da, z... illargi zarrakin e... er... egurra bota, egurrantzat aitz ona da; baita re belarrantzat, meta iteko. Meta aundiya(k) kanpun iten tzielik, e! Goiko, eztakit, eztut e... eztugu kasoik iñ, eta bertze pro... produktuak i'mar duenak baratzian (...). Bai, berian egin bear duenak frutua, berin in bar duna(k) frutua biar do illargi zarrian, berian: zanaoria, patata... patata re gu(k) guaiñ ere ala ereiten dugu, illargi zarrin, e! Espetuko dugu egun batzuk, biño illargi zarrin. Frutua berin in bar duna(k), tipula re bai. Ta leka berriz goirin, leka berdia, bainak edo illarrak, ura illargi berriyan obia. Porke gañin in bar dulkoz gaña, gauza. Ori erraiten te, ta uaiñ ere ai die raiotik erraiten, oseake bada, zerbait bada.

(Etxalar)

### GURE HITZAK

#### Xort egunak:

Urtean zehar egin behar zuen eguraldia, igartzeko egunak dira, hain zuzen, abuztuko lehen hamabi egunak.

Konpazio batera, gauza bat, belarra pillatzeko berapena, illargi bera; iratzia itteko gorapena, bueno, fede aundiya du yendi(a)k, e! fede aundia du yendik, e! fede aundi du yendiak! Eta, etxian zerriya iltzoko berapena zatten zen, itxian zerri iltzoko berapena zatten tzen, ta ola bazien. E konpazio batera a... arbol bat botatzeko, materialtako, aritza botatzeko berapena da; osto oskatua erratteunte, ta osto aundiya duena, onako gaztain ta ok izanen dire aldrebes ez, ok uste ut e... e arkazia ta ok gorapena, gorapena. Aritza ta gaztain ta ok dire berapenakin –erratten zten zarrak-, ta arkazia ta ok gorapenakin, osto biribilla, osto biribilla deizen tzaio.

(Bera)

### EGURALDIA IGARTZEKO MODUAK

#### Xort egunak ◉

Xort egunak itn dire agostotik asizn dire, eta, aostotikan kontazen dire amabi illaute, aostotik antziñera. Aosto kontazn da... aostok beria, lemizko eguna beria. Ta gero andik aintziñera ya ze egulde eitn diren. Ta ordun... ordun zeiñ egulde atezen den, ondoko illautietan ala seizn du, ondoko illautitan ala seizn du.

*Ink.: Eta emen yende aunitzek bau fedia ortan do...?*

Fedia aitz aundiya, batzuk baute aitz aundiya fedia. Bakarrikan, beitu bar da segun itsasoa[k] ze yozn dun, edo ez ie... aizeguk yozn dun, edo orrela... orreria beiz(e)n diote aunitzek aizik ya zeiñ aldetikan yozn dun.

Axtelentan... axtelentan uriya itteten baldi'madu, axte guziko uriye. "Axteneko uriya, axte guziko uriya".

(Arantza)

Larrun menda

## Eguraldia nola asmatu

Ardiyak darda... eben burua dar-dar-dar-dar-dar iten zutenian, yoal... yoalduna bear tzuen sumatzeko, ez? Ta torri ona ta, to! denbora mudantza, ardiyak dardarian ai dire.

Eta, mendiya, Larun, guk ori duulako ur... ola, karaz kara, egun batzuti(k) bertzera urbillago kusten da, eta, ero erratn te aizegua edo uriya. Bai, oiek ola; ezta ala ateiko zen beti biño... bueno, e... ola erratn tzen, ez?

**Ink.:** *Bai. Eta kedarrarekin.... eta....*

A! baita ere. Kedarra eroriz kero re bai, kedarra... ori, in... inz kero gainbera torri, bai uriya, iru egun do lau egun barrenian uriya.

Eta, illargiyari arua ola itn tzaio la... lañuakin, bueno, eta, ordun ere seguro, uriya. Bai, konpazio batea gaur begitko zaio, gaur mudantza badu, ta ya itten duen goibel-goibel etortzen tzaionian, eiten te batzutan aundiagua ta... bertzin ttikiyagua gelditzen tzaio. Beiñ ikusi ut antziñ ortan, ta erran nion: "Orra! lengo errana lau-bortz egunen burun uriya" ta, ein tzuen, ein tzuen.

**Ink.:** *Eta gero, xorien... arabera ere yakin daiteke, ez? goitirago edo egin... egan egiten badute edo...*

Bueno, bai, bira, denbora ederra baldi'mada, ta, ori, onako erlatxa ta enara ta oiek gottio ibiltzen dire, ta uriya denin berriz, **ulia** zolian, zolian, bai, uliya betti yausten zann da.



Ardia

## GURE HITZAK

**Ulia:** Euli (*Musca domestica*).

Protoeuskanan uste da eu diptongorik ez zela eta, hortaz, euskalki eta mintzo ezberdinek hori ekiditeko modua harrapatu zuten, Bortzirietako kasuan eu>u eginez: ulia, uria, uskara...

(Bera)

## Katuen bidez eguraldia ezagutu

A, ori aittu diot... aittu iot amautxiri, bai.

- Euriya in bar dik.

Ta:

- Ze ba?

Ta:

- Katua itsaso aldera begira muturra garbizen ai yun.

(Lesaka)

Afiladoria? Ta seguro, oañ ere etortzen da oañikan.

**Ink.:** *Eta, ze? Egualdia kanbiatzen da o...*

A, bai, bai, abudo. ¡Que va a llover! Abudo.

Eta, ori... arbolak... igual intza, goizian laño do orma egiña igual, ta, arboltikan zintzillika girgilluk direnian, eta asten direnin ittaizurak, oi! Urbil da aizegua! (...). Eta, aizego...orrako, urriko aizia goiz-goiztikan aize ederra ta igual denbora ederra ta "Buztana putzuan" erra(tt)en tzuten, "Aizeguak buztana putzuan". Arratsekoi asi igual uriya, igual uriya izatn tzen.

(Bera)



Berako Altzate karrika

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra



Orga Berako karriketan

### BERTZELAKO SINESMENAK

#### Besta egunetan ezin zen zuhaitzetara igo ☺

Ta gero, siñesti(k) bazala bazien besta eguntan, e... besta señaltua, onako San Pedro egunin ta, e... Bestaberri eunin ta ola pues arboltat gerezi... arzea ta ezin zateken, zertaz, arrisgu aundia eroitzekua. Oiek sineste, sineste oiek bai, bai. Jobar, ta etzen yendia... “Etzazula goitio ateri, e! Gaur besta da ta...”. Iñor guti ateiko zen.

### San Anton egunean aziendak ezin dira lotu

“Gero San Anton eguna re zaiten tzen, bueno, azindak ezin utzi, San Anton da azinden patroia, e! (Bueno) ta bueno, aziendak ez lotu benpin. Ta, beiñ oroitzen naiz benpin emakume bat yuan zen arat mendira goitisko egur... egurketat astukin, ta aizkorakin yo zun bere burua. Ta San Anton eguna zen ta, ara! ori bakarrikan aski zen, ya...

(Etxalar)

### Katua etxe an laketzeko

Laratza, bai, ura da ta areri buelta man. Gatua, kanpotiken eaumtten baldin bazenun katua... itxerat, itxeku... aka...tuta do, pues buelta man ta etzela ateitzen ge... etzela... etzila bee tokira yuaten geigo.

(Igantzi)



Katua eguzkitan

Kato beltzak? Suerte txarra. Ala erratten tzuten!

**Ink.: Untza etxe inguruan baldin badabil?**

Uriya. Uriya urbill. Untzak uu! Itten tzuten, “Oi! Abudo uriya dugu!” erra(tt)en tzuten.

**Ink.: Eta zakurrak aurika asten baldin baziren?**

Ta, igual nonbatt ere desgrazi'mat edo... orrela izatten tzen, itxeko'maten desgrazi'ma(t) do orrela.

Ori Ama Birjiña martxoko egunian yotzen du Errromako zubiyan kukuak, ogeita bortzian, martxuan ogeita bortzian.

**Ink.: A, ta mutu noizko?**

San Pedrotan.

### Zerbait erortzean

“Ara! Oi! Nitaz oroitu da norbatt!” zerbait erortzen denian.

(Bera)

## Katua etxean laketeko

**Ink.: Katua etxera eramatenean?**

Bai, erratteunzte laketeko itxin, ez eskautzeko, itte uzten laratzari bi buelta eman. Su... suko laratzan bi buelta (e)man ta gero... gero libratu, zakun barrenin katua, bi buelta eman larazari ta... libratu.

## Oilarak gaez kukurruku egiten badu... ☺

Bai, gu... ni suertu naiz gure amakin, ollarra kukurruku gabaz ta ama yiki ta gatza suri botzen.

**Ink.: Ze ba?**

Yikita ez, guatzera yuan gabia. "Sorgiñak ttuk itxin, sorgiñak ttuk" ta... gatza atzapar bat, gatza sura botzen ikusi dut ama.



Oilarra

## Kukua aditzean... ☺

Kukua aitzin beitu sakelan ya baduzun sosiken.

**Ink.: Biño lendabiziko aldian aitzen duzunean, ez?**

Bai, lemiziko aldien. Ta gañea lemiziko... "Kukuk lemiziko kantazen dik –gure amautxik- Erromako zubiyyin". (...) Ona torsn deneako aitzen bauk kukua, ta balin bauk sosa'mat o zerbaite sakelin, urte osun eztuk diru falta izanen, miñoz ezpaduk gabe egonen yaiz".

## Belarriak gorritzean... ☺

Belarri(k) gorrittu: "Ño, norbaitt e gure kontra ai duk. Ño!"

**Ink.: Eta etzen ezkerrekoa kontra eta eskuñekoa...**

Eskuñekoa alde.

**Ink.: Bai.**

Ezkerre kontra, eskuñekoa alde.



Bera XX. mende hasieran

## Azazkaletan mantxa zuriak agertzea... ☺

Bai, ori otan [azazkaletan] zatn dire... ola zera batzuk.

**Ink.: Mantxa xuri batzuk...**

Mantxa xuri batzuk. Ta karro kusten: "Gezurra azkarki erran duk ik!".

Ta bertzu... bertzu(k) berriz:

- Andregai baduk ik!

- Ze ba?

Ta:

- Orra, biziok azkazala non ke, andregai bauk ik.

## 6.5. Sinesmenak eta beldurra

### Gauza bera aldi berean esatean...

**Ink.:** Zuk eta nik gauza bera momentu berin erraten baldin badugu? Purgat...

Purgatoriotik anima libra... salbatu.



Muskerra

### Muskerrak salto egitean...

Muskerrak auts... salto ein ta sartzen bazaizu, (e)zin men da ba lixatu. Ta ura lixatzeko, yo bar di zazpi eliztan kanpanak. Ta ordun tak! lixatzen men da.

(Lesaka)

Bai, ollarrak kukurruku iñez kero, beti lasterka yuaten giñen...

gure amak erraten zuen: “Bota, bota sure gatza. Gatza bota ollarrak biaren kukurrukua in biño leno bota gatza sura”.

Eskuinko biarria... berotzen baldi'mada, alde ari dela. Ta, ezkerrekua re... ari baldi'mada kontra. Ori erraten tziutен guri.

Ontzak battu... e, izen aunitzez mintzatzen a ontza. Eta, batek urbil xamarrin eitten bali'madu... arek irrintzi bat itn (d)u, ontzak, mintzo irrintza bat. Ta irrintzi ura itten bali'madu itxe urbil samarrin, ordun suertia... e, auzun edo itxin difuntua atezn da. Ordun, gu(k) ontzatikan beti beldur ori izankatu ugu; oain, itxe ixkiñin bertze... naturalzko... oiu ori iten bali'madu, orrekin ezta yaus pasatzen.

Muskerra, berriz, erratteunte muskerra ankin do nunai saltatu ta gelditzen dela, itxekie. Ta gero amalau erritko ezkillek yo bar zatte uztela... musker ura bere gisa soltzatko, bertzela itxekia geldizn zela.

Begien pikor bat plantazn a, ta arek...

**Ink.:** Nola du izena?

**Mitxindorra.** Ta, mitxindorra(k) guri e... erratte uzten mitxindorra... “Bai, begin bauzu mitxindorra. Bai, gezurrak errain tzu ta”.

### Norbaitentzat zerbait txarra nahi baduzu...

Norbattekin aserre do... gaizki portatu do zerbatt e ta... “Bai, kandel bat pat tzio, bai ta arrautu men dio kandel bat olko santuri”. Ta ori erregua. Oaiñ, e[z] xakiñez balizen diren do ez eztiren.

**Ink.:** Ori zer da, zerbait txarra nai diozula...

Txarra nai... ori da, arek ya ze... ze intenziukin parazen dun kandel ura.

Norbatt e iltze baldi'mada, enterriun itte'mali'madu uriya, “Oi! Ori aiz yende ona zen. Gaur uriya in du ta... ori aitz... ori yende ona zen”.

**GURE HITZAK**

**Mitxindorra:**  
Begitxindor. Bekatxoa.  
Betazalaren barnean  
sortzen den pikorta.



Patxi Larretxea - Arantza

## Haurdun dagoen jakiteko zeri begiratu

Ta arpegia baldin badu sekatu xamarra: "Bai, ori, enb... enbraz dago emakumi ori. Bai, sobera du... enbraz ori... arpegia sekauta".

**Ink.: Eta, ilea...**

Ta ori ba, matelzurko illi orik txui-txui yarriyak. Ta ordun... ordun eitn a geigo nabaittu, enbraz dagola.

## Neska edo mutila izanen den jakiteko

Txardiñakin itten genun guk leno... prueba. Txardiñari gañeko mamiy'ori dena kendu ta brasa parratu, bereix-bereix in brasa ta patu brasan gañin ezur ura. Ta ezur ura paratu ta arek itten baldin bazun zirt! zart! soñua itten bali'mazuen mutikua. Ta ezpazuen eitten, berriz, ixillik eotten baldi'mazen, nexka.

## Ogia erortzen bazeen

Ogiya eroitzen baldi'maziun guri lurrera, andikan artu ta... beti musu man ta utzitzen genun mayin gañin. Ta, pazen zen beti aspeska ogiya, ez e... gotti begira. Patu beti aspeska.

Ta nabala re bai. Nabala re patzen bali'mazen gotti begira, erratten tzen Jangoikua... Jangoiko sufritzen tzagola, nabala gotti begira patuez keo, nabala patzko beti ziarka.

**Ink.: Eta ogia asitzeko ze in bar tzen?**

Aitaren, ta gurutzia i... beno... ogiyari gurutzia. Nabalakin gurutzia in, ta musu man, ta, ogiya autsi.

## Zer erraten zieten haurrei suarekin jostetan aritzean

**Ink.: Eta gero, ze esaten tzaio aurraldi sukina aritzen baldin badire... or?**

Sukin aritzen tzereliken, ola egurra artu ta eskukin a(r)at unat, arat unat do tenazakin brasa artua, ta, ola suri zirikaka ta ola re... asizen zerenin aurrik, ordun erraten tzen: "Etzazuela, utzizue brasa ori, guatzin pix itten da bertzela".

**Ink.: Eta, emakumeak bazkaria gazia itten badu ze pasatzen da?**

Ezkontzeko gogukin daola.

**Ink.: Biño gatz asko botatzen badio do ola pixkot gazia baldin bada?**

Pixkot gaziya baldi'mada, da geo gazixku baldi'mada, orra erratten tzen: "Bai, gaur gure andria ezkontzeko (g)ogukin yok... zioken".



Jesusa Alzaguren,  
Mariana Alzaguren eta  
Francisca Matxikote



Ogiak

(Arantza)

## 6.6. Musika

### GURE HITZAK

**Arrubia:** Arrabio (*Salamandra sp.*). Muskerraren itxurako animalia urlehortar itsas-luzea; bereziki, azal hori-beltza duen *salamandra* espezieko animalia.

**Zuazi:** Zoaz. Auskalo erran nahi du.

### Arrubia k ausiki eginez gero

Gero bazen, e... arrubia. Arrubia, salamandra, arru... arrubia. Bueno, arek autxiki iten baldi'mazun, eztakit zenbat erritako bedeixteko ate-ezkilla yo bar zen sendatzeko, ta berzenaz ilzen zela.

(Etxalar)

## 6.6. Musika

### Karrika buelta Tantirumairu jo sanferminak heldu direla errateko



Txitulariak  
Lesakako karriketatik



Igantziko Seroneko karrika

Karrika buelta da, baizu, *siete de julio* zatten dira Sanfermiñak, eta, txistulariyak, au aitz aspalditik eldu dena, nik nee enboran jo dut. Ori da Sanfermiña eldu delko señale bat, ta señale ori da *Pascua de Pentecostés*, biarren Pazko eguna. Egun artan asitzen da, m... ba... urtero ez da... este... tokatzen igual. Bazutan igual maion ere izautu ut, doze de maion ere, pentsazu, goiz zanen ziren iñautik, bai, ta gero, *aproxima(da) mente... último mayo, primeros de junio*. Ori, ori da este... señale bat jendik errateko Sanfermiñak eldu direla. Berze tokitan Ondarribin ta igandero mattentu, negun ta denin, miñon, ori Lesakan, karrika buelta ori... ori izandu da, Pentekostes igandetik, igandero do jaia, Corpus eguna artean, tokazen zenin San Fermiña bezpera bittartin, ori, gero... akabo. Eta,

karrika buelta ortan, San Juan igandia ayetzen zenin, ordun baze pieza bat senzillua, baño ori yo bar zen: Tantirumairu. Ta ol... tolko da igual... e... este... San Juan euna jaia zenetik do... bol... **zuazi** noiztik Tantirumaiñ ori. Ta... ordun Tantiyumaiuri igandin yo bar da. Berzia zortzikua, este... yotzen zen: lo, lo, le, ri, li...

Ola, *tiempo zorziko* [euskar ahoskera], berze igandetan, biño i... San Juan igandia, *veinticuatro de... junio*, tokatzen bazea igandia *ventiuno* do *ventidós* o *ventitrés*, ola itten tzen. Biñon, tokazen bazea el *diezinue* do ola ez, ondoko igandia. Izan dila San Pedro eguna, jaia zatten zen, San Pedro aurrek'aldeko igandia do... San Juana...ko igandia. Or, tarti artan, Tantiyumaiori or zen. Ta pieza zen: "La, ra, la, la, la...".

Ara, piez' senzillua, ura eztakit noizko urtetik eldu dela ori jo bar zen, bertzetan zortzikua Sa Fermi (b)ittartin.

Eta... pensazu noiz torko zen, este... emendik Ameriketa yuan zen mutil bat, emendik. Eta... Ameriketa yuan zenin, baze kien an tzaon arek igual oita amar urte do geigo izanen zittun, ordun berrogei urte ta pasazen zuzten, ez oain bezala iru urte pasatuta etorri. Ta mutill orik (sic), este... bazakin nora yuan bar zun, ongi... ordun bakizu, Amerikikt yuanen tzen barkun do... nola yuaten tziren? Bueno, alletu zenin, presentu an, pesentu omen zuten, eta...

- I lesakarra yaiz?
  - Ta:
  - Bai.
  - Ta noren semi ya(i)z?
  - Ta olkuna.
  - Eta:
  - Lesakarra yaiz? –Berriz ere, bi aldiz do repeti-
  - Da:
  - Baiez, baiez...
  - Aizak, xistulariyak karrika buelta ematten tenin, Sa Juan igandian, ze pieza yozen tek?
  - Ta arek seidun:
  - Tantirumairu.
  - Koño! Oaintxe s... ya siñesten dit lesakarra aizela. Ori ola t... ta karrika buelta ori ya Sanfermiñak arte, bai, gero... gero... etzun segitzen, señalia bestak eldu direla, kostunbria eldu dena.
- (Lesaka)



Patxi Txoperena - Igantzi

## Sanferminak hurbil direla errateko ttunttuna jo

Bai, bedetzi... uste dut bedetzi aste den, eztakit zein egunktik asita, ya...

### Ink.: Pentekostes.

Bai, noski bai, ta eztakit zemat denbora den, bueno, ta asizn di ttu-ttu, ta:

- Koño! S... -aditzen baizen etxetikan, ta- Sanfermiñak ai ttuk urbiltzen, ara.

Ttin-ttirin-ttin! Denak pasazen zien, iru-lau ttunttunero o txistulari do bueno, geo bazien sail bat, biño bueno, ta ek matte uzten erriyari buelta, denin.

### Ink.: Nondik barna?

Erriyari? Bueno, pues frontongo inguru ortik barna, gero auzu au, Legarra auzu au, e! Ta gero or, Albixtur akautzen zen leku ortan egiten zen, ixiltzen zen. Zerta(z) ixiltzen zen? Pues or yendia urkatzen...ko tokiya zelakoz, urkabi(a) zelakoz. Ta orrun errespetongatik etzen yotzen. (...) Ta gero berriz asizen zen Antoiuko... auzua asizen zen lekun, ta berriz torzen zien lengo lek... lekura.

(Lesaka)

## Lesakako Banda

### Ink.: Bandan zenbat ziñeten? Zenbat lagun?

Gu, aproximadamente, oeita bos do ola.

### Ink.: Denak gizonak? Denak mutikoak?

Bu! Mutikuak? Ordun, ortan suerte izandu... eta asike re, ez tartin suertu neska bat, beti ilusua geio iten da, fandan. Bueno, bue... *Hasta el año setenta*, setentiunon leendik esan nizuen, ola Kasinoko alaba, bai, attak erran tzin erokeritan:



Lesakako musika banda

## 6.6. Musika



Haurrak Etxalarko eskolan



Amatxi ilobekin

-(Ordun erran bar tzun zeñentzat)-

Juanentzat.

Ta bertzia zatten tzun zare...“zare bat kukusu”. Kanta berakin zare, “zapata ta gerriko”-n tokiyin “zare bat kukuso”. Ta ola paratu ta:

- Zu, zuri “zapata ta gerriko” ta zuri “kukusuk”...

Ta:

- Ez, ez nik eztut nai “kukusuk”, nik “zapata ta gerriku”.

- Nere alabari erautsi bar dik txistua.

Ta, joño! ordun etzen ikusten emakume bat, neskatxa bat ola bandan, etzen in... etzen kusten.

- Au erokeritan ai duk!

Ta:

- Baiez, baiez!

Ta:

- Bialtzak biar bertan.

(Lesaka)

### KANTAK

#### LO KANTAK

##### Haurra egizu lo

Aurr' egizu lo lo lo  
Emanen dizut bi goxo  
Orain bat eta bestia gero  
La la la la la la la  
La la la la la la la  
Kusi nittunian  
Bai zure begiya(k)  
Iduritu zizaidan  
Itzartzo argiya.

(Igantzi)

#### HAURREN KANTAK ◎

Ori attak erausten tziun, a... attak ola, ala ankan gañin patu, aurruk, kantazen ziun:

Arre-arre mandoko  
Biar Iruñerako,  
Etzi Tolosarako.  
Andik zer ekarrako?  
Zapata ta gerriko.  
Nontzat? Nontzat?

(Igantzi)

**Talo talo txin**

Talo talotxin  
Gure aurra[k] portz otxin  
Atoz amatxi itxera  
Opill audi batekin.

**Arre arre mandoko**

Arre arre mandoko  
Biar Iruñirako  
Etzi Toloserako  
Andi(k) ze karriko?  
Zare audi bat kukusu  
Ek nontzat?  
Lenbizko solas itn dunentzat!

(Arantza)

**Arri arri mandoko**

Arri arri mandoko!  
Biar Iruñerako  
Etzi Tolosarako  
Andi[k] zer ekarriko  
Kolkoa bete kukusu  
Eia zendako?  
Iri ematteko

**Talo talo txin** ●

Talo talo txin  
Ator itxera Martin  
Ogi paska audi batekin  
Talo[a] ziok adarrian  
Bere alki nabarrian  
Pirri, porru ta purru  
Pirrip eta purrun  
Ire bizkarrian!

(Igantzi)

**Euriaren kanta** ●

Uriya! uriya!  
Aingeru buru xuriya  
Gizonizar xuriya  
Uriya!

(Bera)

**Kikiriki**

Kikiriki euskaraz egin  
kakaraka euskaraz kanta  
Ai ze kiriki karaka karaka  
Auxen da mutil astradarria

**A, a, a**

A, a, a maite, maite dut ama  
A, a, a maite, maite dut ama  
Agitz ona delako, agitz ona delako  
A, a, a maite, maite, maite dut ama

**Euria, euria** ●

"Euria, euria, azpiko Andre Maria  
Txoritxoak kantari  
Lañoz zerua estali  
Baietz, ezetz, euri zapar otsez"

Ama haurrarekin



Berako makil-dantzari gazteak

## 6.6. Musika



Neska-mutilak



Neska-mutilak

### Hiru txito

"Iru txitu izan eta ama galdu  
Iru txitu oien ama nor(k) yan du  
Iru txitu oien ama olloa  
Axeriyak yan diola lepoa  
Eta olloa, eta olloa  
Axeriyak yan diola lepoa  
Eta olloa, eta olloa  
Axeriyak yan diola lepoa  
Purra-purra egin nion atetik  
Kukurruku egin tziran atzetik".  
Ta pentsatzen dut or bazagola bertz  
zerbait ere, go! miño enaiz oroitzen,  
ya enaiz oroitzen geigo.

### Atzo ttun-ttun

Atzo ttun-ttun	Atzo ttun-ttun
Gaur ere ttun-ttun	Gaur ere ttun-ttun
Beti ttun-ttun	Beti ttun-ttun
Gaitun gu	Gaitun gu
Zazpi librako	Azeritxoak
Ollo xuria	Tripa beteta
Azeritxoak	Otsoak yan du
Yan digu	Mendian

Atzo ttun-ttun...

Jarraitzen du berdin; oiek gogoratzen naizena, igual bazitun  
estrofa geigo, ez naiz oroitzen.

### Bolon bat eta bolon bi

Bolon bat eta bolon bi,	Gure aurraren aur ona!	Aurra, egizu lo ta lo
Bolon putzura erori.	Balio luke bai ona <sup>6</sup>	Eman zkizut bi kokollo
Erori bazen, erori	Bai ona dirukin baño	Orain bat, gero bestea,
Ez da geroztik ageri.	Naiago dugu aur ona.	Gauean txokolatea!
Bolon, bolon, bolona	Bolon, bolon, bolona	Bolon, bo...
Gure aurra, aur ona	Gure aurra aur ona	
Bolon, bolon, bolon, bolon, bolona.	Bolon, bolon, bolon, bolon, bolona.	

### Lua-lua / Txalopin txalo

Ez naiz emen... "Lua-lua" bat emen ez naiz agitz ungi oroitzen asierako ori, e...  
bañan... e... bazen:

"Txalopin txalo,  
Txalo ta txalo  
Katutxo mizpera  
Gañean dago.  
Badago bego,  
Badago bego<sup>7</sup>  
Zapatatxo berrien  
Begira dago."

Ta nere ustez asitzen tzen "Lua lua kanta lua" meñon... "Zeruetako Yangoinkoa"...  
meño ez naiz oroitzen.



Patxiku Martikorena - Bera

### Bat eta bi

Bat eta bi, iru eta lau  
Amak uretan artu nau,  
Bi ta bi lau ta beste bi sei  
Amak etxetik egin di[t] dei.  
Sei ta lau amar ta amar ogei  
Nork kontu egin lore auei,  
Ogei bosteko egun zuzen  
Gure bildotxak denak gizen.

Katutxo bat xuri-gorriya  
Kaletikan etorria,  
Goxoro goxo, makur-makurra  
Etxe barruan lapurra.  
Txoriak kanta, katuak zai  
Zeren ametsez dago ernai?  
Goizean goiztik kaiola utsik  
Egunak ez du kanturik  
Katua kanpoan pozik  
Etxean ixil-ixilik.

### Dulun-dulun

Dulun-dulun yoale  
Beiak eldu dire  
Doniongo plazan  
Iru atso dantzan,  
Batak besteari  
Bere graziari,  
Latxikon, latxikon,  
Giri-giri on

### Talo talo txin

Talo talo txin  
Gure aurra bortotxin  
Atoz, atoz Martin  
Opill audi batekin



Neska motorraren gainean

7

Gu grabatzena iritsi baino lehen kanta batzuk paperean idatzi zituen memoria lantzeko; horretan *badago bego, bego badago* idatzi zuen, eta gero kantatzean aldatu zuen. Badirudi paperean zuen bertsioa dela ona.

## 6.6. Musika



Lesakako mojen ikastetxeko ikasleak

### Arre, arre mandoko

Aurra orrela belaunetan duzuna:  
Arre, arre mandoko  
Biar Iruñarako  
Andik zer ekarriko  
Zapata ta gerriko  
Ek guztiya[k] norendako?  
Ba “gure mutill ederrendako”, edo “gure neska politendako”,  
edo orrela, bakotxak ejartzen tzion ba... atatxi o amatzik edo  
nor[k] zeukan besutan aurra, pues, ejartzen tzion nai zuena  
aurreri. Ori.

**Ink.: Bukaera librea.**

Bai, ori da.

### Binbilin bonbolon

Binbilin bonbolon senda lo  
Akerra Frantzian balego.  
Astoak kanta,  
Idiak dantza,  
Auntzak danboliña yo.

(Etxalar)



Olentzerorekin

### Haur ttikiei... ☺

Unek kapelo bat arraultze karri  
Une(k) prexitu  
Une(k) gatza man  
Unek probatu  
Ta unek dena yan – aundiayak-.

Buruan yo ta, ori, asmatu ya ze... ze yan tzuen.

“Arre arre mandoko  
Biar Iruñirako  
Andi(k) zer ekarriko?  
Mando bat kukuso  
Ek nontzat?  
Lemiziko, lemiziko  
Irri itten dunantzat!”  
Irri itten baldin bazunun, ba zuretzat.

(Bera)

Ba, ori... emen alabak kantatzen tzuen, ni(k) beti seaskan paratu aurruk ta ori kantatzen bainion:

“Ttirriki ttikittina  
ttirriki ttikit”  
Ori goaingo donu(a) da, bertsutkua.

(Arantza)



Izozkiak saltzeko orgatxoa Beran

### Kukurruku

Kukurruku!	Kukurruku!
Zer diozu?	Zer diyuzu?
Buruan min.	Buruan min
Zerk egin?	Zek egin?
Axerkok.	Axeriak
Axero nun da?	Non da axeriya?
Errota azpiyan.	Errota azpiyan
Zertan?	Zer ari da?
Baxakaranak biltzen.	Irin pixar biltzen
Baxakarana(k) zertko?	Iriña zertako?
Olluri mattko.	Olluri ematteko
Ollu zertko?	Ollua zertako?
Arrotzi ittko.	Arraultzia egitteko
Arrotzi zertko?	Arraultzia zertako?
Apezeri mattko.	Apezari ematteko
Apeza zertko?	Apeza zertako?
Meza mattko.	Meza matteko
Meza zertako?	Meza zertako?
Gu ta bertze mundu guziya salbatzko.	Mundu guziya ta gu salbatzeko.

[osatua]

(Arantza)

(Bera)



Lehen jaunartze eguna  
Etxalarren

## 6.6. Musika

### BERTZELAKO KANTAK

#### Ikusten duzu goizean

Kusten degu goizean  
Argiya y'asten danian  
Menditxo baten gañean  
Etxe ttipitto aintzin txuriya  
Gabaitz (sic) ondoren erdian  
Zakur txuri bat atean  
Itturriño bat aldean  
Antxe bizi naiz pakean

Badet andrea  
Badet semea  
Alaba ere badet nik  
Ontasun ona batetik  
Ontasun ona bestetik  
Zer geiago bear det nik?

(Igantzi)



Pedro Lanz - Lesaka

#### Aldapeko

Or badago beste... ta nik eztakit bertzetan... nik uste dut bakarra Etxalarren edo  
beintzat nik... gure itxan beti kantatzen tzen ori. Ordun giten badiogu “Aldapeko  
sagarraren adarraren puntan...” bueno, ori berdin, ta ordun guk iten dugu:

“Bagerala, ez gerala, mutil eta neska  
Nunaitikan biltzen dira egitera besta  
Milla sorgin dantzari Zugaramurdin  
Txiruliruli...”

(Etxalar)



Etxalarko familia

Aldapeko sagarraren  
Adarraren puntan  
Puntaren puntan  
Txoriya zegoen  
Kantari  
Txiruliruli  
Txiruliruli  
Nor[k] dantzatuko ote du  
Soindutxu ori?  
Txiruliruli  
Txiruliruli  
Nor[k] dantzatuko ote du  
Soindutxu ori?

(Igantzi)

### Batista Madariagaren bertsoak Piedadeko auzoari paratuak

Emengo auzuri nere attatxik, attatxik paratu[k] tziren, emen auzua, len ttikigua, bueno, oaiñ etxe berri aunitz in dire, miño lengo etxe xarrari dena. Antsonkorda etzen egiña, zu[k] padakizu, Patri, ordun etzen egiña, gero in tzuten Antsonkorda, bai, ta oaiñ erranen dut nola auzuri paratu ixtton ataxik:

Argiñordatik [g]ora	Itturriborda dago
Dago Iñarburu	Maixterrik gabia
Bersu berri batzuek	Mentatxon ikusten degu
Para biar ttugu	Formalidadia
Aesnekorda ere	Antonenbordak ere
Erdiyin or dugu	Biar du beria
Exkerrenborda ere	Atso koskor audi bat
Artu biar degu	Patoren andria
Zamuinborda ya zuan	Iruingordati[k] pera
Azkeneko etxia	Azten (sic) bagera gainbera
Akotriñak eztu merezi	Laster sartuko gera
Atzian uztia	Bexinon itxera
Antxontxeberri eta	Orra Piedoko auzoari
Loikorda bestia	Bersu berriyak atera
Imendik eztu merezi	Oitan iñor deskonten-
Atzian uztia	turikan bai ote da?



Berako bestak

### Sanferminei buruzkoak

Aitak paratu eta	Arratsaldia zen
Alabak ikasi	Zezenak ikustera
Lesakara bersuak	Jende asko juan tzen
Orla dijuazi	Ederrak ziralakoz
Etzuten kaskarraua	Ni ere an nintzen
Besteri(k) merezi	Irugarrena beintzat
Zezenik oberena	Ezpaitzen mugitzen
Joan tzaio igesi	Gero zer pasatu zen
	Irugarrenian
Boletiñak zabaldu	Zezen ori plazara
Erritik errira	Bota zutonian
Aurten zezen ederrak	Ataka zabalatik
Lesakan badira	Joan tzen zuzenian
Entradako pezetak	Miandizko mendiyan
Billetia[k] tira	An dabil larrian
Pillorik aundienak	
Baliatu dira	
Sanfermin biamona	



Lagun kuadrilla  
akordeoiarekin  
Berako bestetan

## 6.6. Musika

### Espainian pasatua



Emakumea akordeoia jotzen.



Lagun kuadrilla akordeoiarekin

Deklaratzera noa kaso bat  
Penagarrizko klasian  
Españaiko erri batian  
Estremaduran pasia  
Gazte askori gonbeni zaio  
Kanta paperan jartzia  
Norbera[k] prueba ein baño len  
Eskarmentuan sartzia

Dama galaiak esposatzeko  
Tratuau tziren konpondu  
Gero mutilla soldado joanta  
Y'an tzebillan munduz mundu  
Ura il tzala adittu eta  
Beste batekin ezkondu  
Gaxuak eztu ondorenian  
Suerte ona izandu

Deklaratzera joanda y'atian  
Lau lagun tziraden jarri  
Esanaz Antoniatxo  
Atoz beraño zeorri  
Notizi onik etzakerrala  
Agudo zion iorri  
Jose Frantzisku il tzala bañon  
Orra bizirik etorri  
Deklaratzera joanta y'atian  
Lau lagun tziraden sartu  
Aurra bularrian tzaukan eta  
Yeite mate ziyon artu (?)  
Lepua moztu ta jarak egin  
Eta prejitzten paratu  
Apari on bat biar tzutela  
Guztiyondako plantatu

Gañera agindu ziynet  
Ardua ekarritzeko  
Dirua eman, bota ere bai  
Mutill bat lagundutzeko  
Itzik esaten asitzen bazen  
Fuerte puñala sartzeko  
Modu onian tratatu zuten  
Biotza y'alimatzeke

Kolore txarrak zauzkan andriak  
Eta pena biotzian  
Eskua gogor estutu zion  
Ardua pagatutzian  
Tabernariya ikaratu zan  
Ura y'ala ikusita  
Alkatiari parte eman tzion  
Zerbait bazela en itxian

Alkatia ta bere laguna  
Joan tziren indarrarekin  
Ate txolotik txelata eginta  
Ze ari ziran zuten jakin  
Antoniari desapiyoka  
Aurra jantzazu gurekin  
Edo bestela beste ainbeste  
Y'egingo degu zurekin

Alkatia eta bere laguna  
Arritu ziraden oso  
Apaltokiyan mugittu gabe  
Y'an lotu zituzten preso  
Antoniatxo koju audi bat  
Betor anim' onen billa  
Pena gogorrak eraman ditu  
Zeruan gerta dedila

(...) Bai, ta in tzioten aurra... petxutik kendu ta puskatu ta prixitzen paratu. Ta mutill bat eman tzioten lagun dirukin ta zatukin, *bota*, zatukin, ta itzik izare... esaten asitzen bazen fuerte puñala sartzeko. Ta gero ura dena zetuta, pues, ama il tzen, ill. Ta orretaz ondarko zera ori.

(Igantzi)


***Quisiera ser alcalde***

*Quisiera ser alcalde*  
Donostiyakua.  
*Quisiera ser alcalde*  
Donostiyakua.  
*Procuraría dar a los pobres*  
Ardua naikua, ja, jai!  
*Procuraría dar a los pobres*  
Ardua naikua, ja, jai!

*Además hay derecho*  
merendatutzian  
*Además hay derecho*  
merendatutzian  
*Hacer un zirri a la criada*  
Sukalde atzian, ja, jai!  
*Hacer un zirri a la criada*  
Sukalde atzian.

(Arantza

*En el barrio de Amara*  
Lulitan etxian (...)  
*Se sirven cayos y un cuartijo*  
Erriel batian.  
[bukatu gabe] (...)



Roman Iparragirre - Arantza

***Sei baso ardo atera***

Sei baso ardo atera  
Sei tragedan ustua  
Bertze sei edateko  
Lagun biarrik eztu.  
Uztu korriente baño  
Pagatzia y'aztu  
Ola tabernariya  
Nola y'aberastu?

(Arantza)



Karrikan dantza

***Joan den igande arratsean***

Yoan den igande arratsian  
Baionan etxe batian  
Yoan den igande arratsian  
Baionan etxe batian  
Neska batek lo iñ omen du  
Bos mutillen erdian  
Lararalala(i) lararalalai  
Bos mutillen erdian.

Y'eztaki(t) bañan badakit  
Badaki(t) bañan segurki  
Ez daki(t) bañan badakit  
Badaki(t) bañan segurki  
Mutil batek bos neskari  
Ez dezake isetsi  
Lararalalai lararalalai  
Ez dezake itseki.

(Arantza)



Etxalarko bestetan

## 6.6. Musika

### Santa Agedako koplak

**Laguna:** Orra or goian sagua

Aren guardian katua

Itxi ontako limosnarekin

Bete nai nuke zakua.

(...)

Orrako or goian izarra

Errek(a) onduan aizarra

Etxe ontako nagusi jaunak

Urre gorrizko bizarra.

(Arantza)

### Amaiurren gertatua ◉

Amazazpi urte nittun ordun, eta... ango parrokuk, este... erran zionen mengo parroku enteinttu zela batzirela men txistulai bastante onak, ta yuan nizen, ta guri erran ziun ta gu pozik, bai. Ordun ere... zeren dire, Ama Birjintan bestak, bai, bai, bion ordun ya... Etxalar geoztik asi giñan. Amazpi urtetik antziñera Itxalarrea ta... zera, Igantzi, lantzi re bai. Ta, yuan giñen, iru lagun: bi anaiaik ta Martzel, ta bua... (ta) aitz ongi. Arratsaldian an pasatu ten ikaririk aundina pasatu ut, lemizko eunian, ta gero parrez man tzigun, karo, man tzigun, bai. Pues... txistu utsa, e! dena jota. Ddene jota. Ta, karo, txistu yotzen ta or ai giñen, ta maiordomuak erraten tzun... ango ba... zera batek karzen zun tragua, ardua do... magra paska batzuk ta, oi yan, ta nai bou zerbeza nai duna. Ta, klaro, orduan, ordua etzen oain bezala aurreratu zatten. Ordua, konpazio baterako, bueno, oaiñ aldatuko ute antziñera, e! Bueno, beno esanen dugu, eun konpazio bat(e)rak... este... ordu beta da, orduan zatten tzen amabik, amabik klaro, ta ordun, oaiñ amarta'mezala zortziik aldin illuntzen zun. Ta, jotzen ai giñan, fandu yotzen bezala, ta, lenootik, neskatzak *aproxima[daj]mente* zuen adiñekoak, zuek bezain guapak ez, e! Ta, zera erdi mokosa batzuk torri ta txaketak, jersetx ta patu zuten kioskua, beno... barandua izaten, eken gañian, dena, zabaldu gabe, geo enduki

yuateko, alko baten ya, illuntzeko bezala, jotzen giñen ta, bakizu plaza zatn da beti errixka orientan elizan onduan, eta, ola ai giñan, ortan asitzen da, kanpana: Tun! Tun! Tun! Tun! Tun! Ta leno kostunbratuk men itzik erretzen tzirenin, bai... ola señale matten tzuten kanpanakin emen, Lesakan benpin, ta nik nonbait ez nun bertzerik pentsatu, este... ura zera zela, erre-(e)zkilla erratten diogu. Ta pieza ori akautu biño lenogo, neska guziyek tra! eben zerak artu, txaketak, ta martxa. Ta gu geldittu, sandu nue:

- Ui! Eldu da maiordomua, eldu da.

Eta, ni... ni beti irutaik atrebittuna izandu naiz, e! Ori bai. Eta:



Amaiur

- Aixkia, zer pasatzen da gaur, errazkia [erre ezkila]?
- Ez, ez, on... o, tto, tto, tto! O kostunbri da, illun-ezkile yoze utenin neskatxa guziyek itxera jun bar te.

Mekauen la puñeta! Bueno, bueno! Ta, bai, ta pieza enugun, akautzen etzigan utziko ta geo seitu nugun, gero bai, yuan tziren yuan... uste ta e... itxia'mat erretzen edo a(r)i zen.

Gu kontent, bueno kontentogo, benpin akautu nuun, ta:

- Bueno, oain, torri –maiordomua- tragu ittera.

Yua yuan ta... gero, este... ostatu bat edo eztakitz er, an ospetu giñen iruek. An lo iñ, yan ta ean ta dena an itten nugun. Ta, afaldu nugunin, este... tortzen da maiordomoa eta... erratten digu:

- Oain to bar tzue? Este... ola... agarratua.

Agarratua? Badakizue zer tzen? E(z)tut batee gezurrik erratten, parrokon itxia, ta bazen komedore aun... komedore eo ez daki[t] zer tzen, au ainko iru balde ere, itxe audiya, eta an, an, neska batzuk an eta mutil batzuk maiordomu aintziñin, eta:

- Oain baakizu no... este... jo... yotzen, txistukin yo tzezke agarrau?

Ta nik musika...kin, tronpetekin zera, tonua o artu do, ta yotze nuna ta... yotzin ttun baltsa batzuk: "lo,le,ri,le...". Bueno, ola, txotis, pasodoblik, mazurkak... mekauen!

Parrokon txia zen! Lagunek esaten tet:

- Aizak, au ez al dek pekatu?

Ze, kanpun peka... e... ze... ta oañ ola? Ta bueno, seittu nugun. Eta erran tziun ordun maiordomuk:

- Zuek bertze instrumentu zue?

Ta:

- Bai, ni[k] tronpeta, ni[k] saxofoa eta onek klarinetia.
- (...) Biamunin lo, zuek frankil egon, yana e bai utziko, abistuko dugu.

Eta... ango maiordomua bertze laun batekin motobizikletan etor tziren Lesakara, guri yaus ere erran gabe. Tor tziren Lesakara, gure itxin agertu ta gure ama, Barbara erraten (d)ugun bezala, atia yo ta za...goizko zazpiyak do ola omen ziren. Ta ordun, goiz argitzen, torri baitzien ta, atia yo ta:

- Bai? Omitxen, Santiago eta Jose Maria Irigoien emen bizi da?

Ta:

- Bai, zeba, zeba? -aik, yikitua ai giñela au, aputua.
- Bai, este, kornetilla, eta, -orrunkornetiñ erret tzen... erratten tzen- ta saxofoa matteko.
- A! Ori ba ezpalik ez tuk yaus ere!



Musikariekin parrandak



Lesakako musikariak

## 6.7. Erran zaharrak

Instrumentuk karri, eurek artu bere maletan, bertzen itxia yuan ari... zeri... klarinetia, iruek artu, itxea yuan ta, beti oroitzen naiz zortzitako, eztakit zortziak-bedetzik o zer tziren, ta ne anaia nerbiosua:

- Joño! men yanek beandu yotzen tek, eztaki[t] zen...

Ta:

- Ba! Torko ittuk, bai, torko ittuk. Etskela apetu.

Eta bertan, alajaña, eztakit erleburun o ze giñen, anketik tizen giñen ta ikusten ttugu istrumentuk an. Arrittua! Da baiez. Igual erran ziunten, erran izan bazun ez kartzeko, ta au ta au pentsatu ut, ta:

- Eerki in tzue, alajaña, bai, oaiñ aitz ongi tor[ko] da parrokon txin, este... agarrau yotzko. Kanpun yoko dugu txistukin jota.

Ta oiek, o... Amaiurren bai.

(Lesaka)


Amaiur



## 6.7. Erran zaharrak

"Goiz yeikiya goiz gose, berandu yeikiya loz ase"

(Arantza)



Zaldiak Lesakako karrikan

"Kanpotikan lili(y)a eta barrenetikan maialen"

**Ink.: Ta ze esan nai du orrek?**

Pues ori neskantzat o emakumintzat zatn zen, kanpotikan itxura eerrekua, miño itxea yuan ta dousetakua, osea... zikiña. Kanpotikan zernai iduri... iduri, konprendzen? Da igual barren zikiña, igual...

(...)

Ta gero berze bat emen, eztut iñon... iñori... iñori au oneri, osabari ta re izebari: "Gizonizar gorri(y)a, andre zigorzallia".

(Etxalar)

"Ongi nai duenak maiz gaizki"

Ola igual egon eziña do, e! Maixe! Egon eziña do ola tortzen bali'mada: "Infernuko diabruk sartu zkit barrenin!".

(Arantza)

"Arrats gorri, biar egualdi".

**Ink.:** *Eta zertaz, edo... zer?*

**Ink.:** *Esplikatu ori berriz...*

Pues, e... guri kontatukatu iute ua beti, ori... egualdi(k) erran nai zula, e...urrengo egunian, biar, egoa aldi, aize egua, aizegua, *viento sur*, ori. Ori [i] zanen tzela urrengo e(g)unian, aize egua.

"Goiz gorri, arrats uri".

(Igantzi)

San Andres, goizian azaro ta arratsin ez.

Santa Luzia eguna, argittu orduko illuna.

(Bera)



Bera

**Ink.:** *Ta gero esaten tzenun beratarrek esaten zutela: "Ixili(k) dagonak...*

Uts bat bakarra itn tzula, ai denak aunitz".

## Beratarrek errandakoa

Beatarrak langillik bai, beti; fama aundia langillik, bai.

Ek erran tzuten gero: "I bezalkuk gutti zattn ttuk! Gutti izanik obia, ta bate ezpalitz kaltik ez! Ik ipurttik austen ttuk galtzak!". Yarrita omen tzegon, e!

(Arantza)

...bada erranera bat : "Kanpuan uso ta itxian otso".

**Ink.:** *Ta igual esplikatu pixko bat zertaz den ori?*

Ori pues, konportamientu kanbiatzen delakoz fuerte kanpotikan itxera. Itxian beti umore... umore txarrian ta kanpora yuan ta problemak akautuak. (...).

"Bi sosen pupua, ta amar sosen trapua". Miña miño trapo geigo.

**Ink.:** *Oi aurrek izaten dute aunitzetan...*

(Bera)



Ibardin

## Zirtoa

Ola, erran zuri ta zuk aditzen eztuz...nian:

- Ze?

- Gauz ona bein.

(Bera)

## 6.8. Istorio barregarriak

### 6.8. Istorio barregarriak

#### Pazkotan dotrina galdetu ◉



Berako mutil gazteak jostetan

Tor da emakume bat txartel artzera, orun bear baizen txartela Bazkuk itteko; (ta) bear zen txartela ta apezak erran dio:

- Bai, bai, nik manen dizut xartela baño dotrin pixkot esan barko diazu, erran barko diazu dotrin pixkot.

Ta:

- Bai, bai, erranen tzaitut. Lasai, lasai. Bai Jauna, bai. Bai, bai, lotrina obekio daki!

(Ta):

- Bueno, erratten badiazu... nik galdetzen duena kontestatze'madiazu manen dizut txartela. Jesukristo non il tzen?

Ta:

- Ui ama! Jesukristo ill al tzen?! Ezkara meztan izandu!

(Arantza)

#### Ezkontzari buruzko txistea

Bat yuan tzen Donostira. Etxekin, beñ e zattekua(a) zen, Donostira. Arritturik [indarrez] dago, itsasuri begira, (mejauen). Ta alko batin olak pff! bazu nola yozeunten, pla! busti ta erratn dio: "Ai panparroia i! ezkondi, ezkondi, ba asantiki(i)z!".

(Lesaka)

#### Lapurra konfesatzera ◉



Bazkalondoa

Ño! Gizajua yuan da bildotsa lapurtu bar dula ta, atiak itxiyak, ta leiuk ere bai, rejakin. Ta, bildotsa arrapatu du, da, tiro iñ, etzen ateatzen raja ate artatik. Ezin lapurtu ta utzi du bertan. "Yos!" Juan da kofesatzera ta, konfestera yuan da ta:

- Ta ze, zazpigaren mandamentun zerbait lapurtuik ola?

Ta:

- Ez Jauna, lapurturikan ez, lapurturik ez.

- Intentziu ola?

Ta:

- Bai, intentziua bai, intentziu izandu nun bildosa lapurtzeko.

- A bai, e! A, igual-igual pekatua da ori. Ori ordaindu bear dezu.

Da:

- Bai? Nola ordainduko et ba?

Ta:

- A, oi neri duro at ematen badiazu, barkatuta eongo da.

- Bueno, bueno. Ze ingo deu ba?

(Eskua), atea du durua ta, emakumik konfesatzeko tokitik:

- Artzazu. Tori.

- Ez, ortik ez, ortik ez, beste aldetik, ortik ezin dut artu.

- A, redios! Nik ere atia ideki izan bazen lapurtuko nien bildotsa!



Lesaka

(Arantza)

### Apezak mezan neskatoari bazkaria prestatzeko eskatu

Apezak bazun neskamia, neskatua: Kattalin. Ta apezak espero zun obispua, bazkaltzera. Ta artarako bakizu, ba[t] pertziri, ipurdia garbiziñ diote oiek ere nomaitt, aundiayak ttikiya... ttikiyari, ba aldrebes, ttikiyak aundiayari. Ta obispuri benpen apezak ta, eperrak gustatz zkion nonbatt, obispuri eperra, ta bi eper (e)karri zittuen egurdiko prestatze(k)o. Kattalinek prestatze(k)o, gañea prestatzen men zittun agitz ongi, leno apezak ere zann tzun Kattalinek nola prestazen zun yakiñen zun eozein mouz eperra. Ta meza (e)maten ai delik apeza, gotzen: "Mekaben! Nik etziot Kattalineri eperra(k) prestatzeko erran! Ta obispua egurdin, torri bar da". Ta, bere Introitu o zerbai(t) leitzen ai delaik erratn du, asizn da mezan, ta Kattalin eotz tzen beti kup... zean, korun azpiyin. Ttak, meza yuan antxe, ta ttak, ateri ta itxera. Elizko... urbillan bizi baitzen ba Kattalin ño... ori, Lesakan bezala, igual, elizko atian bizi da yi... zea, erretora. Ta, ordun eitn du "Kat..." urako altxatu zunin:

"Kattalin ttiki korupeku –oi da errezo apeza-  
astin antzi zait esateku  
astik antzi zait esateku  
armaioan dauden bi eper gisatzeku –ta orrengun-  
*azafran y canelorum,*  
perou iña *secula seculorum*".



Dornakuko eskolako haurrak  
Angel Larruy apezarekin

Ta, eta, kantarieki: "Amen". Dena, eta Kattalinek bai aitu re, ta tak ateri ta eperra prestatzera.

(Lesaka)

## 6.8. Istorio barregarriak



Lesakako gazteak

### Otsaila kendu nahi zuten artzainek

Artzaiek elkarrekin egin zten billera, artzai kuadril... modan bat... zeren batek, ta erran zuten:

- I, illaute txar alu ori, otsalleku ori kendu bar diu. Ori ma'mar tziu bertziki denei partittuz ma'mar tziu. Ilbeltzari mane zkiogu bi do lau egun, ta martxuri bertze iru-lau, ta ola inen diu.

Ta ya koformat tziren. Ta batek erran tzion:

- Aizak, aizak, ta... ez al zkiuk orre[k] pertze ondoko illaute guzik izortuko?

Ta:

- Kaguen, ori al(a) uk.

- Ez al da obe izanen len bezala uztia?

Ta utzi uztien len bezala.

(Lesaka)

### Piedadeko ermita

Eta lenogo, pues, eitten tzen... ola, denbora itsusia edo... yartzen tzelikan yotzen tzien beti, beko kanpanerak eitten xtun yo ezkillak eldu zela eraso... zera, erretiratzko. Orik denak oin utziya[k] tire.

Eta Arantzan, berriz, yuana zen San Kristoba[!] ta apezak ez... etzun... ta atei zien seroria, ola denbora beltz izugarriya ta eldu zela ikaragarrizko ekaitza ta, atei zen elizk' atera komulgurua botzera, alegia, urrutti. Ta, arek in tzun... nola zen bada ura... A! “Guarda pan, guarda... vino, guarda... guarda zebolla, arri (g) uzi cebolla! Ekaitza, ekaitza cebolla!”

Lag.: Oi Arantzan?

Arantzan, bai, serorik [irriz]. “Guarda pan, guarda vino, guarda zebolla, arri [g]uzi cebolla! Ekaitza, ekaitza cebolla!”. Klaro, salbatu xtton salbatz(e)ko zerak, ardua ta... ogiya ta zera(k), tipulak!

(Igantzi)

### Mari Carmenen aitorta

Ori yoan tzen konfesteria, klaro, tor tzeren onat misio... misiyuk, misio... misiyuk; or zortzi gunez do matn tzeren, (ori), sermoiak, ta ori, yoatn tziñen ara(t), ta, gero konfesiuk, ta yoan tzen konfesteria, ta erran tzion:

- Ta, zer, zu zapatutik zapatura konfesten al tza?

Ta:

- Ez jauna, ni espartiñekin!

Klaro, arek zapatutik zapatura enteintzen ya zapatakin yoatn tzen konfesteria [irriak], “Ez jauna, enaiz... ni espartiñekin!” [irriz].

(Arantza)



Lesakako Salbatore ermita

## San Pedrok ogia ebatsi

...Jangoiku ta San Pedro, bazuzin, taka-taka-taka bazabiltzan. Eta, gose antza ibilko z(i)en, nomaitt, biyek gabe biño... San Pedrok ebas zun ogi bat, nomatt e ogi bat kus zun (ta) taka! ebas zun. Ta, biyek o... tzuazin parin, ola zuazin, filan, e! Ta San Pedrok kazk! ogi(yari) autsik in ta... San Pe... andik Jangoikuk segittun solasa. "Kaguen la puta!". Segi solasim berriz ere, ta berriz e Jangoiku ixildu ta kask! ta berriz e solasa, ta berriz e taka! Ta ogiya etzun ya ba. Ta noizpaitt e arratsa:

- Aizak, Pedro. Nik bait sorriya o kukusu o serbaitt emen, beizak emen zer den.

Ta begit zun, ta:

- Meka(b)en! Zuk begiya bauzu or! –Jangoikuri.

Ta:

- Bai gizona, bai. Orrekin kusi aut ogiya ebasten.

(Lesaka)

## GURE HITZAK

### Apopilo:

Etxe batean ostatu hartu duen pertsona.



Aralarko San Migel Berako Dornaku auzoan

## Jainkoak eta San Pedrok ura eskatu ☺

Bazen, emakume bat, ari zen esne ontzi bat garbitzen itturri batin. Eta, erran tzion:

- Eman al diazu ur pixkat?

Ta... ta bertzik esne ontziya bate garbittu gabia, rak! Ta bee tapakin ta eman tzion.

Ta bertzik erantzun (...):

- Eskerrak. Senar on diozula –erran tzion, Jangoikuk.

Ta, bauzi. Andik nozpatt e, antzi ordu batin, berriz e kasoz ber(a) iñio bertze nonbait, ta eskatzin i ura. Ta bertzik esne ontziyakin zen an xuxen ura re. Ta garbi-garbi-garbi [indarrez] in ta tak, eman tzion ura. Ta eman tzion ta eskerrak, senar txar iuko zula, erran tzion. Ta gero San Pedrok, Pedro, erran tzion:

- Zu, Jesus, biño, biño... biño nola zan tteke? Leno, ontzi zikin bate ura man ta "senarra on diozula" eman diozu, ean diozu eskerrak, ta oain, ontzi zikiñekin "ernas txaria zula" [senar txarra dezazula].

Ta:

- Bai, bai, orrek lan franko zanen dik senar onakin ere! Bertzik bizi(y)a atek ik txarrakin biño...

(Lesaka)



Zikiroa prestatzen Igantziko pilota plazan

## Jainkoak eta San Pedro apopilo

**Apopilo** zien. Ibilliz, ostatu artu zuten. Ta, añaen nekatuk zaozin, ta, Jangoikua yarri zen txokun. Biek oi ba... o... guatze batin zaozin biyek, xokun. Ta erran tzion:

- Aizu, gu iziñ yikiz ibilko gara, biyo zuk ez barkatu. Zuk egurra, e! Guk yeki bar duu nai ta nai ez.

Despertaduria zanen zen ura nomatt. Ta, atso... atso... atso flaka txar bat tzann zen ura edozein moduz.

## 6.8. Istorio barregarriak



Hiru mutiko  
Igantziko plaza zaharrean

- Yekixte.

Ta ez yekitzen, ta, eldu a arbaztakin ta:

- Atzo artu xin eskin... bazterkuk, gaur artuk ik zokokuk!

Dale! zokokuri berriz.

- Bega! Yekixte! Bega! Ordua (d)a, yekixte ortikan!

Bertzik:

- M?

Ta:

- A...

Ta, bapate arbazta batekin (...), dili-dale! [indarrez]

- Benga! Yekixte ortikan!

Ta bai agudo yeki re. San Pedro antziñin, paliza artu. Ta, berriz e ibillia ta berriz e ostatu artu zten, arratsa alletu zen, ta:

- Bueno, biar ee gauz bera izue gero, e! gu ais nekatuk gauzi.

Ta erran tzion Jesusek Pedrori:

- Bueno, Pedro, i yarri xokun gaur. Gaur... ni(k) artuko ttit biar ta nik yarri bia'ut bazterrin.

Ta, Jangoikua yarri zen bazterrin, ta atsua berriz ere:

(Lesaka)



Belea

### Beleak zertaz ez duen udan urik edaten

Ori bai:

- Karrankaz ai die, **agortia**, eldu dik.

Ta:

- Ze ba?

Ta:

- Baakik ze in tzun belik? –nie amautxik, mutikuk giñelaik kontatzen.

Ta:

- Ze in tzun?

Ta:

- Belik badik kastigua, Jangoikuk emana.

Ta:

- Bai?

Ta:

- Bai. Jangoikua ai yun ura eaten, ta belik gaintik kaka in tzioken. Eta... geoztik kastigu dik, belik eztik urik edaten al, eztakit nola ta oain kastiguz ziok, ara, karrankaz nola daon, iarri ziok.

**Ink.: Uztallan ta abuztuan ezin du edan, ez?**

Bai, bai.

(Lesaka)

### GURE HITZAK

**Agortia:** Agorte.  
Euririk gabeko aldi luzea.

Ura atso bat tzen, bai. Ta u... eskatu zion zerbait ta eman zion ogi kozkor bat. Ta:

- Bueno, bizu, estimatzen tzut nik au, ta, eskatu nai duzuna, gaur zuretzat.

Ta erran tzion:

- Bueno, bai, einn dut.

- Eztuzu erran barrik, pentsatzia aski zu.

Ta atsuk pentsat tzun: "Dio! Pasat biar dit egun guziya dirua..." ta dirua kontat(u) ta kontatu abest(e)ku gogu(a) zun atsu arek, ta pentsat zun egun guziya pasatzia... biño pentsatu zun: "Mekauen, lemiziko piz in bar dit benpin", bertzañekun gero diru kontatzia akautuko baitzaion ba. Etzun geldittu bar. Ta, ra! Baduie piz ittera. Piz itten asi da da tarrata ez gelditzen, ta ez gelditzen, ta eun guziya piz itten. "Akabo nee dirua!".

(Lesaka)



Rosario Irazoki eta  
Antonio Irazoki - Bera

## Gaiarre eta Sarasate

Eta, fabrika zarrin, pentsazu noizko kontua iza(n)en den! Lemizikotarikan izanen zen. Sekulako [indarrez] erausi auntziy'omen tzen gizon ura, ta itxerat alletu [indarrez] orduko, kontatu biar zan xu... omen tzuen azkeneko txismia, ikasi zuen azkeneko txismia. Ta, alletzen omen da itxerat, eta, nimbait erran tzioten omenaldiya in bar tziotela Gayarre ta Sarasateri, biño arek burutan ez artu. Go! A... *a la traza* [euskar ahoskera] erratten omen zittuen gauzak! Eta alletzen omen da ta:

- Eztakizue ze pasatzen den!

Ta:

- Ze pasatzen da, bada?

Ta:

- Ze pasatzen da?

- Aiuntamentu guziyek yuan bar te... Nafarroko aiuntamentu guziyek, denak Iruñerat!

- Ta Iruñerat zerta(ra) yuan bar tek, bada? Zertarat? –erratten omen dio, ta: Zertarat?

- Omenaldiya egin bear omen diote, besta aundi bat ein bear omen te!

Ta:

- Nokin?

Ta:

- Egin bear omen diote Gaia... Gar... Garaiar ta Sigastari.

- Garaiar ta Sigastiri? Ongi kanbitu bide ttuk! Orikiri olko besta egitteko! Ze in biar ote gau?

Ta:

- Bai, bandera aundiak [indarrez] ta yuan bar omeunte, denak!

Ta orduan erratten tzuten Berako bandera zela aundina, Nafarroko aundina.



Asto lasterketa Etxalarren

(Bera)

## 6.8. Istorio barregarriak

### Tio Genaroren zerrikumea

**Ink.: Eta tio Genarori-ta pastu zitzaien bein zerbait zerrikume batekin...**

A bai! Tio Genaro, bai! [irriz] ori gure osaba zen. Orrek erra(t)n tzun esto... zerrikumen bat, ni[k] eztakit, ori zann tzen igual azitzko do ola, bertzela illa eraunn tzuten, azitzko do ola zann tzen, norbaitt e eraum barra ta... An gottin erautn tzen, autobusan gañin, (ola) bazittun bi barrote, ta an erautn tzeren zarik ta orrela, ta dena kusten tzuten, zer tza... ze za(a)maten ta zer tzen ta dena, ta:

- ¿Y esto?

Ola arrautu, an gotti yoan tzen kustera ta:

- ¡Y esto qué! [irriz]

Xerrikutiña arrautu.

- ¡No, eso es un cer... eso es un cerdito pequeño! E... ¡Es un zerdito de menor de eda[d]! [irriz] ¡de menor de eda[d]! denak irriz.

Ta:

- ¡A, vale, vale, vale, de menor de eda[d]! [irriz]

Pasatu zun enpin tzekorra, o... zerruya.

(Arantza)



Ezkurra



Etxalarko asto lasterketaren sari-ematea

### Ezkurrarrek mandoa nahi

Ori... Ezkurran zanen zen. Bi mutill zann tziren baserri'matin bizi zienak, ta omen tzuten mando bat eben laneako ta mandu ura zerbait gisa il izann zionta etzekiten mandua zertiken torzen zen, ta nai zuten berriz mando baten yabe in. Ta, an gizon batei galdet zioten:

- Manduk zer... nola torsn dire mundura? Zeatik torsn die?

Ta, gizonak erran zion:

- Oik arroltzitik.

Ta bertzik siñes zuten. Etzien arront... idea txarrekuk zanen gizajuk ta... gero:

- Ta non saltzen die... mando arroltzik?

Ta:

- Oik Iruñin —erran men tzion arek-.

Ta ek dena siñetsi. Ta ek bokadilluk artuta ta yua omen zien, Iruñira, ta, arropa tienda batin sartu ta an galdet(u)ko zion ze nai zuten ta:

- Mando arroltzik.

Ta:

- Gizun, ez, ez, emen arropa tienda da ta or bertze... tienda at bada aitzinxio, ta an arraut(u)ko zue.

Ta, yuan tzen, fruteri bati bidali men xun. An neskatz bat ta, an e... ya ze... ze nai xten, ta:

- Mando arroltzik.

Ta, arek, ure... kalauza audi bat man men zion, ta, ek kontent aekin. Ura artu ta paat zuten ta, geo bueltan, eldu zielikan, ya errira urbillin, zera... mendi punta batin do yarr(i) izanen tzien bokadillu yaten, ta kalauz ura ondun utziz... utzi me uzten da kalabaza mald(a) betti eskautu. Ta beko... errekan yo men zun arbol bat, ta, arbola yo zulikan, ondotikan erbiya ateri ta ondotik:

- Ara! Ate duk! Barrenin zann tzien mandokumia!

Ondotik biek laxterka potx! potx! potx! oiu iten ziotelik, eta erbi(y)ek martxa.

(Arantza)

### **Don Juan Bautista Saldiskoa: Don Juan Pollino**

Aizu, eta bazittun, or izatn tzittun olluk. A! Au re zerriya da samarra duk kontatzko, biño egiya da; orren, Don Juan Pollinona da, e! Ta emen Lesakan geo aunitzek badakigu lenguk guk ori, or ze pasat zen. Eta zatn tzittuzten, ama xar batkin bizi zen, ta ementzen bizi zen... komentura prizin (?) eta baitire, ortxe eskiñ orton bizi zen, eta ementxe etxe batean bizi ziren. Ta onatek'aldian ziren, berriz, abets batzuk, Loiartenak, (oi), abetsak, eta, orduko... ordun ziren a... señoritak erratten tzien, es... Loiarten señoritak ziren; ta iru neskazar ziren gañera, zartu zi(r)en orduko, biño... señoritak erratn zaion, ta baziuzten bi neskato, ta interinak-ta zatten zittuzten. Ta olluk emen zatten zittuzten onek, apez orrek, ta bere amak, eta orratk'aldin berritikan zien abets orik, ta, ordun, pues e... arrautzik, abets oikiri, emengo arrautze frexkuk (...), emengo arrautze frexkuk apeza, ori... apezari erosten zittiozten abets orik. Ta, bueno, egun batin alletu zen, orrek ematten tzuen, emen bada San Antona goyin, an goyin, mendiyin, bada San Antona, auzu ba[t] pezala da, ta, bada ermita ta igandero yuaten da emengo apeza, an matten du igantan meza beti, gure den... oroitzaga guziyin. Eta, ori... arat apez oi yuaten tzen meza mattera, e... ze, beor gañean yuaten tzen igandetan ta tortzen zen. Eta arrautzik, pues, arat etorzn da, gañera Gipuzkoko yendik badu ikaragarrizko etorrera meza orretara, eliz orretara, ta etortzen tziren gipuzkuak orrat, eta... orreria eskatu zittiozten arrautzik, eta... ori, (...) eskazen zittiozten arrautzik, eta, orrera... ori... erran tzioen pagatuko ziola dozena arrautzia pezeta bat geigo, erran tzioen, ta, ordun, pues, apezak oño! pezeta bat geigo arrautzia Loiartenak, señorita[k] piño, ta, torzen zien Loiartenak, yuaten tzien arrautzik eske ta erratn tzion:

- Geldittu zkigu! Olluk in zkigu geldittu! –atszo xar bat zatn tzun ama-. Olluk in zkigu geldittu erruten!

Ta, ori:

- Beño erruten geldittu zela... ko... Beño ze pasatu da?



Behi parearekin lanean



Oiloak

## 6.8. Istorio barregarriak

Ta:

- Eztakit, eztute arrautzerik iten, e... erruten geldittu zkgu!

Ta bueno, ola eguna(k) yuan ta eguna(k) torri, ta, benpin olluk, lengo olluk, ek ere eitn tzuten arrautza itten, arrautzia egin ta ateizen ziren kabiteta, kokokokokorok! kokokokokorok! eitten tzuten olluk denak, segittun, arrautza in ta seittun, bolada batin aizen ziren, eta klaro, an denak olluk libre biltzen ziren, ta, ori:

- Oi! –Loiartenak erratten omen diote- aizu, biño eztuztela arrautzerik itten? Pues arizen dire kokorokoka!

Ta:

- Bai, arizen dire biño ez diute arrautzik iten!

- Pues eztugu siñesten! –koletuk- eztugu siñesten! Zuek battuzue arrautzik, biño ez ttusuegu guri eman nai!

Eta:

- Bueno, nik e... esan... zueri esan dizuet egiya –ori itn zuen, Urrozku z... bera zen Oizkua, ño... Urrozkua zen, ta solasa guretik difeentiokogu zun, ta- bira señoritak, nik zueri esan dizuet e... egiya. Guri eztu kontzientziak agintzen zueri errultze orik emattia!

Ta:

- Ze gertazen da ba? Ze bada? Ze bada?

- Bira! Bira! Ori... gure olluk, guk, itten dugu, itten dugu balderaik gorputzit itn duguna, baldera, ta gero ura olluri ematten di(o)gu. Ta guri kontzientzik eztuite agintzen, orik, zueri emattia arraultze orik, zueri saltzia! Ta eztuula erratn dugu orretaz –miño pagazen zioten pezeta bat geigo San Antonan gipuzkanuk- orik yaten baitute guk [g]orputzit eitn duguna, baldekin man itn diegu yat(e)ko!

(Lesaka)

### Arotza eta bere semea

Gizon batek biali zun semia **aroxkun** ikastera. Ta arotxa re gure modukoa zanen zen jenio txarra do, eztakit ba, raru xamarra zanen tzen, gu... gu ala gara. Eta, yuan tzen arotxa, bial tzuen, eta erran tzion arotxak:

- Bueno, nola ikasi nai duk? Lanin, arita, o begira? –erran tzion arotxak.

Ta berziak:

- Ba! – ura re ernia zanen tzen nomait, ta- Begira.

- Bueno, ordun exeri or.

Ta, ala pasat zittun krixton denborak, begira arotxari, ta ortxe, kinki-kanka, yo ta, berotu ta, okertu ta, zuzendu ta, luzatu ta, laburtu ta... bakizu, suko lana, aittu zen ta bertzia beira. Ta nozpatt, atta re kontent, mutiku aren atta ura. Eta, patu zion aroxtegian, ba ortxe, sutegia patu ta, txinguria mallukin ta, asi zen ta, mutikuk arotxa ikas zun arek, begira ikas zun arek, berotu zun burniya, ta, mallukin asi zen yoka. Ta erran tzion attak:

- Ze in bar dek semia orrekin?

Ta:

- Ba, bizu, luzatze'ma(a) gerrena, ta zabaltze'ma(a) pala, ta okertze'maa itagiya.

(Lesaka)



Arrautzak



Alemanian lanean

**GURE HITZAK**

**Aroxkun:** Arozgo. Errementariaren lanbidea.

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak

### ERIAK, ERITASUNAK ETA MEDIKUAK

#### Txori kentzailea

Xori kentzalle bat zatten tzen, kredo alrebes erreztuta kentzen tzuena. Goiztan barurikan etorri, ta kredo azpittik gotti erreztuz sendatzen zittuenak.

(Bera)



Familia argazkia

#### UKENDUAK

#### Ukendua nola egin

Pues paratzen da zartage batin oliuya, ta areri ematten tzaio bi **txisterka** baratxuri, eta gero botatzen da, pues, errexina, ta txagoia lagarto o... pix... xerratu pixket, ta arat bota. Eta errexina bota arat eta argizegiya re bai. Ta ek denak zartagin urtutzen direlikan... urtutzen direlikan, pues, egitten da basmo belarra ongi xanpatu trapo xuri batin, ta aren ura biurtu, eta botatzen tzaio areri ttantxa batzuk, bos-sei tanta edo orrela. Ta gero ura dena egitten da trapo xuri batin edo pasadore fin-fin batin itten da pasatu, ta gero tarrutan paratu do katxarro batzutan paratu. Eta... eitten baduzu pasmo belarra idorrakin ura prijitu bertzikin batin, mño eztu alko pro... zerikan, indarrikan eztu ainbertze berdikin tanta[k] potata bazala. Eta yasta, ori egiña dago. Ta orrek agoantzen du urtik agoantzen ttu, bakarrikan toki freskun paratuta. Ta orrek sendatzen ttu dibiesuk, eridak, denak, ateitzen dio zikiña dena, ta garbi-garbiya uzten du ta eztu uzten ez kangrenik ez zerikan deus ere, ongi garbitzen du ta orrela sendatzen da. Orrek zikiña dena ateitzen du, denari, zera guziyari, ta gero arpegin pixket ematten bauzu re, es... zetzen da, fin-fiña yartzen da arrastan ola pixket ematten baizu, ta onek auniz gauzta(a)ko. Errin a... errintzat ere bai, erretze'malin'mada eskua do... anka edo... zera, orretikan paratu pixko (b)atzuk, eta ura segidan sendatzen da. Ta ein bar badire bendak, balin bada audiya, pues egitten die bendak, ola igual pomada bezala egiñ, oliyukin ta, ta an busti benda urin, ta gero aretan pasatu, eta kaja garbi batin paratu, t'ura beti fresku egotteren da, ezta idortzen. Ta arekin paratu, lotu denak, eta arekin sendatua gelditzen da.

#### Ukendua egiteko materiala eta neurriak

Pues e... erliak zetzen ttuztelikan, kendu eztia, ta bedeska ura egosi urin paratuta ta gelditzen da aerian z... zera *virgen*, argizegiya gelditzen da. Ta argizegiya artika bota bar diozu litro erdi bat oliyori, pues, *doscientos gramos*, berreun gramo... ola, eta resina igual, igual. Eta txagoia egin xerratu pixko (b)at ta aretikan bos-sei puxka litro erdi batentzat, e! Eta gero pasmo belar ori pues kanpun izatten da, ta ori billu, ta, erran duten bazala trapun paratu, ta, egiña gelditzen da.

(Igantzi)

Familia argazkia

#### GURE HITZAK

**Txisterka:**  
Baratxuriez  
mintzatzuz,  
baratxuri pikorrik,  
aleak.




Ukendua

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak



Aitatxi-amatxi ilobekin



### GURE HITZAK

**Padera:** Zartagin.

**Aztunpa:** Sendabelar mota bat, erredurak sendatzeko balio duena.



Intsusa

Parrazen tzun txaboia. Leno... lea... leartu do lagarto do eztakit zer, txagoia... zatn tzen.

#### Ink.: Lagarto.

Lagarto. Xaboi bola... lodi bat zaten tzan. Ta, aren, txaboiaren erdiya parazen zun. Ta gero manteka, eta, gero bertzia... argizi(r)ije. Orik denak elkarri...kin urtu, ta gero aretan... ni(k) eztait gero bertzerik ezebotatze... zatten xtto. Ori badakitt irurek nola paratzen xtton. (...) Manteka, ta oliyu, eta txagoia. Ta orik paratzen xtton berotzen ta... gero aretan, ura ya-ya oztuan, sartutzen zittun ola benda bezala... trapo xerrendak arizkuk, zatten zittun. Ta ek aretan buxti-buxti-buxti in, ta patzen xtton idortzen. Ta ek mantso-mantso-mantso-mantson e... seuro, txaboi ura ta goorzen dire oztu orduko ya

ura gogorza, ta gero patzen xtton krixtal botil baten barrenin patzen xtton pixkot pleatuk, doblatuk, eta e... erria baldin bazenun numaitz ere, pazen xtton errin gañin ta erri aretan etzen itxektzen ura. Ta erri orreri itz tzunga axala.

(Arantza)

### Erre botika

#### Ink.: Eta erriantzako?

Erriantzako bai, e... ori, errien botika itten tzen. Ori, paratzen tzen sa... sa... zartabian, bueno, **padera** batian paratzen gunuen oliyo pixko bat eta paratzen tzen oi, *zera virgen* eta... **aztunpari** kendu lemiziko... lemiziko... azala, ta bigarrena da berde-berdia, azala, eta ura itten tzunun kendu, eta dena prexitzen tzunun. Eta gero ba paratzen tzenittuen ori, trapuak eitten tzenittuen... bueno, zati batzuek eitten tzenittun trapuna, eta ura eitten tzenun an pres... an denak, busti ongi, eta... biñon bueno, gauza oiek kenduta, e! ori... an prexitu zenittun aztunpa ta oiek kenduta. Eta gero trapu oiek uriñia... bueno, oliyu aretan-ta egiñak, bada paratzen tzenittun paperian, estraza do baldin bazunun, do berze paper bati(a)n bilddu ta bilddu, ta irauten tzuen denbora biñon... pilla ba(t) denbora irauten tzuen, arek eze-eze-ezia, el irauten tzuen, bai.

(Bera)

### Erre botika

Aztunpa azala prexitu, oliyuaren. Ta gero argiziriya, *zera virgen*, bota eta... (ura). *Zera virgen* bota eta gero ura irazi, ta trapo... xuri ek pasatu aretan, ta arek artzen du berak bere ungendua, eta ura... paper xuri batein bilddu, ta...

(Bera)

## SENDABELARRAK

### Pixa egiteko

Bueno, pixa erañazteko ori... artobizarra, eta gerno... gerno belarra ere erratten te beñon eztakit nik zein den, e! Miñon ibiltzen dela erratten da yendiak.



Idi parearekin

### Ardi mingaina

Ardi mingaña, ori... ebaki bat egiñ eta ura, ori, puntuk eman gabe etsitzen du, ardi mingaña(k).

### Kolpe belarra ☀

Kolpe belarra da ori, baldin bazu konjestiu edo katarro bat fuertia edo buruko miñantzat ere erratten te ibiltzen tela, ura itten da xetu, bueno, aren ostuak xetu-xetu-xetu egiñ, eta ematten diozu arraultze xuringua. Itten tzu batittu, eta paratzen tzu bi trapon tartian eta paratzen tzu. Ta zangua iraultzen baldin bazu, esginze bat eo zango irauliya, bada itten tzu ura paratu, eta itten du... be... bere bentajak itten ttu, e!

### Lapaitz hostoa ☀

Hoho! lapaitz ostua sartzen baldin ba(u)zu... ori, itze bat, edo eitten baldin bazu... alanbre batekin... zertaz alanbrian ebakiak-ta txarra(k) dira agitz, ba paratzen tzu bi do iru osto eta lotzen tzu. Eta, ori, arielko sukarra artzen du, bueno, arielko berotasuna, ba berriz berritu, bertze ostu paratu eta... eta sendatzen da, biñon agitz agudo o... eitten da ondu, e!

### Kalitxen kontra ☀

A! karitxan kontra... karitxan kontra, ba unek... unek daki obeki, nabaitzen da.

**Ink.: Ba, zuk baita ere!**

Gorostian ostuak eitten da. Gorostian ostua... ba gordetzen da, eta... ek ori, ya pasatu bear tzu... ta ori, urikan iñon pasatu gabe, gorosti ostuk artu, eta gorosti ostua e... ekarri bear tzu, ta pasatu bear tzu urikan ez pas... pasatu gabe etorri bear zu itxerat.

**Ink.: Eta gero txopo osto ere bai, ez?**

Ta txopo ostua gorde itten da, eta... eta ya, unemertzegunen buruan ya... eitten du...

**Ink.: Biño txopo osto orrekin igurtzi bear da nonbait edo artu ta gorde ta listo?**

Ez; ez, ez, ez, ez, ez, ez! artu eta gorde, artu eta gorde txopo ostua.

**Ink.: Eta zenbat gorde bear dira?**

Bueno, igual adaxka bat edo delakoa, ez?



Lapaitz hostoa

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak



Pasmo belarra

### Sain belarra

Sain belarrak e ori... ura ere esginzentzat eta ekintzat, bueno, zangu irauli ta... oikintzat da agitz ona. Da sain bat, bueno, du gotti... gotti ateitzen du o... oriya, ori... lore oriya, bera berdia da ta lore oriya, eta itten tzu aitzurrakiñ ori, eta ateitzen da olko koskorka-koskorka gauz bat, eta ura itten da martillukin... mallukin xetu-xetu, eta berriz ere bi trapon tartian, edo bi gasa do... leno etzen gasa aundirik izatten ta itten gunun, e! Ori.

(Bera)

### Odola garbitzeko belarra

Ori belar gorriya erratten diogu, ori paretatan da ola gorri-gorri bat, itten da xurtena lore ttiki-ttiki bat, loria re zaziyen gisara itten do. Ori an karrikan bada, emen ezta.

### Belarri belarra

Ta gero, Garbeko estrata ortan izatten da biarri belarra erratten diogu, pues, ori... sabañonak ta orik denak... axala kendu areri, ta battutzu *sabañones*, eztakit nola den euskaraz...

**Lag:** Suspelak, ez?

*Eso [euskal ahoskera]*, bai, ori. Eta, paratu ura axala kenduta, ta lotu, ta segidoan sendatzen dire zerak.

**Lag:** Ta nola izena du?

**Ink.:** *Nola erran duzu?*

(...) Orririk erratten diogu... bearri belarra, ola... gixin-gixin batzu[k] tire ola...

**Ink.:** *A bai! Ola borobilak!*

Aro batzuk, bai, aro batzuk denin, or bada...

**Ink.:** *Ta belarriko mina kentzeko ez da ona, oi ere?*

Bai, tanta[k] potata, bai, tanta[k] potata.



Bestaberrin  
Berako bandera dantzatzen

### Pixa belarra

Pues giltxurdiñak garbitzeko, ta pixa ezin bazu egiñ, edo zerbatt ere balin bazu oztua, pixontxia edo ori, pues, ori... idortu ta eiñ kamamilla bezala, eta pixkot aretik artu.

## Hertzeetako belarra

Ertzitako belarra erratten diogu guk. Ura, kakeria balin bada, arek kortatzen du.

**Ink.: Eta infusio moduan baita ere artua...?**

Miño ori urrutitik ekarri dugu, e! Pixko[t] padugu. Ola, ateri kotxikin.

**Ink.: A, eta artu...**

Ta kusten ttugunak artu.

(Igantzi)



Igantzi

## Menda usain onerako ◉

Belarrakin, pues bai, bueno ori re, guaiñ ere segitzen te: erromerua, zizare belarrakin zaiten zen; gero menta, menta ori bai, be... berak errandako andre batek, xarra, il tzen aspaldi. Menta, alako usai ona du orrek. Ura ibiltzen omen zuten kon... kolunk sartu eta xolo, usai ona zaiteko. Klaro, ordun etzen... etzen perfumerik ta usain txarreko, menta ibilzen omen zen, berak erran zidan, bai: "Jo, ori nexkaxtan ibilzen nugen kolunk sartu ta usai ona zaiteko", menta.

Gero... u... usiñ ura. Usiñ ura ori... kolpe'mat artu ta odola korriazteko. Ta ori oaiñ ere, oaiñ ere ibiltzen te, ta aiz ona omen da gañera. Usiñ ura, orrek mugiazten du dula ta koagulo, ze... gatzatzen delikan... odola gatzatzen baldi'mada ta ura mugiazteko ta ona omen da.

(Etxalar)

Guk e... golpintzat ibiltzen tugu emen belarrak, kolpe belarra, oraiñ e... berbena belarra, ori da guk ibiltzen duguna. Ta gero aparte pasmo belarra erratten tzaiona, ori... egosita artutzen da.

**Ink.: Eta zertako da pasmo belarra egosita?**

Oi da pues... infekzionin kontrako; konpaziota zuk estomakan do bauzu infekzione bat, e! ta ori artu ta orrek desaparezitzen do, sendatzen du. Orretarako da pasmo belarra.

(Lesaka)



Kukuso belarra

## BERTZELAKO ERREMENDIOAK

### Sugeak ausiki eginez gero

Ta gero sorgiñen istorio bazala, emen errezuak, erreduk iten tzien. Ta nik aitua gure amari bein zakurrari suik autxiki in, ta eztakit nungo andriak errezuak. Ta aren erreza zen Aita Gu... Aite Gur... Aita Guria bieltik antziña erreztia. Errezuak ta bueno, sendatu omen zen.

(Etxalar)

### GURE HITZAK

**Hertzeetako:**  
Hertze. Hestea.

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak

### Sugeen ausikien kontra ◉

Bai, emakumi batek eitn tzun subin erreza. Autsik in ta... erreza.

**Ink.: Ori ze erritan? Emen?**

Arantzan bertan, bai, Arantzan. Emakume bat tzen. Ta subin errezu ori e... eitn tzuna ura bakarra omen tzen. Eta, iñori etziola erautsi... subin errezu ori erran tzuten.



San Juan Xar

### Tropesia

**Ink.: Eta, gero, tropesia, aittu duzu eritasun ori? Ori zer tzen?**

Ori tripa... tripa aunditzen omen tzen orrekin. Eta, gero, itten men tzun... iru... iru txikiko botillin moskate... eta, zinta... kedartzu do ola, lokarren bat, etaiz zemat lau metro do eztakit zer ere, eta ori, gero galletak.

**Ink.: Ta bedeinkatu...**

Eta orik denak bedeikatu. Ta gero bedeikatu ta... nik eztaid zemat egun pasatzen ziren... orik ta paratuta. Gero gerriyin lotuzen zittun... gerrin lotuzen zun kuerda ura, ta eunero gox... e... goiztan gosa(i) txiki(y)a ittko... ori, moskate... gallegatikan ni(k) eztakit, bat t'erdia do eztakit zemat ya'mar zate uzten.


### Gangarabilak ◉

**Senarra:** Beretzi gatz pikor (...) ta gere kontatu gotti(k) betti aldrebese, goittik asi ta betti torri (...): "Gangaillak direde bedetzi, bedetzi zortzi, zortzi zazpi, zazpi sei, sei bo(r)tz, bortz lau, lau iru, iru bi, bi bat. Gangabillak yotn... nere gangaillak yuatin dire sun zirt-zartz!". (...)

**Ink.: Eta ori zen in bar tzen, anar... arnas batin dena bota...**

Asna... arrasa batin, ta asnasia artze'mali'mazenun, berriz arz... asi bar tzenun. Ori asnasa bakarrin erran bar te ori dena.

(Arantza)



Gangarabilak zinatzen

"Gangabillak die bedetzi, bedetzik zortzi, zortzik zazpi, zazpik sei, seik bortz" olako asna...

**Ink.: "Bortz, lau"...**

Bai, asnas baten errat bar zaten te orik.

**Ink.: Biño nola akautzen da? "Bortz, lau"...**

"Lauk iru, iruk bi, bik bat. Gangaillik it...e ute sun zirt-zart!". Ta, sura bota.

**Ink.: Gatza.**

Bai.

**Ink.: Ta asnasi bakar batean?**

Bai.

**Ink.: Bertzenaz berriz, asieratik asi?**

Bai. Ua be... bedetzi aldiz itn tzun.

**Ink.: Ori da. Eta iru egunaz?**

Bai.

**Ink.: Iru aldiz in barra zen?**

Bai, iru eguntan noski itn tzen.

(Arantza)



Nicolas Telletxea - Arantza

## Tropesia

Gero trupesia, Lesakan. Trupesia baldin bazu izatten omen da... likido bat formatzen (o)men da tripiar, eta gero santungana yuan, an emanen tzattuzte kordoia bezalko ba[t]; zinta bat [d]a, gerriyin lotu, erami bear tzu edaria ze nai duzun ta pastel batzue(k), ekei...

**Ink.: Edariak ze izan bar du alkolduna edo ura edo ze?**

Ura... aunitzek ura eramitzeunte, bertze aunitzek eramitten du, pues, Jerez eo Kina o ola, zerbatt goxokia. Goiztan barurik artu bear tzu kopa bat, bi pastelekin, miño ura apezak bedeikatua izatten da, e! An yuaten tzaren denborian eskaziua egittera ta nola zaren, pues, are[k] bedeikatzen tzattue, kordoia yartzen tzattu gerriyian, edo eriyak ezpadu posible yua'mar du bertze batek, orde, eta arek paratu bear do, an, apezak erratn dun bezala gerriyian, yartzeko eriyari.

**Ink.: Eta zenbat egunez egon bear da?**

Bedetzi egun.

**Ink.: Eta gero ya sendatzen da, bajatzen da tripa-ta?**

Pixkan-pixkan, ez segidan, meñon egitten du efek(e)tua ya beila, e! bai. Aretikan, gure itxian bada nere amona bat ola sendatua, bai. Guri erautsi ziuten yuateko olko tokitat, Lesakan, pues, bettiko atetikan sartu eta aldarin antzinko eskiñan, ezkerko aldetikan antxe zen santu uri. Eztakit ze santo den, iruogeit urte bada ori dela, e!

**Senarra:** Santo Estropakua nik aittuketua.

Eztaki[t], eztakit zer izen duen eztakitt, miño oroitzenten naiz, ta goandikan beiñ izanduketu naiz geroztikan Lesak'ko elizan, bein bakarrin iruogeit urtetan, e! Eta, pues, oroitzenten nitzen, pues ni orraxerat etorri nitzen. Miño etzen neretzako, nere amonantzako.

(Lesaka)



Arrosarioa

## Barea ateratzean...

Nik eztakit, lasterka ibilli ta, Uaiai! [miñez], ori asten tzen kriston oñazia. Nik eztakit ze zatn tzen. Ta ura tak, artu arri bat ta pua! Listu bota ta tak, len bezala patu ta... pasatua. Pasatua. Ta txukuna re bai, txukuna... ikara at emanta do ola...

(Lesaka)

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak

### Kalitzak ☀

**Ink.: Eta karetxak kentzeko zenbat modu daude, edo bueno, yendearena kentzeko eta gero animaliena, edo beiena, o...?**

Bueno, auniz modu badaude. Nik iba... iru do ola dazki[t] piño... lenbiziko bat [d]a baratxuriyakin. Baratxuria ed... ireki, puskatu, ta arekin igortzi, ta yuaten direla. Eztut arekin pruebaik in.

Biño bertzia da tipula. Tipula re ebaki, ta arekin karitxak ongi igortzi. Biño ori in bar da illargiya betti dagolikan, ta illargiyari begira yarrita, terrazan do kanpora ateri ta illargia nun den, aeri begira tipula arekin igortzi kaitxak. Tipul ura berriz bilddu, pa(r)atu len bezala, ta bota bar tzu bielara, zuk ez beitu non... nora eroizn e [den]. Ta karitxak yuanen dire.

Ta bertzia da patatakin igual. Patata re... ireki, puskatu, ta arekin, ur arekin denak, karitxak ongi igortzi ta patat' ura nik, zuk baldin batzu karitxak, zuk egin ziaunek patata arekin karitxak denak ongi igortzi, ta geo patata leno (b)ezala paratu ta man bar diazu niri. Ta nik eztut erran bar iñori re patat' ura non gordetzeunten. Nik gorde bar dut patat' ura, xi-xillikan ta zuri yuan zkitzu karitxak patat' ura ust... ustelten delikan, ura ni[k] nimbatt e gorde, ta ura bera usteltzen delik, ordun yuaten men dire karitxak.

(...)

**Ink.: Eta orbela... arri azpian patuta...**

A, karitxantzat (...). Ori ittn da, itten ten Sa Juana yuan ta an badire iru txorro ure, ura ta iru uretan ongi garbittu lenbiziko karitxa. Ta gero, orbel batekin igortzi ura, ka(r)itxak. Ta ostu ura, an bazterrín, uran bazterrín patu lurrin ta gero areri gañin arri bat. Lenbiziko arri bat azpiyin, ostuan azpiyin, ta gero berze... os... ura tartin ostu ura ta gero arriya gañin ta utzi. Ta akabo, karitxa yuan da.

Ta animaleiri berriz apua. Ze animali (d)uzun karitxakin, aren parin patu bar (d)uzu, apua billatu kanpun, ta poto batin sartu, potu ura itxi, ta itza batekin animaleen parin apu ura. (...) Biar du animalik an eon, kuadran daolikan. Ta, akabo, zuk utzi ura, kasoik e geio, ta zeonek bate eztakizulikan, yua... yuana[k] zkiola kaitxak denak, eztu izanen bakarrikan.

**Ink.: Ta apoa ze... idortzen da, o ze pasten zaio potean?**

Apua itten zann da beri artan kontsumtu, idortu, karo. Gero, kaitxa yuan tzionin zu(k) potu ura artu zu ta ezta aporikan, kontsumittu zatn da dena. Biño arekin seguro yuann zkiola.

**Ink.: Eta ori nork erakutsi zizun, edo... nork erran zizun?**

Ori... guri attak erran tziun, attak m... etakit nundik ikasi zann tzun.

Attak zaten tzun fede aundiya, ta... prueba aunitz ein tzun ta beti ongi atei zen.

Guk ezkunun bertze erremeioik ibiltzen kaitxa beiari kentzeko, apua.

**Ink.: Ta, normalean beiari ateratzen zaizkio? Karetxak?**

Bai, beia(k) zatten ttuzte titiyin, ta itzitzera yuaten tziñelikan, ek an, pikorrik an, ta nai nun, oain makinaz itn ie, biño nola itn tzen dena ola eskuz, itten tzen, beiaitzen tzun miña artu, ta aitzen tzen ostikuka, ta eizteko gelditzen tzen aiz gaixtua. Ta ordun ori paratu ta etzen problemik zatten.

**Ink.: Eta bein ze pastu zitzainaun, bueno, aitari... zure aitari ze pastu zitzainaun beorrak bazuela karetxa ta...**

Pasa tzitzainaun ana... anaiak bia... biazuten bior bat, ta anaiak erraten tzion, bueno, biorra zuten karitxakin, ta anaiak erraten tzion ura betenariuk kendu barko zula, audiya zela ta... e, apukin etzela yuanen. Ta attak erraten tzion bai, apukin yuanen tzela. Ta, e! erranen tziotela betenaiuri. Ta erran tziotela betenaiuri, ta betenariuk man tzion remediu, ta arekin egin ta lotu ta eztakit zer, kendu zion karitxa ura. Biño ala egondu zen pixko atin, biño berri tor zen karitxa, ta berriz ere audiya. Ta attak nai zun apukin prueba in. Nozpatt e apua billat tzun attak, sartu zun potun, ta bior ura zuten **ixtegi** audi baten barrenin, ta biorra zagon ixtegi aretan, paratu zion attak apua, ta (ola-ola) denbora audiya yuan tzen, apu ura akautu bitarte, kontsumittu bitarte potun barrenin, ta yuan tzion karitxa. Ta gero semik ere ordun, lemiziko etzun ainbertze siñesten, biño gero siñetsi zun pues ttikia ta... karetxa ttikiya ta audiayakin ere apuk bazula remediu. Ta akabo, a(r)etikan etzen, geio tzitzainaun etorri biorrari karitxikan.

(Igantzi)



Zaldiz egurra garraitzen



Santiago Irigoien - Lesaka

### Kataplasma nola egin

Eta gero, egitteko zerak, kataplasma erratten diot nik zera... egitten da, pues... oliyo pixkat paratu, ta an ere beti baratxuri pixka atekin. Eta, arat bota berbena pixko at eta basmo belar piskat, e! Eta, arrautzia, xuringua ongi batittu, eta arat bota, egin tortilla bazala ta ura gasan tartin paratu t'ura bero-berua paratu petxun, do zintzurrin, o kopetin sinusitisentzat ta orikintzat, eta, orrela. Miño orik belarrak denak e... biltzen dire kanpun.

(Igantzi)

### Labatibak

Gero... mediku bazala, bueno, mediku bazala, auniz zaitn, labatibak arzen gintun guk gaztetan.

(...)

Labatiba zen untzi bat. Ura ur epelakin paatu, arek bazun goma bat ta "canilla espesa". Ura ipurtik ateri, sartu, ta alturan pa(r)atu. Ori zen barren zikiñan da

### GURE HITZAK

**Ixtegi:** Ukuilu.

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak



Kamamila

garbitzeko. Bere alturan paratu, kanilla ireki ta ura urtu arte antxen, barrenera doa dena. Ta ura an akautzekin, bazterrian palangana bat. Ta aat puurrustin gasta... garbitzen tzen.

(Etxalar)

### Kaka egiteko

**Ink.: Eta kontrakoa? kaka egiteko?**

Ha! ez dakitt!

**Ink.: Bi mixto...**

Bi mixto, eta aza xurtena oliyuaren egortzita, eta...

**Ink.: Miño nola da bi mixtona?**

Bi mixtu sartu gotti, ipurditik [g]otti, e! Eta, aza xurtena ere bai...

### Tripako minarendako

**Ink.: Eta tripako miñandako?**

Eztakitt e... tripako miñendako guk kamamillua, eta gure ama zenak itten zuen a... ontzi batian alkola paratu ta sua eman eta... aretan berotzen tzuen trapo bat eta... paratzen tzen orretan. Eta bein miño geigotan egin zertaz alkola bueno, su ura itzaltzen da, ori... trapua sartuta, eta ordun bero-bero-berua ta paratu tripan. Eta nik pentsatzen dut oraiñ, ura infekzio baldin bazu ff! txarra dela, biño!

**Ink.: Eta dibiesoak sendatzeko?**

Ori... eitten gunun enplastua(k), ori bai, aunitz aldiz, e! Ori... paratu s... e... padera batian ori, esnia, areri eman paper... oi... ogi papurra, eta bi trapon tartin paratu eta gañian ori... paratu manteka zerriyana. Urin geza, ura da urin geza.

**Ink.: Eta orrela kentzen ziren, ez?**

Orrela... orrela egiten tzuen arek e... biltzen tzuen, aunditsu(a) biltzen tzuen eta itten tzen lertu, zertaz lertzia... lertzi ura zen... gaixtua ez? ordun tzen min, ta arek itten tzuen ben... bentaja izugarriya itten tzun, e!

### Zizareen kontra

**Ink.: E gero... zizare... zizariak kentzeko ze iten tzenuten?**

Zizariak kentzeko? Ori... guk aurrali paratzen ginion, e! Ori... m... ari batian sartu amar... ori, baratzuri ale oitikan, eta paratu soñan azpian, eta usai arek erratten tzuten kentzen tzuela ba... ori, e... bara... e...

**Ink.: Zizarik.**

Xixariyak.

(Bera)

Bai, bada eztulen erremeio bat... zera... karakola do barin lingirda artu ta yuaten dena... **kokolotxa** yateko... kokolotxa da *tosferina*; kokolotxa yateko... ematen zuten erremeioa ordun ori zen. Barian lingirda in bar zatten zen irazke batin pasatu, ta gero ura irets. Ta ura zen... ura zen erremeio bat... kokolotxa do eztula katarron eztula kentzeko.

(Arantza)

### Dizipla

Ori... zera, dizipla. Unek [senarrak] e badazki ori(k), diziplan erremediau(k).

**Lag.:** Zer da dizipla?

Dizipla da infekziona.

**Senarra:** Dizipla ori intxatua, aundittua, intxa... intxat...

Erdaraz infekziona erratn di(o)gu, biño uskaraz lenao erratten genion dizipla.

**Lag.:** Dizipla?

Bai.

**Senarra:** Diziplatu! miña artu ta de... dena diziplatu da!

Bai, ta goain, goain e... infekziona ori da erderazko itzbat, guk e tartin erabiltzen duguna, geunek, gerez artin, meño lenoko zarrek etzuten o... ori... infekzionerik erratten, dizipla.

**Senarra:** Agiñeko miña ta gero diziplatua! (...)

Eltze batin patu ura irakiten, bueno, nik gaizki baldin badut zuk alto, e! [senarrari]. Eltze batin ura irakitten, ta gero arara bota bedetzi illar pikor o artopikorra do... bederatzit arri koxkor, eta... gero azpikuz gañ itzuli palangana batera ur ura, eta a(i)xturra ta orraxia gañin guruztatu. Ta gero... ura, eriya ola, aren azpiyin patu manta batekin, ta... ura, ur ura dena itten da... berriz eltziaren barrenara sartu. (...)

**Senarra:** Iru t' iru t'iru.

A iru! T(a) ni[k] bederetzi uste dut!

**Senarra:** Iru t' iru t' iru. Nik ikas nun ta ni ala arittu naiz.

**Ink.:** *Iru ta iru ta iru, ta, baño zein?*

**Lag.:** Iru illar pikor, iru arto pikor ta iru arri pikor.

**Senarra:** Ori. (...)

Lenbiziko ura irakire... irakin.

**Ink.:** *Ori bota. Iru, iru eta iru.*

Ori bota, ta gero... patu be... bera begira ta artan, bapori artan iduki...

**Ink.:** *Eta aixturrak ta orrazia?*

Axturrak ta orraxia gañin, burun gañin.

### GURE HITZAK

#### Kokolotxa:

Kukutxeztul.

Kukurruku eztula.

Eritasuna.

#### Dizipla: Infekzio.



Baserriko atarian



Pazia

## 6.9. Eritasunak eta erremedioak



Behi parearekin lanean

### GURE HITZAK

**Nabarria:** Nafarreri. Baztanga, eritasuna.



Haltzaren azala

### Nafarreria kentzeko

**Senarra:** Zerrit(e)in iraulka!

Zerriteyin iraulka, bai.

**Lag.:** Zerriteyin iraulka ari?!

**Ink.: Biluxik, ez?**

Bai, bai, bilutsin, bai. Orre(k) nola izena du e... guaiñ? Erdarazko... dena pikorra atetzen baita.

**Ink.: Biruela!**

A bai! ola, ola, bai, biruel... bai.

**Ink.: Zuk nola errate uzu, euskaraz?**

Guk... guk **nabarria**, nabarria. Ta gero olako grano batzuk atetzen dire ta, oiek leertzen baldin badire geldizent d(i)re dena(k) markatuk.

### Min-horia sendatzeko

Eztut adittu nik zenbat, biño zorriyak yan bar zirela bai.

### Uspelak

A, uspelak? Uspelak bai (i)zatn tziren leno azkarki. Ori... txapa berua emen berotu. ta arekin erretzen aitzen tziren gue etxin, gure ama-ta.

**Lag.:** Ankak erretzen, e!

Bai, txapa berukin. Uspelak bai.

(Arantza)

### Jendearen kalitzak kentzeko

Altzan azalakin. Altzan azala, izerditten dagoliken ura gorri-gorriya izatten da, ta arekiñ.

**Ink.: Igurtzi?**

Bai.

(Bera)

### Haurren hernia sendatzeko

Ernia sendatzeko itten omen tzen, gaueko... amabiek jotzen asi, lemizikuak, eta biernak jo bitartze, ariz bat arraildu goitik bera, gero takuk sartu idekia uzteko, ta artzen tzuten iru lagunek aur ori. Ta, ordun pasatzen zuten aritz orren barrendik, alde bat(e)ra, ta bertxitikan bertzera. Ta erraten tzioten: "Tori, ekartzu, artzu", "Tori, ekartzu, artzu". Ori, bi amabi ori(k) yo bitarteko tarti orretan pasatu bar tzuten iru aldiz. Gero arbol ori berriz elkar banatu, lotu, ta arbol ori sendatze'mazen ernia sendat zen. Segun.

(Arantza)

**Ink.: A, eta gero zuk baduzu bertze erremedio bat arantzak kentzeko, ez? Eta...?**

Bai, bia... biazuna. Arantzia do... zerriya, zerriyan biazuna idortu, ura zatn da guri-guriya, ta xinxilka patu ta idortu. Ta zuk balin bauzu arantza bat ezin ate duzuna do... arantzia do zerbatt ere bertze egorra muturra sartua do... ta miña artzen tzu, parazn diozu ura, ta lotu pixkot, ura puxka ttiki bat ebaki, gasa pixko atekin paratu, ta... lenbiziko paratu, ta ezpadu itten, pues ura kendu ta geo berriz paratu. Ta zuk ura bi d'iru aldiz paratu orduko... ura ateiko da, arantzi ura do zer tzun sartua, ta geldittuko da goxo-goxo. (...)

(Igantzi)



Santiago Mitxeltorena - Etxalar

### Kaltzioa lortzeko

Arroltzia garbi-garbi iñ, da baso batin patu, ta gero limoia, areri limoia, *zumo de limón* [euskarahoskera], ori... limoiakin zumoa ateri, ta, ura. Are... gero ura edan biaunin, areri... arek kentzen dion zer ura, ba(i).

(Arantza)

Aurrantzat ta petxuk ta gaistuk zienin ollun gantza errate uzten ura, urtzen zuten ta papera... eztakit paper estraza errat zioten batan, ta aretan doblatu ta... or trapukin gaintiken ta...

Ebak' sendatzeko guk Ama Birjin belarra erratten nion, arekin lotu ta gaintik trapo bat paatu ta kurazen zun.

(Lesaka)

### Ardiek hanka haustean

Ta, ardiyeri konpontzen genion kedarra ta arraultze xuringukin masa egin, ta arekin paratu lixtoiak, ta, gero lotu ta konpontzen genittion.



Berako irazelaia baseria

### Azienden kalitzak kentzeko

**Ink.: Eta karitxak ola beiari errapin ateriz kero? Ze patzen ziuten?**

Zingar kalua. Zingar kalukiñ fuerte arraskatu ek, eta iñork eztakien tokian enter(a)tu.

(Bera)

# 7



## Euskara/gaztelania harremana



BORTZIRIAK SOLASEAN  
AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA

7

Euskara/gaztelania harremana





## Euskara-gaztelania nahasteak

Ordun zerbait bazenun yuaten zinen ara, ferrateriko urbill artara, ta, egun batin an gauzi Jerbasio ta ni ta... iru-lau an ta, Batista Simonkuia, orkua ta, yor (?) zen beteraniua [albaitaria] ta:

- *Que, ¿ha parido?*

Ta:

- *Sí.*

- *¿Qué pasa por aquí?*

Ta:

- *La vaca tiene ocho meses y no tiene calor.*

(...) Gero aundigua berriz, erran tzun perik (?):

Ta:

- *Si... pues nada, saque uste[d] el martes que viene, ya la reconoceremos y tal...*

- *No. No.*

Be... ordun yuatia nai zun ta:

- *La puebla tengo en casa.*

Erran nai zion erriyin bizi zela... "La puebla tengo en casa"...

(Arantza)



Artzaina artaldearekin

## Ezin gaztelaniaz ulertu ☺

Olan, e! gerra zandu zen, ze gerra baitzen ere. Eta, orrat torri men tzien *General Morrijones* erratun tziun guri, eztakitt, Olara. Eta, bere soldaduk o, zerbait tzine Ola, gero Ola bazeen baserri bat, Ola, eta gero baseria Ola izena zuna, ta an itten zaonzten ostatu modun o. Eta, kontazen zun nola an, egondu zain tzien, gerrako Morrijones jeneral orrekin batin oiek, an bau... yan ta an itten zan uzten, eta, nozpatt ere yua'mar zuten ba, m? ta erratt dit:

- *Bueno –kastillanu(a)k zanen zien, klaro- Bueno, ya nos marchamos [euskal ahoskera].*

Ta ango maia o... neskautua do, an serbitzen do aizen zienak o, ta aditzen xi-xillik ta erran tzioten etxekandriri:

- *Aizu, ya nos marchamos [euskal ahoskera]* erran du, ze erran nai ote zun?

Ta:

- *Bai, martxun tor ttiela erran din, martxun tor ttiela.*

(Lesaka)



Alorrean idi parearekin

## 7. Euskara/gaztelania harremana



Irina ehotzen

### Karlisten denborakoa

Eta gero, pixko bat anekdota bazela, karlistak yuan zilikan, elkarrei bi emakume ori kontatzen zun, txiste bazala o ala zanen zen, aditua:

- Aizan, Karlistak yuan tun.

Ta:

- Bai, martxo arte.

- Ez, ez, alde batera.

- Etzez, a nos marcharo... nos marchamos erran te benpin. (...)

Ango erdara eta euskara nola...

(Etxalar)

### Gaztelaniaz gaizki erran Patziku locok

Ori, Donezten pasatu zena da ori. "En casa de la Señora Joaquina –tu... zera yo uzten, bandua o tutua o taula o... taula o

- En casa de la Señora Joaquina, hay patata de siembra, no sé por cuánto el kilo. Y el que quiera tomar por saco que vaya a la Alhóndiga".

Ta, arek erran nai zun "el que quiera comprar por sacos".

(Lesaka)



Berako Alkatenea  
etxeko estankoia

### Karlisten denborakoa

Erraiten tzuten baserri batian, pasatzian, emen karlistak erraiten tzuten... bertze gerrak ya akautzen yoaki zanen tzien, akaberan, ari (i) zanen tziren karlistak menin artutzen liberalak, liberalak omen tzien kontraiuak eta artu zten, t(a) unat eldu zien beti gibelka-gibelka unat, ta emen ya... eta eskapoka eldu ziren unat ta emen gogor, emen akautu zen karlisten gerra! Emen akautu zen!

Emen ta Baztanen ta... puntu untan akautu zen! Ta Itxelarran suertu zen

puntu (b)at franko gogorra, gure gurasuk erraiten tzuten forman. Ta... beti oroitzen naiz nola erraiten tzuten, t'ura aunitz aldiz erraiten tzuten, baserri baterat allelu ziela karlistak ta ordun yendia ere dena beldurka emen, ta atiak ta fuerte etsitzen zuzten! Eta hendia [aspirazioa atera da irri moduko bat egin baitu] euskalduna, bas... e... erdaraz etzakitenak, ni(k) neonek ere, amazazpi urtetan ya ez naki(y)en erdaraz! Argin pion asi nitzelikan nagusik bialtzen tzian karabiñerun itxetaat ta ola ta... ta orduan oañikan euskaldun u(ts) tziren, etzuten itzik iten! Eta karlistak:

- *¡Queremos luz! ¡Queremos luz!*

Baserri batian, erraiten tzuten izena ta dena, ze baserrin ta dena, ta igual dut erraitia ere, Tonpalaneko borda, Tonpanleko bordan, (ta) baserriyan eta:


- *¡Queremos luz! - (ta) - ¡Queremos luz! ¡Queremos luz!* [euskal ahoskera]

(Ta) bertziak nada!

- Ze arraio iten tek oiek?! -barrenian, eta- bai, ma(a)nen tziou, or tuk [g]aztañ usteko agaiak, ta or luziak oie[k] tuk! luziak oie[k] tuk! lu(z)... luzia, ori zann a, erran naiko tek!

Eta, leio bat ireki eta gaztañ usteko agaia(k) eman omen tzioten. Eta pentsatzen dut bertzia(k) ordun irri ein ta yuan zanen tzien, bee gaztañ usteko agaia artu do ez artu, eztakit ze in tzuten! Ta ori kontatzen tzuten!

(Etxalar)



Kinkeea

## Inaxio kanpaneroa

- Inaxio, guk uste ginin ik obeki yakila, eztakik erdaraz!
- Ni ordi zuek obeki enteintzeko aitzen nauk ola!

Oi Patxiku Laukua zatn zen:

- *Qué, ¿vas a esquilar el macho?*
- *No tiene pelo.*
- *¿Qué tiene pues, lana?*

(Arantza)



Emakumeak Arantzan



# BIBLIOGRAFIA

## Etika

Cook, S. W., 1980, "Temas éticos en la realización de investigaciones en relaciones sociales", in C. Seltiz et alii, *Métodos de investigación en las relaciones sociales*, Rialp, Madrid, 277-344.

Etxebeste, I., 1998, "EHHA-ko soinudun artxiboa: eskatzen duen jokabide etikoa", *Euskera* 43-1, 203-211.

## Landa lanerako metodología

Companys, M., 1956, "Les nouvelles méthodes d'enquête linguistique (I)", *Via Domitia* III, 89-138.

\_\_\_\_\_, 1958, "Les nouvelles méthodes d'enquête linguistique (II)", *Via Domitia* V, 51-167.

Hammarström, G., 1976, "The use of tape recordings in dialectology", *Orbis* 25, 13-19.

King, R. & Ryan, R., 1988, "The Construction of Rural Sociolinguistic Corpus: The Prince Edward Island Study", in A. R. Thomas (arg.), *Methods in Dialectology*, Multilingual Matters LTD, Clevedon, Philadelphia, 95-108.

Linn, M. D., 1983, "Informant selection in Dialectology", *American Speech* 58, 225-243.

Moreno, F., 1990, *Metodología sociolingüística*, Gredos, Madrid.

Rischel, J., 1985, "Fieldwork data as input to instrumental analysis\_ a dilemma", in U. Pieper & G. Stickel, (arg.), *Studia Linguistica Diachronica eta Synchronica. Werner Winter sexagenario*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 709-722.

Thomas, P. W., 1998, "Locating minority language informants: a network approach to fieldwork", in A.R. Thomas

(arg.), *Methods in Dialectology*; Multilingual Matters LTD, Clevedon, Philadelphia, 510-522.

Wölck, W., 1976, "Community profiles: an alternative approach to linguistic informant selection", *International Journal of the Sociology of Language* 9, 43-57.

## Lekuko edo informatzailea

- Barrios, G., 1996, "Marcadores lingüísticos de etnicidad", *International Journal of the Sociology of Language* 117, 81-98.
- Chevillet, F., 1991-3, "La communauté linguistique existe-t-elle?", *Orbis* 36, 5-19.
- Davis, L. M., 1983, "The elicitation of contextual styles in language: a reassessment", *Journal of English Linguistics* 16, 18-26.
- Dorian, N. C., 1982, "Defining the speech community to include its working margins", in S. Romaine (arg.), *Sociolinguistic variation in speech communities*, Arnold, London, 24-33.
- Elizaincín, A., 1979, "Métodos en sociodialectología", *Estudios Filológicos* 14, 45-58.
- Feldstein, S., 1972, "Temporal patterns of dialogue: basic research and reconsiderations", in A. W. Siegman & B. Pope (arg.), *Studies in dyadic communication*, 91-113.
- Giles, H., 1979, "Ethnicity markers in speech", C.U.P., Cambridge, 251-289.
- \_\_\_\_\_, 1980, "Accommodation theory: some new directions", *York Papers in Linguistics* 9, 105-136.
- Gimeno, F., 1987, "A propósito de comunidad de habla: *The social dimension of dialectology* de J. P. Rona", in M. Vaquero (arg.), 1987, *Actas del I Congreso Internacional sobre el Español de América*, Academia Portorriqueña de la Lengua Española, 689-698.
- Grootaers, W. A., 1964, "La discussion autour des frontières dialectales subjectives", *Orbis* 13, 380-398.
- Le Page, R. B. & Tabouret-Keller, A., 1985, *Acts of Identity*, C.U.P., Cambridge.
- Milroy, L. & Margrain, S., 1980, "Vernacular language loyalty and social network", *Language in Society* 9, 43-70.
- Moreno, F., 1986, "Intercorrelaciones lingüísticas en una comunidad rural", *Revista Española de Lingüística Aplicada* 2, 87-107.
- Reed, D. W. & Spicer, J. L., 1952, "Correlation methods of comparing idiolects in a transition area", *Language* 28, 348-359.
- Schouten, M. E. H. & van Reenen, P. Th. (arg.) 1989, *New Methods in Dialectology*, Foris, Dordrecht-Holland/Providence RI – U.S.A.

Thomas, A. R. (arg.), 1988, *Methods in Dialectology*, Multilingual Matters LTD, Clevedon, Philadelphia.

Underwood, G. N., 1988, "Accent and Identity", in Thomas, A. R. (arg.), *Methods in Dialectology*, Multilingual Matters LTD, Clevedon, Philadelphia, 406-427.

## Antropología/Etnografía

Agirre Sorondo, A., 1990, "Identidad y fiestas", *CEEN* 55, 9-14.

\_\_\_\_\_, 1991, "Interpretación de las fiestas: propiciación y protección", *CEEN* 57, 7-28.

Alvar, M., 1955, "El fuego y el léxico con él relacionado en la Navarra Nord-Oriental", in *Miscelánea Filológica dedicada a Monseñor A. Griera*.

Apezetxea Zubiri, P., 1989, "Etxalarko usategiak", *CEEN* 53, 137-177.

Arantzako eskolako haurrak, 2000, *Arantza ezagutzen* (Gorostia izeneko haur taldeak eratu jokoa, autoedizioa).

Arpal, J., 1979, *La sociedad tradicional en el País Vasco*, Haranburu editor, Donostia.

Arrarás, F., 1971, "Danzas de Navarra", *CEEN* 8, 171-220.

Aurrekoetxea, G. & Videgain, X., 1993, "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Galdesorta", *Euskera* 38-3, 529-647.

Azpiazu, J. A., 1973, "Aspectos de la vida en la villa de Lesaca", *PV* 34, 337-361..

Barandiaran, J. M., 1921, "Breves instrucciones prácticas para el investigador folklorista", *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* 1.

\_\_\_\_\_, 1934, "Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular", *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* 14.

\_\_\_\_\_, 1953-57, "Aspectos sociográficos de la población del Pirineo Vasco", *Eusko Jakintza* 7, 3-26.

\_\_\_\_\_, 1961, *El mundo en la mente popular vasca*, Auñamendi, Donostia.

\_\_\_\_\_, 1985, "Guía para una encuesta etnográfica", Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía 3, *Eusko Ikaskuntza*, 229-279.

\_\_\_\_\_, 1987, *De etnografía navarra: modos de vida, casas, ritos funerarios, creencias, mitos, prácticas supersticiosas y brujeriles*, Txertoa, Donostia.

\_\_\_\_\_, 1999, *Etnografía del pueblo vasco. Modos de vida tradicionales*, Etor-Ostoa, Donostia.

- Beattie, J. H. M., 1959, "Understanding and explanation in social anthropology", *British Journal of Sociology* 10, 45-60.
- Caro Baroja, J., 1944, *La vida rural en Vera de Bidasoa*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.
- \_\_\_\_\_, 1946, "Representaciones y nombres de meses", *PV* 25, 629-653.
- \_\_\_\_\_, 1969, "Un estudio de tecnología rural", *CEEN* 2, 215-278.
- \_\_\_\_\_, 1969, "Sobre la casa, su estructura y sus funciones", *CEEN* 1, 7-34.
- \_\_\_\_\_, 1972, *Etnografía histórica de Navarra*, Aranzadi, Iruñea.
- \_\_\_\_\_, 1979, *Cuadernos de campo*, Ediciones Turner, Ministerio de Cultura, Madrid.
- \_\_\_\_\_, 1984 [1958], *Los vascos*, Istmo, Madrid.
- \_\_\_\_\_, 1995, "La casa en Lesaca", *PV* 206 (Homenaje a Julio Caro Baroja), 597-618.
- Donostia, J. A., 1972, "Oraciones, prácticas religiosas y medicinales populares", *CEEN* 10, 5-33.
- \_\_\_\_\_, 1974, "Médicos y medicina popular en el país vasco", *CEEN* 17, 229-243.
- Douglass, W. A., 1975, *Echalar and Murelaga: opportunity and rural depopulation in two Spanish Basque villages*, C. Hurst and Co., Londres.
- \_\_\_\_\_, 1977, "Borderlands influences in a navarrese village [Etxalar]", in Douglass, Etulain & Jakobsen (eds.), *Anglo-american contributions to basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, Reno, 135-144.
- Durand, G., 1982, *Las estructuras antropológicas de lo imaginario*, Taurus, Madrid.
- Duvoisin, J. P., 1858, *Laborantzako liburua*, Klasikoak 3, Kriselu, Donostia, 1986
- Esparza, E., 1972, *Noticia curiosa sobre Olentzero. La comparsa, la escena y la música en la navidad de Lesaca*, Cuadernos de la Cofradía Gastronómica del Pimiento Seco IV.
- Elizagoien, E. & Irisarri, M., 2010, *Etxalarko xoko eta jendeak erretratoetan*. Altxata kultur elkartea, Iruñea.
- Etxezarreta, M., 1977, *El caserío vasco*, Bilbo.
- Fagoaga, J., *Arantza* (argitaratu gabeko tesina)
- Fairén Guillén, V., 1955, "Sobre las ferias internacionales en Navarra", *PV* 16, 507-524.

- Garmendia Larrañaga, J., 1982, "La elaboración de la teja en Lanz", *CEEN* 39, 447-459.
- \_\_\_\_\_, 1983, *Artesanos de la regata del bidasoa: Sumbilla, Aranaz y Yanci, Txertoa*, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1984, *Carnaval en Navarra*, Haranburu editor, Donostia.
- Gómez-Ibáñez, D., 1975, *The Western Pyrenees, differential evolution of the French and Spanish borderlands*, Clarendon, Oxford.
- Goya, A., 1990, "Dantzas navarras", *CEEN* 56, 341-389.
- Hobsbawm, E. & Ranger, T., 1983, *The invention of tradition*, C.U.P., Cambridge.
- Imbuluzqueta, G., 1993, "Cuestaciones infantiles en Todos los Santos y día de Difuntos en Baztán-Bidasoa", *CEEN* 61, 41-46).
- \_\_\_\_\_, 1994, "La celebración del año nuevo en Baztan, Bertizarana, Mallerreka y Cinco Villas", *CEEN* 63.
- \_\_\_\_\_, 1999, "Pashaka, un juego de pelota perdido", *CEEN* 73.
- Iraola, F., 1978, "Cuchareros de la montaña pirenaica de Navarra", *CEEN* 30, 421-434.
- Irujo, K. & Ramos, J., 1993, "Aportaciones al repertorio de juegos rurales de Navarra. Extracto de la diagnosis de folklore realizado por Ortzadar", *CEEN*, 293-308.
- Isazelaia, J., 1997, *Linua, ehuna, artilea*, Bergarako Udala, Bergara.
- Jimeno Jurío, J. M., 1988, *Calendario festivo: invierno*, Panorama 10, Príncipe de Viana, Iruña.
- \_\_\_\_\_, 1990, *Calendario festivo: primavera*, Panorama 15, Príncipe de Viana, Iruña.
- Kalzakorta, J., 1999, "Laratzaren gaineko esaera zahar, igarkizun eta sineskerak", *CEEN* 73, 355-368.
- Olañeta, A. & Urkiola, A., 1998, *Txondorrak, karobiak, elurzuloak*, Bergarako Udala, Bergara.
- Ormaetxea, N. [Orixe], 1976 [1934], *Euskaldunak*, Auñamendi, Donostia.
- Satrustegi, J. M., 1974, *Etnografía navarra. 1. Solsticio de invierno*, Diario de Navarra, Iruña.
- \_\_\_\_\_, 1977, "Medicina popular vasca y ginecología", *CEEN* 27, 331-343.
- \_\_\_\_\_, 1978, "Medicina popular y primera infancia", *CEEN* 30, 381-398.
- Torregrosa, J. R. & Crespo, E. (arg.), 1982, *Estudios básicos de psicología social*, Hora, Bartzelona.

Tuduri, E, 1933, "Cuestionario sobre artes textiles y sus aplicaciones", *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* 13.

Velasco, H., 1981, "Textos sociocéntricos. Los mensajes de identificación y diferenciación entre comunidades rurales", *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* 36, 85-106.

Zudaire, C., 1982, "Consanguinidad en Baztán, Santesteban y Cinco Villas", *CEEN* 40, 723-751.

Zudaire Huarte, E., 1967, "Facerías de la cuenca de Baztán-Bidasoa" *PV* 106-107, 61-96 eta *PV* 108-109, 161-241.

## Ahozkotasuna

Azkue, R. M., 1922, *Cancionero popular vasco*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

\_\_\_\_\_, 1935-1942-1945-1947, *Euskalerriaren Yakintza*, Espasa Calpe, Madrid.

Apalauza, A. & Lakar, M., 2005, *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Nafarroako Gobernua & Malerreka Mankomunitatea, Iruñea.

Azurmendi, M., 1993, *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*, Alberdania, Irun.

Biguri, K., 1990, «Euskal ahozko literatura tradizionalari buruzko ikerketa XX. mendean», *ASJU* 24-1, 63-92.

Bruner, E. (arg.), 1984, *Text, play, and story*, D. C.: American Ethnological Society, Washington.

Cerquand, J. F., 1985, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, Anuntxi Aranaren edizioa, Txertoa, Donostia.

Connerton, P., 1989, *How societies remember*, C.U.P., Cambridge.

Ercoreca, A., 1979, "Laminak (recopilación y leyendas)", *CEEN* 31, 65-124.

Etxebarria, J. M., 1989, «Herri ipuinak», in *Tradizionko ipuingintza*, Labayru, Bilbo, 73-113.

\_\_\_\_\_, 1995, *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*, Labayru, Bilbo.

Fernández, J., 1977, "The performance of ritual metaphors", in J. D. Sapir & C. Crocker (arg.), *The social use of metaphor*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia.

- Garmendia Larrañaga, J., 1995, *Mitos y leyendas de los vascos*, Haranburu editor, Donostia.
- Inza, D., 1974, *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*, Príncipe de Viana, Iruña, 111-117 [Bortzirietako esaerak].
- Irigaray, A., 1962, "Para un diccionario vasco de modismos", *PV* 88-89, 489-494.
- \_\_\_\_\_, 1964, "Modismos del idioma vasco", *PV* 94-95, 127-131.
- Iribarren, J. M., 1943, "La literatura de lo maravilloso", *PV* 10, 99-106.
- Jung, C., 1982, *Psicología y simbólica del arquetipo*, Paidós, Bartcelona.
- Kalzakorta, X., 1989, "Herri ipuinen hasiera eta amaierako formulak", in *Tradiziozko ipuingintza*, Labayru, Bilbo, 11-32.
- Lakar, M. & Ana, T., 2007, *Baztan solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Nafarroako Gobernua & Baztango udala, Iruña.
- Lakarra, J. A., Biguri, K. & Urgell, B., 1984, *Euskal baladak. Antologia eta azterketa*, Hordago, Donostia.
- Larrinaga, L. M., 1989, "Ahozko ipuingintzaren egitura eta baliabideak", in *Tradiziozko ipuingintza*, Labayru, Bilbo, 33-71.
- Lekuona, J. M., 1982, *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia.
- Lévi-Strauss, Cl., 1984, [1962], *El pensamiento salvaje*, Fondo de cultura económica, Méjico.
- Ricoeur, P., 1971, "The model of the next: meaniful action considered as a text", *Social Research* 38-3.
- Samarin, W.J., 1971, "Appropriateness and metaphor in the use of ideophones", *Orbis* 20, 356-369
- Sanlins, M., 1981, *Historical metaphors and mythical realities*, The University of Michigan Press.
- Satrustegi, J. M. 1986, "A propósito del mecanismo de la memoria en las tradiciones populares", *CEEN* 48, 213-229.
- Zavala, A., 1970, *Bidasoa aldeko bost bertsolari*, Auspoa, Tolosa [Axura eta Pedro Maria Etxarte Lasaga bertsolariak].
- Zia taldea, \_\_\_\_ *Berako erranera zaharrak*, Berako Euskara Batzordea.

## Orokorra

Anitzen artean, 1990. *Gran Enciclopedia Navarra*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea.

Elhuyar, *Elhuyar Hiztegia* (2019). Sarean: <<https://hiztegiak.elhuyar.eus>>

Euskaltzaindia, *Hiztegi Batua* (2019). Sarean: <<https://www.euskaltzaindia.eus>>

## Historia

Azpiazu J. J. & Goya, J., 1974, "Historia socio-económica de Vera de Bidasoa en la primera mitad del siglo XVII", *PV* 35, 211-279.

Casas, J. M. & Abascal, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Zaragoza.

De la Torre, J., 1986, "Miseria en la Montaña Navarra: secuelas de la guerra contra la Convención y años de malas cosechas. (1793-1807)", *PV*, 4. eraskina, 331-343.

Elkarren artean, 1995, *Zubieta 1931-1936*, Luma, Donostia.

Esparza, E., 1945, "Sobre la representación, en Lesaca, en 1566, de la Pasión trovada de Diego de San Pedro", *PV* 20, 487-493.

\_\_\_\_\_, 1948, "Pequeña y curiosa historia de dos retablos del siglo XVIII", *PV* 32, 407-409.

Humboldt, G., 1923, "Diario del viaje vasco, 1801", *R/EV* 14, 205-250.

Idoate, F., 1973, *Documentos sobre agotes y afines en Navarra*, Diputación Foral, Iruñea.

Mikelarena Peña, F., 1988, "Demografía y Economía de las Cinco Villas de la montaña navarra en el siglo XVII. El sentido de la crisis", *PV* 183, 127-153.

Minas de Irún y Lesaca S.A., 1901, *Memoria sobre las minas de Irún y Lesaca*, Bilbao.

Zudaire, C., 1987, "Notas para una demografía de Lesaca (s.XVII)" *PV* 181, 409-439.

## Hizkuntzalaritza

Apezetxea, P., "Etxalarko etxe eta baserrien izenak (1625-1983)", *FLV* 45, 183-203.

Arbelaitz, I. et alii, 1989, Bera lurraldeko mapa. Bera udal mugapearen ondare eta leku izenak, Oiartzun Bailarako Izadi Elkartea.

Aranzadi Zientzia Elkartea, 1983-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*, Donostia [Lesakako datuak].

- Bonaparte, L. L., Biblia, A. T. (*Canticum trium puerorum*). *Traduction du Benedicite en basque de Vera, corrigée par le P. Fidèle, capucin.* 57. eskuizkribua, 2 C 6 mikrofilma.
- \_\_\_\_\_, *Doctrina en vascuence, del lugar de Vera*, 28 orrialde, 79. eskuizkribua, 2 C 7 mikrofilma.
- Camino, I., 1998, "Hitzaurrea", in *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, vii-xi.
- Echaide, A. M., 1984, *Erzkizundi Irukoitza*, Iker 3, Euskaltzaindia, Bilbo [Berako datuak; Lesaka eta Etxalarkoak galdurik daude].
- \_\_\_\_\_, 1989, *El Euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia [Lesaka, Arantza, Etxalar eta Berako datuak].
- Esparza, E., 1964, "De toponimia navarra", *PV* 25, 67-125.
- Euskalerria Irratia & Múgica, M., 1990, *Nafarroako euskaldunen mintzoak I*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Euskalerria Irratia, 1994, *Nafarroako euskaldunen mintzoak II*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Euskaltzaindia, 2008, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa*, Bilbo; [Etxalarko datuak].
- \_\_\_\_\_, 1987, *EGLU I*, Bilbo.
- Fernandez, M., 1981, *Las plantas en la medicina popular*, Eusko Ikaskuntza, Iruñea.
- Gaminde, I., 1985, *Aditza ipar goi nafarreraz*, Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea [Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako datuak].
- \_\_\_\_\_, 1985b, "Nor-en ahalezko oraina eta Joan, Ibili eta Egon aditzen alokutiboak (Nafarroan)", *FLV* 46, 215-264.
- \_\_\_\_\_, 1990, "Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoez", *FLV* 56, 165-204.
- \_\_\_\_\_, 1993, "Nafarroako nominalizazioez", *FLV* 62, 75-94.
- \_\_\_\_\_, 1994, "Nafarroako menperagailuez", *FLV* 66, 227-250 [Bera, Etxalar eta Lesakako datuak].
- \_\_\_\_\_, 1996, "Lesakako azentu eta intonazioaz", *FLV* 71, 45-70.
- Holmer, N. M., 1964, *El idioma vasco hablado*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 134-146 [Arantzako testuak].

# BIBLIOGRAFIA

- Hualde, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia [Arantzako datuak].
- Idoate, C. & Villanueva, J., 1981, "Unas ordenanzas de Vera en vascuence", 37, 275-281.
- Iñigo, P., 1981, "Bortzirietako erakusleez", *Euskera* 26, 43-46.
- Irigaray, A., 1972, "Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de San Juan de Luz al de Vera de 1788", 12, 345-351.
- \_\_\_\_\_, 1981, "Berako gizon ospetsuak euskararen inguruan", *Euskera* 26, 47-50.
- Lacoizqueta, J. M., 1888, *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1994.
- Mitxelena, K., 1976, "A note on Old Labourdin accentuation", *ASJU* 6, 110-120 [115-120 bereziki].
- Nafarroako Gobernua, 1997, *Nafarroako toponimia eta mapagintza [NTM] IL, Bortziriak*, Iruña.
- Pagola, R. M., 1984, *Euskalkiz euskalki*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, Nafarroako Gobernua, Iruña [Arantza eta Etxalarko datuak].
- Salaburu, P. & Lakar, M., 2005, *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, Bilbo.
- Sánchez Carrión, J.M., 1972, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*, Príncipe de Viana, Iruña [Bortziriak 108-114].
- Satrustegi, J. M., 1981, "Bidasoaldeko zenbait berezitasun", *Euskera* 26, 35-41.
- \_\_\_\_\_, 1986, "Textos dialectales de documentos dialectales vascos. 1. Lesaca. 2. Zugarramurdi", *FLV* 48, 289-314.
- \_\_\_\_\_, 1997, "Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak", *FLV* 74, 99-126.
- Txillardegi, 1984, *Euskal azentuaz*, Elkar, Donostia [bereziki 342-349].
- Yrizar, P., 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia, 361-485.
- Zuazo, K., 1998, "Euskalkiak. Gaur", *FLV* 78, 191-233.



